

Generoa Garapenerako Hezkuntzan

# Begirada irekiz

Kulturartekotasuna

Herri indigenak

Elikadura-burujabetza

Bakerako hezkuntza



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
INSTITUTO EUSKALARRA EN GARAPENAREN GAZTASUNAREN INSTITUTUA



Generoa Garapenerako Hezkuntzan

# Begirada irekiz

Kulturartekotasuna

Herri indigenak

Elikadura-burujabetza

Bakerako hezkuntza

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-laguntzari esker egin da. Argitalpenaren edukia HEGOAREN eta ACSUR-Las Segovias erakundearen erantzukizuna da, eta ez du zertan islatu Eusko Jaurlaritzaren eta AECIDen iritzia.

Argitaratzaileak:



[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

UPV/EHU  
Edificio Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre etorbidea, 81 • 48015 Bilbao  
Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

UPV/EHU  
Villa Soroa  
Ategorrieta, 22 • 20013 Donostia-San Sebastián  
Tel.: 943 01 74 64

UPV/EHU  
Arabako Campus-eko Liburutegia, 138 kutzatila  
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel. • Faxe: 945 01 42 87  
[hegoagasteiz@ehu.es](mailto:hegoagasteiz@ehu.es)



**ACSUR**  
LAS SEGOVIAS

Cedaceros 9, 3<sup>a</sup> izda • 28014 Madrid  
Tel.: 91 429 16 61 • Faxe: 91 429 15 93  
[acsur@acsur.org](mailto:acsur@acsur.org)  
[www.acsur.org](http://www.acsur.org)

Proiektu hau kofinantzatu duten erakundeak:



DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES  
Visoconsejería de Asuntos Sociales  
Dirección de Cooperación al Desarrollo



MINISTERIO DE ASUNTOS EXTERIORES Y DE COOPERACION



Urria 2010  
Azaleko argazkia: *Sin maíz no hay país*. Elizabeth Ross  
Euskarazko itzulpena: Labayru Institutua  
Inprimaketa: Lankopi, S.A.  
Diseinua eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios, S.L.  
Lege zenbakia: Bi-2572-2010  
ISBN: 978-84-89916-40-1



**Aitortu-Ez komertziala-Lan Eratorririk Gabe 2.5 Generikoa Espainia**

Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar ituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/>

# Aurkibidea

<b>Aurkezpena</b>	7
<b>Generoaren eta kulturartekotasunaren ikuspegia Garapenerako Hezkuntzan</b>	11
1. Sarrera	11
2. Oinarrizko kontzeptuak	13
2.1. Zer da gure ustez genero-ikuspegia? Generoa ikusteko eta aztertzeko proposamen bat	13
2.2. Zer da patriarkatua, eta zein ondorio ditu gizonentzat eta emakumeentzat? Gizartearen aginduak	15
2.3. Nola ikasten dugu gizonak eta emakumeak izaten? Aginduak barneratzeko prozesua	18
2.4. Nola egituratu genero-ikuspegia kulturartekotasunaren barruan?	22
3. Jarduteko ildo estrategikoak	25
4. Baliabide gida	28
5. Bibliografia	33
<b>Genero zuzentasuna eta herri indigenak Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegitik</b>	35
1. Sarrera	35
1.1. Herri indigenak	35
1.2. Genero-desberdintasunak herri indigenetan	38
1.3. Emakume indigenen mugimendua	41
2. Oinarrizko kontzeptuak	43
2.1. Nortasuna	43

2.2. Kultura-arloko erlatibismoa eta arrazionalismoa	43
2.3. Mundu-ikuskerak	44
2.4. Dualtasuna - Osagarritasuna	44
2.5. Arrazakeria	46
2.6. Matxismoa	47
2.7. Genero-ikuspegia eta genero-zuzentasuna	47
3. Eztabaida nagusiak	48
3.1. Nortasuna, etnia eta generoa	48
3.2. Feministotik feminismoetara: aniztasuna ikusgai jartzen	49
3.3. Emakumeen mugimendua eta/edo mugimendu feminista	51
3.4. Etnozentrismo feminista vs bidezko unibertsaltasuna	54
3.5. Genero-zuzentasunaren aurrean dauden erresistentzia nagusiak	56
3.6. Esentzialismo etnikoa	58
3.7. Arrazakeria eta pobrezia	59
4. Jardurteko ildo estrategikoak	60
5. Baliabide gida	65
6. Bibliografia	68
<b>Genero-ikuspegiko elikadura-burujabetza Garapenerako Hezkuntzan</b>	71
1. Sarrera	71
2. Oinarritzko kontzeptuak	78
2.1. Giza Garapen Iraunkorra	78
2.2. "Dumping"	80
2.3. Elikadura-burujabetza	80
2.4. Elikagai-segurtasuna	81
2.5. Elikadura-burujabetzaren eta elikagai-segurtasunaren arteko aldeak	82
2.6. Txirotasunaren feminizazioa	82
2.7. Boteretzea	83
3. Jarduera-ildo estrategikoak	84
3.1. Martxan jarritako ekimenak	89
4. Ondorioak	90
5. Baliabide-gida	91
6. Bibliografia	93

<b>Beti oldarkor! Bakean hezi feminismitik</b>	95
1. Sarrera	95
1.1. Bake hezkuntzaren aurrekariak eta lege garapena	96
1.2. Kate maila galdua: bake hezkuntzaren eta bake-ekintzen erro feministak	99
2. Oinarrizko kontzeptuak: Ikerketaren eta Bake hezkuntzaren oinarrizko zenbait kontzepturen berrikusketa feminista	103
2.1. Bake negatibotik bake positibora	103
2.2. Indarkeriaren triangelua	104
2.3. Gatazka, aukera moduan	105
2.4. Zedarri feministak eta teiltatu bakezaleari jaurtitako harri moreak	106
3. Jarduera lerro estrategikoak	111
3.1. Bake hezkuntzaren ikuspegiak eta edukiak	111
3.2. Bake hezkuntza baterako proposamen feministak	115
4. Baliabide gida	127
5. Bibliografia	134





## Aurkezpena

Aurkezpen honen bitartez, Bilbon eta Madrilen Generoa Garapenerako Hezkuntzan gaiari buruz egindako ikastaroen emaitzak eman nahi dira. Garapenerako Hezkuntzan diharduten GGKEetan kontzientzia kritiko feminista sortzeaz gainera, ikuspuntu feminista erakundeok azken garaiotan lantzen ari diren gai ezberdinekin lotzeko asmoa genuen. Intereseko lau gai jorratu genituen, bereziki: Kulturartekotasuna, Herri indigenak, Elikadura-burujabetza eta Bakerako hezkuntza.

Azken helburua da gaur egun GGKEetan, hezkuntza komunitatean, mugimendu sozialetan eta bestelako kooperazio-eragileetan zenbait gaiari buruz egiten diren eztabaidetan, gizonen eta emakumeen eragin ezberdina kontuan hartzea eta genero ikuspegia txertatzeak duen garrantzia azpimarratzea; bestela, eztabaidok alderdikoiak eta osatugabeak izaten jarraituko dute. Garapenerako Hezkuntzatik, uste dugu gai horiek genero desberdintasunaren ikuspuntutik jorratu behar direla; hala, egun gailentzen den sistema patriarkala eta heteronormatiboaren aldaketa sustatu beharra dago, bai eta herritar kritikoekin koherenteak diren proposamen politikoak planteatu ere.

HEGOA eta ACSUR-Las Segovias erakundeetatik, uste dugu Garapenerako Hezkuntzak gizartea bera aldatu behar duela, eta, beraz, azterketa eta eztabaida feminista berreskuratzea behar du. Hartara, oinarri teorikoa planteatuko da, proposamen feministen hezkuntza prozesu holistiko eta ez deslotu konplexuagorako. Feminismoak bere teoriaren eta praktika politikoaren ekarpena egiten dio GHri, generoaren neutraltasuna kolokan jarritz, hausnarketa kritikoa eginez hierarkia patriarkalaren aurrean, eta balio sexista eta androzentrikoak aldatzeko proposamenak eginez. Arrazoibide horrek krisian jartzen du gizonen eta emakumezkoen botere-harremanak kolokan jartzen ez dituen eta harreman mota horiek suntsitzen laguntzen ez duen Garapenerako Hezkuntza.

Kulturartekotasunari, Herri indigenei, Elikadura-burujabetzari eta Bakerako hezkuntzari buruzko proposamenek kutsu politiko eta burujabe handia daukate, eta ezinbestekoak dira bai Iparraldean nahiz Hegoaldean, aldarrikapen globala diren aldetik. Horiek guztiek gailentzen ari den globalizazio prozesu tradizionalaren estrategia alternatiboak eta eraldatzaileak berriz planteatzea dakarte, eta, halaber, egin daitezkeen aldaketak gauzatzeko dituzte, sentsibilizazio, ikerketa, eragin politiko eta mobilizazio sozialaren bitar-

tez. Eta, horregatik, bada, Bakerako hezkuntza kritiko baten eraketarekin lotzen da zuzen-zuzenean.

**Kulturartekotasunak** eskatzen duena da gero eta pluralagoak diren gizarte espazio berberetan bizi diren talde kultural ezberdinen arteko harremanak menderatzekoak eta hierarkikoak ez izatea. Era berean, kulturen arteko elkarrizketa eta aniztasuna behar bezala jorratzea desiragarritzat jotzen du. Baina arduratzen eta kezkatzen gaituen gaia da nola antolatu ikuspegi hori, bai eta ikuspegi eta ekarpen feministena ere. Generoa egituraketa sozial baten faktoretzat jotzen dugu, eta, horrenbestez, emakumea edo gizona, homosexuala, heterosexuala, trans eta abar izateak jatorri kultural ezberdina daukaten pertsonen banatzen duten espazioan ezberdindutako jarrera eta rol ezberdinak eragiten ditu, eta, horregatik, bada, genero ikuspegiak Garapenerako Hezkuntzaren eduki eta metodologietan egon behar du. Gisa horretan, Kulturarteko hezkuntzak (erlatibismo kulturaletik eta etnozentrismotik aldetzen dena), analisi androzentrikoaz gainera, kolokan jarriko luke gizonaren arauzko funtzioa, neurri eta gauzen erdigune gisa.

**Mugimendu indigenaren** aldarrikapenek indarrez azaldu dira berriro azken hamarkadetan, eta bere planteamenduek estrategia berriak ekarri dituzte lankidetzaren eta Garapenerako Hezkuntzaren esparruan. Aldarrikapen horiek loturik daude herri bezala dituzten eskubideen aintzatespenarekin, ezberdin izatearekin, eta horrela aintzatesirik daude, euren eskubide politiko, sozial, ekonomiko eta kulturak garatu ahal izateko. Eskubide horiei muzin egin gabe, nahitaezkoa da genero azterketa egitea, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak iraunarazten eta ugaltzen dituen identitate kulturala ez defendatzeko. Aldi berean, batetik, emakume indigenen mugimenduak agerikoago bihurtzea lortu du nazioartean, eta, hala, euren kulturen eta praktiken gainean teorizatu du. Beste alde batetik, mugimendu feminista horien eskaerak eta interesak aintzat hartzen hasi da. Zentzu horretan, Garapenerako Hezkuntzaren edozein estrategiak eta jarduerak kontuan hartu behar ditu emakume indigenek dituzten eskubideekiko jarrera, salaketa eta defentsa, bai eta herri indigenen genero berdintasunaren aldeko borroka ere.

**Elikadura-burujabetzak** defendatzen duenez, ekoizle txikiek eta landa-komunitateek nekazaritzako elikagaien politikak definitzeko eskubidea eta nekazaritza-ekoizpena eta merkaturia babesteko eskubidea daukate. Ikuspegi hori ez dator bat gaur egun indarrean dagoen merkatu librearen ikuskerarekin, batez ere, nekazariak mehatxatzen dituzten politika makroekonomiko neoliberalarekin, garapenerako aukera gisa. Halarik ere, kontuan hartu beharra dago gizonetzkoek eta emakumezkoek ez dutela nekazaritza modu bertsuan ikusten, batetik, genero desberdintasunen ondorioz, eta, bestetik, emakumeei ez zaizkela aitortzen eskubide ekonomikorik. Garapenerako Hezkuntzaren erronka da aurreiritzi sexista horiek desagerraraztea, ideologikoki patriarkala den produkzio eta ustiapen eredu baten logikekin. Izan ere, genero berdintasuna aldarrikatu nahi dugu nekazaritzarekin eta elikadurarekin erlazioatutako planteamenduetan, bai eta elikadura subiranotasunaren alde borrokatzen duten erakundeen barruan ere.

**Bakerako hezkuntza** hezkuntza prozesu gisa definitzen da. Bere helburua da bake kultura garatzea, bake positiboan eta gatazkaren indarkeriarik gabeko ikuspegi batean oinarritzen dena. Gisa horretan, bakeak, gudarik ez egoteaz gainera, edozein indarkeria mota

ez egotea eskatzen du; emakumeenganako indarkeria kasu, gizarte guztietako sistema patriarkal berak sortutakoa. Auzi hori feminismoaren eta giza eskubideen ikuspuntutik garatu beharreko alderdia da. Gainera, indarkeria era askotakoa izan daiteke, eta eragin ezberdina dauka emakume eta gizonengan. Proposatzen dugun Bakerako hezkuntzaren proposamena hertsiki loturik dago teoria eta praktika feministarekin, bai Iparraldean zein Hegoaldean. Gisa horretan, emakumeek genero ikuspegia aintzat hartzen duen bakea eraikitzeko egindako azterketa nagusiak, hausnarketa feministak eta erakundeen esperientziak baliatu behar dira.

Espero dugu argitalpen honek GGKEei genero zeharkakotasuna lortzeko lanabesa eskaintzea; zehazki, Garapenerako Hezkuntzako jardueretan ikuspegi feminista barne hartzea lor dezaketen prozedurak ezartzea. Azkenik, aukera hau aprobetxatu nahi dugu lan honen kapituluak egin dituztenei gure eskerrik beroenak emateko: M<sup>a</sup> Ángeles Rebollo, Jesus González, María Viadero, Dominique Saillard eta Chipko elkarteak. Zinez eskertzen diegu euren ahalegin eta arreta guztia kapituluok idaztean; era berean, Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzazuzendaritzari eta Garapenerako Nazioarteko Kooperazio Agentzia Espainiarrari ere, **“Generoa Garapenerako Hezkuntzan: Iparraldea-Hegoaldea eztabaidagaiak, emakumezkoen agenda politikorako. II. fasea”** izeneko lanean eskainitako laguntzagatik.

HEGOA  
ACSUR-LAS SEGOVIAS



# Generoaren eta kulturartekotasunaren ikuspegia Garapenerako Hezkuntzan

---

*M<sup>a</sup> Ángeles Rebollo*

## 1. Sarrera

Kapitulu hau egiteko arduraren eman zidatenean, lehenik eta behin, neure buruari galdetu nion ea zer dela-eta lotu behar zen genero-ikuspegia eta kulturartekotasuna Garapenerako Hezkuntzan, eta ea nola antolatu ahal ziren bi ikuspegi horiek. Azken batean, kontua da ea zein ekarpen egiten dioten feminismoak eta genero-ikuspegiak kulturartekotasunari.

Nire ustez, senidetze horren arrazoa da kulturartekotasunak eta genero-ikuspegiak ikuspegi sozial berbera dutela munduari buruz eta, orobat, helburu berberak dituztela. Biak ala biak erabat bateraezinak dira menderakuntzaren logikarekin, alegia, herrien eta pertsonen arteko harremanen eredu gisa menderakuntza erabiltzearekin. Bi begiradek antzeko jarraira hartzen dute gizarteratzeko eta gizartetik baztertzeko dinamiketan, jendaurrean salatzen dituzte logika horiek, eta gizartea eraldatzeko guneak eta tresnak bultzatzen dituzte.

Kulturartekotasunak haxe lortu nahi du: batzuk besteen gainetik gailendu gabe, gizarte-ko gune berean batera bizi diren kultura-talde desberdinen arteko harremanei buruzko jarrera bat hartzea. Feminismoak hasieratik salatu izan du, sexua dela-eta, talde batek jasan izan duen bereizkeria eta desberdintasuna, ondasunen eta baliabideen kontrola eta haietarako sarbidea lortzeko (besteak beste, bozkatzeko, hezkuntza jasotzeko, ordaindu-tako soldata izateko eta lan-baldintza duinak izateko eskubidea). Genero-ikuspegiak eta kulturartekotasunak helburu berbera dute, biek ala biek jarri nahi baitituzte ikusgai, sexua, etnia, kultura, sexu-joera edo beste arrazoiren bat dela-eta, tradizioz era sistematikoa baztertuta eta kanpoan utzita egon diren taldeak, herriak eta pertsonak; eta, orobat, talde, herri eta pertsona horiek aintzatetsi nahi baitituzte eta bidea eman nahi baitie- te gizartean parte har dezaten.

Alabaina, kulturartekotasunaren ondorioz, kulturari garrantzia kentzen dioten jarreretara iritsi ahal da, hau da, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunean oinarrituta dau-

den kulturak eta kulturako jarduerak onartzera eta errespetatzera. Rosa Cobok adierazi duenari jarraiki (2006, 16), kulturartekotasunaren abiaburua honako uste hau da: arau aldetik, guztiz desiragarria da kulturaz gaindiko elkarrizketa lortzea, eta, elkarrizketa horretatik, konplexuak diren baina gizarteko elkar bizitzan bereizkeria sorrarazten ez duten formak atera behar dira; izan ere, kulturen arteko begirunezko harreman baten alde egin behar da, eta oroz gain nabarmendu behar da kultura horiek duten izaera dinamikoa eta bilakaerazkoa. Alabaina, ikuspegi horrek bi alderdi ahul ditu feminismoaren ikuspuntutik. Feminismoaren ikuspegitik, ez dugu begiramen berbera izan behar kultura guztiekin; izan ere, begiramen gehiago izan behar dugu giza eskubideak errespetatzen eta berdintasuna bultzatzen duten kulturekin, horrela jokatzeko ez duten horiekin baino. Bigarren puntuak kultura-erkidegoak sakratu bihurtzeko joerarekin du zerikusia; hori kulturen artean izan behar den begirunezko harremanaren ondorioa da. Sarritan, oinarri horretatik abiatuta, ahazten dugu kultura guztiak desberdinak direla, hau da, gizarteko talde eta elkarte desberdinek osatzen dituztela kultura horiek. Kultura ez da era bereko osotasun homogeen bat; aitzitik, gizarte-egituren gainean eraikita dago, eta egitura horietan generoa, baliabideak edo jatorria dira, besteak beste, desberdintasuna eta bereizkuntza sortzen dituzten aldagaietako batzuk.

Generoa gizartea egituratzen duen eragile bat da, hala kulturaz haraindikoa nola kulturen barnekoa (Colás, 2006, 26); hala, bada, kulturaz haraindiko eta kulturen barneko taldeak eratzen ditu. Emakumea edo gizona izateak edota heterosexuala edo homosexuala izateak hainbat ondorio ekartzen ditu, jarrera eta eginkizun desberdinak bete behar baitira kultura-gunean. Hargatik, genero-ikuspegia ezin da mugatu kultura baten barnealdea aztertzeraz, ez eta kulturez haraindiko edota kulturen arteko azterketa egitera ere, gizartea egituratzen duen eragileetako bat baita.

Azken batean, kulturartekotasunari buruzko genero-ikuspegiaren oinarria giza eskubideen onarpena eta errespetua da, eskubide horiek balio unibertsalak baitira pertsona guztientzat, haien sexua, sexu-orientabidea eta etnia edozein delarik ere (Lagarde, 1996). Horrek ondorioak ditu kultura arteko eta kulturaz gaindiko alderdian jarrera bat hartzean edo ekintzak egitean. Alde batetik, alde batera uzten dira eta salatu egiten dira, kultura-arloko desberdintasuna oinarritzat harturik, gizarteko bereizkeriak bultzatzen dituzten jarduteak eta diskurtsoak (ablazioa, saria eta abar). Dena ezin da egin. Bestetik, onartzen da erkidego, herri eta kultura desberdinetako pertsonen arteko elkartasuna estrategia egokia dela bereizkeriazko jarduteak zigorrik gabe gera ez daitezen.

Generoak kultura aniztasunean duen garrantziaz egin zuten azterketa batean, Kincheloek eta Steinbergekin generoaren kultura arteko ezaugarriak laburtu zituzten (1999: 173-207):

- a. Kultura guztiek leku eta jarrera apalagoa ematen diote emakumeari gizonari baino.
- b. Balio patriarkalek zuzentzen dituzte gizarteko jarduteak, eta balio patriarkalen xedea, azken batean, hau da: gizartearen antolamenduak bere horretan iraun dezan.
- c. Esperientzien, emozioen eta praktikaren ezagutza era sistematikoan baztertzen eta alboratzen da, ezagutza zientifikoaren molde bat ez balitz bezala; era horretan, errealitatea ikusteko eta eraikitzeko dauden beste modu batzuk ikusezin

bilakatu nahi dira, nahiz eta modu horiek arrazionaltasun abstraktua bezain baliagarriak izan.

Azken batean, azterketa honek agerian utzi nahi ditu zapalkuntzan-menderakuntzan oinarrituta dagoen kultura-oinordetza eta gizartearen antolamendua. Feminismoak eragina izan nahi du eredu hori baldintzatzen duten faktore eta eragileengan.

Hezkuntzak, eta, are gehiago, eskolatzeko prozesuak, funtsezko zeregina betetzen dute horretan, aukera ematen baitute gizonak eta emakumeek kultura berriz bereganatzen, hausnarketa eginez, jakitun izanik eta autonomiaz. Hala, beraz, ez da kultura transmititzeko eta berregiteko bide bat bakarrik; horrez gain, aukera egokia da gizartea eraldatzeko, tresnak eta baliabideak ematen baitizkie pertsonari, beren errealitatea beste ikuspegi batzuetatik ikus eta hausnar dezaten, eta beren nortasuna eta bizimodua erakitzeke esperientzia eta eredu berriak izan ditzaten. 2003. urtean Bakearen Nobel Saria eskuratu zuen Shirin Ebadi (2009) adierazten duenez, emakume bakoitzak nahitaez ezagutu eta onartu behar du bere kultura, kultura hori transmititzen ez parte hartzeko eta hari aurre egin ahal izateko.

## 2. Oinarriko kontzeptuak


### 2.1. Zer da gure ustez genero-ikuspegia?

#### Generoa ikusteko eta aztertzeke proposamen bat

Nahiko nuke feminismoaz eta genero-ikuspegiak hausnartu, munduari begiratzeko molde berri bat izango balitz bezala, ekintza eta borondate bat sorrarazten dituen molde baten modura, munduari begiratzeko betaurreko berri horiek janztera eta munduaren aurrean jarrera bat hartzera bultzatzen gaituen molde bat balitz bezala. Horretarako, jakina, nolahalako prozesua behar da atzerriratzeko eta kokapenetik ateratzeko. Gauzei modu berean ez begiratzek harridura eragiten digu, eta, batzuetan, ondoeza ere bai. Nik uste dut horixe bera gertatzen dela jantzi bat jantzen dugunean eta horretara ohituta ez gaudenean. Jantzi hori ez da jantzeko era bat bakarrik, munduan egoteko eta munduarekin harremanetan egoteko era bat ere bada.

Nolakoak dira munduari begiratzeko betaurreko berri horiek? Bat egiten dut Westek eta Zimmermanek (1987) eta beste egile batzuek (Crawford eta Chaffin, 1997; Cala eta De la Mata, 2006) duten ikuspegiarekin, aditzera ematen dutenean, generoari buruz hitz egin beharrean, “doing gender” delakoari buruz mintzatu beharko genukeela. Izan ere, generoa ez da gizabanakoaren jabetza, baizik eta gizakiok egiten dugun zerbait. Hala, beraz, generoari buruz hitz egiten dugunean, boterearen eta baliabideen sarbidea eta kontrola gidatzen duen eta elkarreraginak antolatzen dituen esanahien sistemari buruz ari gara hitz egiten. Ikuspegi horri jarraiki, arreta gehiago jarriko dugu ekintzetan, gizartearen antolakuntzari eusten eta zentzua ematen dioten ekintzetan, pertsonengan baino.

Ikuskera horrekin bat eginez, Crawfordek (2006) proposamen bat prestatu zuen generoko sistema hiru mailetatik edo ikuspegitatik aztertzeke (ikus 1. irudia).



Iturria: Bertan eginda.

Arlo soziokulturaletik aztertuta, generoa gizartearen antolatze sistema bat da, botere eta abantaila gehiago ematen die gizonei, eta gizartearen egitura hori legezkotzat jotzen duten eta horri eusten dioten sinesmenen multzo batean oinarritzen da. Eredu horrek baliabideak eta boterea eskuratzeko modua egituratzen du. Herrialde bateko balioek, ohiturek, usadioek, estereotipoek eta legeek bideratzen dute gizartearen antolatze ereduak.

Harreman aldetik, generoa eguneroko bizitzako egoeretan emakumea edo gizona izateak esan nahi duena irudikatzen duen prozesu dinamiko bat da, eta hori ageri-agerian dugu gizonak eta emakumeak zein modu desberdinean jokatu behar duten ikusita, eta eguneroko elkarreraginetan zein modu desberdinean tratatu behar ditugun aintzat hartuta. Hargatik, generoko ideologiak abiaburutzat hartuta, pertsonak eratzten dituzten harremanak ere generoa dira. Baliagarria da ondo ulertzea eta jakitea harreman horiek nola sortzen diren, gizarteak nola jotzen dituen legezkotzat, eta sinbolikoki nola erakitzen diren. Diskurtsoak, jarduteak eta genero-aldeko rolerak gizarteratzeko prozesuei eusten diete; eta horietatik dira, izan ere, generoko harremanak eta ereduak eratzeko erabiltzen ditugun baliabideak.

Gizabanakoari dagokionez, generoa nortasunaren eta jarrera pertsonalen alderdi bat da. Era berean, generoak irudikatzen du kultura zehatz batean gizon maskulinoa edo emakume femeninoa izateak esan nahi duenaren eta gutxi gorabehera onargarriak diren ereduak loturik dauden itxaropenen, interesen, fantasien eta sinesmenen multzoa. Generoaren irudikapen subjektibo hori (autokontzeptua eta autoestimua) ez da izaten nahita eta jakinaren gainean egonda hartutako erabaki bat; aitzitik, praktikan, gizarteak egiten dituen presioei modu gutxi gorabehera automatikoki emandako erantzuna izaten da.




Maila horiek guztiak zeharkatzen dituen genero sistemaren alderdi garrantzitsu bat da gizarte-eredua eta harremanen sistema definitzen dituen balio gisa duen boterea. Horrek esan nahi du, kultura desberdinetan generoa modu desberdinean adierazten den arren, eta denboraren eta espazioaren arabera emakumeen menderakuntza-maila aldatzen den arren, hala ere, ezagutzen ditugun kulturetan emakumeek ez dutela inoiz gizonek baino abantaila sozial eta politiko gehiago izan. Botere aldetik dagoen desoreka horren adibide bat argi eta garbi azaltzen zaigu nesken eta emakumeen aurkako indarkeriaren indize garaiak ikusita (sexu-abusua, bahiketak eta bortxaketak, tratu txarrak eta genero indarkeria, sexu-jazarpena, eta abar).

## 2.2. Zer da patriarkatua, eta zein ondorio ditu gizonentzat eta emakumeentzat?

### Gizartearen aginduak

Patriarkatua gizarte-ordena bat da, eta sexua ezartzen du marka gisa, pertsona bakoitzari jarduera, zeregin, harreman eta botere zehatz batzuk esleitzeko. Botereen, hierarkien eta balioen sare egituratu horrek maskulinitasunaren eta feminitasunaren eredu jakin batzuk proposatzen ditu, unibertsal, dikotomiko eta elkarren arteko aurkari gisa. Emakumeek, berez, bizitza pribaturako, amatasunerako eta familia zaintzeko gaitasuna dutela jotzen da; gizonek, berriz, berez, aginpidea, gobernua eta handinahia izateko gaitasuna dutela jotzen da. Bosch, Ferrer eta Alzadorari jarraiki (2006), patriarkatua ez da bakarrik gizonei botere eta abantaila gehiago ematen dizkien gizarte-antolakuntzako sistema bat; horrez gain, ideologia bat ere bada, hau da, boterearen egoera hori legezkatzat jotzen duen eta horri eusten dion sinesmenen multzoa da. Ideologia horrek oinarritzko bi sinesmen hauek ditu oinarrian: a) Bizitzaren arlo guztietan gizonek emakumeen gainetik duten boterea eta aginpidea legezkatzat jotzen duen sinesmena –arloan pribatuan ere bai, hau da, ezkontzan edo bikotekidearekin–; eta b) Ideia edo sinesmen horiek hausten dituzten emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen duen sinesmena edo jarrera, uste baitute emakume horiek gizartea antolatzeko eredu horren aurkako eraso direla.

Gizon maskulinoa eta emakume feminoia izatea zer den zehazten duten eredu arautzaile horiek gizartean zabal onartuta dauden erreferentzia-esparruak dira, eta azkar ikasten dira gizarteratzeko prozesuan barrena. Gizartearen aginduak balira bezala gizonarengan eta emakumearengan erortzen diren sinesmen horiek desegitea da feminismoak dituen lehentasunezko helburuetako bat. Baina ikus dezagun zein diren agindu horiek, eta zein eragin duten gizonen eta emakumeen nortasunak eta esperientziak eraikitzeko prozesuan (ikusi 2. irudia).



Iturria: Bertan eginda.

Emakumeari buruzko ideial patriarkalaren oinarrian emakumeak buru-belarri aritzeko eta besteak zaintzeko duen gaitasuna dago. Lagardek (2000) dioenez, emakumeek, beste batzuentzako-izaki gisa eratura gaudenez, besteengan uzten dugu autoestimua, eta, neurri txikiagoan, baita gure gaitasunak ere, eta hori guztia agindu horiek barneratzearen ondorioa da. Horrek esan nahi du eredu femenino hori balioespen pertsonalerako irizpidea dela, eta itxaropenak eta desirak, aintzatespena eta gizartearen onarpenean eratzeko dituela. Emakumea osatu gabe dagoen izaki gisa hartzen duen ikuskera horren ondorioz, hauek dira feminotasunak dituen nahitaezko agindu eta sinesmen nagusietako batzuk:

- Emakumea besteen ongizatearen zaintzailea eta erantzulea da. Emakumearen balioa da besteei zerbitzatzeko eta buru-belarri aritzeko duen gaitasuna. Emakumeen bizitzaren ardatza beste pertsona batzuk zaintzea eta haien gaineko ardura izatea da.
- Emakumeak, berez, halako jarrera bat du alde aurretik maitasunerako. Horren oinarrian dagoen ideia da emakumeek bakarrik lortzen dutela izaki osoak izatea beste baten jabetza direnean.
- Amatasuna emakumearen nortasunaren betebeharreko agindua da. Emakumea izaki heldutzat hartzeko ideia amatasunari loturik dago. Emakumea zoriontsua da eta pozik sentitzen da bere buruaz ama denean.
- Emakumeak ederra eta desiragarria izan behar du. Edertasunaren bidez, ikusgai gaude eta gizarteak onartzen gaitu; eta bestearen begiradaren eta balorazioaren mende gaudenez, objektu bilakatzen gara.

Emakumearengan desiragarria denari buruz gizarreak egiten dituen presio eta dituen itxaropen horien ondorioz, maiz, emakumearen bizitzaren ardatza besteak izaten dira etengabe (gurasoak, seme-alabak, ezkontidea, etab.), eta, hala, emakumeak alde batera uzten ditu, bigarren mailan, bere desirak eta bere burua gauzatzeko asmoa. Ildo horretan, feminismoari jarraiki, emakumeak besteei ematen dien lehenengo ezetza bere buruari ematen dion lehen baietza da (Lagarde, 2000; Freixas, 2001). Eredu horiek aldatu ahal izateko, ezinbestekoa da bakardadea bilatzea, gogoeta egiteko, zalantza egiteko, atsedean hartzeko eta, azken batean, nork bere burua ikusteko eta zaintzeko gune pribatu gisa. Norberaren gela, hau da, norberak izateko (zaletasunak, gustuak eta abar bertan izateko) duen gunea bilatzea, nolabait ere, agindu horiei aurre egiteko modu bat da, eta, ikuspegi horri jarraiki, feminismoaren jardueraren ildo estrategikoetako bat autonomia femeninoa bultzatzea da.

Bestetik, patriarkatuaren subjektibotasun maskulinoaren oinarrian dagoen gizonaren ereduari jarraiki, gizona izaki arrazoiduna, kontrolatzailea eta hornitzailea da; hori argi ikus dezakegu nahitaez bete beharreko agindu gisakoak diren maskulinitasunari buruzko sinesmenen multzoan:

- Gizona izateko, ez da eduki behar kulturak emakumeei esleitzen dizkien ezaugarrietatik bat ere, hau da, emakumeak beheko mailan bizitzera bultzatzen dituzten ezaugarri horietarik bat ere (besteentzat bizitzea, ahula izatea, emozioak azaltzea, besteak zaintzeaz arduratzea...).
- Gizonezkoa izateko oinarriak boterea eta indarra dira, eta gizontasuna neurtzeko alderdi hauek hartzen dira aintzat: arrakasta, gainerako pertsonetikiko nagusitasuna, lehiakortasuna, estatusa, hornitzailea izateko gaitasuna, arrazoiduna izatea, eta gainerakoengandik lortzen den miresmena.
- Oldarkortasunaren eta ausardiaren mende dago gizontasuna, eta bereizgarri hauek baliatzen ditu aditzera emateko: indarra, adorea, arriskuei aurre egitea, bere burua babesteko trebetasuna, eta indarkeria erabiltzea gatazkak konpontzeko.
- Gizontasunaren oinarriak hauek dira: lasai eta bare egoteko gaitasuna izatea, nork bere buruarengan konfiantza izatea eta laguntzarik behar ez izatea, emozioak ezkutatzea, eta besteak jasateko prest egotea. Gizontasunak, indarrari loturik egoteaz gain, nork bere buruarengan segurtasun eta konfiantza handia izatea eskatzen du. Gizonak ezin du beldurrik sentitu, eta beldur bada, itxurak egin beharko ditu nabarmendu ez dadin.
- Izan ere, gizontasunaren oinarria da nork bere burua zalantzan ez jartzea, ezta taldeko arauak eta idealak ere.

Emakumeen gainean aginpidea/nagusitasuna izateko mandatuaren ondorioz, gizonak “dagokion eran jokatu” behar du, “egoki jardun” behar du, leku eta une guzietan. Agindu hori betetzeko beharra etengabeko mehatxua da, gizontasuna ez baitago soilik gizonak egiten duenaren mende. Horrez gain, eta gehienbat, emakumeak argi onartu behar du bera beheko mailan dagoela. Horren ondorioz, emakumeak etengabe daude kontrolpean, batetik, dagokien tokia bete dezaten, eta, bestetik, gizonak goragoko mailan daudela sinesten jarrai dezaten. Emakumearen autonomia eta boteretzea gizonen nortasunari egindako eraso edo arrisku gisa ikusten da, horren ondorioz gizonaren autoestimua kal-

tetu ahal baita. Hainbat egilek azaldu dutenez, horrelako aginduak (laguntzarik behar ez izatea eta bere horretan lasai irauteko gaitasuna izatea) barneratzearen ondorioz, gizonak joera izaten du bere emozioak ezkutatzeko eta bere mina “maskararen atzean” gordetzeko. Gainera, joera horrek, norberaren sentimenduekiko itsumena eta gorrieria sorrarazteaz, gain, ezintasuna sortzen du elkarriketan aritzeko eta enpatia gabezia ere bai (Linch eta Kilmarin, 1999; Bonino, 2000; 2003).

Gizontasunari dagokionez gizartean dauden agindu horiek direla-eta, gizonen hezkuntzak berebiziko garrantzia du berdintasunari begira, eta, beraz, proiektu feministan funtseko bi alderdi hauek dute lehentasuna: afektuetan hezteak eta baterako erantzukizunak. Gizona izatea ez da bateraezina norberaren edo besteen sentimenduak adieraztearekin eta onartzearekin; era berean, ez da bateraezina besteen beharrez arduratzeko lanarekin, haien erantzukizuna hartzearekin edota haiekiko enpatia izatearekin. Alabaina, maiz, alderdi horiek ez dira barne hartzen gizonak gizarteratzeko lehen mailako prozesuetan. Hala, beraz, eduki horiek gizonen hezkuntza formalean sartzea funtsezko estrategia da, gizartea eraldatu nahi badugu.

### 2.3. Nola ikasten dugu gizonak eta emakumeak izaten?

#### Aginduak barneratzeko prozesua


Lehenago esan dugunez, sinesmen horiek gizartea antolatzeke eredu eratzten dute, eta usadioak, ohiturak eta herrien eta pertsonen arteko harremanak baldintzatzen dituzte. Hortaz, oso zaila da agindu horiek desagitea. Horretarako, lan zehatza, zorrotza eta sistematikoa egin behar da, hausnarketa eginez, gizarite osoarena izango den kultura-ondare berria eraikitzeke.

Legeak tresna indartsuak dira, laguntza ematen baitigute bizikidetzara bultzatzen duten agertoki eta aukera berriak izateke; alabaina, badakigu gizariteko errealtatea ez dela bakarrik aldatu leke baten eraginez. Beste gizarite-eragile batzuk –hala nola, familia, komunikabideak, zientzia eta beste batzuk– igorle indartsuak dira, gizarite eta garai jakin bati dagozkion kulturako balioak, ohiturak eta usadioak helarazten baitizkigute. Horiek lagungarriak zaizkigu gaur egun gizarite osoan onartuta eta partekatuta dauden esanahiak eta balioak sortzeko eta zabaltzeko. Legeak hortxe egon arren, usadio batzuek zutik irauten dute; eta horrek argi erakusten digu beste eragile horiek zenbateko indarra egiten duten gizarite-sistemari eusteko.

Gizonak eta emakumeak haurtzarotik bizi gara generoko eredu arautzaile horiekin batera, eredu horiek gizaritearen jardura guztiak hartzen baitituzte barne, eta esanahien eta balioespenen multzo jakin bat proposatzen baitute, sexuaren arabera. Gizarite-eredu arautzaile horien eragina ez da berdina izaten pertsona guztientzat. Eragina aldatzen da, gizarteratzeko esperientzien eta ingurumariaren arabera, eta gizarite-baldintzen arabera, generoa, etnia edota antzeko beste ezaugarriren bat ikusita.

Gizarteratzeko prozesuaren bidez, pertsonak elkarri eragiten diote, eta, era horretan, jaioren diren gizaritean nagusi diren balioak, jarrerak, itxaropenak eta jokabideak ikasten eta barneratzen dituzte, horiek aukera ematen baitiete gizaritean ondo moldatzeko (Giddens, 2001, hemen aipatua: Bosch, Ferrer eta Alzamora, 2006, 51. or.). Emakumeak eta gizonak

gizarteratzeko prozesuaren gakoak jarduera eta rol desberdinen esleipena da, horrela, argi eta garbi bereizten baita zer dagokien mutikoei eta zer neskatoei. Era horretan, jasotzen duten heziketaren bidez, mutilek berehala ikasten dute menperatu behar dutela, aurrera egin behar dutela arlo publikoan, eta beren lorpenak, gaitasunak eta handinahiak erakutsi behar dituztela, horiek haien balio pertsonalaren erakusgarriak baitira. Era berean, berehala ikasten dute txerei eutsi behar dietela, ahultasunaren zantzua direlako eta gizontasun gutxi dutela adierazten dutelako (esaera hauek dira jarrera horren erakusgarri nagusiak: mutilek ez dute negarrik egiten, ez ezazu negarrik egin gizona zara-eta). Neskak gizarteratzen direnean, argi irakasten zaie haurrak izan behar dituztela, arlo pribatuan gelditu behar dutela, besteen zerbitzuan buru-belarri aritu behar dutela eta beren nahiak alde batera utzi behar dituztela. Horiek dira nesken balioaren adierazgarriak, eta, beraz, autonomia izateko eta beren burua gauzatzeko izan ditzaketen desirak erreprimitu behar dituzte. Herri-esaera hauek gizarteratzeko prozesu horren adierazgarri argia dira: nor maiteko zaitu hain menderakaitza izanda, politago zaude isilik zaudenean. Gizonak eta emakumeak hezteko dagoen desberdintasun horren ondorioz, gizonak eta emakumeek era desberdinean jokatzen dute, eta jarduteko esparru desberdinetan garatzen dira. Horiek horrela, sinesmenak hortxe irauten du, eta gizonak eta emakumeak desberdinak garela eta jokabide desberdinak ditugula sinesten jarraitzen dugu (Bosch, Ferrer eta Alzadora, 2006). Emakume batek ama denean gizartean lortzen duen arrakasta eta ikusgarritasuna aparteko saria da, gizarteratze-eragile askok horri eusten diotelako, eta agindu horren inguruan usadio ugari eraikita daudelako (famiako jaiak, kulturako usadioak eta abar). Emakumearen gorputza eta bizitza erkidegoarenak dira, eta, horren ondoren, gizonarenak ere bai. Hargatik, emakumeak ezin du bere gorputza eta bere bizitza askatasunez erabili, emakumeak onartzen ez baldin badu eraikin patriarkal osoa desegingo delako.



Iturria: Bertan eginda.


Agindu horiek emoziozko ondorio desberdinak dituzte, generoaren arabera. Ikusi dugunez, sistema patriarkalak etxean eta arlo pribatuan ixten du emakumea, eta, gainera, arlo horren funtzionamendu onaren erantzukizuna ematen dio. Gizona, berriz, gizarte- eta lanbide-arlori bultzatzen du, irabazteko eta bere burua eta besteena zuzentzeko duen gaitasunaren arabera zehazten baitu gizonaren balioa. Horrek guztiak eragina du gizonen eta emakumeen dituzten emoziozko eredu desberdinetan, eta ondorioz makurren tratu txarrak eta generoko indarkeria agerian uzten dituzten harremanetan dugu ikusgai. Badirudi eraikinak pitzadurak dituela.

Gizarteak erru sentimendua sustatzen du emakumearen baitan, eta legezkatzat jotzen du harengan. Pertsona batek uste duenean urratu duela bere balioen jokoaren barruan onartu duen kode moral bat, errua agertzen da, eta kontrol sozialerako erabiltzen da. Erruaren oinarrian, nire burua edo besteak zaintzeko ataka dago. Hala, bada, besteen ondoreza nire erantzukizuna da, hau da, ez nuen ondo zaindu, edo ez nuen behar bezala egin. Orain dela gutxi ikusi dugunez, egoera horren ondorioz, tratu txarrak hartzen dituztenean, emakumeek estrategia desberdinak erabiltzen dituzte arazoa konpontzeko: hasieran, bat egiten dute tratu txarrak eman dizkien pertsonarekin eta pertsona horri loturik uzten duten sinesmenekin (maitasunarekin, erantzukizunarekin, etab.), gero haustura azaltzen da, eta, azkenean, askatzen dira (Cala, Godoy eta Rebollo, 2009). Sarritan, suspertzeko prozesuen lehenbiziko aldietan, nahasi egiten dira atxikitzeo estrategia horiek pasibotasun eta mendekotasuneko jarrerarekin, eta biktimari leporatzen zaio erantzukizuna. Tratu txarrak jasan ondoren suspertu diren hainbat emakumeren arabera, zailena eta nekezena hauxe da: tratu txarrak egiten zituen pertsonari loturik zuten sinesmenak alde batera uztea, eta, orobat, onartzea gizonaren ondorezaren arrazoia ez dela emakume horiek egiten dutena edo egiten ez dutena.

Bestetik, sumindura emozioaren oinarrian, mehatxu edo arrisku bat hautematen dugu, gu garenekin, gure nortasunarekin zuzeneko harremana duen mehatxu bat. Bestalde, gizonen gatazkei aurre egiteko erabiltzen duten baliabide bat indarkeria da, eta gizarteak bidezkoa eta legezkoa dela jotzen du. Horiek horrela, generoko tratu txarrak azaltzen dira. Boninok (2000) argi bereizten ditu ondoreza eta eragozpena maskulinitasunari dagokionez. Azaltzen duenez, ondoreza norberari oinazea eta/edo kaltea eragiten dioten arazoei dagokie, eta, arazo horien ondorioz, norberarentzat kaltegarriak eta gogaikarriak diren jokabideak eta jarrerak agertzen dira. Eragozpenen atzetik dauden arazoaren ondorioz, berriz, norberaren sufrimendua besteentzat kaltegarria den jokabide eta jarrera bilakatu da (boterearen gehiegizko erabilera, gehiegizko ausarkeria, etab.). Antolakuntza patriarkal horri jarraiki, eragozpenak nabarmenago azaltzen dira maskulinitasunean, femininitasunean baino.

Hezkuntza oinarrikoa da ideal berriak sortzeko eta jardute berriak indartzeko. Azken batean, hezkuntza funtsezkoa da pentsamendua (generoko ideologiak) eta ekintza (baterako hezkuntzako eta zuzentasuneko jarduteak) eraldatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da patriarkatuaren sinesmenek eta aginduek sorrarazten dituzten bereizkeriaren eta desberdintasunaren adierazleak ikustea eta ezagutzen ikastea. Kultura-arloko ohiturak, usadioak eta jarduteak historian barrena hartu duten eduki sinbolikoz beterik daude, hau da, sexismoz beterik daude neurri handi batean. Zein jarrera hartzen dugu jardute eta ohitura

horien eta duten esanahiaren aurrean? Castellsek (1998) kultura-nortasunari eta nortasun hori eraikitzeari buruz egin zuen hausnarketa oso erabilgarria eta lagungarria da, pertsonen kulturarekin harremanak izateko dituzten moduak zein diren eta kulturari buruz egiten duten balioespena zein den jakiteko.



Iturria: Bertan eginda.

Castellsek (1998) nortasunaren hiru modalitate hauek proposatzen ditu, gizarteko ingurumarien aurrean eta ingurumari horiek ematen dizkieten baliabideen aurrean pertsonen hartzen dituzten jarrerak eta balioespenak aintzat hartuta (balioak, sinesmenak, diskurtsoak, hizkera sozialak, etab.): legeztatzea, aurre egitea eta proiektatzea.

*Legeztatzen duen nortasuna* hau da: gizarteko instituzioek kultura batean diseinatutako talde-nortasuna norbanako gisa onartzea, hau da, nagusi den kultura norberaren nortasunaren oinarri gisa onartzea. Bordieuk dioenez (2000), dagoen indarkeriarik basati-netako bat indarkeria sinbolikoa da, hau da, komunikazioaren eta ezagutzaren bideetatik ezartzen dena, ikusezina baita biktimentzat. Esaera honek argi azaltzen du gizartean dagoen logika gaizto hori: “Gauzak diren modukoak dira”.

Bestetik, *aurre egiten duen nortasuna* hau da: banakotasuna bultzatzea nagusi den logika arbuizatzeko, eta gizarteko instituzioek bultzatzen dituzten oinarrien aurkakoak diren beste oinarri batzuk sustatzea. Hasieran, feminismoa emakumearen zapalkuntzari eta mendekotasunari aurre egiteko mugimendu gisa eratu zen.

Azkenik, *proiektuko nortasuna* zera da: norbanakoak nagusi den kulturaren duen kokagunea berri definitzea, eta, horretarako, ingurumaria eraldatzeko proposamen berriak egitea.

Kulturarekin harremanak izateko moldeetan dagoen desberdintasun hori baliagarria zaigu gizarteko diskurtsoak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren edo desberdintasunaren adierazle gisa bereizteko eta hartzeko.

Hezkuntzaren xedea da pertsonak ikas dezaten beren kulturarekin aurretiaz izandako ezagutzako esperientzia ohartuki erabiltzen. Hala, bada, nortasuna eraikitzen da kulturak ematen dituen baliabideekin harremana izaten (historia, geografia, biologiarekin, etab.), baina baliabide horiek erabiltzeko eta barneratzeko modua aldatzen da, gizartean hartzen dituzten esanahien arabera, eta genero edo gizarte-mailaren arabera beste pertsona batzuek partekatzen ote dituzten ikusita. Geure historia pertsonalak beste batzuekin partekatzen ditugunean, etorkizuneko egoerak irudikatzen ditugu, eta beste en historiekin identifikatzen gara edo historia horietan parte hartzen dugu, eta, aldi berean, geure nortasunak eraikitzen ditugu ingurune fisiko, kultural eta historiko horien barruan. Hezkuntzak aukera ematen digu kultura beste ikuspuntu eta beste kode batzuetatik bizitzeko eta esperimentatzeko, eta lagungarria zaigu aldaketa pertsonala eta soziala lortzeko.

#### 2.4. Nola egituratu genero-ikuspegia kulturartekotasunaren barruan?

Lehen adierazi dugunez, genero-ikuspegiak hainbat irizpide eta logika hartzen ditu, kultura baten eraikuntza soziala eta kulturen arteko harremanak aztertzeko, ulertzeko eta lan horretan parte hartzeko. Genero-ikuspegitik, argi izan behar dugu emakumea gizarteratzeko, eta haren parte-hartzea eta demokrazia lortzeko behar diren gizarte-eta kultura-arloko aldaketak egiteko, ondo aztertu eta barneratu behar dugula zer nolako eragina duten aldaketa eta eraldaketa horiek emakumearen bizitzan. Horretarako, jarraipen eta ebaluazio egokia egin behar dugu, eskualde eta ingurumari desberdinetan ikuspegi horretako politiken eta proiektuen bidez izan diren gizarte-eraldaketak aztertzeko.

Kulturartekotasunak ezagutzera eman nahi du gizartea dinamikoa eta aldakorra dela, giza talde desberdinen artean etengabeko elkarreaginak daudelako, eta, orobat, argi erakutsi nahi du gizarte moderno gehienak mendeetan barrena izan den kultura-mes-tizajearen emaitza direla. Kulturartekotasunak bereziki nabarmentzen du etnozentrismoa aztertu behar dela, gizarte-bazterkeria sortzeko tresna delako, eta nagusitasun-ean eta mendekotasunean oinarrituta dagoen kulturen arteko harremanen eredia delako. Genero-ikuspegiak kulturaren ikuspuntu dinamikoa sustatzen du, androzentrismoaren azterketa sartzan du kulturaren azterketa etnozentrikoaren barruan, eta zalan-tzan jartzen du gizakiak –gauza guztien neurri eta ardatz gisa– duen eginkizun arau-mailea eta epistemikoa. Ikuspegi horren ondorioz, ezinbestez berrikusi behar dugu kultura-tradizioen izaera aldaezina eta egituratzailea, eta ondo aztertu behar ditugu eraginak, sexuaren arabera bereizita (rolak, eginkizunak, zereginak, onurak, etab.) Ikuspegi horretatik joz, kultura-nortasunen izaera heterogeneoa, kontraesankorra eta aldakorra dela onartu beharko dugu (generoa, arraza, maila, etab.), eta, orobat, onartu beharko dugu kulturak eta generoak elkarren arteko harremana dutela, eta genero-ak aldatzen direla kulturen eta ingurumarien arabera. Ikuspegi hori kontuan hartzen badugu, alde batetik, justizia sozialeko eta zuzentasuneko oinarriak eta balio sozialak balioetsiko ditugu, eta, bestetik, kontzientzia eta konpromiso soziala hartuko dugu, errealitatean esku hartzeko era aldatzeko, eta, orobat, gizarteko taldeen eta pertso-nen boteretzea eta barneratze-prozesua errazteko. Ildo horretan, Garapenerako Hezkuntzak eraldatzailea eta askatzailea izan nahi du, bideak eta estrategiak erakusten



dituelako geure historiaren jabe izan gaitezen eta historia horretan eraginkortasunez eta arduraz parte hartu ahal izan dezagun.


Garapenerako Hezkuntzak, munduko errealitateari buruz kontzientzia kritikoa piztu nahi duen hezkuntza-prozesua den aldetik, tresnak prestatu nahi ditu gizartean parte hartzeko eta gizartea eraldatzeko, justizian eta elkartasunean oinarrituta (Espainiako GGKEen Koordinakundearen Garapenerako Hezkuntzako Taldea, 2004; Cabello, 2009). Genero-ikuspegiak ikuskera analitikoa eta politikoa hartzen du barne, sexuen arteko bereizketa anatomikoaren ondorioz, historikoki, gizarte-, politika-, ekonomia- eta kultura-arloko desberdintasunak sortu direla azaltzeko, eta, orobat, gizartea eraldatzeko, parte hartzeko eta onartzeko prozesuak bultzatzen ditu, justizia eta zuzentasunerantz zuzenduta. Ezin ditugu gizarteko oinarri horiek aintzat hartu, jardueretan genero-ikuspegia sartu eta txertatu gabe. Ikuspegi horren xedea da sexuaren arabera dauden desberdintasunak ikustaraztea, hartara, erkidegoko baliabideak, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko eta kontrolatzeko garaian izan daitezkeen desberdintasunak eta doikuntza eza zuzentzeko. 5. irudian, argi agertzen dira genero-ikuspegiak kulturen arteko harremanen azterketan sartzten dituen edukiak: batez ere, emakumeen eta gizonen arteko harremanak antolatzen eta arautzen dituzten oinarrizko alderdiak nabarmentzen ditu.

5. Irudia. Genero-ikuspegia kulturartekotasunaren barruan: aldatzeko alderdiak	
Espazioaren erabilera	<p><b>Zein gune hartzen dugu?</b> (egongela, sukaldea, parkeak...)</p> <p><b>Nola hartzen dugu gunea?</b> Indarren sartzten gara?</p> <p><b>Zein jarduera betez hartzen dugu gunea?</b></p>
Denboraren erabilera	<p><b>Zertan ematen dugu gure denbora?</b></p> <p>Etxeko lanak, haurrak zaintzea eta heztea, astialdia eta olgeta, atsedena eta nork bere burua zaintzea, etab.</p> <p><b>Nor arduratzen da...?</b> Arropa erosteaz, opariak egiteaz, familia zaintzeaz, arropa garbitzeaz, etab.</p>
Hizkuntzaren erabilera	<p><b>Zer irakasten dugu?</b> (gizarte-itxaropenak)</p> <p><b>Nola egiten dugu?</b> (txantxak, hitzaldiak, etab.)</p> <p>Martin-sukalde bat da, galtza-jario bat da, gizonak ez dute negarrik egiten</p> <p>Hori piura, haren senarrarena ez du paseatzera ateratzen, inoiz ez dira elkarrekin joaten</p>
Diruaren erabilera	<p><b>Zertan xahutzen dugu eta nola egiten dugu?</b></p> <p>Etxea zaintzen, familiaren oinarrizko beharrianetan (arropa, janaria...), norberaren zaintzan, astialdian eta lagunekin</p>

Iturria: Bertan eginda.

Emakumeen bizitzan izan diren aldaketak ekonomia-, politika- eta gizarte-egituran daude teilakatuta; eta, beraz, emakumeen bizitzako baldintzak hobetzeko, maila asko eraldatu behar dugu. Boteretzea lortzeko prozesuek hainbat alderdi aztertu eta eraldatu nahi dituzte: sexuaren arabera egindako lanaren banaketa (jendaurrekoa, pribatua), baliabideen eta onuren erabilera, kontrola eta sarbidea, boterearekiko harremanak (botere-motak eta guneak), erabakiak hartzeko eta boterea baliatzeko baldintzak, etab. Horretarako, Garapenerako Hezkuntzako jardueraren ardatzetako bat da neskatxak eta emakumeak eskolatzea (alfabetatzea). Funtsezkoa da autonomia intelektuala izatea norberaren bizitzari buruz gogoeta eta hausnarketa egiteko eta bizitzaren kontrola izateko. Beste alderdi funtsezko bat emakumeen autonomia ekonomikoa da. Emakumeek ordaindutako lan bat izan behar dute boteretzea lortu ahal izateko. Emakumeek gizartearen garapen ekonomikoari egin dioten ekarpenaz jendaurrean egiten den onarpenaren orde, emakumeek autonomia ekonomikoa lortu behar dute, hau da, dirua izan behar dute eskura, beren bizitza-baldintzak kontrolatu eta hobetu ahal izateko.

Genero-ikuspegiak aldaketa lortzeko hezkuntza-agenda sartu du kulturartekotasunean, eta eskolan eta familian eragina duten funtsezko alderdi batzuk nabarmendu ditu (ikusi 6. irudia).



Iturria: Bertan eginda.


Genero-ikuspegiak ikuskera kritikoa du gizarte-antolakuntzako egiturari eta pertsonen eta taldeen arteko harremanei buruz, eta aldaketak sustatzen ditu gizarte- eta kultura-, antolakuntza- eta testuinguru-arloan (guneen erabilera eta antolamendua, zereginen eta erantzukizunen banaketa, etab.), harremanen arloan (hizkuntzaren, diskurtsoen, harremanen erabilera...) eta arlo pertsonalean (denboraren eta diruaren erabilera, gustuak eta

zaletasunak, etab.). Ikuspegi horiek guztiek pertsonen kultura beraren barruan eta kultu-  
ren artean dituzten gizarte-harremanak eratzen eta zehazten dituzte, eta denek dute lotu-  
ra generoarekin. Arlo mikrosozialean, genero-ikuspegiak baliabideak eta estrategiak  
eskaintzen ditu komunikazioko gaitasunak eta ahalmenak trebatzeko eta garatzeko, eta,  
era horretan, pertsonen arteko ulermena lortzeko. Izan ere, generoa kulturaz hara indiko  
eta kulturen arteko gizartea egituratzen duen faktore indartsua da, eta gizarteko gune  
berean dauden pertsonen eta taldeen jarrerak eta eginkizunak antolatzen ditu.

### 3. Jarduteko ildo estrategikoak

Feminismoak, bere historian barrena, era askotako estrategiak garatu eta gauzatu ditu,  
gizartea eraldatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean oinarritutako  
eredua ezartzeko prozesuan. Garapenerako Hezkuntzan oso lagungarriak izan daitezkeen  
estrategia batzuk ekarriko ditut honetara.

Jakina denez, emakumeentzako bitzta-baldintza berriak eta generoko harreman berriak  
sustatzen dituzten aldaketa politikoak daudenean ere, aldaketa horiek ez dira berehala  
eta automatikoki hezurmamitzen gizarte-antolakuntzan. Eraldatzeko prozesuan beste  
faktore eta eragile batzuek hartzen dute parte, eta denen artean hauxe da garrantzitsu-  
na: pertsonen pentsaera, sinesmenak, itxaropenak, jarrerak eta aurreiritziak... eta, oro-  
bat, desberdintasuna igortzen eta iraunarazten duen gizarte-egitura bera (ohiturak, usa-  
dioak, etab.). Jarduteko aurkezten ditudan ildo estrategikoek lotura dute gizartea eralda-  
tzeko asmoarekin, eta, eraldaketa hori egiteko, emakumeak tartean egon behar du eta  
parte hartu behar du, gizonak dituen aukera berberak izanda (ikusi 7. irudia).



Iturria: Bertan eginda.

*Bistaratzeak* aipamena egiten die desberdintasuna eta bereizkeria begien bistan jartzeko egiten diren ekintzei. Ekintza horien bidez, generoko desberdintasunak eta bereizkeria ikusteko eta ezagutzeko gaitasuna sustatu nahi da. Sarritan erabili da “genero aldeko itsukeria” izena, desberdintasuna eta bereizkeria sorrarazten duten jarduerak hautemateko dagoen ezintasuna izendatzeko. Gizarteratze patriarkalak dituen ondorio gaiztoetako bat da desberdintasuna naturalizatzen dela. Bistaratzeko estrategien ardatz nagusia izan da adierazleak, estatistikak, datuak eta txostenak prestatzea, sexuaren arabera banatuta, eta, hor, agerian jartzea gizartearen antolakuntzan dagoen desberdintasuna eta bereizkeria. Hori dela-eta, proiektu feministaren zati handi bat bideratuta egon da ezagutzen gorputza garatzera, gero gorputz hori baliatu ahal izateko aldaketa lortzeko ekintza politikoan eta zibilean. Desberdintasuna dagoela egiaztatzen dituzten probak eta nabaritasunak aurkeztea funtsezko estrategia da eraldaketa lortzeko. Ildo horretan, argazkiek balio pedagogiko handia dute; eta, beraz, argazkiak erabiltzea gomendatzen dut, horrela ikusezina dena begien bistan jartzeko, ezkatatuta dagoena ikusgai jartzeko. Hau da, argi erakusteko taldeen, pertsonen eta herrien arteko desberdintasuna dela desberdintasunean, bereizkerian eta bazterkerian oinarritutako gizarte-egiturari eusteko erabiltzen den aitzakia. Gizarte-mugimendua den aldetik feminismoak duen oinarrizko helburuetako bat da desberdintasuna ikustea eta antzematea.

*Sentsibilizazioa* jarduteko ildo estrategiko bat da, eta berdintasunari buruzko kontzientzia hartzerantz bideratutako ekintzak hartzen ditu barne. Ekintza horien bidez, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko iritzi bat sustatu eta sortu nahi da, eta, hargatik, ekintzak talde berezientzat dira (irakasleentzat, familientzat, etab.). Gizarte-ehunean barneratze dagoen ahalmena gizarte-antolakuntzaren oinarria diren gizarteratze-eragileen gainean eragina izateko gaitasunaren mende dago. Sentsibilizazioaren bidez, argi utzi nahi da neskek eta mutilek modu desberdinak dituztela gizarteratzeko, eta jarduerak bultzatu nahi dira rola aldatzeko, eta neskek eta mutilek jarduerak batera egin ditzaten. Zalantzetan eta kasu berezietan oinarritutako eztabaidak balio bereziko jarduerak dira, oso egokiak baitira kontzientziak mugiarazteko. Jarduteko ildo honen helburua da berdintasunean sinesten ikastea.

*Boteretzeak* aipamena egiten die erkidegoko bizitzan boterea, eta ekiteko eta erabakitzeko gaitasuna irabaztera zuzenduta dauden ekintzei. Boteretzeako estrategien ardatzak gizartean parte hartzea eta protagonismoa izatea dira. Feminismoak sustatu dituen ekintza batzuk –esate baterako, ekintza positiboko neurriak– bideratuta egon dira emakumea bizitza publikoan sar dadin eta parte har dezan, baina hori lortzea ez da aski. Gaur egun, gizarte-balioa eman nahi zaio tradizioz femerinitasunari loturik egon den horri. Horrek esan nahi du gizarte-balioa ematen zaiela haien jarduerari eta zereginei (seme-alabak zaintzeari eta hezteari, etxeko lanei, emozioak hezteari, etab.); eta, horren ondorioz, eduki eta jakintza horiek eskolako curriculumean sartu dira guztiontzako irakaskuntza gisa –neskentzat zein mutilentzat–. Emakumeak biltzeko eta elkartzeko guneak sortzea edo gune horiei balioa handitzea oso tresna garrantzitsua da boteretzea lortzeko, emakumeek beren autoestimua indartu ahal baitute gustuen eta zaletasunen bidez.

- Ohiturak, usadioak eta horrelakoak zalantzan jartzen baditugu, horrek haustura ekarriko du jaso dugun heziketarekin, eta gizarte gehienak dituen usteekin. Sinesteari uzten badiogu, sortzen hasiko gara. Zalantza egiten hasten bagara, beste era batera ikusiko ditugu gauzak, zalantzan jarriko dugu ezarrita dagoenak edota oinordetzan jaso dugunak duen legezketasuna, eta gure bizitza baldintzatzen duten eta etorkizun jakin bati lotzen gaituzten mito patriarkalak eraitsiko ditugu.
- Batzuetan, botererik ez duen pertsonak duen bide bakarra aurre egitea da, baina, horretarako, jarrera eta ekintza jakin bat behar da. Estatuak zaintzen eta babesten ez bazaitu, gizarte-egoera horretan aurreratzeko dagoen bide bakarra aurre egitea da. Aurre egitea menperatzeko ekintzaren aurrean jarrera bat hartzea da. Alabaina, hori boteretzeta-prozesuaren zati bat izan dadin, aurre egiteko ekintza beste batzuekin partekatu behar dugu; hau da, ez du ekintza bakartua izan behar, mugimendua baizik.
- Iraultzea haxe da: ekintzak egitea ezarritako ordena soziala hausteko, eta emakumeen borondatearen aurka jartzen diren debekuei aurre egiteko eta horiek ezabatzeko. Azken batean, iraultzen duena zerbait egiten ari da ordenaren barruan, ordena horren alderdi bat ukitzen ari baita.
- Azkenik, azpikoz goratzea zera da: munduaren beste ordena bat, munduaren eta bizitzaren beste ikuspegi bat bultzatzea; hala, bada, nahi duguna lortzeko egin behar dena egitea kultura-ondare berritzailea da.

Estrategia horiek hainbat eratan agertzen dira berdintasunerako hezkuntzako proiektu feministan. Ikus ditzagun, gizartea antolatzeko eredu berdintsuagoa, bidezkoagoa eta iraunkorragoa lortzeko, hezkuntza aldetik egin ditzakegun jardute eta ekimen batzuk (ikusi 1. taula).

Duten gizarte-balioa ikusita, bereziki nabarmendu nahi ditugu emakumeen arteko laguntza-sareak eta elkarteen mugimendua. Jarduera eta talde horiek hainbat zeregin betetzen dituzte. Alde batetik, emakumeak ikusgai jartzen dituzte, ahotsa eta eskubi-deak dituen talde gisa azaltzen baitute. Bestetik, berezko gunea sortzen dute, emakumeek nahi dutena aditzera eman dezaten eta hitz egin dezaten, eta norberak dituen beharrezanezi eta interesei buruz hausnartu ahal izan dezaten. Emakumeen arteko ahizpatasun eta gogokidetasun horri sororitatea deitu izan zaio, eta honela definitzen da: emakume izate hutsagatik, nola edo hala, bereizkeria eta zapalkuntza jasan duten emakumeen artean sortzen den adiskidetasuna. Ahizpatasun horren bidez, emakumeek ikasten dute beren burua ezagutzen beste emakume batzuen “begiradaren eta entzumenaren bidez, kritikaren eta afektuaren bidez, eta, orobat, sorkuntzaren eta espe-rirentziaren bidez”.

**1. Taula. Hezkuntza formalerako, informalerako eta ez-formalerako estrategia feministak**

Estrategiak	Hezkuntza ez-formala	Hezkuntza informala	Hezkuntza formala
Bistaratzea	Argazki-erakusketak egitea bereizkeria agerian jartzen duten gizarteko usadioei eta ohiturei buruz	Ezagutzera ematea gizonek eta emakumeek legearen aurrean dituzten baldintza bereizgarriak Gizarteko bereizkeriaren adierazgarri diren gertaerak eta egoerak salatzea Behatokiak sortzea gizarte zibilean bereizkeria aztertzeko	Emakumeen ekarpena berreskuratzea eta begien bistan jartzea Antolakuntzan eta kulturaren dagoen sexismoa behatzea eta ikusgai jartzea
Sentsibilizazioa	Gurasoentzako gidak eta baliabideak prestatzea jolasei, ipuinei eta jardueri buruz Familiako eta aisialdiko guneak baliatzea, emakumeen bizitzakalitatean eragina duten gaiei buruz hitz egiteko (osasuna, hezkuntza, etab.)	Sentsibilizazio-kanpainak egitea, bereizkeriazkoak diren jardutei eta ohiturei buruz Argibide-programak egitea emakumeen eskubideei eta aukerei buruz	Emakumeek gizartean duten zereginari buruzko irakurgaiak lantzea eta horretaz eztabaidatzea Gizarteratze bereizgarria sustatzen duten jardueren logika azpikoz gora jartzen duten jarraibideak eta arauak proposatzea (kirolak, jolasak, mozerroak, etab.) Emakumeak gizartean duen bereizkeriari buruzko antzezlanak egitea
Boteretzea	Emakumeen arteko laguntza-sareak sustatzea eta baliatzea Elkarrean mugimendua bultzatzea	Emakumeen eredu onuragarriak hedatzea eta ezagutzera ematea Emakumeek herri-ohituretan eta usadioetan duten zeregin eraginkorra aldarrikatzea	Femeninotzat jotzen dena curriculumean sartzea (txerak, etxeko lanak, seme-alabak zaintzea, etab.)

Iturria: Bertan eginda.

**4. Baliabide gida**

Atal honetan, gizarteko egoera genero-ikuspegitik aztertzeko eta ikertzeko baliagarriak izan daitezken baliabide batzuk bildu ditugu. Zehatz-mehatz aztertzeko asmorik izan gabe, baliabide batzuk azalduko ditut, lagungarriak izan baitaitezke gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaz ohartzeko, hausnartzeko eta haren alde jarduteko, hala kultura baten barnean, nola hainbat kulturaren artean. Baliabide zerrenda honen bidez, begiak eta gogoak zabaldu ahal izango ditugu, errealitate honetaz jabetzeko, eta gai honi buruzko

kontzientzia hartzeko. Zinema, egunkariak, musika, argazkiak eta horrelakoak baliabide ezin hobeak dira, bereizkeria ikusgai jartzeko, eta urruntzea eta zalantza pizteko.

Aztertzen ari garen gaiak landu dituzten film batzuek balio handia dute pedagogia alde-tik, esate baterako, hauek:

- Deepa Mehtaren *Water* filmean, zortzi urteko neska bat hiltzorian dagoen gizon batekin ezkonarazten dute, eta gizona gau horreketan hiltzen da. Filmak ondo aztertzen ditu sati tradizio hinduak erreproduzitzeko dituen tresna sozialak, eta ikuspegi kriti-koa agertzen du bereizkeria sustatzen duen gizarte-egiturari buruz. Filmean kontras-te bizia agertzen da, Mahatma Gandhik 1938. urtean bultzatu zuen burujabetza-mugimenduaren eta emakumearen bereizkeriari eta gizarteko bazterkeriari eusten dieten tradizioen artean. Gai hauek ditu aztergai: genero gizarte-eredua eta emaku-mearen eskubideak.
- Patricia Cardosoaren *Real women have curves* filmean, etorkizun bikaina duen 18 urteko gazte baten –Anaren– istorioa azaltzen da. Anak unibertsitatera joateko ametsa du, bera da bere familian amets hori izan dezakeen lehenengoa. Alabaina, Los Angeles hiriko ekialdeko auzo bateko hezkuntza xumekoa denez eta bere fami-liari leialtasun handia dionez, eutsi egiten dio bere buruari. Carmenek –bere amak–oso bizitza gogora izan du, eta Anarengan jartzen du itxaropen osoa: berak merezi omen dituen ilobak Anak eman diezazkion nahi du. Carmenek asmo onak ditu, baina ez ditu aintzat hartzen Anaren izaera eta bizitzaz aldatzeko dituen gogoak. Filmak aukera ematen digu sakon aztertzeko gizonen eta emakumeen arteko desberdinta-sunari, eta edertasunaren, amatasunaren eta ezkontzaren mitoei eusten dieten sinesmenak eta ideologia. Era berean, haren bidez, hausnarketa egin ahal dugu immigrazioari buruz, jatorrizko kulturari buruz, eta leialtasuna eta traizioa bezalako sentimenduei buruz.
- Marjane Satrapiren eta Vincent Paronnauden *Persepolis* filmean, Marjane azaltzen da: mendebaldeko ohiturak hartu dituen Irango familia baten altzoan 1970. urtean jaiotako neska. Istorioa Marjanek bere nortasunaren bila egiten duen bidaia da, Marjaneren nortasuna ekialdearen eta mendebaldearen artean baitago. Istorio eder honetan, “tokiz kanpo egoten” izandako esperientzia kontatzen du, hala sorterrian nola harrerako herrian sentitutakoa. Film egokia da kultura-aniztasuna aztertzeko, eta argi ikusteko aurreiritziak eta fundamentalismoa ez direla kultura edo herri jakin baten ondasuna, hainbat modutan eta adierazpidetan azaltzen baita kultura guztie-tan, ezezaguna eta desberdina denaren aurrean sentitzen den beldurra eta meha-tua adierazteko.
- Alain Berlinerren *Ma vie en rose* filmean, Ludovicen istorioa dugu. Ludovic klase ertaineko familia aberats bateko semerik gazteena da, eta, haur guztiek bezala, bere ametsak egia bilakatu nahi ditu. Alabaina, bere ametsak zur eta lur uzten ditu fami-liakoak, lagunak, auzokoak eta ikaskideak, Ludovicek gauza bat baizik ez baitu egin nahi bizitzan: neska bilakatzea. Ez du ulertzen desira horrek pizten duen harridura, ez eta nesken modura janzteak ingurukoengan sorrarazten duen txundidura ere. Ludovic arazo bat da bere familiarentzat; izan ere, gurasoak zurtuta geratzen dira

semearen irmotasuna ikusita, eta estututa, auzokoen arbuioa sumatu ondoren. Istorio errealista honek argi adierazten digu pertsona batek, batzuetan, desberdina denean, sentitzen duen lotsa. Filmak ondo erakusten digu gure bizitza eta gure gizartearen antolakuntza erabat egituratuta daudela zenbait jardute sozialen arabera, eta jardute horiek bazter uzten dituztela talde edota pertsona jakin batzuk, sexu-eta genero-nortasuna oinarritzat hartuta. Film honen bidez, ederki aztertu ahal izango dugu pertsona guztiok egin behar dugun barneko bidaia, desberdintasuna bereizteko, balioesteko, onartzeko eta maitatzeko, eta bizitzan egin behar ditugun aldaketa pertsonalak eta zein ingurunetan egin behar ditugun ikusteko.

- Icíar Bolláinen *Flores de otro mundo* filmak sei pertsonaiaren bizitza kontaktzen digu: hiru emakume eta hiru gizonen bizitza. Seiak ari dira era batera edo bestera bakar-dadearen mehatxuari aurka egiten. Istorioa Santa Eulalia izeneko herrian kokatzen da –Soria eta Guadalajara probintzien artean dagoen Cantalojas herriaren fikzioko izena da hori–. Hasieran, emakumeek osatutako karabana iristen da herrira, herriko gizon ezkongaiak gonbidatuta. Istorioak ondo erakusten digu kanpotik etorri denaren eta arrotza eta desberdina denaren aurrean sentitzen den mesfidantza eta pizten diren aurreiritziak; eta mesfidantza eta aurreiritzi horiek gaitzespena eta bazterkeria sortzen dutela gizartearen. Filmaren bidez, erraz uler dezakegu generoko harremanen barnean botere-harremanak daudela, eta, horrez gain, sakonago azter dezakegu emakume etorkinaren egoera.
- Juanma Bajo Ulloaren *Frágil* filmak Venusen istorioa du. Venus 25 urteko neska gazte goxo eta erromantiko bat da. Ez da oso erakargarria, eta bere aita estoikoarekin batera bizi da, iparraldeko ibar bakartu batean. Biak aritzen dira soroan lanean, eta lore-eztia egiten dute. Haien arteko harremana adiskidetsua da, baina inoiz ez da izan batere maitasun-adierazpiderik. Venusek 9 urte dituela, haur batek musu bat ematen dio, herritik joan aurretik. Hori da Venusek ordura arte jaso duen musu bakarra, eta, beraz, neska liluratuta geratzen da, mutila noiz itzuliko zain. Aita hil ondoren, Venusek etxea uzten du, eta galdutako maitearen bila abiatzen da. Alabaina, berehala ohartuko da benetako mundua ez dela bera haurra zela irakurtzen zituen ipuinetako mundua... Film hau ezin hobea da maitasun erromantikoaren ideala, estereotipo sexistak eta hezkuntza afektibo-sexuala lantzeko.

Lehen azaldu dugunez, baterako hezkuntza formaleko eta informaleko jardute batzuk garatzea gizartea eraldatu nahi duen proiektu feministaren zati bat da. Jarduera horiek aukera ematen diete neska-mutilei gizarteratzeko esperientzia berriak izan ditzaten, eta beren nortasuna eraiki dezaten kulturako beste kode eta erreferentzia batzuk oinarritzat hartuta. Irakurgai batzuk lagungarriak dira helburu hori lortzeko, batez ere aukera ematen dutelako bereizkeria eta desberdintasuna sumatzeko eta horri buruzko kontzientzia hartzeko, baina, bereziki, arlo horretako gizarte-ekintza positiboa bultzatzen eta indartzen dutelako.

- *El club de la calceta*, María Reimondez, Algaida argitaletxea. Liburu honetan, sei emakume desberdinen istorioa irakurriko dugu. Puntua egiteko eskoletara joaten dira, eta leku horretan beren frustrazioek bat egiten dute, baina, aldi berean, kon-



tzientzia hartzen dute beren egoeraz eta egoera hori gainditzeko beharraz. Tradizioz emakumeari hain loturik egon den gune horren bidez, puntua egiteko eskolaren bidez, alegia, haien arteko desberdintasunak aztertuz, emakumeek bat egiten dute, eta batasun, horren ondorioz, indarra biltzen dute beren egoera ukatzen eta arbuia-tzen duen orainaldia gainditzeko. Eleberri honek hausnarketa eta berrikuspen sako-na egiten du izaera femeninoari buruz, gizarte matxistaren hariak desegiten dituen ikuspegi anitzetatik abiatuta. Ezin hobea da emakumeen arteko sororitatea eta berezko guneak lantzeko. Horrez gain, eleberri honen bidez, argi ikus dezakegu gizarteko estereotipoek emakumeak kartzelatzen dituztela, ez baitiete uzten beren nortasuna era autonomoan eta askean bizi dezaten.

- *Las mujeres que leen son peligrosas* (Women who read are dangerous), Stefan Bollman, Maeva argitaletxea. Liburu honek emakumeak irakurketari loturik izan duen historia du hizpide. Tradizioz emakumeak bigarren mailako zeregina egin behar izan du, maiz zeregin pasiboa gainera; eta, horiek horrela, emakumea irakur-ketaz baliatu da bere mundu hertsia hori hausteko. Hala, liburua jakintzari eta irudi-menari zabalik dagoen ate bat da, askatasunari eta independentziari zabaldutako atea. Liburu horren jarraipena *Las mujeres que escriben también son peligrosas* (Women who write) da. Aurrekoa baino hobea da ia, hainbat emakume idazleren ibil-bidea azaltzen baitu, eta sakon aztertzen baitu emakume horiek nola lortu zuten gizarteko aurreiritziak gainditzea, eta, orobat, konbentzionala eta subertsiboa zena-ren arteko mugan bizitzea. Liburu ezin hobea da era honetako jarduerak egiten has-teko: ba al dakizu emakume batek behin...? Eta, hortik aurrera, ikasleak akuilatu ahal izango ditugu, jardueraren batean nabarmentzen diren beren kulturako emaku-meei buruz iker dezaten...
- *Atrapada en el espejo*, Gemma Lienas, Aleph Editores argitaletxea. Liburu honetan, Laura Bellidoren istorioa irakurriko dugu: neska gazte arkitekto bat, bere estudioa-ren jabe dena, senar erakargarri eta atsegin batekin ezkondu eta sei urteko seme bat duena, eta itxuraz bizitza zorionsua duena. Alabaina, egun batez, Laura hilik agertzen da. Istripu bat izan du. Atzerrian bizi den bere lagunak –hau da, Ginak-susmo bat du: zerbait itzurtzen zaiola. Hala, bada, Bartzelonara bizitzera joatea era-bakitzen du, era horretan itxuraz hain egonkorra zen bere lagunaren bizitza sakona-go ezagutzeko. Eleberriak aparteko era zuzenean adierazten digu indarkeria psiko-logikoaren berri, itxuraz guztiz arrunta den bikote baten altzoan. Eleberri honek aukera ematen digu genero-indarkeriaren arazoan eta indarkeria horri eusten dioten tresnetan barneratzeke, hau da, genero ideologietan.
- *Mujeres de ojos grandes*, Ángeles Mastretta, Booket argitaletxea. Liburu honetan, ezkontzeko eta ohiko kontuetan (senarra, seme-alabak eta etxea) zerbitzatzen ari-tzeko heziak izan diren emakume batzuen bizitza agertzen zaigu. Emakume horien bizitza familiara eta familiaren esparru hertsira mugatzen da. Alabaina, bizitza horien anekdota ez da dramatikoa; aitzitik, bizitza horiek erakusten dizkiguten ema-kumeen nortasunak oso indartsuak dira, sarritan gizonak itzaltzen baitituzte.
- *Algún amor que no mate*, Dulce Chacón. Editorial Planeta argitaletxea. Eleberri honetan, Prudenciaren istorioa azaltzen zaigu. Prudenciak maitasun ezaren aurka

borrokatu zuen, baina porrot egin zuen. Ez zuen bizitza zoriontsurik izan, baina denbora luzez iraun zuen bizirik, ezkontza zorigaitzoko batean, nahiz eta ezin arinduzko bakardadea besterik ez aurkitu ezkontza horretan. Alabaina, egun batean nekatu egin zen, eta dena pikutara bidaltzea erabaki zuen... Eleberri honek argi aurkezten digu nola gelditzen den lur jota pertsona bat, pertsona horrek maitasunean oinarritu baitzuen dena, eta maitasunik gabe geratu baitzen. Horrenbestez, zalantzan jartzen da maitasun erromantikoaren ideia, eta, orobat, zalantzan jartzen dira denari uko egiten dion eta bere burua besteei ematen dien emakumea zoriontsuagoa eta osoagoa dela esaten duten sinesmen patriarkalak.

- *Diario violeta de Carlota*, Gemma Lienas. Editorial el Aleph. Gida subertsibo honek gonbidapena egiten digu gaur egungo munduan emakumeak duen egoerari buruz hausnarketa egin dezagun. Carlotak, amonak proposatzen dion jolasak bultzatuta, “betaurreko morez” jantzirik ikusten du mundua. Hala, berehala egiaztatzen du lehen eztabaidea iruditzen zitzaizkion egoerak bidegabeak eta bereizkeriazkoak direla. Liburu hau nerabeei zuzendutako bilduma baten barruan dago, eta, bilduma hori prestatzeko, egileak Carlotaren gorabeherak hartu ditu oinarritzat. Ale hau ezin hobea da “generoko itsukeria” lantzeko.
- *Está bien ser diferente*, Todd Parr. Editorial RBA Libros. Liburu hau txikiei zuzenduta dago, eta modu atseginean erakusten du ondo dagoela belarri handiak izatea, edo helmugara iristen den azkena izatea, ondo dagoela gurgilak izatea, hainbat ama izatea, edo hainbat aita izatea, ondo dagoela adoptatua izatea, edo bakarrik dantza egitea, ondo dagoela laguntza behar izatea edota maskota modura har bat izatea, azken batean, ondo dagoela desberdina izatea.
- *La mujer habitada*, Gioconda Belli. Editorial Vanguardia. Liburu honek kontatzen digu Laviniak bere bidea aurkitzeko eta bere istorioa idazteko egiten duen barneko bidaia. Mundu magiko eta bizi batean kokatuta, liburuak errebolta femeninoaren historia azaltzen digu, tradizioa eta ezaguna dena alde batera uzteko, eta ikertu gabeko bidezidorretatik aurrera egiteko eta beste helmuga bat irudikatzen duen prozesu bat balitz bezala. Liburu hau oso baliagarria da gogoeta eta hausnarketa egin dezagun hazten uzten ez gaituzten sinesmenei, tradizioei eta ohiturei buruz, eta sinesmen eta ohitura horiek alde batera uzteko ibili beharreko prozesu pertsonal eta subjektiboari buruz.
- *Mujeres abriendo caminos* (Hainbat egile). Editorial Lunweg S.L. Argazkien liburu honek emakumeen gaur egungo egoeraren adierazpide ugari azaltzen eta erakusten dizkigu: batetik, emakumeen aniztasun kulturala, etnikoa eta soziala, eta, bestetik, emakumeek egiten dituzten era askotako jarduerak eta zereginak, eta, era berean, emakumeen gorputzaren edertasuna eta aniztasuna. Liburu honek baliabide zoragarriak ditu kulturen barruan eta kulturen artean emakumeen esperientziak dituen alderdi berdinak eta desberdinak aztertzeko.
- *Colección en favor de todas las familias*, A Fortiori Editorial. Ipuin-sail honen bidez, egitura, ezaugarri eta osagai aldetik anitzak diren familiak sustatu eta bultzatu nahi dira, eta, oroz gain, nabarmendu nahi da zer den familia guztiak bateratzen dituen:

familiak osatzen ditugunok maitasuna diogula elkarri, berdin dio familiak zenbat kide dituen, zein sexutakoak garen, zein den gure arraza, zein motatako bikotea osatzen dugun, edo seme-alaba biologikoak edo adoptatuak garen. Bereziki ipuin hauek nabarmenduko ditugu:

- *El color de mi familia*, Bernardo Erlich. A Fortiori Editorial. «Aita iluna da –esaten du Tinchok–, iluna Sanjuán nire katua bezala, katua gaez patiora irteten denean, begiak ixten baditu, inork ezin baitu aurkitu. Ama, berriz, –esaten du Cucak–, argi-txoa da, esnea, jogurta eta arrautza-esnea bezala. Eta egun argitsuetan izarak eskegitzen dituenen, ezkutaketan jolasten gara, eta beti irabazten nau».
- *Piratas y quesitos*, Carmen Herrera. A Fortiori Editorial. «Gau honetan ezin dut lorik egin, bihar goizean oporretan joango bainaiz osabekin. Nire osabaren izena Miguel da, nirea bezala, eta ezkondu eta haurtxo bat izan nahi du. Nire osabak ez du andre-gairik aurkitu behar, Fernando osabaren senargaia delako. Kontua da amona pixka bat galduta dabilela, eta ez dela horretaz ohartu; nik hala uste dut behintzat».
- *Mi amigo Grvs, el de las verdes colinas*, Bernardo Erlich. GRVS nire laguna oso urrutitik iritsi da, eta urrutiko leku hartan oso modu arraroa dute jateko, oso jolas desberdinak egiten dituzte, hemengoak ez bezalakoak, eta oso hizkuntza zail batean hitz egiten dute, nekez ulertzen dena. Oso lagun minak gara.

Baliabide horiek oso erabilgarriak dira kultura-aniztasuna lantzeko, eta, aniztasun hori ikusgai jartzeaz gain, aniztasuna onartzen dute eta horri balio handiagoa ematen diote. Tresna bikaina dira ikusgai ez dauden edo gizartean balioa galdurik duten taldeek eta pertsonak gizartean gehiago parte har dezaten lortzeko, eta, era horretan, ikusgai jartzeko eta jendeak onar ditzan lortzeko. Era berean, lagungarriak dira hausnarketa eta jarrera pertsonala sustatzeko, bereizkeria eta desberdintasuna iraunarazten duten gizarte-tresnen inguruan.

## 5. Bibliografia

- Bonino, L. (2000). *Varones, género y salud mental: deconstruyendo la “normalidad” masculina*. Hemen: M. Segarra eta A. Carabí (arg): Nuevas masculinidades (41-64). Icaria. Bartzelona.
- Bonino, L. (2003). *Los hombres y la igualdad con las mujeres*. Hemen: C. Lomas (konp.). ¿Todos los hombres son iguales? Identidades masculinas y cambios sociales (105-142). Bartzelona: Paidós.
- Bosch, E. Ferrer, V. A. eta Alzadora, A. (2006). *El laberinto patriarcal. Reflexiones teórico-prácticas sobre la violencia contra las mujeres*. Bartzelona: Anthropos.
- Bourdieu, P. (2000). *La dominación masculina*. Bartzelona: Anagrama.
- Cabello, I. (2009). *Género en la Educación para el desarrollo*. Hemen: Del Río, A. eta Lleó, R. (koord.). Género en la Educación para el Desarrollo. Estrategias Políticas y Metodológicas (11-25). Bilbao: HEGOA-ACSUR.

- Cala, M. J. eta De la Mata, M. (2006). *Escenarios de actividad e identificación de género*. Hemen: M.A. Rebollo (koord.). Género e Interculturalidad: educar para la igualdad (245-266). Madril: La Muralla.
- Cala, M. J. Godoy, M. S. eta Rebollo, M. A. (2009). *Mujeres que recuperan el control de sus vidas: estrategias y recursos que utilizan para superar una relación de maltrato*. Hemen: Vázquez, I. (koord.). Investigación y Género. Sevilla: Servicio de Publicaciones.
- Cobo, R. (2006). *Interculturalidad, feminismo y educación*. Madril: Libros de la Catarata/ MEC.
- Colás, P. (2006). *Género y contextos sociales multiculturales: educación para el desarrollo comunitario*. Hemen: E. Soriano (koord.). Mujer en la perspectiva intercultural (21-42). Madril: La Muralla.
- CONGDE (2005). Educación para el desarrollo: una estrategia de cooperación imprescindible. Hemen dago eskuragarri: [www.autonomicas.congde.org/documentos/54\\_1.pdf](http://www.autonomicas.congde.org/documentos/54_1.pdf)
- Crawford, M. (2006). *Transformations. Women, Gender and Psychology*. Boston: McGraw-Hill.
- Crawford, M. eta Chaffin, R. (1997). *The meanings of difference: cognition in social and cultural context*. Hemen: P. J. Caplan, M. et al. (arg.). Gender differences in human cognition. Oxford: Oxford University Press.
- Ebadí, S. (2009). *La voz de los derechos humanos en Irán*. Sevillako Unibertsitatean egin-dako hitzaldia; egunkarian.
- Freixas, A. (2001). *Entre el mandato y el deseo: la adquisición de la identidad sexual y de género*. Hemen: C. Flecha eta M. Núñez (arg.). La educación de las mujeres: nuevas perspectivas (23-31). Sevilla: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Sevilla.
- Kincheloe, J. eta Steinberg, S. (1999). *Repensar el multiculturalismo*. Bartzelona: Octaedro.
- Lagarde, M. (1996). *Género y feminismo. Desarrollo humano y democracia*. Madril, Horas y Horas.
- Lagarde, M. (2000). *Claves feministas para la autoestima de las mujeres*. Madril: Horas y Horas.
- Lagarde, M. (2009). *Empoderamiento y liderazgo femenino*. Sevilla: Diputación Provincial de Sevilla; egunkarian.
- Linch, J. eta Kilmarin, CH. (1999). *The pain behind the mask*. New York. Haworth Press.
- Rebollo, M. A. (2001). *Género y educación: La construcción de identidades culturales*. Hemen: T. Pozo, R. López, B. García eta E. M. Olmedo (2001) (koord.), Investigación Educativa: Diversidad y Escuela (61-71) Granada: Grupo Editorial Universitario.
- Rebollo, M. A. (2006). *Género e interculturalidad: educar para la igualdad*. Madril: La Muralla.
- Rebollo, M. A. (2008). *Educar para una ciudadanía paritaria*. Hemen: E. Soriano (koord.). Educar para una ciudadanía intercultural y democrática (311-334). Madril: La Muralla.
- West, C. eta Zimmerman, D. H. (1987). Doing Gender. *Gender and Society*, 1(2), 125-151.

# Genero zuzentasuna eta herri indigenak Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegitik

*Jesús González Pazos, María Viadero Acha*

## 1. Sarrera

Zalantzarik gabe, erronka garrantzitsua da benetan genero-zuzentasuna eta herri indigenak bezalako gai bati heltzea Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegitik. Nolabait ere esan genezake arlo hau, orain arte, oso gutxi eta osoaldi bakanetan landu dela, eta, beraz, oso gutxi aurreratu dela horretan. Hala garapenerako lankidetzaren arloan, nola irakasgai akademikoetan eta politika- eta gizarte-arloetan, bereizirik egon dira hemen aztertu nahi ditugun gaiak. Gainera, zabal onartuta egon da lan honi ekitea oso zaila dela, historikoki pertsonaia nagusiak izan diren bi aldeek –hau da, mugimendu indigenak eta emakumeen mugimenduak edota mugimendu feministak– estereotipoz beteriko ikuspegia edo eza-gutza gabezia izan baitute elkarrekiko.

Hortaz, testu hau hurbilpen gisa ulertu behar dugu, ondo baitakigu hezkuntza-prozesuetan koherentzia handiagoz lan egin behar dela errealtateari buruz kontzientzia kritikoak sorrarazteko, eta tresnak eman behar direla justizian eta elkartasunean oinarritutako gizarte- eta politika-arloko aldaketa lortzeko. Hala, bada, oso garrantzitsua da aztertzea nola landu daitekeen Garapenerako Hezkuntzan, genero zuzentasuna eta herri indigenak bezalako funtsezko bi gaien ikuspegitik.

### 1.1. Herri indigenak

Azken hamarkadetan definizio ugari erabili da “herri indigenak” zer diren azaltzeko, baina agiri honetan hau erabiliko dugu: Herrialde Independenteetako Herri Indigenei eta Tribuei buruzko Hitzarmenean jasota dagoen definizioa. Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmen hori 1989. urtean onetsi zuten eta, besteak beste, Estatu Espainiarrak berretsi zuen.

Definizio horri jarraiki, kasu hauetan esango dugu herri bat indigena dela: alde batetik, herri horretako kideak, konkista, kolonizazioa edo egungo estatuko mugak ezarri aurretik, alde horretan bizi zirenen ondorengoak direnean; eta, bestetik, egoera juridikoa zeinahi

delarik ere, gizarte-, ekonomia-, kultura- eta politika-arloan zituzten instituzioei –edo haietako batzuei– eutsi diotenean, estatu osoko beste sektore batzuek ez bezala. Bestalde, hauek dira nabarmendu beharreko beste bi osagai: herrialde bateko gainerako biztanleek dituzten kultura eta hizkuntza bezalakoa ez den kultura- eta hizkuntza-izaera dutela; eta oso harreman estua dutela naturarekin eta lurraekin, eta hori nabarmen azaltzen dela herri horien ekonomian, bizimoduan eta kontsumoan. Azkenik, eta indigenen ikuspegiekin bat etorrira, norberaren identifikazioa erabakigarria da definitioari begira; hau da, nortasun indigena izateko kontzientzia edukitzea oinarrizko irizpidea da giza talde horiek zehazteko.

Aurreko tesia oinarritzat hartuta, gaur egun, planetako habitat eta ekosistema guztietan (lurrazalera osoaren %7an) dauden herri indigenak, 370 milioi pertsona dira, hau da, munduko biztanleria osoaren %5 gutxi gorabehera. Hala, bada, munduan bizirik irauten duten 5.000 kulturen %95 dira, gutxi gorabehera; eta haien lurralde urrietan landarediaren, faunaren eta bestelako baliabide naturalen biodibertsitate osoaren %70 inguru dago bilduta.

Bestalde, bost kontinenteetan daude, baina ehunekorik handiena Asian dago (Txinan eta Indian). Amerikan 40 milioi indigena dago, gutxi gorabehera; eta alderdi horretako herrialde batzuetan, gainera, indigenak gehiengo demografikoa dira –esate baterako, Guatemalan eta Bolivian– edo oso ehuneko handira iristen dira –Ekuadorren, Mexikon eta Perun–.

Horiek horrela, zenbait kontzeptu argitu behar ditugu, labur bada ere; maiz kontzeptu horiek oker erabiltzen baitira, eta, neurri handi batean, herri indigenei buruz ditugun este-reotipo asko erabilera oker horietan oinarrituta baitaude. “Etnia”, “arrazaz”, “herria” edo “kultura” bezalako kontzeptuak lausoki erabiltzen ditugu, bai eta “erkidego” edo “tribu” bezalako kontzeptuak ere –eskubideak murrizteko edo gutxiesteko baliatzen diren hitzak alde batera utzita–.

Labur-zehatz esan liteke **talde etniko** jakin bateko kideek oinarrizko kultura-ezaugarri batzuk dituztela batera, batez ere, hizkuntza-, gizarte-, politika- eta lurralde-arloan. Beste talde batzuek, edota eurek ere, erkidego berezitat eta desberdintzat jotzen dituzte. Talde etnikoak duen kultura-bestelakotasunari eusten dio, belaunaldiz belaunaldi. Hortaz, talde etnikoa zehazten duen osagaia kultura-arloko bestelakotasuna da.

**Herria.** Kontzeptu eztabaidatua da, baina, dena dela, bat etor gaitzeko definizio honekin: bere kultura-, gizarte- eta historia-arloko eskubide bereziak onets diezazkioten eskatzen duen talde etnikoa da herria.

**Arraza.** Zorionez, kontzeptu hau gero eta gutxiago erabiltzen da, guztiz gaitzesgarriak diren joera politikoak sortu dituelako. Kontzeptu honek giza espeziea sailkatu nahi du irizpide biologikoetan oinarrituta, ustez ikuspegi zientifikoa izanik, baina arbitrariotasunez beterik dago, eta, horren ondorioz, giza taldeen artean eskalak eratzten ditu nagusitasunaren edo gutxiagotasunaren arabera.

Ikusiko denez, hainbat definiziotan **kultura** hitza agertzen da, osagai garrantzitsua baita. Antropologiatik ikusita, kultura hauxe da: giza talde bat edo herri bat eratzen duten eta hari nortasuna ematen dioten sinesmenen eta ondasun materialen eta materiagabeen multzo osoa. Definizio horrek gizakiaren bizitzako alderdi guztiak hartuko lituzke barne, esate baterako, mundua ulertzeko era, pertsonekin harremanak izateko ezartzen dugun sistema, edota gure sinesmenak eta gure ondasun materialak. Hala, bada, kultura bat desagertzen denean, ate bat ixten diogu ezagutzari, eta bizi garen mundua ikusteko, ulertzeko eta azaltzeko modu desberdin bati. Bestalde, oso garrantzitsua da ulertzea kulturak ez direla estatikoak, etengabe bilakatzen eta garatzen ari direlako.

Esparru teoriko horretan mugitzen dira herri indigenak, eta hor azaldu dute, azken mendeetan, existitzeko duten eskubidea.

Herri horietako mugimendu politikoa indartsu sortu da azken hamarkadetan; dena dela, inoiz ez zen desagertu, aurre egin baitzuten herri gisa suntsituak ez izateko. Askotan sektorialtzat jo da, baina, hala ere, parametro berriak ekarri ditu gizarte zuzenagoak eta bidezkoagoak eraikitzeko. Gainera, aldarrikatzen dituen hainbat eskubide ikusezin bilakatu dira historikoan barrena eta ez dira onartu, garapenerako lankidetzaren esparruan ere ez. Herri gisa dituzten eskubideak azaldu dituzte, bestelakoak izateko eta diren moduan aintzatetsiak izateko duten eskubidea, bai eta dagozkien eskubide politiko, sozial, ekonomiko eta kultural guztiak abiarazteko duten eskubidea ere.

Hortxe iraun dute, lehenik aurre egin dute, eta, gero, beren hautabideak abiarazi dituzte nagusi den eremuan; horren ondorioz, nazioarteko erkidegoak finkatutako sistemaren oinarriak berrikusi behar izan dira. Era horretan, haiek, beste batzuen artean, taldeko eskubideen existentziari eta erabilpenari buruzko eztabaida piztu dute, eta zabal-zabal azaldu dute egitura berriak behar ditugula, estatu-nazioen kontzeptiotik nazio askotako estatuen egitura igarotzeko.

Bere horretan irauten duten bereizkeriako egoeren ondorioz, herri indigenak zorrotz aritu dira dagozkien banakako eta taldeko eskubideen alde borrokan. Era horretan, haien agerpena eta ekintza oso nabarmena da, ez bakarrik toki- edo estatu-arloan, baita nazioartean ere; eta lorpen handiak izan dituzte, esate baterako, lehen aipatu dugun Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169 Hitzarmena, edota orain dela gutxiko Herri Indigenen Eskubideei buruz Nazio Batuek egindako Adierazpena (2007ko irailkoa), edota hainbat herrialdetako konstituzio nazional berriak edo konstituzio aldatuetan egindako aurrerapenak.

Azkenik, kontuan izan beharreko beste alderdi bat –batez ere lankidetzan eta Garapenerako Hezkuntzan egiten den lanean– hauxe da: indigenen kontzeptio kulturalen –hala eskaera politikoen esparruan, nola kultura, gizarte- edo ekonomia-arloko eskaeren esparruan– egiten diren aldarrikapenek **lotura zuzena dutela elkarrekin**. Hau da, eta adibide gisa, ezin da hezkuntza-prozesu berezirik ulertu, lurraldea alde batera utzita; eta, era berean, ezin da lurraldea hartu, sinesmenen sistematik berezita, sistema horrek eragina izango baitu herri gisa bultzatzen duten autogarapen-eremuan.

Era berean, eta agiri honen gai nagusia aintzat hartuta, ezin da tradiziozko ezagutza babestu eta zaindu, aldi berean genero-azterketarik egin gabe, eta azterketa horren bidez ikertu gabe ea zer dela-eta diren emakumeak ezagutza horren alderdi garrantzitsu batzuen ardura dutenak. Era berean, ezin da osorik babestu kultura-nortasunerako eskubi-dea, aldi berean sustatzen ez baditugu gai horri dagokionez egiten ari diren hausnarketa berriak, hain zuzen, hauek: generoko desberdintasunei eusteko, herri batzuetan kulturaz egiten den erabilera txarra.

## 1.2. Genero-desberdintasunak herri indigenetan

Garrantzitsua da adieraztea, lehen egin dugunez, herri indigenen egoeran desberdintasun nabarmenak eta argiak daudela, beste herri batzuen egoerarekin erkatuta, beren banakako eta taldeko eskubideen alde egiten duten lanaren eta errealtatearen esparruan. Hala ere, eta aurrerago gehiago sakonduko dugun arren genero-zuzentasunari eta herri indigenei buruzko eztabaida nagusiekin eta oinarrizko kontzeptuekin, orain aditzera eman nahi dugu herri indigenen baitan genero-desberdintasunaren arloan dauden arrakalak, neurri handi batean, gainerako gizarteetan daudenen modukoak direla, baina zenbait berezitasun ere badituztela.

Puntu horri hasiera emateko, **genero-harremanen** esparruan, mundu osoan agertzen diren alderdi batzuk azaldu nahi ditugu<sup>1</sup>:

1. Emakumeek eta gizonek eratzten dituzte gizarte guztiak.
2. Gizarte guztietan, femeninitasuna eta maskulinitasuna kultura aldetik eraikitzen dira (hori argi ikusiko dugu, hala rolei nola subjektibotasunei begiratuta).
3. Gizarte bakoitzak arau, tradizio eta balioen multzo bat du, eta, horren arabera, emakumei femeninitasuna eta gizonei maskulinitasuna esleitzeko modua *malguagoa edo zorrotzagoa izango da*.
4. Gizarte guztietan, hainbat osagaien arabera bereizten da lana, eta, besteak beste, sexua hartzen da kontuan.
5. Gizarte guztietan genero-harreman jakin batzuk eraikitzen dira.
6. Kultura bakoitzak ideologia, tradizio eta erritual batzuk ehuntzen ditu, eta horiek zerbait "naturala" balitz bezala aurkezten dituzte generoko harremanak eta nortasunak; hala, beraz, ez dituzte aurkezten pertsonak eta haien inguruneak dituen beharriaz erantzuteko sortutako eraikuntza historiko gisa.
7. Gizarte gehienetan eta alderdi gehienetan, balio gehiago ematen zaio maskulinitasunari femeninitasunari baino.
8. Gizarte gehienetan, emakumeek desabantailak dituzte, gizonekin erkatuta.

---

<sup>1</sup> VÁZQUEZ, Norma (2003, 12 or.).



Alderdi horiek hortxe irauten dute, **genero-desberdintasuna** berriz pizten da mundu osoan, eta ondo ezagutzen ditugun egoerak gertatzen dira berriz, besteak beste, hauek: emakumeek denik eta parte-hartzerik txikiena dute erabaki politikoak eta ekonomikoak hartzen diren tokietan, feminizidioak izaten dira, analfabetismo-tasak altuagoak izaten dira emakumeen artean, emakumeek sarbide murriztagoa dute osasun- eta kreditu-zerbitzuak eskuratzeko eta lurren titularrak izateko, eta pobreen artean emakumeak gero eta gehiago dira. Hala, 2008. urteko Social Watch-en txostenari jarraiki, gaur egun, emakumeek ez dituzte gizonak dituzten eskubide sozial, politiko eta juridiko berdinak, hala gertatzen da munduko eskualde guztietan<sup>2</sup>.

Herri indigenak ardatz gisa hartuta, eta gaur egun mundu osoan dauden genero-desberdintasunek zerikusia dutela onartuta, herri horiek dituzten berezitasun batzuk zehaztu behar ditugu orain. Zaila da berezitasun horiek definitzea, lehen esan dugunez herri indigenen barruan era askotako errealitateak daudelako eta ezinezkoa delako beti-bateko talde gisa aztertu. Hortaz, bada, egoera horiek dagokien testuinguruaren eta herriaren arabera aztertu behar ditugu.

Desberdintasunaren arloan dauden arrakalak banaka aipatuz gero, zerrenda zabalegia eta zailegia egingo genuke; hala, beraz, bost arlo bereiziko ditugu, arlo horietan agertzen baitira herri indigenen errealitatean dauden desberdintasunik berezienak.

- a. Kultura eta giza arloa: bertan honelako alderdiak daude, besteak beste: emakumeak beren kulturaren babesari atxikita daude, herri indigenek oso ondo balioesten baitute hori; eta, kontraesana bada ere, gizon askok beren kulturarekin batere zerikusirik ez duten osagaiak eskuratzen dituzte (hala nola, hizkuntza, teknologia berriak, prestakuntza...), eta emakumeek, berriz, aukera gutxiago dute politika- eta gizarte-arloan eta arlo pertsonalean, tresna horiek eskuragarri ez dituztelako. Beste kontraesan bat hauxe da: herri indigenetan rol femeninoak, ustez, oso ondo balioetsita daude, baina, hala ere, emakumeek oso eragin gutxi dute, oso autoestimu gutxi dute eta gutxiagotasun-ustea dute. Arlo honetan aztertzen da, herri indigena gehienetan, emakumeak ugaltze-esparruari lotuta azaltzen direla eta, aldi berean, emakumeak zuzen lotuta daudela amatasunari, ezkontzari eta heterosexualtasunari; hala, beraz, ez dira barne hartzen lesbianismoa, ama ez izatea edo sexu- eta ugaltze-eskubideekin zerikusia duten beste gai batzuk.
- b. Gizartean parte hartzea eta erabakiak hartzea: arlo hau argi agertzen da zenbait egoeretan; hona hemen adibide batzuk: emakumeek gizarte- eta antolakuntza-arloan jasaten duten bereizkeria, ez dira aintzat hartzen emakumeek egin ditzaketen ekarpenak, ez dute sarbiderik erabakiak hartzen diren eta boterea dagoen guneetara iristeko, oztopoak aurkitzen dituzte erakundeetan parte hartzeko edo beren erakundeak eratzeke, hala tokiko arloan nola nazioan eta nazioartean. Puntu honetan aipatu behar dugu herri indigena askotan aukera hau hartzen dutela aintzat: bikote heterosexual modura parte hartzea. Hala, bada, egoera askotan, emakumeak

---

<sup>2</sup> SOCIAL WATCH (2008).

politikan parte hartzeko guneetan azaltzen dira, baina sakonago aztertzen badugu, argi ikusiko dugu ez dutela benetan politikan parte hartzen, edo parte-hartzean ez dagoela berdintasunik.

- c. Ekoizpen- eta ekonomia-arloa: etxeke eta ugaltzeko rola emakumeei atxikita agertzen da ia osorik. Gainera, emakumeak gizonen mende daude, eta, horren ondorioz, lan femeninoak okerrago balioetsita daude. Alabaina, batzuetan, malgutasun gehiago egoten da, eta emakumeek gehiago parte hartzen dute ekoizpenari lotuago dauden roletan. Garapenerako programetan baztertuta eta alde batera utzita daude, eta, gehienbat, etxeke esparrukotzat jotzen diren arloetan eta roletan agertzen dira, esate baterako, osasun- eta hezkuntza-arloan, edota artisautza-lanak edo oinarrizko elikagaiak prestatzeko esparruetan. Azkenik, lurren banakako eta taldeko jabetzarako sarbidean ere desberdintasuna sumatzen da, eta, gainera, emakumeak ez dira aintzat hartzen baliabide ekonomikoak banatzerakoan.
- d. Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko sarbidea: ez dator bat emakumeek dituzten beharrian praktikoekin, ez eta haien interes estrategikoekin ere; gainera, ez dira kontuan hartzen emakumeen gizarte-, ekonomia- edo geografia-baldintza bereziak. Medikuntza tradizionala ez da ondo aintzatesten edo balioesten, eta maiz emakumeak izaten dira medikuntza hori menderatzen eta irakasten dutenak. Ez dago informaziorik metodo antikonzeptiboek, abortuari eta familia-plangintza izateko eskubideari buruz. Gainera, estatuko programetara iristeko sarbidea emakumeengandik urruti egoten da beti, hor gizonak baitira nagusi. Hala, bada, baliabideak oso urriak direnez, ia ez dute sarbiderik horietara iristeko.
- e. Prestakuntza, komunikazio eta informaziorako sarbidean argi ikusten da, besteak beste, emakumeek mugatuta dutela eskolara eta prestakuntzako beste gune batzuetara joateko aukera. Gainera, sarbidea baimentzen dietenean ere, ez dituzte aintzat hartzen emakumeek beste zama batzuen ondorioz dituzten baldintzak eta mugak; prestakuntzako gune horiek lidergoa, kudeaketa edo politika lantzeko arloak izaten dira. Bestalde, haien kulturei balioa kentzen zaie –eta emakumeak dira kultura horien igorleak–, eta beste eredu batzuk ezartzen dizkiete. Horrez gain, hezkuntza urrikoak direnez, informazioa, komunikazioa eta teknologia berriak eskuratzeko duten sarbidea hala-moduzkoa da.

Aipatutako arlo guztietan desberdintasun aldetik dauden arrakala horiei zera gehitu behar diegu: emakume indigenen hainbat erakundek behin eta berriz adierazi dute etengabe azpimarratu behar dela egoera batzuetan are handiagoak direla genero-desberdintasunak herri horietan.

Hala, bada, hauek dira desberdintasuna areagotzen duten **egoerak**:

- Kultura gaizki ulertzea: gertaera estatikoa eta aldaezina balitz bezala hartzen da; horko balioek botere gehiago ematen diote gizonari erabakiak hartzeko, eta, sarritan, arlo pribatura baztertzen eta mugatzen dituzte emakumeak.
- Egoera politikoa, ekonomikoa eta soziala: horren ondorioz, pobrezia indarrez bultzatzen ditu desberdintasun-moldeak (baina ez da haien sorburua), aukerak,

eskubideak eta boterea murrizten dizkie hala gizonei nola emakumeei, eta areago nabarmentzen ditu finkatuta dauden rol desberdinak.

- Hirugarren egoera, maiz ahaztua, bereizkeria etnikoa da: gizonen eta emakumeen egoera larriagotzen du, eta eragin bereziki larria du emakumeengan.
- Azkenik, nabarmendu behar dugu oso zaila dela azterketa zehatzak eskuratzea herri indigenetan dagoen genero-desberdintasunari buruz. Puntu honek zerikusia du azken hamarkadetan sexuen arabera bereizitako datuak biltzeko eta aztertze-ko egon den eskaerarekin. Prozesu horiek aldatzen ari dira, baina, hala ere, oraindik ere zaila izaten da sexuen arabera banandutako datuak lortzea, bereziki, herri indigenei dagokienez.

### 1.3. Emakume indigenen mugimendua

Goian azaldutako desberdintasun-arloko egoeren eta arrakalen aurrean, emakume indigenen mugimenduak azken urteetan lortu du bere burua zehaztea, teorizatzea eta nazioartean ikusgai jartzea, bai eta emakumeen mugimenduan edota mugimendu feministan eta bere erakunde indigenen baitan ere –eta batzuetan hori are zailagoa izaten da–.

Emakume indigenen mugimenduak gora egin du, beren herriek banakako eta taldeko eskubideen alde egiten duten borrokak gora egin duen heinean, hala kanpoan nola barruan. Hala, esan dezakegu azken bi hamarkadetan, emakumeen foroan, bileren, sareen eta gailurren bidez, mugimendu zabala eratu dela, eta, horrenbestez, genero-desberdintasunen arazoa estatu-nazioen arloan ikusarazteaz gain, herri eta erakunde indigenen baitan ere jarri dutela ikusgai. Horrez gain, emakume indigenen artean, gero eta lider eta intelektual gehiago azaltzen da, eta, hortaz, bereizkeriak dituen hiru alderdietatik azter dezakegu egoera: emakumea, pobrea eta indigena izatearen aldetik.

Emakume indigenek gune kolektiboetan parte hartu dute herri indigenen eskubideak aldarrikatzeko; eta, horrez gain, gune bereziak sortu dira, hala nola, Emakume Indigena Afrikarren I. Biltzarra (FAIWC) (Agadir - Maroko, 1998), Ameriketako Emakume Indigenen I. Gailur Kontinentala (Oaxaca, 2002) eta Abya Yalako Emakume Indigenen I. Gailur Kontinentala (Puno, 2009). Nazioarteko bilera horien bidez, aurrera egin nahi da emakume indigenen partaidetza eraginkorra sustatzeko eta bermatzeko lanean, haien egoerari begira garrantzitsuak diren foro guztietan. Horretarako, guztion agendak eta jarduteko eta koordinatzeko estrategiak eratu dira; eta, orobat, emakumeak ikusgai jartzeko eta prestakuntza, hausnarketa eta gaitasuna lantzeko gune bilakatu dira.

Bestetik, prozesu horren ondorioz, emakume indigenen eskaerak, haien errealitatea, eta, era berean, gai horiei heltzeko modua mugimendu feministaren aztergaia eta eztabaidagaia dira. Latinoamerikako eta Karibeko Bilera Feministak adibide gisa hartuta, nabarmena da bilera horietan mugimenduak hausnarketa egin duela aniztasunari buruz, bereziki, emakume indigenen egoerari buruz, eta bilakaera izan duela hausnarketa horren ondorioz. Kulturari buruz aritu garenean adierazi dugunez, prozesu horiek etengabe aldatzen eta bilakatzen ari diren errealitateak dira. Adibidez, 2009. urteko martxoan Mexikon izan zen azken bilera feministan, emakume indigenen mugimenduari buruzko tailer berezietako

batean<sup>3</sup> hausnarketarekin jarraitu zuten, mugimenduak zituen erronka berriak adierazi zituzten, eta agerian geratu zen indigenak ziren eta indigenak ez ziren emakumeen agendetan adostasunerira iristeko moduko alderdiak zehaztu behar zirela.

Eztabaidak ikusita, aniztasuna pixkanaka asimilatzen ari dela jakinda, eta emakume indigenen errealtatearen konplexutasuna aintzat hartuta, aditzera eman behar dugu emakumeen mugimendua garatu dela; eta, horrek ondorioak ekartzen ditu, emakume horien banakako eta taldeko eskubideak betetzen aurrera egiteari begira. Era berean, horren ondorioz, aldaketak egin behar izan dituzte, eta kontzientzia hartu behar izan dute haien buruari buruz, eta erkidego, antolakuntza eta mugimenduaren barnean dituzten harremanei buruz.

Funtsezkoa da prozesu horrekin aurrera jarraitzea, genero-desberdintasunak gutxitzeko. Ildo horretan, garrantzizkoa da mugimendua sendotzea eta, orobat, emakume indigenek emakume gisa dituzten eskubideak eta, halaber, beren herriek aintzatetsita dituzten eskubideak ikusgai jartzea, hau da, beren nortasun etnikoari dagozkion kultura- eta gizarte-arloko taldeko eskubideak, besteak beste, hauek: beren kultura, lurra era lurraldea izateko eskubidea, autodeterminaziorako eskubidea, norberaren garapena izateko eta eskubideak dituen subjektu gisa aintzatetsia izateko eskubidea.

Horretarako, hausnarketa eta eztabaida egiten jarraitu behar dugu, taldeko eskubide horiek eta aniztasunean berdintasuna lortzeko eskubidea eta erabakiak hartzeko (oinarriko erabakiak hartzeko, esate baterako, sexu- eta ugaltze-eskubideak betetzeko) askatasuna nola bateratu ahal diren jakiteko.

Gai horiek sakonago aztertuko ditugu feminismoari eta emakume indigenen mugimenduari buruko eztabaidak lantzean.

Emakume indigenen mugimenduaren adibide gisa, Emakume Indigenen Lehen Bilera Nacionalean Ramona komandanteak adierazitako hitzak ekarriko ditugu hona (Oaxaca, 1997): *“Oztopo asko gainditu behar izan dugu honaino iristeko: boterearen jabeek bereizita eta isilik nahi gaituzte; Mexikoko aberatsek esplotatzen diren animaliak bezala eduki nahi gaituzte; atzerritarrek gure lurrik onenak bereganatu nahi dituzte eta esklabo gisa baliatu nahi gaituzte; militarrek gure erkidegoak inguratzen dituzte, bortxatzen gaituzte, gure seme-alabak mehatxatzen dituzte, eta drogak, alkohola, prostituzioa eta indarkeria sartzen dituzte; eta gure izenean pentsatu eta aritu nahi duten horiei ez zaie gustatzen guk indiook gure hitza esatea, eta beldur dira gure errebeldiaz ... Hala iritsi gara honaino, gure adiskideetako batzuk aurka egon arren, adiskide batzuek ez baitute ulertzen zein garrantzitsua den emakumeok parte har dezagun, gizonen egiten duten bezalaxe. Horiei guztiei eta geure buruari galdera hau egin nahi diogu: Zapatismoa gauza bera izango al litzateke emakumerik gabe? eta hainbeste bultzatu gaituen gizarte zibila –hala indigena nola indigena ez dena–, gauza bera izango al litzateke emakumerik gabe? Gogoeta egin ahal dugu eraiki nahi dugun Mexiko menderakaitzari eta berriari buruz, Mexikoko emakume menderakaitzak eta berriak aintzat hartu gabe?”.*

<sup>3</sup> Honako lan-mahai hau da: *Feminismo y Mujeres indígenas: del racismo, exclusiones y desencuentros a la construcción de las articulaciones ante los nuevos discursos y realidades.*

## 2. Oinarrizko kontzeptuak

### 2.1. Nortasuna

Taldeari dagokionez, lehenik eta behin esan behar dugu nortasuna oinarrizko kontzeptua dela herri indigenen existentziari begira. Osotasun kulturala dela-eta (hau da, sinesmenak eta ondasun materialak eta materiagabeak direla-eta), herri batek nortasuna du, beste batzuek aintzatesten dute; eta nortasun hori bakarrik izan daiteke bideragarria norberaren lurraldean, hau da, osotasun hori jaio eta garatzen den lekuan. Bestetik, nortasuna oinarrizko kontzeptua da generoko banakako nortasuna definitzeko eta, horren ondorioz, talde bateko kide izateko kontzientzia hartzeko.

Hala norbanakoaren arloan nola arlo kolektiboan, nortasuna etengabeko eraikitze-prozesu baten emaitza da, genero edo talde bateko kide gisa definitzen gaituzten osagaiak eraikitzeko prozesuarena. Hala, bada, norabide bikoitzean azalduko da beti: alde batetik, norberak bere burua onartuko eta topatuko du, eta norberaren kidea izango da (nire gorputza, nire adina...); eta, bestetik, norberak besteak onartuko eta topatuko ditu, eta besteentz kidea izango da (gure maila, gure generoa...).

Orduan, hala norbanakoaren arloan nola arlo kolektiboan, beste pertsona batzuekin dugun harremanaren arabera definituko da nortasuna, eta geurea baietsiko dugu besteekin ditugun bestelakotasunak sumatzean. Hortaz, nortasuna inposatzen edo bortxaz kentzen duenak eskubideak urratzen ditu, eta, beraz, pertsona edota taldea doilortuta geratzen da. Aitzitik, nortasuna autonomiaz garatzeko askatasuna izatea norberaren burua eraikitzeko prozesu bat da, eta aniztasuna aberasten du.

### 2.2. Kultura-arloko erlatibismoa eta arrazionalismoa

Kultura-aniztasuna aintzatesten denean, bi ikuspegi izaten dira, haren zabalera, azalpena eta ondorioak argitzeko.

Arrazionalismoaren arabera, inferentziako prozesu logiko batzuk eta pertzepzioko osagai batzuk unibertsalak dira, eta, horietatik abiatuta, norberarenarekin erkatuta bestelakoa den kultura baten adierazpenak aurkitu ahal dira, eta, beraz, aniztasunaren gaia aztertu ahal da.

Kultura-arloko erlatibismoa, berriz, unibertsaltasun horren aurka doa; haren arabera, sinesmenek eta adierazpenek bakarrik dute balioa dagokien ingurunearen barruan. Hortaz, ezin da kanpotik aztertu, ezta hari buruzko ondorioirik atera ere.

“Etnozentrismoa” ere oso kontzeptu garrantzitsua da, eta jarduera kolektibo honi izendatzeko erabiltzen da: gizarte jakin batek dituen kultura-formak bezalakoak ez diren kultura-formei uko egitea (moral-, gizarte-, erlijio- estetika-arloko formei etab.). Jarrera horren azpian, kultura-aniztasunarekiko gaitzespena dago. Etnozentrismoaren forma sotil bat da kultura-aniztasuna onartzea, baina, betiere, hierarkizatuta baldin badago. Aztergai dugun egoeran zuzeneko eragina duen aldaera bat “eurozentrismo” izenekoa da: mende-baldeko kulturak gaitzespen-maila hori du besteekiko, edo goi-mailan dago hierarkiari

dagokionez; hortik existentzia, egoera eta garapen-maila aztertzen dira, eta gainerako kulturei dagozkien eskubideak ere bai. Agiri honetan nabarmendu behar dugu eurozen-trismoak –barneratutako bere forma sotil guztietan– sarritan lehentasuna eman diola garapenerako lankidetzaren teoriari eta praktikari. Hala, beraz, Garapenerako Hezkuntzak jarduteko esparru zabala du aurrean, ikuspegi eta jarduera horiek alderantzikatzeko.

### 2.3. Mundu-ikuskerak

Normalean, mundu-ikuskerak herri indigenei buruz hitz egiten dugunean aipatzen dugu, baina, hala ere, gizarte guztietan aurkituko dugu. Izan ere, giza talde guztiek dute unibertsoaren forma, eduki eta dinamikari buruzko irudikapen-multzo bat: haren espazio- eta denbora-arloko ezaugarriak, bertan dagoen izaki-mota, haren sorrera eta bilakaera azaltzen duten oinarriak edo potentziak.

Jakina, mundu-ikuskerak dagoen unibertsoaren ordena horretan dago, era berean, giza-kiak irudikapen horrekin ezartzen duen harremana; eta horrek gidatzen ditu, neurri handi batean, taldeko kideen arteko harremanak.

Emakume maien *Kaqla* erakunde guatemalarrak esaten duenez, mundu-ikuskerak “*baliagarria da egun guztiak bizitzeko, gure eguneroko jokabidea gidatzeko, gure jokabideak koherentea izan beharko bailuke ikuspegi horrekin. Mundu-ikuskerak benetako gauza bat da, zehatza, posiblea, orain bizi eta gozatu ahal duguna, ez da irudizko gauza bat*”.

### 2.4. Dualtasuna - Osagarritasuna

**Dualtasunaren** ideia ez da bakarrik herri indigenen baitan azaltzen. Pentsamendu feministak emakumearen eta gizonaren arteko dikotomia hori erabili du, hortik sortu diren desberdintasunak azaltzeko. Alabaina, Norma Vázquezek azaltzen duenez, “*dualtasunaren ideia gatazkan dago ilustrazioan sortu zen pertsona kontzeptuarekin, eta kontzeptu hori pentsamendu modernoaren oinarri garrantzitsuenetako bat da. Pertsona –anatomia-ko eta fisiologiako desberdintasunak gorabehera– hiritar bilakatzen da, eskubide berdinak dituen hiritar. Pertsonaren kontzeptuak berdintasunean oinarritutako feminismoa sustatu du. Hala, bultzada eman dio feminismoari, emakumeak gizarte modernoan sorburua den gizarte-itunetik baztertuta daudela salatu dezan, eskubide berdinak eska ditzan eta emakumeek hiritar izaera dutela aldarrika dezan*”.

Alabaina, kontzeptu hori eta **osagarritasuna** –eta, orobat, emakumea kulturaren etengabeko ugaltzaile (eta zaintzaile) modura hartzen duen ikuspegia– dira, ziurrena, herri indigenen borrokak berpiztean gehien goretsi ziren balioetako batzuk, gizonen eta emakumeen arteko harreman zuzenean.

Hala, bada, herri indigenen ustez –bereziki, Amerikan–, dualtasuna eta osagarritasuna oinarri ideala dira, hau da, harmonia, oreka eta begirunea. Oso garrantzitsuak dira, ema-

<sup>4</sup> CHACACH, Rolando: “Encuentros y desencuentros entre el mayanismo, feminismo e identidades masculinas”, hemen: CUMES, Aura E. eta MONZÓN, Ana S. (2006, 84 or.).

<sup>5</sup> VAZQUEZ, Norma: Op. Cit., 16 or.

kumeei eta gizonei aukera ematen baitie beren burua unibertsoa osatzen duen zati gisa ikusteko, elkarren artean eta unibertsoarekin mendekotasuna duten izaki gisa ikusteko<sup>6</sup>. Ikuspegi hori gaur egun hein handi batean politikoa da, eta hainbat filosofia indigenetan ditu sarturik sustraiak. Filosofia horietako gehienen ustez, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari eta osagarritasunari dagokienez izan zen aldirik gorena denboraldi aurre-koloniala izan zen. Hortaz, geroago Mendebaldek ekarri zituen menderakuntza-aldietan kokatzen dute emakumeen eta gizonen artean gero eta handiagoa den desorekaren eta desberdintasunaren arrazoia.

Egia da prozesu kolonialen ondorioz gora egin zuela desberdintasunak, baina, hala ere, egia ere bada aurreko denboraldietan izan zen osagarritasuna, azken batean, desberdintasunak ziren aldean batasun bat zela. Dena dela, osagarritasun horrek ez zuen esan nahi elkarrekiko onarpen eta ekarpen orekatua zegoenik; izan ere, ordurako, gizonen eta emakumeen lan desberdinak esleituta zituzten, eta lan horiei buruz egiten zen balioespena desberdintasunean oinarrituta zegoen.<sup>7</sup>

Hona hemen gai honi buruzko Boliviako adibide bat: *“Dualtasun horri, gizakiari aplikatuta, aimaren munduan, chacha-warmi deitzen diogu (gizon-emakumea). Chacha-warmi bikotearen benetako batasuna ezkontzaren bidez ematen da aditzera, jaqichasiña ekitaldiaren bidez, horrek hitzez hitz zera esan nahi baitu: “JENDE gisa graduatzea, JENDE bilakatzea”. Bestalde, jaqichasiña ekitaldiak esan nahi du begirunezko harremana egongo dela gizonaren eta emakumearen artean, eta, hargatik, edozein erabaki hartzeko, bien arteko adostasunera iritsi beharko dutela beti. Politika- eta gizarte-arloan eta bestelako arloetan erabakiak hartzeko erantzukizuna ezin da banaka hartu, bikoteak hartu behar du, jaqi-k, senar-emazteak, alegia. Mendebaldeko sisteman horrek ez du garrantzirik; guk mota horretako jardute politiko, sozial eta espiritual bati ch’ulla deitzen diogu mespretxuz, hau da, bakoitia, osagabea, jende erdia<sup>8</sup>.*

Adibide hori interesgarria da, emakumeen partaidetza arlo politikoan barne hartzen delako, eta beste herrialde batzuetan hori geroxeago lortu delako. Hala ere, praktikan, kasu gehienetan, ez dago aukerarik parte-hartze politiko hori benetan eta kalitatez gauzatzeko.

Gaur egun ere, emakume eta gizon indigenen artean ideia hori da nagusi, hau da, emakumeen eginkizun nagusia kultura indigenaren eta bizitzaren zeregin sortzailea, eratzailea, zaintzailea eta hornitzailea dela. Alabaina, idealizazio hori, egunerokotasunean, zama astuna da, emakumeen partaidetza mugatzen duelako, eta etxeko lanetara, amatasunaren arlora eta familia zaintzeko zereginetara murrizten duelako.<sup>9</sup>

Emakume indigenek jarrera desberdinak hartu dituzte osagarritasunaren kontzeptu teoriko eta praktikoaren aurrean: haietako batzuek erabat ukatzen dute osagarritasunaren

<sup>6</sup> PALENCIA PRADO, Tania (1999. 57 or.).

<sup>7</sup> PALENCIA PRADO, Tania: *Op. Cit.*, 60 or.

<sup>8</sup> CONSEJO ANDINO DE NACIONES ORIGINARIAS. *Sagrada dualidad*. [www.pusinsuyu.com/html/sagrada\\_dualidad.html](http://www.pusinsuyu.com/html/sagrada_dualidad.html)

<sup>9</sup> PALENCIA PRADO, Tania: *Op. Cit.*, 62 or.

balioa; beste batzuek proposatzen dute kontzeptuari esanahia berriz ematea, hartara, generoko harremanak aldatzeko eta benetako osagarritasuna lortu ahal izateko; beste batzuek, berriz, diskurtsoaren balio estrategikoa onartzeaz gain, koherentzia eskatzen dute, eta generoen arteko botere-harremanak berriz definitzeko prozesuan izan duen ekarpena balioesten dute.

Kanpotik ikusita, sakonago eta hurbilago ezagutu beharko genituzke kontzeptu horiek, eta estereotipo eta gaitzespen errazak alde batera utzi beharko genituzke, duten benetako balioa ikusteko. Emakume indigena askok adierazten dutenez, dimentsio kritikoa izanik, onartu beharko genuke osagarritasuna ezinbesteko baliabidea dela, eta oso lagungarria izan daitekeela gizonen eta emakumeen arteko harreman zuzenak berreraiki ahal izateko.

Kontzeptu horri heltzea interesgarria da, herri indigenen kulturari dagokiolarako. Kontzeptu horretatik abiatuta, sakonago aztertu ahal izango dugu, eta ikusi ahal izango dugu zein diren genero-zuzentasunarekin dituen bateragarritasunak eta bestelakotasunak. Hausnarketa horretan ikusgai jarri beharko genuke ez direla kontzeptu bateragarriak, ez direla sinonimoak. Izan ere, batzuetan osagarritasunerako lana aipatzean, generoko zuzentasunerako lanaren ordezkotzat jotzen da. Era egokian erabili ezik, gaur egun dau-den genero-arloko desberdintasunak areago indartuko ditugu.

## 2.5. Arrazakeria

Irizpide biologikoen arabera egindako giza taldeen sailkapenaren ezarpenaren eta onarpenaren desbideratze baten arabera, biologia eta/edo kultura-arrazoia direla-eta, norbanako edo giza talde batzuk azpian edo mendean daude, eta beste batzuk, berriz, hobeak dira, berez. Argudio horiek erabiltzen dira ahulagoak diren pertsonak indartsuaren mende jartzeko. Argudio horiek arrazakeriaren bidez islatzen dira politikan eta ideologian, “*gertaera dinamikoa da, eta haren isla den gizartean izandako aldaketan arabera eraldatzen eta egokitzen da. Adierazpen esplizituak edo sotilak izan ditzake. Sarritan, arrazakeriaren adierazpen esplizituak desagertzen direnean, beren existentzia ere ukatu ohi da. Hala ere, gizarteak arrazakerian oinarritutako zutabeen gainean eraikita badaude, gertaera hori instituzioen egituretan ageriko da eta berriz errepikatuko da (Heckt: 2004). Arrazakeria ideologia bilakatu da, eta desberdintasunean oinarritutako gizarte-ordena aurkeztu nahi dugu berezkoa edo naturala balitz bezala (Stolcke: 2000: 47)”<sup>10</sup>.*

Hala, bada, arrazakeria zapalkuntza eta berezikeria dela jotzen badugu, hauxe izango litzateke: historian barrena eta gaur egun, giza talde jakin bateko kideak, arraza dela-eta, azpian edo mendean jartzen dituzten gizarteko harremanen, egituren eta instituzioen multzoa. Arrazakeria ez da soilik ideologia, ideien esparruan sortzen eta errepikatzen diren aurreiritziak bezala. Era berean, ez da banakako edo isolatutako jokabide bat, bereizkeriazko gertaera zehatzak diren moduan. Aitzitik, arrazakeria etengabeko gizarte-zapalkuntza kolektiboa da.

<sup>10</sup> CUMES, Aura E.: *Machismo y Racismo: dos formas de naturalizar las opresiones y desigualdades*, hemen: CUMES, Aura E. eta MONZÓN, Ana S. (2006, 99 or.).



Herri indigenek arrazakeria pairatu dute historian barrena, eta gaur egun ere pairatzen jarraitzen dute, kokatuta dauden gizarte nazional gehienetan. Era esplizituan edo sotilean, gaur egun ere etengabe azaltzen da.

## 2.6. Matxismoa

*Nagusitasun patriarkalaren adierazpen honek balio osoa kentzen die emakumeei (eta femininotasunari), sexu-objektu gisa baliatzen du, eta, hari jarraiki, gizonak indarkeria erabiltzen dute emakumeak menderatzeko. “Matxismo” hitza “matxo” hitzetik sortu da; gizonaren arketipoan oinarritutako esanahi biologikoa du (Gil, 2003: 1), eta, ustez, geneetan eramaten da. Hori dela-eta, (matxismoak) argudio biologikoak erabiltzen ditu generoa eraikitzeke (Pop, 2000: 1), eta, ildo horretan, sinesmen hau babesten du: emakumeak, berez, ahulak dira fisikoki eta adimen aldetik, eta, hortaz, gizonak etengabe babestu behar dituzte. Azken batean, labur esanda, honi dagokionez, ezinbestez ukatu behar dugu gizonak emakumearen gainetik ustez duen “nagusitasun” hori, genero-zuzentasuna benetan eraiki ahal izateko.<sup>11</sup>*

Nabarmendu behar dugu arrazakeria eta matxismoa osagai nagusiak direla emakume indigenak menderatzeko dagoen sistema sendotzeko; eta, gaur egun, zapaltzeko molde horiek erabat txertatuta daude politika-, gizarte- eta ekonomia-arloko egituretan.

## 2.7. Genero-ikuspegia eta genero-zuzentasuna

**Generoa** kontzeptu kultural bat eta gizartea antolatzeke oinarri bat da, eta emakumeen eta gizonen artean dauden bestelakotasun biologikoak hartzen ditu aintzat. Generoak sexuen artean dagoen egiturazko desberdintasuna eta boterezko harremanak azaltzen ditu, horien adierazpenak bizitza sozialeko eta pribatuko maila guztietan agertzen baitira.

*Generoa eta genero-nortasuna ez dira kategoria egonkorak edo iraunkorak, haien baitan aldaketak eta negoziatio-prozesuak izaten baitira, eta horiek boterezko prozesu sozialak dira, baina, aldi berean, trukerako eta lankidetzarako prozesuak ere badira. Gizonak eta emakumeak, egiten dituzten jarduerekin eta ekintzekin, laguntza ematen dute historian barrena eraiki diren genero-nortasunak aldatzeko: “Generoa (...) ez da “daukagun” edo “garen” zera bat, baizik eta egiten dugun zerbait”. Genero kontzeptua gizarte-maila, belaunaldia, adina, nortasuna eta antzeko beste kontzeptuak bezain unibertsala da.<sup>12</sup>*

Genero kontzeptutik harantz joz, **“genero-ikuspegiak** aipamena egiten dio kategoria horrek duen ahalmen analitikoari eta, era beren, ahalmen politikoari, hau da, errealitatea aldatzeko duen ahalmenari. Ikuspuntu horretatik hartuta, generoa, batetik, emakumeak munduan nola dauden aztertzeke dugun tresna bat da, eta, horrez gain, proposamen politiko bat ere bada, konpromisoa eskatzen baitigu genero-harreman zuzenak eta bidezkoak eraikitzeke.<sup>13</sup>

<sup>11</sup> CUMES, Aura E., *Op. Cit.* 99 or.

<sup>12</sup> MEENTZEN, Angela. (2001. 10 or.).

<sup>13</sup> MURGUALDAY, Clara: Genero hitza, hemen: PEREZ DE ARMIÑO, K. (2000, hemen: <http://dicc.hegoa.efaber.net/listar/mostrat/108>).

Azken urteetan, Garapenerako Hezkuntzan, **genero-zuzentasunaren** kontzeptua erabiltzen dugu; hala, *bereziki azpimarratu nahi ditugu pertsonen artean dauden bestelakotasunak eta gure gizarteetan duten jarrera bestelakoak, eta kontuan hartu nahi ditugu aukera-berdintasuna lortzeko estrategiei ekiteko orduan. Horrenbestez, emakumeen eta gizonen arteko benetako zuzentasuna hauxe da: berdintasuna lortzea, baina bestelakotasuna onartuta. Horrek esan nahi du ez dugula beti modu berean jokatu behar pertsona guztiekin; izan ere, desberdinak diren pertsonekin berdintasunez jokatzeko badugu, maiz, desberdintasuna agertzen da berriz. Zuzentasunak justizia esan nahi du, hau da, bakoitzari berea ematea, aniztasuna onartzea, eta aniztasuna ez izatea inoiz bereizkeriaren arrazoi<sup>14</sup>.*

### 3. Eztabaida nagusiak

Puntu honetan azaltzen dira gai honi lotutako eztabaida nagusietako batzuk, izan diren aurrerapenak, dauden erronkak eta zalantzak, eta oraindik sakondu beharreko aldeak. Iradoki diren zenbakiak ez daude lehentasunezko ordenaren arabera jarrita, eta haietako gehienak estu lotuta daude elkarri.

#### 3.1. Nortasuna, etnia eta generoa

*“Ezin dugu esan nortasun bakar bat dagoenik, edo nortasuna gardena edo kanpoko eraginetatik edo erabakietatik urrun dagoenik. Alabaina, esan dezakegu, elkarreagin horretan, berezkoa eta bestelakoa dela; bizia eta aldakorra dela<sup>15</sup>”.*

Hiru osagai horiek agertzen dira bereziki eta modu erabakigarrian genero-zuzentasunari eta herri indigenen arazoari heltzen diogunean. Etengabe daude harremanetan, eta, hori dela-eta, ezin dira banaka aztertu. Beti hartu behar dugu kontuan elkarren arteko eragina dagoela, Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegitik lan egitean.

Oinarrizko kontzeptuen zatian eta aurreko beste agiri batzuetan, nortasunak, etniak eta generoak izan ditzaketen definizioak eta haien benetako eraginak azaldu ditugu. Hala, bada, orain gogora ekarri nahi dugu kontzeptu horiek kultura, politika, gizarte eta ekonomia aldetik duten garrantzia. Hortaz, azterketan jaso beharko dira, emakume eta herri indigenak baitira bereziki nortasun zapalduak izateko kontzientzia hartu dutenak.

Bestalde, herri indigenen genero-zuzentasuna aipatzen dugunean, argi ulertu behar dugu genero-zuzentasuna hauxe dela gizakien artean: *“ez da bestelakotasuna ezabatzea, biazik eta baten eta bestearen artean dagoen giza balioaren kidetasuna onartzea<sup>16</sup>”*, eta, hor, nortasuna eta etnia bezalako ideiak etengabe azaltzen dira azterketan eta eztabaidan barrena. Nortasuna ez da osagai kaltegarria genero-zuzentasunaren aldeko borrokaren esparruan. Aitzitik, eragin ona izan dezake eta izan behar du, gune horretan aurrerapen

<sup>14</sup> MUGARIK GABE: Glosario Género y Desarrollo. [www.mugarikgabe.org/Glosario/E1.htm](http://www.mugarikgabe.org/Glosario/E1.htm)

<sup>15</sup> PALENCIA PRADO, Tania: *Op. Cit.*, 29 or.

<sup>16</sup> PALENCIA PRADO, Tania: *Op. Cit.*, 29 or.

nabariak izate aldera. Era horretan, bistakoa da antolatutako emakumeen mugimenduko gehienak bat etorri direla mugimendu indigenarekin eskaeretan: eskubide osoko subjektuak izan nahi dute, eta aldaketak sustatu nahi dituzte botere publikoa eta pribatua eduki ahal izateko. *“Hortaz, emakume eta indigena buruzagien proposamenak lagungarriak dira nortasunei funtzioak berriz emateko, eta, gainera, ez dituzte suntsitzen”*<sup>17</sup>.

Nortasun etnikoa bezalako kontzeptuak aintzat hartuta, genero-zuzentasunaren tratamenduan eragin ona izan dezakeen proposamen bat **sektore artekotasuna** da. Laburzehatz esan dezakegu sektore artekotasuna tresna analitiko bat dela, eta generoa beste nortasun batzuekin gurutzatzeko dituen moduak, eta, orobat, gurutzatze horiek zapalkuntzako eta pribilegiozko esperientzia bakanak sortzen nola laguntzen duten aztertzen eta ulertzen dituela, eta horri erantzunak ematen dizkiola. Metodologia hori ezinbestekoa da garapenaren eta giza eskubideen esparruan lan egiteko. Hari jarraiki, ez dugu pentsatu behar nortasunen konbinazioa zama handitzen duen batuketa bat denik; aitzitik, *oso bestelakoak diren esperientziak sorrarazten* dituela jo behar dugu<sup>18</sup>.

Azkenik, berriz esango dugu generoa eta etnia ez direla aztertu behar garrantziaren arabera eratutako sailkapen bati jarraiki. Etengabe elkarri eraginez ari diren gizarte-, kultura- eta politika-arloko kategoriak dira, eta, beraz, borroka bat bestearen gainetik jartzeko joera gainditu behar dugu. Izan ere, herri indigenen esparruan (eta beste errealitate batzuetan) ezin dira banandu, eta ez dira banandu behar.

### 3.2. Feminismotik feminismoetara: aniztasuna ikusgai jartzen

*“Horrek esan nahi du sistemaren aurka zoazela, haize-kontra zoazela, oztopo asko aurkituko duzula, ez zarela ondo ikusita egongo, patriarkatuak ez baitizu aukerarik emango ondo ikusita egon zaitez. Orduan, feminista izateak esan nahi du gatazka sortu behar duzula”* (Maria Estela Jocón, Guatemala<sup>19</sup>).

Mendebaldekoak ez diren beste herri batzuek feminismoari historikoki egin dioten kritika nagusi baten ardatza hauxe da: feminismoak ez duela aniztasuna aintzat hartzen aztertzeko kategoria modura, eta, horren ondorioz, mugimendu politiko horretan, ikuspegi eta azalpen etnozentrikoak agertu direla, feminismoaren tradizio liberal anglosaxoitik abiatutako ikuspegiak. Ikuspegi horiek ez zituzten kontuan hartzen beste lurralde batzuetako emakumeek politika-, gizarte- eta kultura-arloan zituzten errealitate bereziak, ez Afrika, Asia, edota Amerikakoak.

Ondoko aipua ikuspegi horren adibide argia da: *“Estatu Batuetan, emakume beltzek ez zuten beren burua islatuta ikusten emakume zuriek zituzten erakaragarrietan. Izan ere,*

<sup>17</sup> PALENCIA PRADO, Tania: *Op. Cit.*, 36 or.

<sup>18</sup> Bazterketak aztertzen dira hainbat desberdintasunen arteko elkarketak ikertuz, hala nola, generoa, adina, etnia, sexu-orientazioa. Mota horretako azterketak laurogeiko hamarkadan egiten hasi ziren; hain zuzen, ildo horretatik jo zuten Bell Hooks eta Patricia Hill Collins amerikarrek, eta ildo horretatik jarraitzen dute Mieke Verloo bezalako europarrek, inklusiboagoak diren politika publikoan ezarri.

<sup>19</sup> CENTRO DE ESTUDIOS DE INFORMACIÓN DE LA MUJER MULTIÉTNICA, URACCAN. Hemen: [www.exclusion.net/images/pdf/540\\_poqod\\_documento\\_referencial.pdf](http://www.exclusion.net/images/pdf/540_poqod_documento_referencial.pdf)

*emakume zuriek batez ere eskatzen zuten edertasunaren eta hauskortasunaren irudi gisa erabil ez zituzten, eta gogor salatzen zuten beren etxeetan urrezko kaoiletan bezala sentitzen zirela. Emakume beltzek, berriz, ez zuten etxerik, ez ziren edertasunaren irudia, eta inork ez zituen hauskortasunaren irudi gisa hartzen; aitzitik, emakume baldartzat hartzen zituzten, etxeko lanak egiteko egokiak, eta, ustezko gizagabetasunaren aitzakian, sexu-esplotaziorako baliatzen zituzten<sup>20</sup>.*

Emakume indigenei dagokienez, lehen adierazi dugunaz gain (ez zituztela beren ingurune eta desberdintasun bereziak ulertzen), haiek ere kritikak jaso dituzte, erakunde feminista batzuek eginak, erakunde horien ustez lehentasun gehiago ematen baitzioten herri gisa egiten zuten borrokari, emakume gisa zegozkien eskubideak aldarrikatzeari baino.

Lehen azaldu ditugun desberdintasun-egoeren ondorioz (kultura gaizki ulertzea, pobrezia bereizkeria iraunaraztea, bereizkeria etnikoa larrigarri bat izatea), estereotipo iraunkorrek sortu dira. Estereotipo horien inguruan, desadostasunak izan dira une jakin batzuetan mugimendu feministen eta herri indigenen banakako eta taldeko eskubideen alde borrokatzen duten mugimenduen artean. Desadostasun horien ondorioz, emakume indigenek eta indigenak ez diren emakumeek ez dute elkar ulertu, guztien eskubideen aldeko borrokan aritzean.

Hala, bada, askotan emakume indigenek kontrako jarrerak izan dituzte: batzuen ustez feminismoa Mendebaldek ezarritako joera ideologiko bat da (neurri handi batean, garapenerako lankidetzak berak ezarritakoa); beste batzuen ustez, feminismoa errotikako jarrera bat da, eta mendekuzko feminismoarekin (*hembrismo*arekin) nahasten dute; beste batzuentzat, berriz, aukera politiko berri bat da, herri gisa dituzten aldarrikapenei gaineratzeko modukoa.

Ondoko aipuan feminismoari buruzko jarrera horiek agertzen dira: batzuen ustez, zera da: *“matxismoaren aurrez aurre jarritako errotikako estereotipo bat, matxismoa ere errotikako estereotipo bat baita, eta errotikakoak diren bi estereotiporekin ezinezkoa da herriek, gure eskubideak aldarrikatzean, lortu nahi dugun oreka eskuratzea”*; beste batzuen ustez, berriz, hau: *“aukera berri bat da, emakumeak begirunez hartuko dituen mundu baten ikuskera. Diotenez, ideologia bat da; alabaina, nire ustez, bizitza ikusteko modu bat da, nire emakume-begiekin ikusteko modua, emakume bakoitzaren aukerak errespetatzea. Orain, nire iritziz, feminismoaren xedea da emakumeekiko begirunea lortzea, emakumearen izaeran<sup>21</sup>.*

Hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, kritika horren eta azaldu ziren beste batzuen ondorioz, mugimendu feministak sakon berrikusi zituen aniztasunari buruz zituen ikuspegi politikoak, eta, horretarako, emakume indigenek edo (etnia, kultura, sexu-aukera... zela-eta) baztertuta zeuden beste talde batzuek egindako salaketak hartu zituen abiaburutzat. Une horietatik aurrera, kontzientzia gehiago hartu zen emakumeen artean

<sup>20</sup> CUMES, Aura E. (2009).

<sup>21</sup> CENTRO DE ESTUDIOS DE INFORMACIÓN DE LA MUJER MULTIÉTNICA, URACCAN: *Op. Cit.* 27 or.

dagoen aniztasunari, bestelakotasunei eta desberdintasunei buruz; eta aniztasun hori erakusteko eta desberdintasunak hausteko lan egin zen; hortik aurrera, mugimendu feministei buruz hitz egiten hasi zen. Bestalde, mugimenduaren barnealdeari buruz egindako hausnarketa eta berrikuspen kritikak hori azkarrago egin zuten mugimendu honetan, beste mugimendu sozial eta politiko batzuetan baino.

Teresa Maldonadok honela esan zuen “El debate entre feminismo y multiculturalismo” agirian: *“Emakumeen talde horiek (talde feministek) nagusi zen feminismoari egiten zioten kritika/salaketa, azken batean, feminismoak gizarte patriarkalari egiten zion berbera zen, susmo bera: feminismoak salatzen du ustez neutroa dena, ingurune sexistan, ez dela neutroa, joera guztiz maskulinoa izaten baitu; hala, beraz, ezin dugu beste horrenbeste esan gizartearen ustez neutroa denari buruz, gizarte arrazista, klasista, homofobo... batean? Eta hori egia bada, egiaztapen horrek zer-nolako eraginak izango ditu aipatutako diskurtso feministan, mugimendua (erakundeak...), gehienbat, zuriak, profesionalak eta heterosexuak diren emakumeek eratzten dutela ikusita? Nolanahi ere, ondo bereizi behar ditugu kritikak: alde batetik, feminismoaren joera nagusiak jaso zituen kritikak ditugu, feminismoaren baitatik ateratakoak, feminismoak bere oinarriekin koherentzia gehiago izan zezan lortu nahi zutenak; bestetik, berriz, oportunistoz beterik eta mugimenduaren kanpotik egin ziren kritikak daude, feminismo osoari zilegitasuna kendu nahi ziotenak<sup>22</sup>”.*

Ildo horretan, Maldonadoren aipu horretan argi azaltzen da nola erabiltzen den argudio hori mugimendu feminista osoari zilegitasuna kentzeko, ildo horretan izan diren aurrerapenak onartu gabe, eta, azken batean, feminismoei buruzko estereotipo txarrei eusteko, mugimendua ahultzeko, herri batzuetako emakumeak geldiarazteko, eta haiengan errua, frustrazioa eta nahasmena pizteko.

Zorionez, azken hamarkadetan emakume indigenen pentsamendu politikoa garatu da, beste talde batzuk (afroen ondorengoak, lesbianak, beltzak...) ikusgai jarri dira, eta erakunde eta joera feminista guztietan kontzeptu berriak berrikusi dira –hala nola, sektore artekotasuna–. Horren ondorioz, bide berriak urratu dira elkarren arteko ulermena lortzeko, aniztasuna errespetatuz.

### 3.3. Emakumeen mugimendua eta/edo mugimendu feminista

Nortasunari eta feminismoari buruzko eztabaiden arteko lotura gisa, atzera berriz azalduko ditugu emakume indigenek beren borrokak definitzeko erabili dituzten moduak. Hala, nabarmendu behar dugu zenbateko garrantzia duen izendapenak eta hautatzen dugun izendapen horrek dituen konnotazio desberdinak.

Alde nabarmen bat dago emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren artean: emakumeen mugimendua gizarte-mugimendu bat da, emakumeek eratzen dute,

<sup>22</sup> MALDONADO BARAHONA, Teresa: *El debate entre Feminismo y Multiculturalismo y algunas de sus repercusiones en el caso del hijab*, Doktoregoko ikasturterako lana: Feminismo, Globalización y Multiculturalismo. Argitaratu gabea, 5 or.

baina emakume horiek ez dute ezinbestez aldarrikapen feministen aldeko borrokan aritu behar; mugimendu feminista, berriz (Victoria Sauren definizioaren arabera), “*gizarte- eta politika-arloko mugimendu bat da, formalki XVIII. mendearen amaieran eratuakoa –baina, artean, izen hori hartu gabe–; haren bidez, emakumeek kontzientzia hartzen dute, eta ohartzen dira giza talde bat direla, zapalkuntza, mendekotasuna eta esplotazioa jasan dutela eta oraindik ere jasaten dutela, gizonen taldeak zanpatu baititu, patriarkatuan, ekoizteko ereduak historian barrean izan dituen aldi guztietan zanpatu ere; horren ondorioz, emakumeak ekiten hasten dira, beren sexuaren askapena lortzeko, eta prest agertzen dira helburu hori lortzeko gizartean egin behar diren aldaketa guztiak egiteko*”<sup>23</sup>.

Batzuetan, bi mugimenduak bereizteko, mugimendu feministaren molde guztiak ezagutu behar dira eta haietara hurbildu behar da. Hainbat alderdi hartu behar dira kontuan: norbanakoaren esparrutik eta taldearen esparrutik hausnarketa egiteko beharra eta aukera; eta, gero, emakumeen mugimenduan edo bestelako erakundeetan ekitea. Gai horiek lotura zuzena dute Jo Rowlandsek azaldu zituen dimentsio pertsonalarekin, harreman-dimentsioarekin eta dimentsio kolektiboarekin<sup>24</sup>. Emakume indigenen mugimenduari dagokionez, nabarmena da askotan beste kultura batzuetan izaten den prozesua aldatzen dela. Hala, lehenik, jarduera kolektiboak egiten dira, eta, hala, jarduera horiek lagungarriak dira banakako hausnarketa egiteko edo gune kolektibo berriak sortzeko.

Gaur egun, lehen adierazitako emakume indigenen gailur gehienetan, gehiago hitz egiten da emakume indigenen mugimenduari buruz. Hala ere, kanpoan aintzat hartzen diren eskaerak feministatzat jo ditzakegu gehienbat. Garrantzizkoa da talde bakoitzaren burujabetza abiaburutzat hartzea, nork bere burua definitzeko, eta batez ere baterako helburuak izateko: kasu honetan, emakumeen eskubideen aldeko borroka eta emakumeen eta gizonen artean harreman bidezkoagoak sortzeko borroka. Alabaina, ezin dugu alde batera utzi zein garrantzitsua den gure buruari deitzeko erabiltzen dugun nola izena, eta horrek dituen ondorioak nortasuna eta historia eraikitzeari begira, taldeko antolakuntza eratzeari begira... Emakume indigenen mugimendua mugimendu feminista modura ez definitzeko dauden hipotesi batzuek hauek izan daitezke:

1. **Ez izatea:** argi eta garbi egiten dute herri indigenen borrokan alde, baina ez dituzte bereziki aintzat hartzen aldarrikapen feministak.
2. **Mugimendu feministei aurre egitea:** gehienbat, mugimendu horrek ez duelako bere agendan argi jasotzen emakume indigenek dituzten interesen eta beharrezan aniztasuna. Aurreko puntuan adierazi bezala, gaia aztertu da, eta emakume indigenek eta beste talde feminista batzuek gaia aztertzen jarraitzen dute. Hala ere, banaka eta taldeka hausnartzeko eta antolatzeke guneak eratu behar dira. Era horretan, hobeto

<sup>23</sup> SAU, Victoria (1981, 121 or.).

<sup>24</sup> Boteretzea hiru alderditan azter daiteke: alderdi pertsonalean, boteretzea da izateko zentzua, eta banakako gaitasuna eta konfiantza garatzea; hurbileko harremanen alderdian, boteretzea da negoziatzeko trebetasuna garatzea, eta eragina izatea harremanaren izaeran eta harreman horren barruan hartutako erabakietan; eta alderdi kolektiboan, norbanako guztiak batera aritzen dira lanean, banaka baino eragin gehiago lortu ahal izateko. Jo Rowlands, “*Empoderamiento y mujeres rurales en Honduras: Un modelo para el desarrollo*”, hemen: LEÓN, Magdalena Comp.; Poder y empoderamiento de las mujeres, 1997; Bogota: TM Editores - UN Facultad de Ciencias Humanas.

ezagutu ahal izango ditugu feminismoak, eta gaur egun gizarte gehienetan indarrean dauden erresistentzia horiekin hausteko mugimendu horrek dituen ondorioak.

- 3. Geldiaraztea:** gizon, emakume eta erakunde indigena batzuek estereotipoak dituzte oraindik feminismoei buruz (zatitzailea, mendebaldekoa, hirikoa, mendekuzko feminismoa... dela), eta, horrez gain, bestelako estrategiak daude, emakumeek parte har ez dezaten.

Horri dagokionez, nabarmena da azken urteetan egoera ez dela horrelakoa genero kontzeptuari dagokionez. Hala, bada, kontraesan bat dugu aurrean. Izan ere, erakunde eta instituzio askok “jarrera ona” azaltzen dute beren estrategietan eta ekintzetan genero-ikuspegia sartzeko, baina ez, ordea, proposamen feministak sartzeko. Horixe bera gertatzen da emakume eta erakunde indigena askorekin: ez dute feminismoa aldarrikatzen beren jardute politikoan, baina genero-arloko lana bultzatzen dute.

Horri dagokionez, beharbada, genero-zuzentasuna modu estrategikoagoa edo “atseginagoa” izango da genero-desberdintasunei heltzeko. Hala ere, arriskutsua da, **genero kontzeptua despolitizatzen** ari delako, ez delako sakontasunez ezartzen, ez eta gizartea eraldatzeko dituen ondorio guztiekin ere. Bestalde, ezin dugu ahaztu, genero-ikuspegia zeharka jartzeko prozesua era ez-egokian eginez gero, genero-politikak desagertu ahal direla<sup>25</sup>, eta, horrela izatekotan, ez ditugula lortuko eskuratu nahi genituen emaitzak eta eraginak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren esparruan.

Bestalde, kontuan izan behar dugu sarritan –eta beren errealtateari jarraiki– indigenak ez diren talde feministen aniztasunaren **agendan** gai hauek azaltzen direla gehienbat: sexu-eta ugaltze-eskubideak onartzea, borondatezko amatasuna, genero-indarkeriaren aurkako borroka eta sexu-orientazio askea izateko eskubidea. Emakume indigenen agendetan, berriz, eskaera horietako gehienak agertu arren –batez ere, ugaltze-eskubideak, eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borroka–, hala ere, beste eskaera batzuk azaltzen dira: ekonomia- eta, bereziki, politika- eta kultura-arloko eskaerak, jasan duten arrazakeriaren eta esplotazioaren ondorioz, arrazakeriak eta esplotazioak eratu baitituzte herri eta emakume gisa dituzten nortasunak. Ildo horretan, hauxe da egin beharreko azterketaren eta eztabaidaren osagai funtsezko bat: ikusgai jartzea elkartzeko guneak aurkitu behar direla, eta esparru politiko bat zehaztu behar dela emakumeen interesak aniztasunean babesteko.

Sarreran esan dugunez, azken urteetan ikusgai jarri da emakume indigenen mugimenduen antolakuntza, pentsamendua eraikitzeko egin dituen ekarpenak (batez ere ekofeminismoan) eta jendea mugiarazteko duen gaitasuna. Hala, feminismo indigenari buruz hitz egiten hasten da, emakume indigenen mugimenduan hausnarketak sakontzen eta prozesua finkatzen delako.

Atal hau amaitzeko, Alma López zinegotzi kiche-aren lekukotasuna jasoko dugu<sup>26</sup>: *“Feminista indigena naizen aldetik, nire kulturak dituen oinarri filosofikoak berreskuratu*

<sup>25</sup> LONGWE, S. H. (1997).

<sup>26</sup> VAZQUEZ, Norma: Op. Cit. 18 or.

*nahi ditut, eta XXI. mendeko errealitatean ezarri nahi ditut, hau da, nire ustez nire kulturakoa ez den hori kritikatu nahi dut, eta harrotasunez onartu nahi dut kultura horretakoa naizela. Nire iritziz, feminismo indigenak oinarri bat hartzen du abiaburu gisa: emakumeak gara, eta gauzak garatzen eta iraultzen ditugu gure burua pertsona independente modura eraikitzeko, erkidegoan eratzen den eta, bere buruaz ahaztu gabe, besteei eman ahal dien pertsona gisa. Nik oinarri filosofiko hauek berreskuratuko nituzke nire kulturarik: gizonen eta emakumeen arteko, emakumeen arteko eta gizonen arteko zuzentasuna eta osagarritasuna”.*

### 3.4. Etnozentrismo feminista vs bidezko unibertsaltasuna

*“Ezinezkoa da mundua eraldatzea eta hobea den zerbait lortzea, inori enbarazurik egin gabe”*

Celia Aguilar, México<sup>27</sup>.

Asmo suntsitzailez feminismoaren aurka gehien erabiltzen den ezaugarrietako bat da “mendebaldekoa” dela, errealitate historiko jakin baten emaitza dela eta, hortaz, kultura-espazio horri baizik ezin zaiola ezarri, emakumeen eskubideen aldeko borrokaren adierazpide politiko gisa. Zalantzarik gabe, salaketa hori kultura-erlatibismoaren muturreko ikuspegitik hurbil dago, eta etnozentrismoaren muturreko salaketa erabiltzen du argudio gisa. Era horretan, aukera guztiak ukatzen dizkie hirugarrenei, hala beste kultura-ingurune batzuetako emakumeen errealitatea aztertzeko, nola salagarriak diren desberdintasunen salaketaren legezotasuna ikertzeko. Era berean, zorrotz murrizten ditu eraldatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko dauden aukera guztiak. Bestalde, ikuspegi horri jarraiki, desberdintasunak ukatzera ere irits gaitezke, parametro unibertsalak ezin direla ezarri adierazten baitu.

Nabaria da feminismoa mendebaldeko gizarteetan sortu dela, eta, lehen adierazi dugunez, feminismo liberal anglosaxoia errealitate kultural eta historiko jakin baten emaitza dela. Alabaina, politika- eta gizarte-arloko azterketak bezalaxe, azterketa feministak aberastu ahal dira, aniztasuna eta errealitate desberdinak ulertuz. Ildo horretan, kategoria eta ikuspegi berriak har ditzake, beste herri batzuetako esperientzia politikoak, sozialak eta kulturalak erabiliz taldeko eztabaida eta ikaskuntza bultzatzeko, eta alderantziz. Era berean, aberastasun eta aniztasunarekiko begirune horretatik, feminismoa azterketako parametro baliagarria izan daiteke, munduko beste leku batzuetan eskubideak eskatzeko –kasu honetan, emakumeen eskubideak eskatzeko–.

Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren esparruan, etengabe ikusten da zein garrantzitsua den prozesuak sistematizatzea eta beste talde eta sare batzuekin gure esperientziak trukitzea, hartara, guztionak edo gureak diren helburuak lortu ahal izateko. Hori emankorra izan daiteke, betiere, ezer inposatzen ez bada, eta beste esperientzia batzuk ezagutzeko aukera badago. Hortaz, horixe bera ezarri ahal dugu dagokigun kasuan. Mundu guztiak ez du bere gorpila asmatu behar: guztiona den gorpila erabil daiteke, eta, gero, aldaerak egin dakizkioke, eta kolore desberdinez margotu ere bai.

<sup>27</sup> Ikastaro honetan, aurrez aurreko eskola batean: Curso Internacional sobre Mujeres y Derechos de Pueblos Indígenas en el Sistema Interamericano, CEIMM-URACCAN, Bilwi, Nikaragua, 2002ko abuztua.



Alabaina, Maldonadok dioenari jarraiki, hegoaldeko herriek bizi izan duten historia, sarritan, harlauza nabarmena da, eta ikuspegiak eta estereotipoak egituratzen ditu. Hala, mendebaldeko historia kolonialaren eta menderatzailearen ondorioz, honelako ikuspegi bat garatu da, unibertsaltasunaren asmo guztiak guztiz etnozentrizotzat jotzen dituen ikuspegi bat. Botere menderatzaileak unibertsaltasun faltsua darabil, bereziak eta zehatzak diren diskurtsoak unibertsalak balira bezala erabiltzen baititu. Alabaina, unibertsaltasun faltsu horren bidezko salaketa egin beharrean, edozein irizpide unibertsal gaitzestera iritsi gara. Izan ere, unibertsaltasuna zera izango balitzateke: dagokien kultura alde batera utzita, pertsona guztiek batera dituzten ezaugarriak bilatzea da –denik eta ezaugarriarik txikiena izan arren–. Hainbat emakume pentsatzaileek diotenez, balio jakin batzuk leku zehatz batean garatu arren, horrek ez du esan nahi balio horiek leku horren jabetza direnik<sup>28</sup>.

Illo horretan, hainbat galdera bururatzen zaizkigu, ditugun aztergaien inguruan: balio feminista unibertsalak daudela esan dezakegu?, zein eskubideri buruz ari gara emakumeen eskubideak betetzen ez direla esaten dugunean?, eta zein izan litezke mugimenduan adostasunera iristeko moduko balioak: Beijingekoa bezalako nazioarteko biltzarretan zehaztutakoak (1995), Latinoamerikako bilera feministak bezalako guneetan adierazitakoak...?

Erakunde feministekin eta emakume indigenen eta indigenak ez diren emakumeen erakundeekin bat etorrita, gure ustez, adostasun unibertsala lortu ahal da (eta hori desiragarria da). Hori onuragarria izango litzateke, adostutako agenda politiko bat eduki ahal izateko; hala, emakume guztientzat genero-zuzentasuna lortzeko funtsezkoak diren alderdiak sartu ahal izango liriateke agenda horretan.

Adostasun hori definitzea neurri handi batean lortu da giza eskubideei buruz egin diren nazioarteko biltzarren bidez. Lehenik, emakumeen eskubideak eta berdintasuna ikusgai jarri zituzten (eta zegoen desberdintasuna onartu zuten), eta, gero, berariazko gaiak zehaztu zituzten, hala nola, emakumeen aurkako indarkeria, eta sexu- eta ugaltze-eskubideak. Biltzarren artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Emakumearen aurkako era guztietako bereizkeriak deuseztatzeko biltzarra, 1979koa (CEDAW).
- Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko adierazpena, 1993koa.
- Biztanleriari eta garapenari buruzko hitzaldia, Kairo, 1994.
- Emakumei buruzko munduko hitzaldiak, batez ere, Beijingeko IV. Hitzaldia eta haren berrikuspenak (+ 5, +10, eta 2010. urtean +15).

Puntu honetan, lehenik, onartu nahi dugu gune instituzionalak beti ez daudela hain eskuagarri, gizartearen partaidetza lortzeko (alabaina, emakumeen mugimenduak eta mugimendu feministak funtsezko zeregina bete dute hitzaldi horietan eta aldi berean egin diren foroetan). Horrez gain, ikusgai jarri nahi dugu beste gune batzuetan egindako adie-

<sup>28</sup> MALDONADO BARAHONA, Teresa: *Op. Cit.* 8 or.

razpenek duten garrantzia, hala nola, bilera feministak eta emakume indigenen bilerak bezalako guneetan, edota agendak, estrategiak eta eztabaidak zehazteko tokietan egingakoak.

Bestalde, erakunde feministek azterketak aniztasunaren ikuspegitik sakondu behar zituztela onartu zuenetik, aurrerapen garrantzitsua izan da, batez ere, emakume indigenen ikuspegiari dagokionez. Aurrerapen horri esker, ikuspegi berriak izan ditzakegu eta aukera eta gaitasun handia dugu elkar ulertzeko. Hona hemen aurrean ditugun erroka horietako batzuk:

- Emakumeek duten biktima-irudia alde batera utzi behar da beren egoera ulertzeko, hau da, talde ahula eta eraginkorra den aldetik duen egoera ulertzeko.
- Aukera dugu mugimendu feministen barruan desberdintasun etniko-kulturalaren onarpena indartzeko eta begirunea sustatzeko.
- Feminismo indigena indartu behar da, mugimendu horren burujabetza oinarritzat hartuta, hartara, autodefinizioa egiteko, eta gizartea eraldatu eta itunak egiteko tresna gisa ulertu ahal izateko.
- Feminismoa berriz formulatu behar da, kultura eta ingurune bakoitzaren arabera.
- Mugimendu feministen arteko itunetan eta sororitatean oinarritutako estrategia zehaztu behar da, lehia eta mesfidantza alde batera utzita.
- Ikuspegi bikoitza eta parte-hartzea; bi mugimenduek hartzen dute militantzia bikoitz horren onura: alde batetik, feministek, kultura-aniztasuna barne hartu behar dutelako genero-desberdintasunari buruz egiten duten azterketan; eta, bestetik, mugimendu indigenak, genero-arloko proposamenak sartu behar dituelako desberdintasun etnikoari eta klasistari buruz duen ikuspegiaren.

Ziurrena, azken erronka hori, erronka gisa baino, gako gisa ulertu behar dugu, zabalik dagoen eztabaida honetako nahitaezko ondorio modura. Ildo horretan, akordioa egiteko, ondo ulertu beharko genuke, generoari eta arlo etnikoari dagokionez, batek ez duela besteak baino garrantzi gehiago. Aitzitik, gizarte-, kultura- eta politika-arloko kategoria gisa hartu behar ditugu, eragina baitute, adinak, mailak, sexu-aukerak eta beste eragile batzuek bezala. Hala, bada, nahitaez gainditu behar dugu sarritan erakunde askok ezarri duten lehentasuna; zapalkuntza bati aurre egiteko, ez diegu horri garrantzi gehiago eman behar beste batzuei baino, eta lehen azaldu dugun sektore artekotasunari heldu behar diogu. Hortaz, genero-arloko zapalkuntzaren aurka borrokatzeko, ezin dugu borroka hori beste borroka batzuetatik bereizi; eta, dagokigun kasuan, ezin dugu bereizkeria etnikoaren aurkako borrokatik banandu, ezta alderantzizkoa egin ere.

### 3.5. Genero-zuzentasunaren aurrean dauden erresistentzia nagusiak

Jakina denez, mugimendu eta erakunde indigenek sarritan aurkeztu dituzten era askotako argudioek zalantzan jartzen dute mugimendu feministak eta emakume indigenek genero-zuzentasuna lortzeko egiten duten lana.

Argi adierazi behar dugu kritika horietako asko gizon indigenek egin dituztela. Guatemalako maia-kaqchikel den Aura Cumesek dioenez<sup>29</sup>, erresistentzia horiek lau multzo handitan bil ditzakegu: generoa eta feminismoa mendebaldeko kategoriak dira; hori dela-eta, kategoria horiek erabiltzea kaltegarria izan daiteke erkidegoaren gizarte-ehunarentzat; lankidetzaz bortxaz ezarritako gauza bat da eta, beraz, erakundearen autonomiaren aurka doa; eta, azkenik, kolonialismoaren molde berri bat da.

Cumesek azaldutako argudioak paratuko ditugu hona: herri indigenetan genero-zuzentasunaren alde egindako lana galgatzeko –jakinaren gainean egonik edo arduragabeki–, tartean sartzen diren ikuspegiei buruz azaldutako argudioak.

**Generoa eta feminismoa mendebaldeko kategoriak** direla dioen ikuspegiari dagokionez, gure ustez, gai hori zabal landu dugu agiri honetan. Alabaina, ikuspegi horretan, kontzeptu horien hautabide gisa, osagarritasun eta dualtasun oinarriak aipatzen dituzte, guztiz indigenak izango balira bezala. Hori ukatu gabe, esan dezakegu sarritan hola jokatzeko dutenek errealtatearen azterketa mugatzen dutela, pisu gehiago baitu beren diskurtso politikoak, emakume eta gizon indigenek bizitzeko eta elkarren artean harremanak izateko duten moduari buruzko ikuspegi kritikoak baino. Hala, bada, kontzeptu horiek aldarrikatu beharko genituzke, baina ulertu beharko genuke nola funtzionatzen duten, hau da, etengabeko elkarrizketa bat eginez errealtatearekin eta, orobat, dauden zapalkuntzako harremanak zalantzan jartzea ahazten ez duten jarrera politikoekin.

**Erkidegoko gizarte-ehunari kalte egiteko** dagoen arriskuari dagokionez, oso nabaria da kezka hori indar gehiagoz agertzen dela genero-arloko gaiei buruz hitz egiten dugunean. Aitzitik, kezka horrek etengabe agertu beharko luke; izan ere, gizartea aldatu nahi duten eragile guztiek gizarteko baldintzak aldatzen dituzte, hain zuzen, aldatu nahi direnen moduko egoerak sorrarazten dituzten baldintzak. Hortaz, argudio horrek ziurtzat joko luke gizarte-ehuna ezin hobea dela, edo oro har gizarteko baldintzak alde batera utzita eraiki dela.

**Erakundearen autonomiari** dagokionez, galdera batzuk egin beharko genituzke nahitaez; esate baterako, hauek: nork eraikitzen du erakundearen autonomia?, nork zaintzen du autonomia hori askotarikoa eta demokratikoa den, emakumeen eta menpean dauden beste talde batzuen partaidetzari begira? Erakundearen burujabetzari begirunea izan behar zaio. Horrek duen garrantzia onartu arren, kontuan izan behar dugu, kasu honetan, burujabetza hori ez dela bakarrik erabili behar genero-zuzentasunaren aldeko lanarekiko erantzukizuna ezkatutzeko eta saihesteko.

Azkenik, emakume indigenek desberdintasunen aurka egiten dute borroka **kolonialismoaren molde berri** bat dela dioen argudioari dagokionez, bakarrik du garrantzia, baldin eta seriotasunez aztertzen badugu ia zergatik hori izan daitekeen horrela, eta ez politika-, gizarte- edo ekonomia-arloko beste gai batzuk. Nabaria denez, argudio horrek indar etikoa galtzen du, baldin eta aitzakia gisa erabiltzen badugu, aztergai ditugun kontzeptuetatik urruntzeko.

---

<sup>29</sup> CUMES, Aura E. (2009).

Azken batean, zapalkuntzek eta, beraz, zapalkuntza horien kontra egin beharreko borrokek duten garrantzia gutxitzea edota ikusezin bihurtzea adibide argia da, garbi erakusten baitigu balioa kenduz zapalkuntza horiei eusten dietela.

### 3.6. Esentzialismo etnikoa

*“Hauxe adierazten dugu: bere izenean eta bere hitzarekin, antzinatek gure bihotz beltzararen sakonean ereindako benetako hitzarekin, Herria garela esaten dugu duintasunez eta begirunez. Herria garela esaten dugunean, hala da gure odolean, gure haragian eta gure azalean daramagulako historia, itxaropen eta jakintza osoa, kultura, hizkuntza eta nortasuna, sustrai, izerdī, adar, lore eta hazi osoa, gure gurasoek eman ziguten eta, sekula ahantz edo gal ez zedin, gure gogo eta bihotzean erein nahi izan zuten hura”.*

Aida Hernandez Castillo, Mexiko<sup>30</sup>.

Adierazpen guztiak dagozkien ingurunean eta egoeran ulertu behar ditugu, baina, hala ere, diskurtso hori –poetiko delako ematen badu– metafora biologistaz beterik dago, eta metafora horiek odolarekin, haragiarekin eta ondorengoeekin lotzen dute kultura. Horrek ezeztatzen ditu era askotako nortasunak izateko aukerak, eta zibilizatzeko prozesuak aberasten dituen kultura-arloko hibridotasuna onartzeko aukerak. Estrategia politiko horrek barnean dituen arriskuen artean, nabarmena da mugimenduak berak bere hitzaldia sortzen duela, esentzialismoaren ildotik joz, eta herri indigena askoren eguneroko bizitzan agertzen den antidemokrazia, harraparitza edo indarkeria bezalako benetako arazoak aurrean eduki gabe. Barneko arazoak daudela ukatzen baldin bada, ez dago arazo horiei aurre egiteko beharrik, ez eta irtenbide politikoak bilatzeko beharrik ere.

Lehen esan dugunez, emakumeen eskubideen aldeko mugimenduari aurre egiten dioten indigenen erresistentziak, maiz, gizon indigenek gidatzen eta babesten dituzte. Ildo horretan, gizon horiek adierazten dute emakumeen mugimenduak bultzatzen dituen ideiak arrotzak direla, erkidegoaren gainetik jartzen direla, herrien eskubideak babesteko borrokaren gainetik, eta emakume eta gizon gisa beren burua ikusteko kultura-arloan dituzten moldeen gainetik ere bai. Hori oztopo larria da, eta arreata galarazten die, herri indigena gisa dagokien kultura- eta politika-nortasuna osorik gauzatzeko guneak eraikitzeke borrokatik aldentuz. Neurri handi batean, ikuspegi horren oinarrian kulturaren idealizazio nabarmena dago, aldaezina eta estatikoa den zerbaiten gisa hartzen baitu kultura, arazo horiek ezkututzen baititu, eta, nolabait ere, zuzentasun eza justifikatzen baitu.

Horren aurrean, berriz ere adierazi behar dugu kulturak ez direla aldaezinak, dinamikoak baizik, eta, beraz, etengabeko bilakaeran daudela, inguruan duten errealtatera berriz egokitzeko prozesuan. Era berean, beste estereotipo batekin hautsi nahi dugu, desberdintasunak konkistatzeko eta kolonizatzeke prozesuen ondorio zuzena direla dioen horrekin. Sarritan emakume indigenek egin dituzten azterlan eta ikerketa askoren arabera, ondo egiaztatuta dago lehenagotik ere genero-desberdintasuna zegoela. Hala ere, onartuta dago kolonialismoak eta ezarri ziren kultura-parametro berriek norabide berria eman ziela desberdintasun horiei, eta larriagotu zituela. Hortaz, berriz irakurri behar ditugu

<sup>30</sup> HERNANDEZ CASTILLO, R. Aida. (2001, 206-230 or.).

kultura-arloko iragana eta oraina, mendeetako zapalkuntzaz blaituta baitaude, eta ondo zehaztu behar ditugu desberdintasunean oinarritutako rolak esleitzeko kulturetan dauden jarduerak. Ildo horreketan, benetako osagarritasunaren eta dualtasunaren balioak berreskuratu behar ditugu, diskurtso hutsetik harantz joz eta dimentsio kritikoa izanik. Lagungarriak izan daitezke zuzentasunean oinarritutako harreman berriak eraikitzeko, errealitate etnikotik abiatuta, eta ondo ulertuta barneko aniztasunak ez duela nahitaez esan nahi mugimendua zatituko denik, kontrakoa baizik: onarpenak sendotuko du.

Bestela esanda, emakume indigenak beti egongo dira mugatuta feminismo batzuek duten etnozentrismoaren eta herri indigenen erakunde batzuek duten esentzialismo etnikoaren artean, bi aukera baizik ez dagoela dioten imaginarioa indartuko delako; hona aukerak: tradizioaren bidez irautea, edota modernotasunaren eta arrotza denaren bidez desageretzea. Eta horren ondorioz, atzekoz aurrera eta aurrekoz atzera, desberdintasunak indartuko dira.

Ingurune horretan, Aida Hernandezen aipu hau ekarriko dugu hona: *Emakume indigenek hainbat gunetan adierazi dute zein diren arrisku horiek, eta aukeratu dute beren kulturen izaera historikoa eta aldakorra aldarrikatzea eta, aldi berean, uko egitea hain ustez beren duintasunaren aurka doazen “erabilera eta ohitura” horiei. Borroka bikoitza da: estatua-  
ren aurrean, kultura-bestelakotasunari eusteko duten eskubidea aldarrikatzen dute; eta beren erkidegoen barnealdean, berriz, beren ustez emakumeen eskubideen aurka doazen ohiturak aldatzeko borrokatzen dute. Haien borroka ez da kultura esentzialista onartzearen aldeko borroka bat, baizik eta kultura hori berreraikitzeko, erkatzeko edo berriz egiteko eskubidearen aldeko borroka bat; eta ez dituzte betetzen estatuak ezarri dituen baldintzak, baizik eta herri indigenek barnean dituzten pluraltasunen esparruan zedarritu dituzten baldintzak<sup>31</sup>.*

Aurreko guztiak aukera emango digu borroketan dauden isolamendu batzuekin hausteko, itunak sendotzeko, eta herri indigenen politika-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-arloko eskaeren koherentzia indartzeko.

### 3.7. Arrazakeria eta pobrezia

*“Arrazakeriak eta matxismoak iturri berberetan edaten dute, eta antzeko hitzak jaurtitzen dituzte ahotik”*

Eduardo Galeano, Uruguai<sup>32</sup>.

Orain arte, desberdintasuneko hainbat egoera azaldu ditugu: kultura-, gizarte- eta politika-arloko desberdintasuna. Desberdintasun horiek barneko eta kanpoko zapalkuntzako egiturak sorrarazten dituzte; eta egitura horiek herri indigenen eskubideak mugatzen edota bortxatzen dituzte, eta eragin berezia dute emakume indigenengan. Egoera guztietan agertzen diren desberdintasunaren osagai batzuk gizarteko gainerako taldeek ere badituzte, indigenak ez diren emakumeek ere bai.

<sup>31</sup> HERNANDEZ CASTILLO, R. Aida (2001).

<sup>32</sup> GALEANO, Eduardo. (1998. 70 or.).

Hala ere, noizbait adierazi dugunez, herri indigenek beste egoera bat azaldu dute, beti bereizkerian egotearekin eta eskubideak urratuta izatearekin zerikusia duen egoera. Egoera hori arrazakeria da, pobrezia loturik dago zuzenean, lehen aipatu ditugun egoeretan agertzen da, eta egoera horietako ondorio txarrak larriagotzen ditu.

Era berean, genero-arloko zuzentasun ezari dagokionez, emakume indigenei buruz ari garenean, emakume horiek jasaten duten zapalkuntza hirukoitza adierazi behar dugu: emakumea izatea, indigena izatea eta pobrea izatea. Pobrezia bereziki lagungarria da desberdintasun-moldeak berriz ager daitezen, baina, hala ere, ez dugu pobrezia gaizki ulertu behar: ez dugu hartu behar desberdintasunak sorrarazten dituen arrazoiak bat balitz bezala. Izan ere, arrazoiak honako hauek dira: emakume guztiengan eragina duten gizarte-, politika-, eta ekonomia-arloko egitura bidegabeak. Eta egitura horien guztien oinarria arrazakeriak herri indigenei buruz duen ustea da.

Pobrezia onduz, emakumeen eta gizonen arteko bereizkeria agertzen da berriz, eta, horrez gain, egoera hori areago larritzen da, gizonen eta emakumeen elkarren artean laguntzeko dituzten gune osagarriak hondatzen dituelako. Adibidez, pobrezia areago indartzen du gizarte guztietan tradiziozko rol maskulinoen eta femeninoen eusteko dagoen joera. Izan ere, aukerak, eskubideak eta boterea gutxitzen dizkie emakume eta gizon gehienei, eta emakumeak dira sarbide eta kontrol gutxiak dutenak.

Hala pobrezia nola arrazakeriaren beste ondorio batzuek matxismoa elikatzen dute etengabe. Izan ere, lehen aipatutako rolak berriz agertzeaz gain, eta emakumeen menderakuntzari eta zapalkuntzari eusteaz gain, gizon indigena askok emakumeen bizkarra botatzen dituzte beren frustrazioak, matxismoa dela-eta. Hari gidari argi bat ikus dezakegu arrazakeriaren eta matxismoaren artean. Menderatzeko bi sistemek elkarri elikatzen diote, eta guztiz txertatuta daude gizarte-, politika-, ekonomia- eta kultura-arloko egituretan.

Pobrezia eta arrazakeria aintzat hartzean egon daitekeen arrisku bat hau da: “lehia” ager daiteke zapalduak taldeen artean, borroka alde batera edo bestera zuzentzea garrantzizkoagoa ote den erabakitzeko, eta, hortaz, laguntza eta arreta gehiago lortzeko. Hala ere, **zapalkuntzan nork bere burua ezagutzeko** aukera aztertu behar da, eta, horrela, zapaldua dauden taldeek hobeto ulertu behar dute besteen egoera, eta haien arteko lotura sendotu behar da.

#### 4. Jardurteko ildo estrategikoak<sup>33</sup>

*“... gune hauen bidez, zera lortu nahi dugu: emakume adiskideen nortasuna eta duintasuna, eta emakumeen eskubideak errespetatu dituzten, hartara, gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasuna maila egoki batera irits dadin, berdintasunez hitz egin*

<sup>33</sup> Atal honetan, eskerrak eman nahi dizkiegu bereziki tailerretan parte hartu zuten lagunei, eztabaidetan aritzeagatik, ideiak emateagatik eta pentsamendua eta hautabideak eraikitzeke gune kolektiboetan parte hartzeagatik.

*ahal izan dezagun, eta, horrela, gobernu indigena, herri indigenen proiektu politikoa eta bizitza-planak eraiki ahal izan ditzagun, gure adiskide diren emakume horiek egindako ekarpenei esker. Horretan ari gara, lan hori guztioi baitagokigu... gizonak eta emakumeek elkarren artean egindako erakuntza bat da, horretaz baitoa generoari buruzko gaia.*"  
Guillermo Tascón, Kolonbia<sup>34</sup>.

Genero-zuzentasuna eta herrialde indigenenak aintzat hartzen dituzten jarduteko ildo estrategikoak landu nahi baditugu Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegitik, lehenik, **errealitateen azterketetan** sakondu beharko dugu **etengabe** (eta plurala nabarmentzen dugu). Oinarrizko kontzeptu batzuk azaltzen saiatu gara, eta gai honen jiran izaten ari diren eztabaida nagusietako batzuk plazaratzen ere bai, baina oraindik lan asko dago egiteko. Gogoan izan behar dugu, kontzeptuen eta arazoen inguruan dauden unibertsaltasun batzuk onartuta ere, errealitatea oso konplexua dela, eta oso modu desberdinetan agertzen dela, herri indigena bakoitzak duen egoera bereziaren arabera. Horrek, eragina izango du, emakume indigenen egoerari heltzeko, emakumeek eta beren erakundeek baliatuko duten molde berezian.

Orain, agiri honetan barrena behin eta berriz aipatu dugun beste osagai bat azpimarratu nahi dugu: **aniztasuna eta harekiko errespetua**, hau da, aniztasunaren babes politikodemokratikoa. Kasu honetan, sexu-desberdintasuna, sexu-aukera, adina eta horrelako ezaugarriek ez dute zuzitzen gizarte-, kultura-, ekonomia- edo politika-aldetik egon daitekeen desberdintasuna. Era berean, sinesmenetan, balioetan edo bizimoldetan dagoen desberdintasunak ez du inola ere zuzitzen bereizkerian edo desberdintasunean oinarritutako traturik. Horrek agerian jartzen du borroka desberdintasunen aurka doala, ez bestelakotasunen aurka. Aura Cumesek honelaxe dioa: *"Menderakuntzako egoeretan, bestelakotasuna jardute baztertzailen eta diskriminatzaileen tresna gisa eratu da; justiziaren aldeko borroketan, berriz, bestelakotasuna aniztasunaren adierazpena da"*<sup>35</sup>.

Osagai horiek oinarriztat hartuta, gure estrategiek ezinbestez hartu behar dute barne emakumeen eskubideen **babesa** eta **salaketa** egiteko eta, orobat, **jarrera** hartzeko beharra eta erantzukizuna. Gainera, genero-zuzentasunaren alde egin behar dute, eta agerian utzi behar dute ezinezkoa dela gizarte bidezkoagoak lortzea, genero-zuzentasunaren alde lan egin gabe.

Erantzukizun horren ildoan, ekintza zehatzak landu behar dira, hala gure errealitate hurbilean, nola gurekin lanean aritzen diren herrialdeetako errealitateetan. Puntu horretan, ezin dugu atzendu nahitaez hartu behar direla antolakuntza-arloko konpromisoak. Izan ere, kasu gehienetan, garapenerako gobernu kanpoko erakundeek eta gizarteko beste mugimendu batzuek gure gizartean dauden genero-arloko desberdintasunak kopiatzen ditugu. Hortaz, neurri zehatzak berrikusteko eta definitzeko prozesuak etengabea izan behar du, era horretan, antolakuntza aldetik koherentzia egon dadin.

<sup>34</sup> TASCÓN, Guillermo. (2004).

<sup>35</sup> CUMES, Aura E.: *Multiculturalismo...* 9-10 or.

Aurreko guztiak badu zerikusia honekin: **esku sartzea vs eragitea**. Historian barrena, Mendebalde etengabe aritu da eskua sartzen, politika-, gizarte-, ekonomia- eta kultura-arloan izan diren era askotako aukeren bidez, bai eta garapenerako lankidetzaren bidez ere. Gure ustez, dagokigun ingurunean, ezinbestez bereizi behar ditugu esku sartzea eta eragitea. Eskua sartzea da talde edo pertsona batek beste norbaiten barruko kontuetan muturra sartzea, eta, horrenbestez, bestelakotasunarekiko begirunerik ez izatea. Izan ere, eskua sartzen duenak, normalean, menderakuntzako edo gutxiagotasuneko ikuspegi esplizitua edo inplizitua du besteari buruz, maila batean zein bestean. Aitzitik, eragiten dugunean begirunea erakusten dugu bestelakotasunarekiko, aniztasunarekiko, norbanakoaren nahiz taldearen burujabetzarekiko, eta, horizontaltasun-mailan kokaturik, aha-lerinak egiten dira elkarrekiko eraginak izateko. Garapenerako lankidetzan ere, behar-beharrezkoa da hegoaldeko erakundeekin eta mugimenduekin harremanak eratzeko normalean erabiltzen modua berrikustea. Harreman horietan berdintasuna egon daiteke edo ez, ituna, menderakuntza, era askotako interesak, eta esku sartzearen nagusitasun nabarmena, edo, aitzitik, eragiteko jarrera egon daiteke. Garapenerako Hezkuntzak lan ordezkaezina du berrikuste-prozesu horretan, elkarrekiko begirunean, itunean eta horizontaltasunean oinarritutako harremanak sortzeko. Bestalde, garapenerako gobernu-kanpoko erakundeek nahitaez hartu behar dugu jarrera politiko bat lantzen ditugun gaiei dagokienez, eta alde batera utzi behar ditugu jarrera paternalistak, gurekin lanean aritzen diren erakundeekin trukeak izateko oztopo direlako.

Lanean darabiltzagun balioen oinarrian badago jarduteko beste ildo bat, eta zerikusia du aniztasunarekiko begirunea erakusten duten **diskurtso kolektiboak sortzearekin**. Alabaina, horretarako ezin da inola ere desberdintasuna justifikatu; aitzitik, desberdintasunetik aritu behar dugu zuzentasuna lortzeko. Era berean, Garapenerako Hezkuntzak ikerketa, ezagutza, trukea eta hausnarketa bezalako alderdiak landu behar ditu, abiaburuko osagai gisa.

Garapenerako Hezkuntzak iparrean eta hegoan egin dituen zuzeneko jardueri dagokienez, **gabezia** batzuk azaldu behar ditugu, garapenerako gobernu-kanpoko erakundeek, “genero-osagaia” duten proiektuetan, sarritan honelako gabeziak izaten dituztelako<sup>36</sup>:

- Ez dute genero-teoria ezagutzen, eta haien barneko egitura instituzionalak ez die lanerako aukera-berdintasunik eskaintzen emakumeei eta gizonari.
- Ez dute indigenen kultura ezagutzen, ezta kultura horrek gizonen eta emakumeen arteko zuzentasuneko harremanak sendotzeko egin ditzakeen ekarpenak ere.
- Sustatzen dituzten hezkuntza-prozesuek normalean ez dute kontuan hartzen emakume eta gizon indigenen artean dauden osagarritasun-mailak; eta genero kontzeptua ideologizatzen dute, uste baitute gizon eta emakume indigenen arteko harremanaren adierazpide guztiak desberdintasunean oinarritutako harremanak direla.
- Aktoreak bereizten dituzte, beren genero-nortasunak onartzean. Emakumeekin lan egiteko joera dute, eta, batez ere, hezkuntza-tailerrak eskaintzen dizkiete. Tailer

<sup>36</sup> Testu honetako hausnarketatik hartutako ideiak: PALENCIA PRADO, Tania. (1999, 107-108 or.).



horietan, desberdintasuna indartzen dute; eta ez dute kontuan hartzen tailer horien hautabiderik, komunikazio-, negoziazio- eta harreman-arloan, emakumeen eta gizonen arteko baterako eraikuntza-prozesuak eratu ahal izateko.

- Ez dira arduratzen proposamenak prestatzeaz eta aztertzeaz, zapalkuntza etnikoaren ondorioz eta oro har emakumeak –eta, bereziki, emakume indigenak– bazter uzten dituen sistema patriarkal bat egotearen ondorioz, generoen artean dauden desberdintasuneko egoerak aldatzeko.
- Ez dituzte kontuan hartzen emakume eta gizon indigenek beren nortasun kulturala osoki lantzeko egiten dituzten itunak.
- Haiekin lan egiten duten erakundeek lana eta jarrerak erabiltzen dituzte, hausnarke-tarik egin eta jarrera berezirik hartu behar ez izateko. Ildo horretan, emakumeen mugimendua edota mugimendu feminista baliatzen dute, genero-ikuspegiari sartu dutela baieztatu ahal izateko, nahiz eta apustu argirik ez eduki.
- Emakume indigenak bakarrik agertzen dira “kupo” gisa, ez baitituzte emakume horiek egindako ekarpenak ikustarazten. Era berean, ideia hau indartzen dute: emakumeek generoari edota emakumeari buruz baizik ezin dute hitz egin; beraz, ahaztu egiten dituzte emakumeek parte hartzeko dauden politika-, gizarte-, eta ekonomia-arlo askotan egin dituzten ekarpenak.
- Ez dute ebaluatzen Garapenerako Hezkuntzako ekintzek duten eragina; eta, ebaluatzen badute, ez dute kontuan hartzen genero-ikuspegia ebaluatzeko prozesuetan.

Jakina, aipatu dugun hori guztia ikusita, nabaria da berrikuspen bat egin behar dela ezinbestez, **garapenerako gobernuz kanpoko erakundeetan genero-zuzentasuna lortzeko politikak eta ekintzak** nola instituzionalizatu diren ikusteko. Garapenerako Hezkuntzak azterketa horri egin behar dio aurre, eta, horretarako, prestakuntzako prozesuak garatu behar ditu, besteak beste, jarduera eta politika horiei buruzko benetako hausnarketa kritikoa sorrarazteko. Horrek aukera emango digu garapenerako paradigma berriak garatzeko eta, orobat, herri indigenetan genero-zuzentasunaren aldeko lanari ekiteko.

Estrategien artean egongo den beste alderdi bat da etengabe aztertuko direla esku hartze sozial eta politikoek emakumeen bizitzan, beren erakundeek eta mugimendu indigenaren baitan, eta emakumeen mugimenduan dituen **ondorioak**. Hortaz, adierazleak eta azterketa, plangintza, monitoretza eta ebaluazioa egiteko sistemak prestatuko dira, hartara, ondorioak eta eraginak zehaztu ahal izateko, hain zuzen, emakumeen jarrerari, emakumeek gizonekin duten harremanean eta herrien egoeran izan diren aldaketak ikusteko.

Hausnarketa kritikoa eta begirunezkoa egiten baldin badugu herri indigenei eta genero-zuzentasunari buruz, hausnarketa horrek adieraziko dizkigu zein diren genero-ikuspegia barne hartzen duten **konpromiso** zehatzak.

<sup>37</sup> CABELLO, Inmaculada. (2009, 12 or.).

<sup>38</sup> LONGWE, S. H. (1997).

Proposatzen ditugun **gako**ei jarraiki, garapenerako gobernuz kanpoko erakunde askoren ikuspegia aldatu behar da. Inma Cabellok aipatu zuenaren moduko Garapenerako Hezkuntza izan behar dugu gogoan: *“Garapenerako Hezkuntzak aipamena egiten dio hezkuntzako prozesu bati, eta prozesu horren xedea da munduko errealitateari buruzko kontzientzia kritikoa sorraraztea, eta justizia eta elkartasuna oinarritzat hartuta parte hartzeko eta gizartea eraldatzeko tresnak ematea. Garapenerako Hezkuntzak lortu nahi duen herritartasun globala kritikoa da, politikan eraginkorra da eta gizartean engaiatua dago, planetako erkidego guztientzako giza garapen bidezkoa eta orekatua lortzeko”*<sup>37</sup>. Ikuspegi horren inguruan, hauek izango lirarteke gako batzuk:

- **Azterketa eta prestakuntza apustu politikoa egiteko.** Azterketa kritikoak eta proposamenak egitea gure jarduteei eta erantzukizunei buruz, hala norbanakoari dagokionez, nola taldeari eta instituzioei dagokienez. Gure erakundeen barruan jendea sentikor bihurtu behar dugu, gure bizitzan eta taldeetan agertzen diren genero-desberdintasunak aztertzeko eta horiei erantzuteko. Hasteko, ideiak argitu behar ditugu, eta bat etorri behar dugu adierazi nahi ditugun oinarritzko kontzeptu batzuen inguruan. Orobat, apustu politikoa argia egin behar dugu genero-zuzentasunari eta hori praktikan jartzeari dagokionez.
- **Zeharkakotasuna eta ekintza bereziak.** Genero-ikuspegia gure ekintza, politika eta prozedura guztietan zeharkako bihurtzea zein garrantzitsua den adierazi behar dugu, eta, horrez gain, neurtu eta ebaluatu ahal diren ekintza bereziak prestatu behar ditugu. Ildo horretan, gogora ekarri behar dugu batzuetan “generoa desagertzen dela”<sup>38</sup>, eta, hori gertatzen denean, politikoki zuzenak diren kontuetan sartzeko arriskua dugu, emakumeen eta gizonen arteko harremanetan dagoen desberdintasuna aldatzeko gauza izan gabe.
- **Taldeko ekintza.** Aukera eman behar dugu guztion agenda politikoan taldeko ekintzak egiteko. Laguntza eman behar dugu sororitateko estrategiak eta sinergiak ezar daitezten talde feministen eta antolatutako emakumeen artean; horretarako, hemen eta gurekin lanean aritzen diren herrialdeetan, sareak baliatu behar ditugu, bai eta eskualdeko edo kontinenteen arteko sareak ere. Puntu horri dagokionez, funtsezkoa da Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen arteko koordinazioa lortzea, prozesu horietan parte hartzen duten aktore guztiak tartean sar daitezten.
- **Ahotsa ematea.** Herri indigenen errealitatea ekarri behar dugu gure jardute-eremuetara, eta, hala, ikusgai jarri behar dugu emakume eta gizon indigenen errealitatea desberdina dela. Ildo horretan, mugimendu feministak eta emakume indigenek egin-dako proposamenak eta haien errealitatea erakutsi behar ditugu, eta biktima-irudiarakin hautsi behar dugu.
- **Garapenerako Hezkuntza sendotzea gure erakundeetan.** Bultzatzen dugun Garapenerako Hezkuntza politika eta gizartea benetan aldatzeko tresna bat baldin bada, orduan, bere alde egin beharko dugu, eta behar dituen baliabide guztiak eman beharko dizkiogu (giza baliabideak, baliabide ekonomikoak...), bai eta merezi duen eduki estrategikoa ere.
- **Pentsamendu feministaren joera guztiak zabaltzea,** lantzen ari garen gaiak kontuan izanik: ekofeminismoa, feminismo indigena, ziberfeminismoa, etab. Era horretan,

estereotipoekin hautsiko dugu, eta berriz jasoko ditugu mugimenduak emakumeen eskubideen aldeko bitzitan egin dituen ekarpen guztiak. Lehen aipatu dugun 2008ko Social Watch txostenak, mundu osoan gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasuna erakustez gain, bi gako ematen dizkigu, eta Garapenerako Hezkuntzan bi gako horiei ekin beharko genieke. Alde batetik, joera orokorra da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan oso aurrerapen mantsoa izatea edo ia batere aurrerapenik ez egotea; eta, bestetik, garapen ekonomiko handiak ez du nahitaz ekartzen genero-zuzentasuna.

- **Garrantzikoa da nola egin.** Koherenteak izanda, parte-hartzea bultzatzen duten metodologiak eta lan-moldeak erabili behar ditugu, emakumeen eta gizonen arteko zuzentasuna sustatzeko. Era berean, erronkak hartu behar ditugu, hala nola, “esperimentu sozialak” definitzea, forma berriak asmatzea eta jardute egokiak sortzea. Bestalde, ez dugu ahaztu behar garapenerako lankidetzaren esparruan tresna asko sortu direla, eta tresna horiek erraz egokitu ahal ditugula Garapenerako Hezkuntzan herri indigenekin eta genero-zuzentasunaren arloan egiten den lana hobetzeko.

Oro har, aztertzeko eta jarduteko ereduak lehentasuna eman behar dio ezinbestez **banakako eta taldeko giza eskubideen ikuspegiari**, eta, beraz, pobrezia-aren ikuspegiaren gaitetik jarri behar du hori. Eskubideen ikuspegi horretatik lan egiten badugu, pertsona eta herri indigenak eskubide osoko subjektuak direla jo behar dugu. Bestalde, horren ondorioz, nazioarteko lankidetzak esku hartzeko dituen praktikak aldatu beharko lirarteke, eta Garapenerako Hezkuntzak igortzen dituen ikuspegiak ere bai. Horrela, politika- eta gizarte-arloko parte-hartzea eta esku-hartzea bultzatuko dugu eraldatzeko prozesuetan. Hala, bada, horiek aukera emango digute egiturazko aldaketak egiteko eta banakako eta taldeko giza eskubideak benetan ezartzeko beharrezkoak diren baldintzak garatze aldera, emakumeen eta herri indigenen eskubideei ardua berezia eginez eta, betiere, politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-ingurune guztiak aintzat hartuta.

Esparru horretan, garapenerako lankidetzak eta hezkuntzak, beharrezko proiektua izan beharrean, ezinbesteko **prozesu** bilakatu behar dute, eta konpromiso politiko argiak behar dira. Kontzientzia kritikoak sortzen dituzenez, Garapenerako Hezkuntzak eztabaida piztu eta erraztu behar du, **paradigma eta jarduera berriak** sortzeko prozesua bultzatu behar du. Alabaina, aintzat hartu behar du, batetik, aniztasuna eta genero-zuzentasuna babestu behar dituela, gertaera onuragarriak eta beharrezkoak direlako, eta, bestetik, emakume eta gizon indigenekiko begirunea izan behar dela, eta haiek izan behar dutela genero-desberdintasunik gabeko mundu bidezkoago bat eraikitzeko egin behar diren aldaketen protagonistak.

## 5. Baliabide gida

### Genero-zuzentasunari eta herri indigenei buruzko material bereziak

- Mugarik Gabe: *Género y Pueblos Indígenas. Perspectiva de género en el trabajo de cooperación al desarrollo con los Pueblos Indígenas*. Mugarik Gabe, Bilbo, 2004: CDa eta gaztelaniaz eta euskaraz atondutako koaderno praktikoa bat biltzen ditu, eta,

bertan, osagai hauek daude jasota: bibliografian agertzen den Norma Vázquezen ikerketa, proiektuaren zikloan genero-ikuspegia sartu dela –tresna gisa hartzeko– egiaztatzen duen zerrenda, eta Emakume Indigenen IV. Bileran Kontinentalari buruzko bideoa.

- Mugarik Gabe; Acsud-Las Segovias País Valenciá; Almáciga; alterNativa: *Instrumentos internacionales para la defensa de los derechos de los pueblos indígenas. Diálogos con los Pueblos Indígenas*. Bartzelona, 2009; argitalpenean hauek daude jasota: Nazio Batuek herri indigenen eskubideei buruz egindako deklarazioa, eta herrialde independenteetako herri indigenei eta tribalei buruzko 169 Hitzarmena, Lanaren Nazioarteko Erakundearena, gaztelaniaz, katalanez eta euskaraz, bai eta haiei buruzko balioespena ere.

### Genero-zuzentasunari buruzko materialak

Gaur egun material ugari dago genero-ikuspegia barneratzeko prozesuari buruz; horien artean, honako hauek gomendatu nahi ditugu bereziki, gai estrategikoak modu praktikokan lantzen dituztelako:

- Euskadiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Koordinakundearen Generoko Taldea, Kalidadea: *Sistema-evaluación del proceso para la incorporación de la perspectiva de género en las ONGD vascas*, GGKEen Koordinakunde, Bilbo, 2008.
- Vázquez, Norma; Murguialday, Clara; Garapenerako GKEen Koordinakundearen Generoko Taldea. *Guía para alfabetizarse en género y desarrollo*. GGKEen Koordinakunde, Bilbo, 2001.
- Murguialday, Clara; Vázquez, Norma; González, Lara. *Un paso más: Evaluación del impacto de género*, Cooperació, Bartzelona, 2008.
- Rodríguez, Alicia (konp.). *Técnicas para el análisis de género*, Equipo Maíz. El Salvador, 2005.

### Sarean dauden baliabideak

#### Adierazpen batzuk

- GGKEen Foroan Munduko Emakume Indigenek egin zuten Deklarazioa. Emakumeari buruzko Munduko Laugarren Biltzarra, Beijing, 1995.  
[www.indigenouswomensforum.org/indigwomendeclaration-sp.pdf](http://www.indigenouswomensforum.org/indigwomendeclaration-sp.pdf)
- Ameriketako Emakume Indigenen I. Gailurrean egindako Deklarazioa, Oaxaca, 2002.  
[www.fire.or.cr/dico2/articulos/cumbreindigena2.htm](http://www.fire.or.cr/dico2/articulos/cumbreindigena2.htm)
- Ameriketako Emakume Indigenen IV. Bileran egindako Deklarazioa, Peru, 2004.  
[www.gloobal.net/iepala/gloobal/fichas/ficha.php?entidad=Textos&id=456](http://www.gloobal.net/iepala/gloobal/fichas/ficha.php?entidad=Textos&id=456)

- Abya Yalako Emakume Indigenen I. Gailur Kontinentalean emandako Agindua, Puno, 2009.  
[www.ivcumbrecontinentalindigena.org/?p=241](http://www.ivcumbrecontinentalindigena.org/?p=241)

## Emakume indigenen elkarte eta sare batzuk

- **Emakume Indigenen Nazioarteko Foroa.** Buruzagiak diren emakume indigenen sare bat da. Asia, Afrika eta Amerikako tokiko, nazioko eta eskualdeko erakundeetako sareei lotuta daude. Era horretan, beren agendak antolatzeaz gain, batasuna sendotu nahi dute, lidergorako eta babeserako gaitasunak garatu nahi dituzte, gehiago parte hartu nahi dute nazioartean dauden erabakitzekeo prozesuetan, eta aurrera egin nahi dute emakumeen giza eskubideen arloan.  
[www.indigenouswomensforum.org/index-sp.html](http://www.indigenouswomensforum.org/index-sp.html)
- **Asian Indigenous Women's Network - AIWN.** Asiako emakume indigenen sare bat da. Kontinente horretan emakumeak eta emakume indigenen erakundeak sendotzeko, sarean lan egiteko, eta nazioartean eragina izateko antolatu zen emakume indigenen lehen biltzarra egin ondoren sortu zen.  
[www.asianindigenouswomen.org/](http://www.asianindigenouswomen.org/)
- **“Bartolina Sisa” Boliviako Emakume Nekazari Indigenen Konfederazio Nazionala.** Erakunde hau 1980. urtetik ari da lanean emakumeen onarpena eskuratzeko eta emakumeek erabakitzekeo gune guztietan parte har dezaten lortzeko.  
[www.bartolinasisa.org/](http://www.bartolinasisa.org/)
- **Chirapaq erakundearen Emakume Indigenari buruzko Programa, Peru.** Emakume indigenekin konpromiso berezia hartu duen erakunde indigena da. Erakunde honek Ameriketako Emakume Indigenen Lotura Kontinentalaren Hegoko Lotura koordinatzen du, eta, bertan, Hegoamerikako emakume indigenen erakundeak daude elkartuta.  
[www.hirapaq.org.pe/es/index.php?option=com\\_content&view=article&id=45&Itemid=55](http://www.hirapaq.org.pe/es/index.php?option=com_content&view=article&id=45&Itemid=55)
- **Emakume indigena Indigenen gaietarako Nazio Batuen Foro Iraunkorrea.** Edukia. Nazio Batuek gai honen inguruan duten jarrerari buruzko agiriak eta azterketa bereziak jaso dira.  
[www.un.org/esa/socdev/unpfii/es/women.htm](http://www.un.org/esa/socdev/unpfii/es/women.htm)
- **ALAIko Emakumeen Arloa.** Edukia. Programa bereziak egiten ditu emakumeen erakundeekin batera. Helburu nagusia da komunikaziorako hautabidezko proposamen bat sortzea, eta, horren bidez, komunikaziorako ehun berria, demokratikoa, zabala, deszentralizatu eta kultura anitzekoa eratu ahal izatea, gizartea eraldatzeko prozesuekin bat etorrira.  
[www.alainet.org/mujeres/](http://www.alainet.org/mujeres/)

## Bilera feministak

- **Latinoamerikako eta Karibeko XI. Bilera Feminista.** 2009. urtean Mexikon izan zen XI. Bileraren web ofiziala. Dokumentazio zabala dago bilduta, bileran landu zituzten era askotako gaiet buruz.  
[www.11encuentrofeminista.org/](http://www.11encuentrofeminista.org/)
- **Estatuko Jardunaldi Feministak.** 2009. urtean Granadan izan ziren Estatuko Jardunaldi Feministen web orria. Informazio eta dokumentazio zabala dago jardunaldietan izan ziren eztabaidatzeko guneet buruz eta horri lotutako bestelako gaiet buruz.  
[www.feministas.org/spip.php?rubrique16](http://www.feministas.org/spip.php?rubrique16)

## 6. Bibliografia

Cabello, Inmaculada: “Genero en la Educación para el Desarrollo”, hemen: *Genero en la Educación para el Desarrollo. Estrategias políticas y metodológicas*, ACSUR Las Segovias eta Hegoa, Bilbo, 2009.

Centro de Estudios de Información de la Mujer Multiétnica, Universidad de las Regiones Autónomas de la Costa Caribe Nicaragüense (URACCAN). *Documento de referencia sobre Género desde la Perspectiva de las Mujeres Indígenas de la Primera Cumbre de Mujeres Indígenas de las Américas*, hemen:  
[www.exclusion.net/images/pdf/540\\_poqod\\_documento\\_referencial.pdf](http://www.exclusion.net/images/pdf/540_poqod_documento_referencial.pdf)

Cumes, Aura E.: Multiculturalismo, Género y Feminismos: mujeres diversas, luchas complejas, hemen: PEQUEÑO, Andrea (konp.): *Participación y políticas de mujeres indígenas en América Latina*, FLACSO, Ekuador, 2009.

Cumes, Aura E. eta Monzón, Ana S. (konp.). *La encrucijada de las identidades. Mujeres, feminismos y mayanismos en diálogo*. Entrevista Word Alliance - INWA, Guatemala, 2006.

Consejo Andino de Naciones Originarias: *Sagrada dualida*, hemen:  
[www.pusinsuyu.com/html/sagrada\\_dualidad.html](http://www.pusinsuyu.com/html/sagrada_dualidad.html)

FONGI (Nazioarteko Gobernu Kanpoko Erakunde Foroa), del Cid Vargas, P., Zambrano Aguirre, A.: *¿Qué pieza te toca? Políticas de Cooperación Internacional con Guatemala para la incorporación de la perspectiva de género y el apoyo para enfrentar la violencia contra las mujeres*. FONGI, Guatemala 2008.

Galeano, Eduardo: *Patas arriba. La escuela del mundo al revés*, Siglo XXI, Madril, 1998, 70. or.

Hernández Castillo, R. Aida: Entre el etnocentrismo feminista y el esencialismo étnico. Las mujeres indígenas y sus demandas de género, hemen: *Debate Feminista* Año 12, 24. lib., 2001eko urria, 206-230 or.

Longwe, S. H.: The Evaporation of Gender Policies in the Patriarchal Cooking Pot (La Evaporación de las Políticas de Género en la Cacerola Patriarcal), *Development in Practice* 7 –Desarrollo en la Práctica, 7. lib., 2. zk., 1997.

Maldonado Barahona, Teresa: *El debate entre Feminismo y Multiculturalismo y algunas de sus repercusiones en el caso del hijab*, Doktoregoko ikasturterako lana: Feminismo, Globalización y Multiculturalismo. Argitaratu gabea.

Macleod, Morna; Cabrera Pérez Armiñán, M<sup>a</sup> Luisa: *Identidad: Rostros sin máscara. Reflexiones sobre Cosmovisión, Género y Etnicidad*, Oxfam Australia, Guatemala, 2000.

Meentzen, Ángela: *Estrategias de desarrollo culturalmente adecuadas para mujeres indígenas (versión preliminar)*, BID, Washington D. C., 2001.

Mugarik Gabe: *Glosario Género y Desarrollo*, hemen:  
[www.mugarikgabe.org/Glosario/E1.htm](http://www.mugarikgabe.org/Glosario/E1.htm)

Murguialday, Clara: Genero hitza, hemen: Pérez de Armiño, K.: *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Hegoa eta Icaria, Bartzelona, 2000, hemen:  
[www.dicc.hegoa.efaber.net/listar/mostrar/108](http://www.dicc.hegoa.efaber.net/listar/mostrar/108)

Palencia Prado, Tania: *Género y cosmovisión maya*. PRODESSA, Saquil Tzij, Ciudad Guatemala, 1999.

Sau, Victoria: *Diccionario Ideológico Feminista*. Volumen I. Icaria, Bartzelona, 1981.

Social Watch: *Índice de Equidad de Género*, 2008, hemen:  
[www.socialwatch.org/es/node/9301](http://www.socialwatch.org/es/node/9301)

Tascón, Guillermo: *“Pensamos juntos. Cartilla para el aporte a la construcción de la política de género en las comunidades indígenas de Antioquia”*. OIA, Medellín, Kolonbia. 2004.

Vázquez, Norma: *Perspectiva de Género e Identidad Cultural en el mundo indígena: Mugarik Gabek Herri Indigenekin egiten duen lanerako estrategiako agiria*, Bilbo, 2003. Argitaratu gabea.





# Genero-ikuspegiko elikadura-burujabetza Garapenerako Hezkuntzan

---

*Chipko*

## 1. Sarrera

Hasteko, nabarmenduko dugu Garapenerako Hezkuntzari dagokion lan-arloan askotariko alderdiak elkartzen direla eta hezkuntza horrek sustatu egiten duela kontzientzia kolektibo jarraituz jarduteko ezaguerekin jabetzea nahiz jarrera eta gaitasunak garatzea<sup>1</sup>. Kapitulu honetan elikadura-burujabetzaren eta desberdintasuneko genero-erlazioetatik datozen arazoaren arteko loturak agerian utziko ditugu, Garapenerako Hezkuntzaren arloan jarduteko estrategiak emate aldera.

Garapenerako Hezkuntzan lantzen diren gaien artean elikadura-burujabetza sartzeko interesa gero eta handiagoa da gaur egun. Horrela erdietsi nahi da gizartearen sentiberatua go eta enagiatuago egon dadin herriek beren garapeneraren gainean erabakitzeke duten autonomiarako ezagutza dakarten eragin politikoko prozesuetan. Era berean, aurrera eramaten diren jarduerak guztietan txertatu behar da genero-ikuspegia; izan ere, egiazko giza garapenera iraukor bat lortzeko, emakumeei botereke, produktioke eta zaintzako estamentu guztietan dagokien ezagutza eta balioa eman behar zaizkie. Horrela, gainera, bazterketaren eta txirotasunaren aurkako borrokari bete-bete heldu ahalko zaio.

Hala ere, gizartearen alderdi jakin batzuetan eragina izateke, zenbait arazo beren testuinguruan kokatu behar ditugu. Errealitatean “zoom” eginez gero, ikusiko dugu munduko milioika pertsonaren gosea -haien artean, emakumeak gehienak-, sistema ekonomiko jakin baten ondorio dela; hain zuzen, delako sisteman, produktio eta kontsumoaren irizpideak metaketaren, espekulazioaren eta irabaziak lortzeko helburuaren araberrakoak dira, bizia irauarazteke logika gabe. Latza da esatea munduan gosea dela heriotza eragiten duten kausa nagusietako bat, mundu osoko nekazaritzak planetako biztanle-kopuruaren bikoitza baino gehiago elika dezakeenean. Hala, bada, aberastasuna era bidegabean dago banaturik, eta horixe da nazioarteko sistema ekonomikoaren oinarria. Desberdintasunaren eta gizarte-injustiziaren ikuspuntu horretatik, hain zuzen, izan daite-

---

<sup>1</sup> Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura (2005): Definición de Educación para el Desarrollo Sostenible. Disponible en: [www.unesco.org/es/esd](http://www.unesco.org/es/esd)

ke genero-ikuspegiko elikadura-burujabetza jarduteko eredu alternatibo bat. Izan ere, genero-berdintasunaren nahiz herriek elikagaien produkzioaz, banaketaz eta kontsumoaz erabakitzeke autonomia izatearen azken xedea bateko eta besteko biztanleen arteko desberdintasunak ezabatzea da.

Kalkulatu denez, txirotasun-egoeran dagoen populazioaren % 75 nekazaritza-inguruetan bizi da, eta pertsona horietatik, 600 milioik abereak hazten dituzte. (Nekazaritza Garapenerako Nazioarteko Funtsa, IFAD).

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen arabera (FAO), 2007. urtean 923 milioi pertsona gosez bizi ziren munduan, eta kopuru hori gehitu egin zen 2008an, 963 milioitara heldu arte, urte horretan igo baitziren gehien elikagaien prezioak.

UNDPren 2008ko txostenaren arabera, kalkulatzen da milia milioi pertsona txiroenetatik % 70 emakumezkoak direla.

Aberastasuna desberdintasunez banatuta dagoen testuinguru horretan, duintasunez bizi ahal izatearren, Hegoaldeko herrialdeetan tokian tokiko autogestio-praktikak aurrera eramane dituzte iraupen-jardueri loturik. Praktika horietan, emakumeek etxeak kudeatu eta mantentzeko eginkizuna bete dute, trebetasun eta ezaguera jakin batzuk bereganatuta, elikadura-burujabetzarekin lotura duten estrategia agroekologiko batzuk garatzeko. Familia-nukleoaren elikaduraz, komunitateko kontsumoaz eta osasun-kudeaketaz arduratzen direnez, haziak hautatu eta hibridatu egin dituzte, eta bariatateak gorde, eta hala agertutako kultura eta gizarte bakoitzaren alderdi garrantzitsuenetako bat sortu dute: elikadura eta pertsonen iraupena<sup>2</sup>.

Halako praktikak ehunka urtetan aurrera eramane dira, eta gaur egun arriskuan daude. Izan ere, merkatu globalizatuko produkzio-modura moldatzen dituzte, eta han nekazaritzako elikagaietarako ereduak esportaziokoak eta monolaborantzakoak dira. Eredu horietan, Iparraldeko kontsumorako produkzio intentsiboari ematen zaio lehentasuna, eta herrialdeak txiroturik geratzen dira, ekonomia globalean parte hartu ahal izateko joko kapitalistaren arauetan sartzearen kostuz. Nekazaritzako elikagaien merkatu horiexek, sistema neoliberallean oinarriturik eta testuinguru patriarkal batean kokaturik, arlo publikoari arlo pribatuaren edo etxeko arloaren gainetik gehiegizko balioa ematen dioten mekanismoak erabiltzen dituzte, eta, horrela, emakumeak erasota, ikusezin bihurtuta eta ezagutzarik gabe uzten dituzte; ondorioz, ahultasun handieneko estamentuetan geratzen dira.

<sup>2</sup> León, Irene (2007). *Mujeres agricultoras: Gestoras de soberanía alimentaria*. (2007). ALAI. Ikusteko: <http://alainet.org/active/16018>.

<sup>3</sup> López García, Daniel eta López López, J. Ángel (2003). *Con la comida no se juega. Alternativas autogestionarias a la globalización capitalista desde la agroecología y el consumo*. Traficantes de sueños arg.

Gizon batzuen, emakumeen eta naturaren gaineko desberdintasunezko erlazioek tentsio-eta distentsio-sistema oso bat sortzen dute, eta halakoetan naturaren eta emakumeen mendekotasuna agerian gelditzen da<sup>4</sup>. Nekazaritzako elikagaietarako nagusi den ereduak desberdintasun hori bultzatzen du, eta albo batera uzten ditu ezaguerarekin eta natura-baliabideen kudeaketarekin lotura duten hainbat alderdi, emakumeek beren nekazari-rolan natura-ondasunak era iraunkorrean kudeatzeko garatu izan dituzten ezaguerak eta praktikak suntsitzeaz gain. Hala, bada, esan dezakegu emakumeei nekazari gisa eragiten dien edozer gertakarik nekazaritzaren iraupenari, oro har, ere eragin diezaiokeela, eta alderantziz<sup>5</sup>.

Vandana Shivak, *Cosecha Robada* bere liburuan (*Stolen Harvest*), horixe aipatzen du. Nekazaritza-ustiategi txikiak nahiz nekazari txikiak desagertzera behartzen ari diren neurrian, monolaboreek labore tradizional dibertsoak ordezkaten dituzte, nekazaritza eta abeltzaintza eraldatzen ari dira, eta elikagai-produkzioa herbizidez, pestizidez, eta genetikoki eraldatutako organismoz tratatzen hasi dira<sup>6</sup>. Egoera horrek emakumeei eragiten die bereziki, laboreak zaintzeko eta funtsezko baliabide zenbait, hala nola haziak, kudeatzeko arduradun nagusiak haiek izanik.

Goiko lerroetan nekazaritzako elikagaietarako mundu-ereduari buruzko ezaugarri batzuen zirriborroa egin da, eta, haren arabera, agerian geratu da maila globalean desberdintasun handiagoak sortzen ari dela; horren aurrean, elikadura-burujabetza alternatibatzat agertzen da. Garapenerako Hezkuntza, beraz, elikadura-burujabetzaren aldeko eta desberdintasunen aurkako borrokari dagozkion heziketa-prozesuetara bideratu ahal eta behar da, prozesu horiek, orobat, alternatiba horren inguruan feministek eginiko analisi eta proposamenak aintzat hartzen dutelarik. Ildo horretan, gure ustez, Garapenerako Hezkuntza eta elikadura-burujabetza elkarren beharrezko aliatuak dira.

“Bosgarren belaunaldiko Garapenerako Hezkuntza” deitutakoari honako hauek ematen dizkiote hura osatzen duten printzipioek:

- Herritartasun globalaren funtsezko kontzeptu bat: gizarte zibilak aktiboa izan behar du, gai izan behar du, eta gai kolektiboez kezkatu behar du, bai eta bere protagonismoa aldarrikatu ere, gizarteko nahiz politikako prozesuak garatzeko garaian.
- Eredu nagusiaren kritika sistematikoa (eredu eurozentrista, kapitalista eta patriarkala), eredia birproduitzeko eragina duten faktore eta eragileak azterturik.
- Alderdi global bat errealtatea aztertzean, tokian tokikoa denaren eta globala denaren artean loturak ezartzeko.
- Gizartea eraldatzeko joera estrategiko bat, hezkuntza neutrala ez dela aitorturik.

<sup>4</sup> Mies, María (1988). *Women: The Last Colony*.

<sup>5</sup> REDES-AT, GRAIN, Haziaren Mundu Kanpaina, Vía Campesina, Acción Ecológica, Red de Coordinación en Biodiversidad, Acción por la Biodiversidad, Grupo Semillas, eta Grupo ETC erakundeek sustatua, (2003 eta 2006). *Biodiversidad. Sustento y culturas* aldizkaria, 38. eta 47. zk. Ikusteko: [www.biodiversidadla.org/content/view/full/3092/offset/15](http://www.biodiversidadla.org/content/view/full/3092/offset/15).

<sup>6</sup> Shiva, Vandana (2003). *Cosecha Robada: El secuestro Mundial de Alimentos*. Paidós arg.

- Beharrizanetan baino gehiago, eskubideetan oinarritutako ikuspegi bat, herritar global guztientzat eskubideak aitortu eta aldarrikatzea nahiz eskubideok zabaltzeko lan egitea barne hartuta.
- Parte-hartezko heziketa-prozesuak, aktiboak, autoritarioak ez direnak, doktrina-mendua bazterturik, autonomia bultzaturik, eta parte-hartzea nahiz engaiatzea errazturik.
- Ardurakidetasun-jarrera kontzienteak sortzeko moduko hezkuntza bat, gizarte batek taldeak eta pertsonak baztertzen dituenean multzo gisa aukerak galtzen ari delako pentsamoldea ere eraginik.

Esplizituki azaltzea komeni den arren, printzipio horiek guztiek beren definizioan nahi-taezko genero-ikuspegia barne hartzen dute, kategoria gisa gizarte-desberdintasun globalean emakumeak eta gizonak era bereizian kokatzen dituzten mekanismoak ezartzen baititu, eta, halaber, emakumeak egoera okerragoan kokatzen baititu boterea erabiltzeko berdintasunaren aldeko borrokan.

Printzipio horiei jarraituz, Garapenerako Hezkuntzak garapenari loturiko alderdi guztien inguruko ezaguerak eskaini eta transmititu behar ditu. Gauza jakina denez, garapena kontzeptu konplexua eta alderdi askotakoa da, diziplina askori dagokiona, eta ekonomia-aren, gizartearen, politikaren nahiz kulturaren arloko gaiekin zerikusia duena. Kontzeptuari era integralean heldu behar zaio, plano guztien arteko loturak ezarriz, plano horien arteko interdependentzia-lerroak erakutsiz, bai eta Iparraldearen eta Hegoaldearen artekoak, eguneroko eta tokikoaren eta globalaren artekoak ere, nazioarteko desberdintasunen eragileak nahiz kausak eta ondorioak era kritikoan identifikatuta.

Era berean, kontzeptuzko edukien aldetik, dauden jarduera eta alternatibei heldu behar zaie, maila globalean garapenaren alde martxan jarritako ekimenei.

Eta Garapenerako Hezkuntzaren ezaugarritze horretan guztian, elikadura-burujabetza kontzeptu aliatua da, helburuei dagokienez. Elikadura-burujabetzak, proposamen politiko gisa, orientazio eta estrategia batzuk ezartzen ditu, Garapenerako Hezkuntzaren kontzeptuarekin batera doazenak, honako hauek direla medio:

- Ikuspegi globala.
- Tokikoaren eta globalaren artean ezarritako lotura argiak elikagai-produkzioari, merkaturari eta kontsumoari dagokienez.
- Eskubide-esparru batean kokatzea, zehazki herrien elikadura-burujabetzarako esku-bidean.
- Nekazaritza-arloko produkzio, merkaturatze eta kontsumoaren eredu kapitalista intentsibo eta desorekatuaz analisi kritikoa eskaintzea, hari egiazko alternatibak kontrajarrita.
- Burujabetzako ereduaren balio nagusitzat parte-hartzea jartzea eta, hortaz, hezkuntza emantzipazio-elementutzat.

- Elikadura-burujabetzaren proposamen politikorako genero-berdintasuna nahitaezkoa da, azken hori gabe burujabetza posible ez delako.

Garapenerako Hezkuntzan kontuan izan behar ditugu elikadura-burujabetzaz hitz egiteak genero-erlazioen aldetik dakartzan askotariko inplikazioak, bai eta haiei guztiei heltzeko zailtasuna ere. Horregatik, ondoren, emakumeen eta elikadura-burujabetzaren binomiari dagozkion funtsezko hiru alderditan jarriko dugu arreta bereziki: osasunean, hazietan eta urean, hain zuzen; tokiko ikuspegitik helduko diegu, eta aintzat hartuko ditugu dagozkien kultura eta testuingurua.

Hasteko, gagozkion osasunari. Osasunak lotura estua du agrotokikoek manipulatuzaileei dakartzkieten eraginekin. Rachel Carsonek, *La Primavera Silenciosa* (1962) bere liburuan (*Silent Spring*), bere garaiari aurrea harturik, argi ohararazi zuen substantzia kimiko horiek jendearentzat dituzten arriskuez. Eta horretarako, pestiziden, ekosistemen eta pertsonen osasunaren arteko loturak agerian utzi zituen, emakumeena zela substantzia horien aldetik kalte gehien nozitzen zuten taldeetako bat. Rachel Carsonen testuak askotan erabili izan dira ingurumen-osasunaren inguruan aurrera eramaten diren sentiberatze-hitzaldi eta heziketa-jardueratarako, eta egiaztatu da eragin handiko bitarteko direla arazo ikusarazteko.

Testu batzuetan plagizidak erabiltzeak berez sortzen dituen arazoak aipatzeaz gain, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) kalkulatu du 1990eko hamarkadaren lehen erdian plagizida bidezko pozoitze-kasuak 2 eta 5 milioi bitarte izan zirela, eta haietatik 40.000 heriotza eragin zutela<sup>7</sup>. Emakumeei dagokienez, eragin kaltegarriak are biziagoak dira, nekazaritza-sisteman pertsonen kontsumorako sortzen diren produktuekin zuzeneko erlazioa dute eta. Agrotokikoek emakumeen osasunari dakarkioten eragin kaltegarriaren adibide ditugu xenoestrogenoen eraginpean (kimikoki hormona femeninoen antzekoak diren substantzia batzuk, hala nola pestizida organokloratuak, dioxinak, erretxina sintetikoak, eta beste substantzia batzuk) egoteagatik sorturiko gaitzak; hain zuzen ere, halakoek hainbat minbizi-mota, sortzetiko malformazioak, hilaur egitea, eta antzutasuna eragin ditzakete. Ikusten dugu nola nekazaritza-produkzio neoliberaletako eredu berriek emakumeen ugaltze-osasuna larri asaldutzen duten. Hala ere, arnas arazoak, larruazalekoak, neurologikoak, eta abar ere badira pestiziden eraginpean modu jarraituan egotearen ondorio oso larri batzuk, eta halakotzat jo behar dira betiere.

Haziei dagokienez, Rioko Adierazpenean (Lurraren Goi Bilera, Rio de Janeiro, 1992) garrantzi berezia ematen zaio metodo tradizionalak onartu eta sustatzeari, bai eta tokian tokiko biztanleen ezaguerei ere, berariaz nabarmenduta emakumeek duten rola, biodibertsitatea gordetzeko eta natura-baliabideak era iraunkorrean erabiltzeko<sup>8</sup>. Emakumeek zaindu eta atxiki izan dituzte haziak tradizioz, eta horrela askotariko ezaguerak bereganatu dituzte haziak artatzearen inguruan. Ezaguera horiek pisu handia dute balorazioak

<sup>7</sup> Lanaren Nazioarteko Erakundeak (1996). *Los asalariados agrícolas: condiciones de empleo y de trabajo*. Lanaren Nazioarteko Bulegoa, Jarduera Sektorialeterako Programa. TMAWW.

<sup>8</sup> Parada, Soledad (2004). Enfoque de Género en la Biotecnología para gestores de políticas. Ikusteko: [www.fodepal.es/Bibvirtual/genero/pdf/bio.pdf](http://www.fodepal.es/Bibvirtual/genero/pdf/bio.pdf)

egiterakoan nekazaritza-munduko eginkizunen garrantziari buruz; izan ere, egiazko iraun-kortasunaren abiapuntua esperientzia da, batez ere, eta horixe hain zuzen gorde izan dute emakumeek kultura guztietan eta zibilizazio guztietatik zehar.

Ura da aztertu beharreko beste alderdi bat. Funtsezkoa da gizaki orok bizirik iraun dezan; hala ere, emakumeek eta neskatok jardun dute eta dihardute familia-nukleoak zein nekazaritza-ustiategi txikiak baliabide horretaz hornitzeko lanetan. Hortaz, haiexek aurre egiten diete, gehienetan, arazoei, hala nola eskuragarritasun urriari, kutsadurari, eta gehiegizko ustiapenari<sup>9</sup>. Eta horrexegatik du garrantzi handia emakumeak baliabide hori kudeatzeko boterea duten estamentu guztietan sar daitezen, bai ur-batzordeetan, bai ureztatzaile-elkarteetan, bai lege-esparruak eta nekazaritza-politika publikoak egin eta gauzatzearekin zerikusia duten beste erakunde batzuetan.

Ikusi dugunez, emakumeak biziaren iraunarazleak izan dira, gizakien beharrian oinarritzen direnak (etxea, osasuna, ura eta elikadura) betetzen aritu baitira, baina eginkizun horiek gainditzean, emakumeek eta gizonek ez dute ikuspegi bera eratu nekazaritzaren gainean. Oro har, emakumeek nekazaritzako jarduera elikagai-iturritzat jo izan dute; gizonek, ordea, diru-sarreraren iturritzat jo izan dute neurri handiagoan, eta batez ere nekazaritzatik datozen produktuak banatzen eta merkaturatzen aritu dira.

Oraindik ere, era masiboan, emakume nekazariak etxeko kontsumorako elikagaiak produzitzen dituzte. Nahiz eta enpresa eraldatzaileentzat produzitzen duen ustiategi batean lan egiten duten, emakumeak arduratzen dira oraindik familiaren baratzea lantzeaz eta familiak jateko nahiz diru-sarrera txiki batzuk erdiesteko animaliak hazteaz. Era berean, tokiko merkatuetan zuzenean saltzeko elikagaien produkzioa gehienbat emakumeen esku dago<sup>10</sup>.

Puntu honetan, Garapenerako Hezkuntzan lan egiteko, elikadura-burujabetzaren eta genero-erlazioen arteko loturak ulertzeko garrantzitsua den beste alderdi bat aintzat hartu behar dugu: jabetzaren banaketa eta luraren lanketa maila globalean. Mundu osoan, emakumeek lur-jabetzaren % 1 baino ez daukate, eta, hala ere, planetako nekazaritza-produkzioaren % 60-80 sortzen dute<sup>11</sup>. Hegoaldeko herrialdeetan, landa-eremuko langile gehienak emakumezkoak dira oraindik ere. Iparraldeko herrialdeetan, joera hori alderantzikatu egin da pixkanaka, eta nekazaritza-esparruaren maskulinizazioa gertatu da. Landa-eremua mekanizaturik, nekazaritza-lanetan eskulana murriztu egin da, eta birmoldaketa horretan emakumeak atera dira kaltetuta, batik bat. Gizonek atxiki dute, gehienbat, produkzio-baliabide teknikoaren kontrola, botere-era berri bat eskuraturik.

Bizi garen merkatu globalizatu honetan, familia-ustiategietan produzitzen diren elikagaiak gutxietsi egiten dira, nekazari xumeen produktua kalitate txarrari eta osasun-bal-


<sup>9</sup> Arellano Cruz, M. (1998). *Educación Ambiental y el cambio de actitud en la población ante la conservación del medio ambiente*.

<sup>10</sup> León, I. eta Lidia Senra, L.: *Aproximación a las situaciones de las campesinas y sus propuestas para conseguir la igualdad de derechos entre mujeres y hombres en el marco de la lucha por la Soberanía Alimentaria*. Ikusteko: [www.pangea.org/epueblos/salimentaria/pairoses/documents/marco\\_teorico\\_cast.pdf](http://www.pangea.org/epueblos/salimentaria/pairoses/documents/marco_teorico_cast.pdf)

<sup>11</sup> FAO Focus: *Mujer y Tenencia de la Tierra*. Ikusteko: [www.fao.org/focus/s/women/tenure-s.htm](http://www.fao.org/focus/s/women/tenure-s.htm)

dintza eskasei loturik. Hori oinarri hartuta, oso araudi zorrotza ezarri dute pixkanaka Iparraldeko herrialdeetan, eta horrek neurri handi batean urrundu ditu emakume nekazarietako eta haien produktuetaiko asko tokiko merkatuetatik. Horrez gain, ingurumenerako eta gizarterako tokiko produktuak ez kontsumitzeak dakartzan kostuengatik ere, enpresa handiek merkatua erabat hartu dute beren produktuekin, banaketaren negozio etekin-tsuari esker. Horrek nabarmen kaltetu ditu emakume nekazariak, tokiko merkatuetan haiek izanik produktuak merkaturatzeko arduradun nagusiak<sup>12</sup>.

Afrikako zenbait estatuetan emakumeek egindako lanaren ehunekoak, emakumezko langile, enplegatuen ehunekoaren aldeko ezberdintasuna



Iturria: FAO. IAASTAD Ketill Berger, UNEP/GRID Arendal. 2008.

Hegoaldeko herrialdeek Iparraldekoen aldean dituzten desberdintasunak murriztu nahian, azken hamarkadetan indartu egin dira nekazaritza bidezko iraupenerako estrategiekin bat egiten duten nekazari- eta herri-borrokako mugimenduak nahiz emakume-

<sup>12</sup> León, I. eta Lidia Senra, L.: *Aproximación a las situaciones de las campesinas y sus propuestas para conseguir la igualdad de derechos entre mujeres y hombres en el marco de la lucha por la Soberanía Alimentaria*. Ikusteko: [www.pan-gea.org/epueblos/salimentaria/pairoses/documents/marco\\_teorico\\_cast.pdf](http://www.pan-gea.org/epueblos/salimentaria/pairoses/documents/marco_teorico_cast.pdf)

mugimenduak. Mugimenduok elikadura-burujabetzaren kontzeptuan sartzen diren irizpideak aldeztu dituzte, eta, hala, erreala eta –ekonomia-sistema hegemonikoaren aurrean– alternatiboa den garapen baterako eredia sendotzeko borroka-bide bihurtzen da elikadura-burujabetza. Ildo horretan, esan dezakegu gizartea eraldatzeko errealitate horietan emakumeek izaniko parte-hartzea ezinbestekoa izan dela eta izaten ari dela.

Halaxe gertatzen da Dominikar Errepublikako Confederación Nacional de Mujeres del Campo (CONAMUCA) delakoan (Landa Eremuko Emakumeen Nazio Konfederakundea). Nekazaritza-erreforma integral baten alde borrokan ari den erakunde bat da: gogor lan egiten du lurra saltzea, monolaboreak landatzea eta plagizidak erabiltzea eragozteko, eta enpresa transnazional handien aurka borrokatzen da. Iparraldeko herrialdeetan garapen-ereduaren ardatza hiriak hazi eta landa jendez hustea da, eta halako borroka tokiko ekimen eta proiektuen bidez mamitzen da, Hegoaldean egiten ari diren borrokarekin zuzenean uztartutako ekimen eta proiektuak izaten direlarik.

*Alternatibak lotuz 3* Herrien Goi Bileran (Lima, 2008ko maiatza), Emakumeen Mundu Martxako Nalú Fariak aditzera eman zuen emakumeen ikuspuntua dela mundu modernoak sortzen dituen arazoei aurre egin eta aldaketak egitea: *“Eredu horrek ez du aintzat hartzen nekazaritzako birproduktzioa; horregatik, emakumeek egiten duten lana balioets eta ezagut dadin nahi dugu, bai etxeko lanak, bai produktio-lanak”*.

Iturria: Alorda, Rocío (2008). *Soberanía Alimentaria: Un derecho de los pueblos*. Minga Informativa/ANAMURI. Ikusteko: <http://alainet.org/active/24135>

Bukatzeko, bidegabekeriako egoerak ikusarazteko Garapenerako Hezkuntzako tresnak erabiltzen ditugunean, ohartu behar dugu genero-ikuspegiko elikadura-burujabetzak sistema kapitalista eta patriarkala jartzen duela zalantzan, haren agerpen guztietan. Prozedura horren bidez, gizartea eraldatzea erdietsi nahi da, justiziaren eta gizarte-berdintasunaren alde eginda, eta produktio, banaketa eta kontsumoko politika eta estrategia neoliberalen aurkako borroka indartzeko beharra aurkezten da, herriek beren elikagai- eta nekazaritza-politikak iraunkortasuna bermatzu zehazteko duten eskubidea bulztatuta. Horrela, barneko elikagai-eskaria aseko dela bermatzen da, herrialdeko produktioaren bidez, produktorako, merkaturatzerako eta landa-eremuen kudeaketarako ereduak askotarikoak izan daitezzen errespetaturik. Hain zuzen ere, halakoetan emakumeek funtsezko eginkizun bat betetzen dute.

## 2. Oinarrizko kontzeptuak

### 2.1. Giza Garapen Iraunkorra

*Garapen iraunkor* terminoa, nazioartean ezaguna, Brundtland txostenean (1987) sortu zen (Nazio Batuen Ingurumen eta Garapen Batzordeak aurrera eramandako lanen



emaitza izan zen), eta gero Rioko Adierazpeneko 3. Printzipioan onartu zen (1992). Gro Harlem Brundtland doktoreak zioenez, haren definizioa hau da: *“oraingo belaunaldien beharizanak betetzen dituen garapena, baina etorkizuneko belaunaldiek beren beharizanak asetzeko aukerak arriskuan jarri gabe”*.

Kontzeptu hori natura-baliabideei buruzko kezkatik datorren arren, ez dagokie beti halako baliabideekin lotura duten gaiei: ideia da ingurumena, batetik, eta giza jardue-  
ra, bestetik, bereizten dituen ikuspegia gainditzea. Garapen iraunkorrak alderdi asko ditu, ingurumena, ekonomia, kultura, gizartea, eta abar ardatz dituztenak. Gizarteari dagokion alderdi hori sartzeko arrazoia da agerikoa izatea ingurumenaren nariadurak loturak dituela bai Iparraldeko herrialdeetako bizi-estilo xahutzailearekin, bai Hegoaldeko herrialdeetako gutxiengo aberatsekin, bai eta txirotasunarekin eta bazter-tuen irauteko lehiarekin ere<sup>13</sup>.

Sutcliffen arabera, iraunkortasunari egiten zaion kritika nagusietako bat herrialde txirotuen hazkunde ekonomikoa mugatzeko aukerari buruzkoa da, giza garapena eta ingurumenaren iraunkortasuna bateratzea aldezturik. Batean zein bestean, beharrezkoa da baliabideak birbanatzea, gutxiengo aberastuen aldetik, haiek eragin baitute, batik bat, ingurumena narriatzea eta giza garapenik ez gertatzea. Hortaz, ezinbestekoa da Iparraldeko biztanle aberastuen neurrizko kontsumoa, planeta osoan giza garapen iraunkor bat ahalbidetzarren eta etorkizuneko belaunaldientzat ingurumenaren iraunkortasuna ziurtatzearen.

UNDPko zuzendariak *giza garapen iraunkor* kontzeptua definitu zuen 1994. urtean, UNDPren lanerako oinarritzko elementu gisa:

*“Garapen iraunkorra eta giza garapena batu behar ditugu, hitzez ez ezik, ekintzetan ere batu, egunero, bertatik bertara, mundu osoan. Giza garapen iraunkorra, hazkunde sortzeaz gain, bere onurak bidezketasunez banatzen dituen garapen bat da; ingurumena berriztatzen du, suntsitu beharrean; pertsonak sustatu egiten ditu, baztertu beharrean; pertsonen aukerak eta hautabideak zabaltzen ditu, eta haien bizitzetara doazkien erabakietan parte hartzea ahalbidetzen die. Giza garapen iraunkorra txiroen alde, naturaren alde, enpleguaren alde eta emakumeen alde dagoen garapen bat da. Hazkunde bultzatzen du, baina enpleguak dakartzan hazkunde bat, ingurumena babesten duen hazkunde bat, pertsonak sustatzen dituen hazkunde bat, bidezketasuna sortzen duen hazkunde bat”<sup>14</sup>.*

Denboran luzetarako eta zeharkako den kontzeptua dugu: etorkizunaren kontzientzia edukitzeko eskatzen du eta oraineko ekintzak gizartearen aldetik berdintasunezkoak eta bidezkoak izateko, geroko belaunaldiek askatasunez garatzeko aukera izan dezaten. Nazio Batuen Gutunak barne hartzen du kontzeptua, eta nazioarteko itun askok babesten

<sup>13</sup> Sen, A (2005). *Teorías del desarrollo a principios del siglo XXI*. Ikusteko: [www.sustainable-systems-international.org/dissertation.aspx](http://www.sustainable-systems-international.org/dissertation.aspx)

<sup>14</sup> UNDP (1994). *Algunas preguntas y respuestas sobre el desarrollo humano sostenible*. Washington, 1994ko urtarrilaren 17a, 7. or.

dute. Gainera, Rio de Janeiroko Goi Bileran, 1992an, eta Populazioari eta Garapenari buruzko Kairoko Biltzarrean, 1994an, onarturiko akordioak jasotzen ditu.

Ondorio orokor gisa, esan daiteke ingurumenaren gaineko kezka eta hazkundearen mugei buruzko kontzientzia aurrerapausoa izan direla eta garapena ulertzeko era aldatu dutela. Hala ere, kasu askotan, behar diren aldaketa sakonak ez dira sartu ekonomia- eta gizar-te-ereduetan, kontsumo-ohituretan, eta abarretan, eta, horrenbestez, bestelako konponbide batzuk nabarmentzeko joera dago, hala nola populazioaren kontrolean bakar-bakarrrik oinarritzen direnak. Weizsäckerrek (Weizsäcker *et al.*<sup>15</sup>) eta beste egile batzuek diote alderdi horrek sortzen duen kezkak Hegoaldeko herrialdeen garapena bultzatu beharko lukeela, ongizate-mailaren, emakumeen boteretzearen eta hazkunde demografikoa gel-diagotzearen arteko lotura dela eta. Ikuspuntu horrek giza garapenaren eta iraunkortasunaren arteko beste sinergia posible bat proposatzen du.

## 2.2. “Dumping”

*Dumping* deritzon merkataritzako praktikan, produktu jakin batzuk kanpoan saltzen diren prezioa txikiagoa da produktu horiek herrialde esportatzailean duten balioa baino. Praktika horren bidez, dena delako herrialdeko barne-merkatuetan erabiltzen direnak baino txikiagoak diren diru-balio batzuk ezartzen dituzte enpresek. Baldintza hori gerta dadin, produktuen prezioak ezartzen diren merkatuak lehia ez-perfektua izan behar du, hau da, enpresek beren produktuatarako balioak libreki esleiri ditzakete. Horrez gain, produktu horiek saltzen diren merkatuek segmentatuta egon behar dute, zaila izan dadin merkatu esportatzaileko herritarrek ondasunak eskuratzea.

Gaur egun, Ameriketako Estatu Batuetako eta Europar Batasuneko nekazaritza- eta merkataritza-politikek herrialde-mailako laguntzak eta diru-laguntzak barne hartzen dituzte, *dumpinga* egiteko. Horrela, barne-merkatuetan saldutako produktuei prezio txikiagoak eman ahal zaizkie, beste herrialde batzuetara esportatutako produktuei baino, herrialde horietan kanpoko produktuak saltzeko aukera zapuztuta.

## 2.3. Elikadura-burujabetza

Erabaki bat libreki hartzeko eskubidea izatea da burujabetza, eta elikagaia da energia emateko eta, hortaz, bizia iraunarazteko gai den edozer substantzia natural edo sintetiko; nahikoa erraza da elikadura-burujabetzaren definiziora iristea. Hala ere, ez da hain agerikoa definizio hori sustatzeko arrazoia. Elikadurari buruzko Munduko Goi Bileraren barruan, 1996an, Via Campesinak eta Coordinadora Latinoamericana de Organizaciones Campesinas (CLOC) Latinoamerikako nekazarien elkartearen koordinakundeak kontzeptu hori atera zuten, FAOk emandako definizioei erantzute aldera. Hala, nekazaritza-eredu neoliberalarekiko alternatiba paraleloa eman zuten. Geroago, elikadura-burujabetzari buruzko Munduko Foroan, Habanan (Kuba, 2001), definizioa zehaztu, eta honela geratu zen:

<sup>15</sup> Weizsäcker, E. U. von, A. B. Lovins eta L. H. Lovins (1997). *Factor 4. Duplicar el bienestar con la mitad de recursos naturales. Informe al Club de Roma*, Galaxia Gutenberg / Círculo de Lectores, Bartzelona.

*“elikadura-burujabetza da herriek iraunkortasunezko politika eta estrategiak zehazteko duten eskubidea, elikagaiak produzitu, banatu eta kontsumitzeko, elikatzeo eskubidea biztanle guztiei bermaturik, produkzio txiki edo ertainean oinarrituta, berezko kulturak nahiz nekazari, arrantzale eta indigenen askotariko jardunbideak errespetaturik nekazaritza eta abeltzaintzako produktioari, merkaturatzeari, eta landa-eremuak kudeatzeari dagokienez, non emakumeek funtsezko eginkizuna betetzen duten”.*

Definizio hori ikusita, esan daiteke elikadura-burujabetzak hauek barne hartzen dituela:

- Lurraren erabileran, elikatzeo helburuei lehentasuna emateko beharra.
- Nekazariari lurraz, kalitateko uraz eta hazi tradizionalak gordetzen dituen merkatu batez baliatzeko aukera bermatzea, kontrolpean edukirik, beraz, genetikoki eraldatutako organismoen merkatua.
- Nekazarien eskubidea elikagaiak produzitzeko, eta kontsumitzaileen eskubidea zer kontsumitu nahi duten erabakitzeo, eta hura nola eta nork produzitzen duen.
- Lurraren jabetza izateko eskubidea beren produkzioa elikagaien tokiko kontsumora bideratzen duten nekazariarentzat.
- Herrialdeek beren nekazaritza-politikak sortzeko duten eskubidea.
- Emakume nekazarien eskubideen ezagutza, nekazaritzako produkzioan eta elikaduran funtsezko eginkizuna aurrera eramaten baitute.
- Iraunkortasuna bermatzen duten nekazaritza-ereduak zabaltzea.

#### 2.4. Elikagai-segurtasuna

FAOren arabera, Elikadurari buruzko Munduko Goi Bileran (1996):

*“banako, etxe, nazio eta munduarentzako elikagai-segurtasuna lortzen da pertsona guztiek, une oro, fisikoki nahiz ekonomikoki beren elikadura-beharrak eta hobespenak asetzeko behar bezainbeste elikagai, seguru eta elikagarri, eskura dezaketenean, bizimodu aktibo eta osasuntsua aurrera eramate aldera”.*

Gizakien izaeran, elikatzea berezko beharrezkoa da, elikagairik gabe pertsonak hil egiten dira, eta, hortaz, elikagai-segurtasunaz ari garenean giza eskubide bat gauzatzeko bermea barne hartzen duen termino bat aipatzen ari gara. Horrenbestez, segurtasun hori bete behar da bai banakoei dagokienez, bai kolektiboari dagokienez, ikuspegi guztiak aintzat harturik planak eta erreformak garatzerakoan. Sistema orok, berez, pertsona guztiek bizitzea duina, oinarritzko beharrezkoak instalatuta, lortzea segurtatu beharko luke.

Terminoaren barruan elikagaien erabilgarritasunari, eskuragarritasunari, erabilerari eta horniduraren egonkortasunari lotutako kontzeptuak sartzen dira. Hartara, elikagai-segurtasuna litzateke nahikoak, kaltegabeak eta elikagarriak diren janariak materialki eta ekonomiki eskuratu ahal izatea, elikadura-beharrak asetzeko eta bizimodu osasuntsua eramateko erabiltzeko moduan, eskuratzeko aukera hori galtzeko arrisku bidegabeak gabe.

## 2.5. Elikadura-burujabetzaren eta elikagai-segurtasunaren arteko aldeak

Bi kontzeptuek dute herrialde bateko biztanle guztiak ongi elikaturik egon daitezen erdiesteko helburu bera, horretarako, une oro behar duten elikagaiak eskuratzeko aukera izan behar dutelarik. Hala ere, helburu hori lortzeko proposamenaren sakontasunean datza bien arteko aldea.

Elikagai-segurtasunak teknikoagoa den konnotazio bat du, eta horrek ez du halabeharrez berekin ekartzen, besteak beste, tokiko elikagai-produkzioa sustatzea, elikagai horiek inportatuak izan daitezke eta. Herrialde batek elikagaiak inporta litzake, produzitu behar gabe, baina horrek nazioarteko merkatuaren eta hura zuzentzen duten legeen esparruan egoten jarraituko du, eta halakoek, hain zuzen, jarri dituzte mendetasun-egoera batean Hegoaldeko herrialdeak.

Aitzitik, elikadura-burujabetzaren bidez, herri eta estatu guztiak beren elikagai- eta nekazaritza-politikak autonomiaz zehazteko duten eskubidea aldeztzen da, bai eta elikagaien barne-eskaria herrialdeko bertako produkzioarekin estal dadin ziurtatzeko beharra eta nekazariak elikagai-produkzioak duten protagonista-rola ere. Termino horrek ikusmolde politikoago bat ematen du zer nekazaritza-produktu, nola eta norentzat produzitzen diren aintzat hartzean. Horregatik, kontzeptu horrek erresistentziak aurkitzen ditu gobernu arteko erakundeen, finantza-erakunde multilateralen, eta gobernu gehienen aldetik, betean arbuizatzen duelako halakoei beren botereari eustea ahalbidetzen dien sistema hegemonikoa.

## 2.6. Txirotasunaren feminizazioa

Termino horrek adierazten du emakume gehiago daudela txirotasun-egoeran historian zehar, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-egoeren ondorioz.

*“Planetako populaziotik, 1.700 milioi pertsona txirotasun-egoeran bizi dira, eta haie-tatik % 70 emakumezkoak dira; horrek ezin gezurtatzeko eran frogatzen du, herrial-de txirotuetan zein herrialde aberastuetan, txirotasunak «emakume-aurpegi» duela.” (UNDP, 1995).*

Bizi garen sistema neoliberal eta patriarkalari eusten dioten zenbait faktoretan datza hori. Gizartean emakumeek eta gizonek betetzen dituzten rol desberdinek egoera desberdinak ekarri dituzte, non emakumeak, gizonen aldean, mendetasun-egoeran dauden. Horrek beren eskubideak lortu eta erabiltzea eragozten edo zailtzen die, hala nola ez alde ekonomikotik ez gizarte-aldetik balioesten ez diren lanak esleitzea (zaintzari loturikoak batik bat) eta ondasun jakin batzuen kontrola. Hala, bada, lan formal eta ordainduaren merka-tuan sartzeko eragozpenak eta, gizonen aldean, elikagaiak, hezkuntza eta osasun-lagun-tza lortzeko aukera desberdinak dira emakumeak txirotasunaren aurrean askoz egoera ahulagoan jartzen dituzten faktoreetako batzuk.

Emakumeari buruzko Beijingeko IV. Mundu Biltzarrean (Txina, 1995) onarturiko Ekintza Plataformak nazioarteko komunitateak, gobernuak eta gizarte zibilak arre-ta berezia eman eta neurriak har ditzaten behar duten hamabi esferen artean izendatu

zuen emakumeek jasaten duten txirotasunaren zama iraunkorra, eta gero eta handiagoa, desagerraraztea.

Era berean, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Nazio Batuen Batzordeak emakumeen eta txirotasunaren inguruko gaia eztabaidatu zuen bere 40. bilkura-aldian, 1996. urtean, eta proposatu zuen neurri berriak har zitzatela Nazio Batuetako estatu kideek nahiz nazioarteko komunitateak, besteak beste, txirotasuna kentzeko xedea duten politika eta programa guztietan genero-ikuspegia txertatzea.

## 2.7. Boteretzea

Boteretzea autonomia-prozesu bat da, eta haren bitartez pertsonak beren ahalmenak, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa sendoturik ikusten dute gizarte-talde gisa, bizi diren egoeretan aldaketa positiboak bultzatzeko<sup>16</sup>.

Emakumeek duten egoera okerra dela eta, beharrezkoak dira, nahitaez, boteretze-prozesuak gerta daitezzen haien gizarte-egoera hobetzeren. Prozesu horiek sustatuta, emakumeek kontzientzia har dezakete jasan izan dituzten zapalkuntzez eta desberdintasunez, bai eta halakoen izaera estrukturalaz ere. Emakumeen boteretzetik datorren autonomiak gizartean parte har dezaten bultzatzen du, eta, hortaz, haien orde bestek aurrera eramandako ekintzen eta hartutako erabakien mendetik kanpora daramatza.

Kontzeptu hori, generoaren ikuspegitik, Emakumeari buruzko Nairoibiko III. Mundu Biltzarrean (Kenia, 1985) agertu zen proposamen berritzailetzat, emakumeen mugimendua berrorientatzeko eta emakumeak garapenean benetan txertatzeko, botere-egitura baztertzaileri aurre egiteko estrategia politiko gisa. Geroago, Emakumearen buruzko Beijingeko IV. Mundu Biltzarrean (Txina, 1995) berretsi egin ziren boteretze-estrategiaren garrantzia eta baliozkotasuna, gizon eta emakumeen arteko desberdintasuneko erlazioak aldatuz joateko ez ezik, “txirotasunaren feminizazio”aren aurka borrokatzeko beharrezko ikuspegizat ere bai. Biltzar horrexetan agertu zuen nazioarteko komunitateak emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasunarekiko engaiamendua, berdintasuna lortzeko bi oinarriko estrategia zehazturik: genero-*mainstreaming*a, politika publikoetan genero-ikuspegia sartzeko prozesua, alegia (lortzeko, erabakiak hartzeko prozesu guztietan eta politiken gauzatzean lan egin behar da); eta emakumeak boteretzeko estrategia (berdintasun-baldintzetan, erabakiak hartzeko eta boterea eskuratzeko prozesuetan parte hartzeko emakumeen ahalmenen autoberrespentzat ulerturik)<sup>17</sup>.

Laburbilduz, testuinguru honetan, emakumeek esparru indibidual zein kolektiboan parte hartzeko dituzten aukerak aldatzea dakar boteretzeak; hala, eragile aktiboak izan daitezke politika- nahiz gizarte-arloko erabakiak hartzean, eta erabakiak hartzeko gune berriak sortzea lor dezakete, bai eta lehendik badauden guneetan boterea birbanatzea ere.

<sup>16</sup> Karlos Pérez de Armiño (zuz.) (2000). Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo (*Empoderamiento*ren definizioa). Ikusteko: [www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/86](http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/86)

<sup>17</sup> Informazioaren iturria: [www.americalatinagenera.org/tematica/gender.php](http://www.americalatinagenera.org/tematica/gender.php)

### 3. Jarduera-ildo estrategikoak

Jarduera-ildo estrategikoei buruzko sarrera egiteko, ekonomia neoliberalaren makineriari buruzko alderdi batzuk azalduko ditugu. Horrez gain, ikusiko dugu nola ekonomia hori diru-sistemarekin lotura ez duten esparru batzuetan bermatzen den, hala nola familia-esparruan.

Amaia Pérez Orozco ekonomista feministak dioenez:

*“Emakumeen jardunaren zati handi-handi bat ezkututzen da, ordaindu gabeko lana, lan horrek dituen askotariko eretan... Ikusezin bihurtze hori gutxiespena da, arlo ekonomikokoa balioesten delako eta merkataritzazkoa ez den jardunaren garrantzia aintzat hartzen ez delako ekonomia- eta gizarte-sistemen funtzionamendua azaltzeko garaian. Azkenik, ekonomiaren inguruko ikusmolde horrek merkatua eta metaketa-prozesu kapitalistak hartzen ditu arretagunetzat, giza beharrianak betetzeko prozesuetan arretarik jarri gabe<sup>18</sup>.”*

Horrez gain, ekonomia kapitalistaren ikuspuntutik, natura baliabide-hornitzailea -baliabide horien artean lur emankorrak, ura, haziak, elikagaiak, eta abar daudelarik (bizia irau-narazteko baliabideak)- eta hondakin-hartzailea baino ez da. Hau da, sistema ekonomikoak natura sistema irekiztat, mugarik gabekotzat, jotzen du. Berdin jotzen da ordaindu gabeko zaintza-lana. Tradizioz, lan hori emakumeei esleitu zaie, eta emakumeak lan-merkatuan era masiboan sartu diren arren, merkatuak eta estatuek ez ikusi egiten diote oraindik bizia iraunkor bihurtzen duten beharriaz, zaintzak estalita edukitzeari dagokionez. Hori dela eta, emakumeen nazioarteko migrazioak gehitu egin dira, arlo pribatuko zaintza-beharrianak estaltzeko, beharrian horietan gaur egun laguntzarik jasotzen ez da eta. Horrela, zaintza-kate global bat<sup>19</sup> sortzen da, sustraiak emakumeak lan-merkatuan sartzeko prozesuan dituen, bai eta herrialde aberastuetako botere publikoek eta eragile pribatuek halakoetan laguntzarik ez ematean ere, eta oinarrian herrialde txiroetako emakumeek eusten diotena.

Emakumeen lana nahiz naturak ematen dituen ondasunak ikusezin bihurtze horrek, ekonomia-sistema kapitalistaren autonomia faltsu batetik etortzeaz gain, gizartean emakumeek dituzten aukerak nahiz erabakitzekeo duten ahalmena desberdina izan daitezen eragiten du. Ekonomiaren eta gizarte-antolakuntzaren xedeak giza biziari irau-naraztea izan behar badu ere -elikadura funtsezko alderdi bat dela-, errealitatea bestelakoa da. Bai sistema patriarkalak bai sistema neoliberalak irrealak diren muga batzuetatik abiatzen dira, biziaren iraunkortasunari dagokionez, oraindik ere emakumeek eta naturak eusten baitiote biziari dohainik<sup>20</sup>.

<sup>18</sup> Pérez Orozco, Amaia (2004) *¿Hacia una Economía Feminista de la sospecha?* En Otras Palabras aldizkaria, 13.-14. zk. Ikusteko: [www.ciudaddemujeres.com/articulos/IMG/pdf/PerezAmaia1.pdf](http://www.ciudaddemujeres.com/articulos/IMG/pdf/PerezAmaia1.pdf)

<sup>19</sup> Pérez Orozco, Amaia (2007). *Cadenas Globales de Cuidados. Documento de Trabajo*. INSTRAW UN. Ikusteko: [www.un-instraw.org/es/md/global-care-chains/latin-american-women-in-the-global-care-chains.html](http://www.un-instraw.org/es/md/global-care-chains/latin-american-women-in-the-global-care-chains.html)

<sup>20</sup> Bosch, Anna, Carrasco, Cristina eta Grau, Elena (2003). *Verde que te quiero violeta. Encuentros y desencuentros entre feminismo y ecologismo*. Ikusteko: [www.ecologistasacalah.org/docs/ecofoz.pdf](http://www.ecologistasacalah.org/docs/ecofoz.pdf)

*Emakume nekazariak funtsezko zeregina betetzen dute elikagaien produkzioan; Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen arabera (FAO), familien elikagaien % 70 emakumeek produzitzen dute garapen-bideko herrialdeetan, eta planeta osoan, % 50 produzitzen dute. Hala eta guztiz ere, txirotasuna, gosea eta lanbide-arloko ezagutzarik eza mundu osoko emakume nekazariak nozitzen dituzte neurri handi batean, aukera-berdintasuna erabat eta benetan erdiesteari dagokionez. (Vía Campesinako Emakumeen Mundu Biltzarra. Santiago Compostelakoa, 2006).*

Elikadura-burujabetzaren aldeko emakumeen borroka-mugimenduek eredu bidezkoago bat aldezen dute, rolag berriz definiturik eta erabiltzen diren denborak birbanaturik. Emakume nekazarien mugimenduen jardueretan gero eta finkatuago dago honelako gaiak ukitzea, besteak beste: elikadura-burujabetzaren eta lurraren aldeko borroka; landa-eremuaren eta emakume horiek bizi diren komunitateen garapena; hazi autoktonoen babesa; baliabideen zainketa; sareak eta erresistentzia sendotzea politika neoliberearen aurrean, azken horiek bizitzak, kulturak eta nekazaritza suntsitzen baitituzte, eta, ondorioz, emakumeak hirietara eta beste herrialde batzuetara beharturik migratzera gertatzen baitira. Emakume nekazariak enpresa multinazional handien aurka borrokatzen dira; izan ere, multinazional horiek emakumeon ezaguerak albo batera uzten saiatzen dira, bai eta, berriro ere, nekazaritza-munduak bizimodu gisa sortzeko, produzitzeko eta birproduzitzeko daukan esparrua desjabetzen ere.

Nabarmendu behar da Elikadura-burujabetzari buruzko 1. Mundu Foroan, 2001ean, elikadura-burujabetzaz ezarritako definizioak barne hartzen duela emakumeek aurrera eramaten duten funtsezko eginkizuna, eta Garapenerako Hezkuntzaren definizioak<sup>21</sup>, halabeharrez, genero-teoria jasotzen duela, praktikan jartzeko, nahitaez herritartasun global eta solidario bat eratzeaz hitz egin behar baita, bai eta bidezko giza garapen batez ere, ezaguri horiek edukita eta giza biztanleriaren erdiaren beharrianak eta ekarpenak -emakumeenak, alegia- aintzat harturik.

Horregatik guztiagatik, Chipko elkarteak bilaketa eta gogoetaren bidez lorturiko jarduteko eta aldatzeko proposamen eta alternatiba batzuk aurkezten dira ondoren. Arlo honetan diharduten erakundeek erabil ditzaketen estrategia batzuk dira, guztientzat elikatzeko eskubidea bermatzeko, emakumeek, gizonek eta herriek -elikagaiak produzitu, banatu eta kontsumitzeari dagokionez- iraunkortasunezko politika eta estrategiak zehazteko dituzten eskubideak babeste aldera. Proposamenok lau ildo estrategikotan taldekatu dira, eta atal honen bukaeran Garapenerako Hezkuntzako eragile zenbaitek elikadura-burujabetzan genero-ikuspegia sartzearen inguruan aurrera eramantzeko ekimen batzuk aurkezten dira.

<sup>21</sup> ACSUR-Las Segovias eta HEGOA (2009). *Género en la Educación para el Desarrollo. Estrategias políticas y metodológicas. (ED de 5ª generaciónen definizioa)*, 12. or. Ikusteko: [www.acsur.org/IMG/pdf/Manual\\_Genero\\_ED.pdf](http://www.acsur.org/IMG/pdf/Manual_Genero_ED.pdf) eta [http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/595/Manual\\_castellano.pdf](http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/595/Manual_castellano.pdf)

- **Emakumeen eragin politikoa eta herritar gisako parte-hartzea sustatzea elikadura-burujabetzaren agendan**

Garapenerako Hezkuntzak gizarte arloko parte-hartzea bultzatzen du aldatzeko eta eraldatzeko tresnatzat. Era berean, elikadura-burujabetzak bere oinarriak tokiko autonomia-ren kontzeptuan finkatzen ditu, zer, nola eta norentzat produzitzen den erabakitzeo ahalmentzat ulertuta. Garapenerako Hezkuntzan, erabakiak hartzeko boterea eta inklusi-botasuna komunak eta berezkoak dira elikadura-burujabetzarekin lotura duten estrate-gietan. Berdintasunezko parte-hartzeaz hitz egiten hasi aurretik, kontuan izan behar da erabakiak hartzeko guneetan oraindik desberdintasuna dagoela ordezkartzaren aldetik, ordezkartza horretan gehienbat gizonezkoak daudelako. Nekazari-borrokako mugimen-duetan bertan ikusten da hori; izan ere, horien barruan emakumeek beren borroka erama-ten dute aurrera, halakotzat dagokien ezagutza eta balioa eman diezazkieten erakunde sindikaletan, politikako guneetan, eta abarretan. Gainera, lurraren jabetza-tituluak gehienbat gizonen esku daude oraindik ere, eta, horren kausaz, emakumeek bigarren mailan geratzen jarraitzen dute parte hartzeko eta erabakiak hartzeko prozesuetan. Garapenerako Hezkuntzak, ildo estrategiko gisa, emakumeen babes eta ezagutza politiko eta soziala landu behar ditu, komunitate, auzo, hiri eta estatuak garatzeko prozesuei dagokienez.

Emakumeen Mundu Martxaren *Soberanía Alimentaria: Tierra, Semillas y Alimento* (“Elikadura-burujabetza: lurra, haziak eta janaria”) testuaren arabera:

*“Emakumeen zapalkuntzaren eta esplotazioaren aurka borrokatzea funtsezkoa da eli-kadura-burujabetzaren aldeko nekazari-borroketan. Elikadura-burujabetzaren alde borrokatzea funtsezkoa da emakumeek beren autonomiaren alde, ardurak eta lanak partekatzearen alde eta giza biziaren iraunkortasunaren alde aurrera eramaten dituz-ten borroketan.”*

- **Landaren eta hiriaren arteko harremanak gizarte-berdintasunaren, genero-berdintasunaren, parte-hartzearen eta elkartasunaren printzipioetan oinarriturik berrezartzea**

Elikadura-burujabetzaren inguruko lanerako ardatz nagusi bat da landaren eta hiriaren arteko harremanak berdintasunaren, parte-hartzearen eta elkartasunaren printzipioetan oinarriturik berrazartzea. Eredu neoliberalak landa-munduaren eta hiri-munduaren arteko harremanak hautsi ditu, eta bi testuinguruak gero eta gehiago urrundu ditu elkarrengan-dik. Azken hamarkadetako garapen sozioekonomikoak bultzatu duen “aurrerapen”-ere-duak aldaketa soziokultural eta ekonomiko batzuk eragin ditu, eta, ondorioz, desberdin-tasuna areagotu da “landa”ren eta “hiri”aren artean, nekazaritzaren eta industriaren arte-an, tradizionala denaren eta modernoa denaren artean, eta abar, aurrerapenarekin lotura duen guztiari balioa emanik, eta landa-eremuko orori balioa kendurik. Garapen-mota horrek emakumeei eragin die bereziki, landa-eremuan lan egiten duen talderik handiena haiena izanik.

Francisco Rodríguezek ondorengo idatzi zuen Entrepueblos garapen-lankidetzako era-kundearen buletinaren 1. zenbakian (2008ko abendua) argitaratutako artikuluko batean:



*“Landa-mundua ingurumen- eta lan-esplotazioko gunetzat berreratu dute globalizazioak eta desarrollismoak. Gune hori hiriaren eskari aseezinen zerbitzura dago, eta hiriak landa-eremuari zerbitzu horiek itzultzen dizkio hondakin gisa edo landa-ingurumena txirotu eta andeatzeko mekanismoak sendotzen dituzten eskari gehiago eginez. Hala, metropolietan atxikitzen dira landa-eremuaren nahiz hango biztanleen orainari nahiz geroari buruz erabakitzekeo gunek.”*

Horrez gain, landaren eta landa-eremuko bizimoduaren balio-galera horrek ekarri duen prozesu soziodemografikoa izan da landa-eremuko populazioa zahartzea eta gazteak hirietara migratzea, aukera bila. Hiri-eremuan edo barneko zein nazioarteko migrazioen testuinguruan, genero-desberdintasunak beste desberdintasun eta zapalkuntza batzuekin gurutzatzen dira, hala nola gizarte-klaseari, etniei, jatorriari, eta abarri lotutako desberdintasunekin. Zenbaitetan, halako testuinguruetan urrun geratzen da hobetzeko aukera; dena dela, nabarmendu behar da, beste zenbaitetan, esperientzia positiboa izan daitekeela emakume askorentzat, emakumeen migrazio horien atzean, faktore ekonomikoek gain, beste gizarte-faktore batzuk ere badaudelako, beren ingurunean dauden genero-desberdintasun eta zapalkuntzak kasu.

Aurrekoaz gain, bizi garen “oparotasuneko” eredu desarrollista gehiegizko kontsumoko eredu batekin lotuta dago, eta azken horri erantzuteko, merkatuak natura-baliabideak harrapatu egiten ditu, gizon-emakumeen eta naturaren artean beti izan den lotura bazterturik.

Jarduera-ildo estrategiko gisa, garrantzitsua da landa eta hiria berriz elkarri lotzea, nekazaritzako praktika tradizionalei balioa berriro emanez, zeinetan emakumeek funtsezko zeregina betetzen duten.

- **Elikagaiak produzitu, kontsumitu eta merkatutzeko eredu bidezko, berdintasunezko eta elkartasunezko batez sentiberatzea eta hura sustatzea**

Vía Campesina nazioarteko mugimenduak proposatu zuen Elikadura-burujabetzaren printzipioa 1996. urtean, enpresa handien interesak babesten dituzten politika neoliberaleri kontrajartze aldera. Eredu hori nekazaritzan eta baliabide endogenoen bidezko produkzio iraunkorrean oinarritzen da, tokiko naturarekin, kulturarekin zein tradizioekin orekan, eta aurrez aurre topo egiten du merkataritza askeko politikekin, haietan elikadura merkatuaren zati izanik, eta ez eskubide bat. Nekazari xumeen nekazaritzak, produktore txikien nekazaritzak, dagoen esparru politikoari aurre egin behar izaten dio, esparru horrek nekazaritza intentsiboaren eta nekazaritzako elikagaien enpresa multinazional handien interesak babesten dituelako.

Eredu neoliberalerako elikakatearen barruan familiak kontsumo-unitatetzat jotzen dira, sistema kapitalistari eusten dion ordaindu gabeko zaintza-lana indibidualizatuta, lan hori, gainera, emakumeek egiten dutelarik gehienetan.

Ingurune horretan, elikadura-burujabetzak tokiko produkzioko eredu bat aldeztu du, familiako kontsumoa eta tokiko nahiz herrialdeko merkatuetako salmenta estaltzen

dituena. Gehienetan landa-eremuko emakumeek egiten dituzten produkzio-jarduerak (familiaren baratzea zaintzea, etxeko kontsumorako abereak gobernatzea, erosketak egitea, sukaldean aritzea, eta ingurumena kontserbatzea) ez dira balioesten sistema neoliberealean, eta, ondorioz, ez dira ordaintzen. Hartara, oso zaila da generoaren alde-rik berdintasun handiagoa dakarten eta ingurumena gehiago errespetatzen duten beste produkzio- eta kontsumo-erlazio batzuk gerta daitezen, eta horrela biziaren funtsa baztertzen da, aldi berean iraunkortasuna gehiago bermatzen duten beste bizikidetzera batzuk eragotzirik.

Ingurune horretan, beraz, errotiko eraldaketek baino ezin izango dute konponbide erreal bat eman nekazaritza-arloko desberdintasunezko genero-erlazioetatik datozen arazoetarako. Dauden desorekak konpontzen lagun dezaketen gakoetako batzuk ditugu zaintzailana balioestea eta monolaboreen, transgenikoen, agronegozio eta latifundioen nahiz lurra atzerriko eskuetara joatearen aurkako borroka egitea. Egungo ekonomia kapital-metaketan oinarriturik dagoenez, eta kapitala, bestalde, lanean oinarritzen denez, gure proposamena kapitalaz eta lanaz kontzeptu berriak zehaztean datza, elikagaiak produzitu eta banatzeko sistemek espeziearen azken helburua bete dezaten: bizitza iraunaraztea, merkatu kapitalisten perfekzioa desmitifikatuta eta bizi-kalitatea, batetik, eta kontsumo-ahalmena, bestetik, argi berezita.

Emakumeen Mundu Martxaren elikadura-burujabetzari buruzko manifestuak dioenez:

*“bidea da ikustea giza biziaren iraunkortasunak -haren funtsezko zati bat elikadura delarik- ekonomiaren eta gizarte-antolakuntzaren erdigunean egon behar duela”.*

- **Genero-ikuspegiko elikadura-burujabetzaren aldeko sareak sortu eta sendo daitezen bultzatzea**

Proposatzen den beste jarduera-ildo estrategiko bat da bidezko, berdintasunezko eta elkartasunezko gizarte bat eratzea –landaren eta hiriaren arteko elkarrizketa berrezarritik, naturaren babesari lotutako borroka eta jarduerak sendotuz eta zabalduz, eta emakumei elikadura-burujabetzaren bermatzaile gisa ezagutza emanez nahiz emakumeok ikusgai bihurtuz– aldeztzen duten kolektiboek batzen eta sendotzen laguntzeko sareak sortu eta babestea.

Elikadura-burujabetza aldeztzen dituzten pertsonen arteko batasunak, eta zehazkiago, eredu bidezko eta berdintasunezko baten alde borrokatu nahi duten emakume nekazarien arteko batasunak iraunkortasunezko ekimenak ugaltzeko daitezkeen errazten du, bai eta, natura-baliabideen kudeatzaile gisa, haien ezaguerak, ikuspegiak, ahalmenak eta gaitasunak emanda daitezkeen ere. Hala, banakoen nahiz taldeen boteretzeko-prozesuak gertatzen dira, eta, ondorioz, beren eskualdeetako eragile aktibo bilakatzen dira.

Emakumeen erakundeak eskualde-sareetan gero eta gehiago antolatzeak borroka hori indartsuagoa izan dadin ekarri du, elikagaien produkzio eta kontsumorako gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren aldetik iraunkorragoa den eredu bat erdiesteko ahaleginak batuta, eta genero-ikuspegiko elikadura-burujabetzaren aldeko ahotsa duen talde-tzat ikusgaiago bihurtuta.

### 3.1. Martxan jarritako ekimenak

Ondoren, genero ikuspegiko elikadura-burujabetzari loturiko zenbait ekimen aurkezten dira, Espainiako Estatuan Garapenerako Hezkuntzaren esparruan martxan jarri direnak. Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak (AECID) ezarritako jarduera-eremuak aintzat hartuta taldekatu dira: sentiberatzea; hezkuntza / prestakuntza; ikerketa; eta eragin politikoa / gizarte-mobilizazioa.

#### • Sentiberatzea

- “Mujeres Rurales Andaluzas” (“Landa-eremuko emakume andaluziarrak”) proiektua.

Sevillako Soberanía Alimentaria y Género taldeak aurrera eramanezuen (CIC-Batá, Entrepueblos, Veterinarios sin Fronteras, La Ortiga, ProDerechos Humanos, Universidad Rural Sierra de Cádiz, Área de la Mujer del SOC eta Ecologistas en Acción dira kolektiboaren sortzaileak), 2008an.

Materiala ikus-entzunezkoa zein paperezko formatukoa da, eta emakumeek Andaluziako landa-eremuan egiten duten lana ikusgai bihurtzen du.

<http://soberaniaalimentariaygeneroav.blogspot.com/2008/10/mujeres-rurales-andaluzas.html>

- “Las mujeres alimentan al mundo. No más invisibilidad, Derechos y Recursos y Soberanía Alimentaria” (“Emakumeek mundua elikatzen dute. Ikusezintasun gehiagorik ez. Eskubideak eta baliabideak eta elikadura-burujabetza”) II. Nazioarteko Jardunaldiak.

Entrepueblos GGKEak aurrera eramanez zituen, beste elkarte batzuekin koordinaturik, 2009an.

Jardunaldiak martxoan egin ziren Espainiako Estatuko zenbait hiritan, eta munduko hainbat tokitako erakunde-ordezkarik nahiz txostengilek parte hartu zuten.

[http://epueblos.pangea.org/index.php?option=com\\_content&task=view&id=785&Itemid=150](http://epueblos.pangea.org/index.php?option=com_content&task=view&id=785&Itemid=150)

#### • Hezkuntza / prestakuntza

- Unibertsitate-jardunaldiak: “Soberanía Invisible: Las mujeres que alimentan al mundo” (“Burujaibetza ikusezina: mundua elikatzen duten emakumeak”).

Veterinarios Sin Fronteras GGKEak eta Kordobako Unibertsitateko (UCO) Garapen Lankidetzako Katedrak aurrera eramanez zituzten, 2009. urtean.

15 eskola-orduko jardunaldiak izan ziren, eta UCOn ikasleentzat konfigurazio askeko kreditu bat balio zuten.

[www.veterinariossinfronteras.org/events/2009/10/28/01](http://www.veterinariossinfronteras.org/events/2009/10/28/01)

- “Las mujeres como garantes de la soberanía alimentaria” (“Emakumeak elikadura-burujabetzaren bermatzaile gisa”) proiektua.

Sodepaz GGKEak aurrera eraman zuen San Sebastián de los Reyesen (Madril), 2009an.

Proiektuak bi jarduera osagarri zeuzkan: 20 orduko lantegi bat, toki erakundeetako kideentzat, zabalkunde-eragiletzat joka daitezzen; eta argazki-paper plastifikatuzko 12 panelez osaturiko erakusketa bat, emakumeek Hegoaldeko herrialdeetan elikadura-burujabetzari eusteko betetzen duten rola ezagutarazteko.

[www.sodepaz.org/sodepaz.html?start=30](http://www.sodepaz.org/sodepaz.html?start=30)

- **Ikerketa**

- *Pan y Rosas* argitalpena.

Entrepueblos GGKEak egina.

Elikadura-burujabetzari eta genero-erlazioei buruzko berariazko azterlana, Hegoaldeko eta Iparraldeko herrialdeen ikuspegitik, elikadura-burujabetza sakonago ikertzearen genero-ikuspegitik. Generoan eta garapenean adituak diren unibertsitate arloko eta GGKE-etako hainbat pertsonaren iturri bibliografikoekin eta dokumentuekin osatu da.

[www.pangea.org/epueblos/salimentaria/pairoses/castella.htm](http://www.pangea.org/epueblos/salimentaria/pairoses/castella.htm)

- **Gizarte-mobilizazioa / eragin politikoa**

- La Garbancita Ecológica. Las Garbancitas kolektibo feminista.

Kontsumo arduratsu, autogestionatu eta herrikoiko sozietate kooperatiboa da, eta 2007an sortu zen Grupos Autogestionados de Consumo de Madrid (GAK) direlako taldeen barruan.

Kolektiboak Garapenerako Hezkuntzako esparru guztietan esku hartzen du, eta hemen nabarmentzen dugu haren mobilizazioengatik eta transgenikoen inguruko luzamenduak aldezteagatik, bai eta transgenikoen kutsaduraren aurka borrokatzen diren estatuko eta nazioarteko beste kolektibo batzuen alde egiteagatik ere.

[www.nodo50.org/lagarbancitaecologica/garbancita/](http://www.nodo50.org/lagarbancitaecologica/garbancita/)

- “No te comas el mundo” (“Ez ezazu jan mundua”) kanpainia.

Entrepueblos, Observatori del Deute en la Globalització, Xarxa de Consum Solidari eta Veterinarios sin Fronteras erakundeek sortua.

Gizarte-sare eta -mugimenduei zerbitzua emateko tresna bat da, eta haren eginkizunen artean dago elikadura-burujabetza, kanpo-zorra eta genero-ikuspegia bateratzen dituzten hainbat gairi buruzko materialak sistematizatu eta zabaltzea.

[www.notecomaselmundo.org](http://www.notecomaselmundo.org)

#### 4. Ondorioak

Gizarte gehienak gaur egun eredu neoliberalen eta sistema patriarkalean bizi dira, eta haiek generoen arteko desberdintasun-egoerak sortu dituzte eta sortzen ari dira oraindik esparru indibidual eta kolektibo gehien-gehienetan.

Oinarri hori kontuan hartuta, ikusiko dugu nekazaritza-sisteman genero-desberdintasunak badaudela, eta badirautea. Errealitate horri erantzuteko elikadura-burujabetzaren terminoa sortu zen, eta haren definizio eta oinarrietan berdintasunezko genero-erlazioak sustatzen duen eredu bat aldeztu da.

Hala ere, herriek beren janari-produktuen kontsumoaz, produkzioaz eta banaketaz erabakitzeko askatasuna izan dezaten eta, horrekin batera, berdintasunezko eran erabaki ahal izan dezaten ezin burutuzko balentria izaten da ia, halako eskubideen aurka eta alde mugitzen diren korrontekak direla medio.

Dauden eredu-erakunde alternatiboak diren beste eredu iraunkor batzuk zabaldu eta babes-ten jardutea funtsezko eragin-eremua da Garapenerako Hezkuntzan. Garapenerako Hezkuntzaren jardueraren (sentiberatzea; hezkuntza / prestakuntza; ikerketa; eta gizarte-mobilizazioa) bitartez, oso gai zehatzak jorra ditzakegu, hala nola osasuna, ura eta haziak, azken horiek funtsezko oinarriak izanik elikadura-burujabetzaren eta generoaren artean dagoen lotura ulertzeko.

Kapitulu hau osatzeko egin den bilaketaren ondorioz, indargune jakin batzuk aurkitu ditugu Garapenerako Hezkuntzan ikuspegi feminista batetik jarduteko. Sexu-eskubideak eta ugaltze-eskubideak babestea, gizarte-arloko salaketa, ingurumena eta emakumeen eskubideak errespetatzen dituzten tokiko tradizioak sustatzea, zaintza-lanari balioa berriz ematea, eta emakumeak banaka zein taldeka boteretzea Garapenerako Hezkuntzan landuz gero, emaitza kontzientzia kolektiboa zabaltzea izan daiteke, parte hartzeko eta gizartea eraldatzeko jarduna.

Hala ere, bizia iraunarazten duten balioetan oinarritzen diren gizarte-aldaketak erdieste-ko, mekanismo komunitarioak abiarazten hasi behar da tokian tokiko ingurunean, eta, horretarako, sarean lan egitea tresna bikaina da, haren bidez saihesteko.

## 5. Baliabide-Gida

### Ingurumen eta generoari buruzko berariazko materialak

Carson, Rachel (1962). *La Primavera Silenciosa*.

Shiva, Vandana (1995). *Abrazar la Vida. Mujer, ecología y desarrollo*. Horas y Horas arg.

Abella, I., Román, P., Ferri, J., Menéndez-Morán, S., Priego, K., Fernández, MV., Carballo, M., Santos, I, Gómez B. eta IPADE fundazioko lan-taldea (2008). *Pobreza, mujeres y medio ambiente*. IPADE fundazioa.

### Elikadura-burujabetza eta generoari buruzko berariazko materialak

*Emakumeen adierazpena elikadura-burujabetzaren alde*. Elikadura-burujabetzaren alde-ko Nyéléniko Mundu Foroa. 2007ko otsaila. Selingué, Mali.

Ikusteko: [www.nyeleni.org](http://www.nyeleni.org)

*Landa-eremuko emakumeen elikadura-burujabetzari buruzko manifestua*. CLOC – *Vía Campesina de América Latina y el Caribe*. 2008ko abuztuaren 8a eta 9a, Rosario, Argentina.

*Ikusteko:* [www.ecoportal.com.ar/Contenido/Contenidos/Eco-Noticias/Mujeres\\_del\\_Campo\\_en\\_Lucha\\_por\\_la\\_Soberania\\_Alimentaria](http://www.ecoportal.com.ar/Contenido/Contenidos/Eco-Noticias/Mujeres_del_Campo_en_Lucha_por_la_Soberania_Alimentaria)

Vía Campesinako Emakumeen Mundu Biltzarraren akta-agiria, Santiago Compostelakoa, Espainia, 2006. *Ikusteko:* [http://epueblos.pangea.org/salimentaria/pairoses/documents/congreso\\_mundial\\_mulleres.pdf](http://epueblos.pangea.org/salimentaria/pairoses/documents/congreso_mundial_mulleres.pdf)

Fernández Duch, Fernando (koord.) (2007). *Soberanía alimentaria: objetivo político de la cooperación al desarrollo en zonas rurales. (Estrategias de género para la soberanía alimentaria kapitulu)*, Mugarik Gabek idatzia (253.-320. or.). Icaria Editorial-ACSUR-Las Segovias.

## **Materiales específicos de Soberanía Alimentaria y Género**

*Declaración de las Mujeres por la Soberanía Alimentaria. Foro Mundial por la Soberanía Alimentaria* Nyéléni. Febrero 2007. Selingué, Mali. Disponible en: [www.nyeleni.org](http://www.nyeleni.org)

*Manifiesto Mujeres del campo en lucha por la soberanía alimentaria. CLOC – Vía Campesina de América Latina y el Caribe. 8 y 9 de Agosto de 2008, Ciudad de Rosario, Argentina.* Disponible en: [www.ecoportal.com.ar/Contenido/Contenidos/Eco-Noticias/Mujeres\\_del\\_Campo\\_en\\_Lucha\\_por\\_la\\_Soberania\\_Alimentaria](http://www.ecoportal.com.ar/Contenido/Contenidos/Eco-Noticias/Mujeres_del_Campo_en_Lucha_por_la_Soberania_Alimentaria)

Documento de actas del Congreso Mundial de las Mujeres de la Vía Campesina, en Santiago de Compostela, España. 2006. Disponible en: [http://epueblos.pangea.org/salimentaria/pairoses/documents/congreso\\_mundial\\_mulleres.pdf](http://epueblos.pangea.org/salimentaria/pairoses/documents/congreso_mundial_mulleres.pdf)

Fernández Duch, Fernando (coord.) (2007). *Soberanía alimentaria: objetivo político de la cooperación al desarrollo en zonas rurales.* (Capítulo Estrategias de género para la soberanía alimentaria), escrito por Mugarik Gabe (págs. 253-320). Icaria Editorial-ACSUR-Las Segovias.

## **Sareko baliabideak**

Agencia Latinoamericana de Informacion. <http://alainet.org/>

BAH (Bajo el Asfalto está la huerta). Madrilgo kooperatiba agroekologikoa.  
<http://bah.ourproject.org/>

Soberanía Alimentaria y Género taldea (Sevilla).  
<http://soberaniaalimentariaygenero.blogspot.com/>

HEGOA (2000). Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo.  
<http://dicc.hegoa.efaber.net/>

FAO (Food and Agriculture Organization). [www.fao.org/index\\_es.htm](http://www.fao.org/index_es.htm)

FAO Focus. [www.fao.org/focus/s/women/tenure-s.htm](http://www.fao.org/focus/s/women/tenure-s.htm)

La garbancita ecológica (Kontsumo arduratsu, autogestionatu eta herrikoiko sozietate kooperatiboa). [www.nodo50.org/lagarbancitaecologica/garbancita/](http://www.nodo50.org/lagarbancitaecologica/garbancita/)

Minga Informativa de Movimientos Sociales (Latinoamerikako eta Karibeko hainbat kolektibok koordinatua). [www.movimientos.org](http://www.movimientos.org)

Pan y Rosas. Elikadura-burujabetzari eta genero-erlazioei buruzko argitalpena. [www.pangea.org/epueblos/salimentaria/pairoses/castella.htm](http://www.pangea.org/epueblos/salimentaria/pairoses/castella.htm)

Soberanía Alimentaria Latinoamerica. [www.soberanialimentaria.com](http://www.soberanialimentaria.com)

UNFPA (United Nations Population Fund). [www.unfpa.org./public/](http://www.unfpa.org./public/)

UNESCO. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza. [www.unesco.org/es/esd](http://www.unesco.org/es/esd)

Vía Campesina. elikadura-burujabetzaren aldeko nazioarteko mugimendua. [www.viacampesina.org](http://www.viacampesina.org)

## 6. Bibliografia

Arellano Cruz, M. (1998). *Educación Ambiental y el cambio de actitud en la población ante la conservación del medio ambiente*.

López García, D. eta Badal Pijuan, M. (koordinatzaileak) (2006). *Los pies en la Tierra. Reflexiones y experiencias hacia un movimiento agroecológico. (La apasionante relación entre mujeres y hombres en nuestros proyectos: por una militancia mixta kapitulu)*. Virus arg.

Bosch, A., Carrasco, C. eta Grau, E. (2003). *Verde que te quiero violeta. Encuentros y desencuentros entre feminismo y ecologismo*. Ikusteko: [www.ecologistasalcalah.org/docs/ecofo2.pdf](http://www.ecologistasalcalah.org/docs/ecofo2.pdf)

Del Río, S., Pérez Orozco, A. eta Junco, C. (2006). Libre pensamiento aldizkaria. *Hacia un Derecho Universal de Ciudadanía (Sí, de Ciudadanía)*, in Libre Pensamiento aldizkaria, 51. zk., 44.-49. or.

Del Río, A. eta Lleó R. (koordinatzaileak) (2009). Género en la Educación para el Desarrollo. Estrategias políticas y metodológicas. ACSUR-Las Segovias eta HEGOA.

León, I. eta Lidia Senra, L.: Aproximación a las situaciones de las campesinas y sus propuestas para conseguir la igualdad de derechos entre mujeres y hombres en el marco de la lucha por la Soberanía Alimentaria. Ikusteko: [www.pangea.org/epueblos/salimentaria/pairoses/documents/marco\\_teorico\\_cast.pdf](http://www.pangea.org/epueblos/salimentaria/pairoses/documents/marco_teorico_cast.pdf)

López García, D. eta López López, J. Á. (2003). *Con la comida no se juega. Alternativas autogestionarias a la globalización capitalista desde la agroecología y el consumo*. Traficantes de sueños arg.

Mies, M. (1988). *Women: The Last Colony*.

Lanaren Nazioarteko Erakundea (1996). *Los asalariados agrícolas: condiciones de empleo y de trabajo*. Lanaren Nazioarteko Bulegoa, Jarduera Sektorialeterako Programa. TMAWW.

Parada, S. (2004). *Enfoque de Género en la Biotecnología para gestores de políticas*. Ikusteko: [www.fodepal.es/Bibvirtual/genero/pdf/bio.pdf](http://www.fodepal.es/Bibvirtual/genero/pdf/bio.pdf)

- Pérez Orozco, Amaia (2004) *¿Hacia una Economía Feminista de la sospecha?* in *Otras Palabras* aldizkaria, 13.-14. zk. Ikusteko: [www.ciudaddemujeres.com/articulos/IMG/pdf/PerezAmaia1.pdf](http://www.ciudaddemujeres.com/articulos/IMG/pdf/PerezAmaia1.pdf)
- Pérez Orozco, A. (2007). *Cadenas Globales de Cuidados. Documento de Trabajo*. INSTRAW UN. Ikusteko: [www.un-instraw.org/es/md/global-care-chains/latin-american-women-in-the-global-care-chains.html](http://www.un-instraw.org/es/md/global-care-chains/latin-american-women-in-the-global-care-chains.html)
- UNDP (1994). *Algunas preguntas y respuestas sobre el desarrollo humano sostenible*. Washington, 1994ko urtarrilaren 17a, 7. or.
- REDES-AT, GRAIN, Haziaren Mundu Kanpaina, Vía Campesina, Acción Ecológica, Red de Coordinación en Biodiversidad, Acción por la Biodiversidad, Grupo Semillas, eta Grupo ETC erakundeek sustatua, (2003 eta 2006): *Biodiversidad. Sustento y culturas* aldizkaria, 38. eta 47. zk. Ikusteko: [www.biodiversidadla.org/content/view/full/3092/\(offset\)/15](http://www.biodiversidadla.org/content/view/full/3092/(offset)/15)
- Sen, A (2005). *Teorías del desarrollo a principios del siglo XXI*. Ikusteko: [www.sustainablesystemsinternational.org/dissertation.aspx](http://www.sustainablesystemsinternational.org/dissertation.aspx)
- Shiva, V. (2003). *Cosecha Robada: El secuestro Mundial de Alimentos*. Paidós arg.
- Sutcliffe, B. (1995). *Desarrollo frente a ecología* in *Ecología Política* aldizkaria, 9. zk., 27.-49. or.
- Weizsäcker, E. U. von, A. B. Lovins eta L. H. Lovins (1997). *Factor 4. Duplicar el bienestar con la mitad de recursos naturales. Informe al Club de Roma*, Galaxia Gutenberg / Círculo de Lectores, Bartzelona.



# Beti oldarkor! Bakean hezi feminismotik

---

*Dominique Saillard*

## 1. Sarrera

Gaur egun, garapen lankidetzako egitasmo gehienak gatazka armatuak jasaten dituzten lurraldeetarako pentsatuak dira: lurralde horietako batzuk gatazka irekiko egoeran daude oraindik; beste batzuk, aldiz, gatazka egoera horietatik irteten, maiz bake negoziazio prozesu amaitezinetan murgildurik. Gainerako lurraldeak zalantza betetik ekiten ari zaizkie gatazka osteko birgaikuntza eta eraberritze lanei, jakitun elkar ulertzeko oinarriak ez direla nahi bezain sendoak, gerraren interesak oso zabalak direla, eta edozein unetan eman daitezkeela berriro ere baldintza egokiak gatazka zuzeneko aro berri bat hasteko.

Noski, egoera horietan, indarkeriaren eragina ikaragarria da, eta horrek bere ondorioak ditu tokiko erakundeen eta beste herrialdeetako erakundeen artean harremanak eta lankidetzako egitasmoak ezartzerakoan, bai Hegoaldekoen artean bai Iparraldekoen artean. Nolabaiteko egoera soziopolitiko lasaiaz gozaten duten herrialdeak ere ez dira libratzen gure gizarteek egun bizi duten indarkeria kulturaren zergatiak eta ondorioak aztertzeaz.

Beraz, bereziki erakargarria ez den errealitate orokor horretan, azpimarratu beharreko aurreneko gauzetako bat da indarkeria modu ezberdinetan ager daitekeela, eta indarkeria mota ezberdin horiek modu ezberdinean eragiten dietela emakumeei nahiz gizonei. Baieztapen horretatik abiatuta, bada, minari aurre egingo dion Bake hezkuntza baten oinarriak ezartzen joan gaitezke, etorkizuna iraganari bizkarra eman barik eraikiko duena, indarkeriaren aroa apurtuz joango dena, alegia. Bestalde, bakea justizia egiteko kontzeptzio positibo legez ulertzeak, berarekin ekarriko du bakea garapenaren kontzeptu zabalarekin elkarrekin jarri ahal izatea, izan ere, bake hezkuntzaren eta garapen lankidetzaren hainbat eduki bat datoz.

Gure esperientziari eta militantziari gagozkiola, batez ere mugimendu bakezalearen ikuspegitik aztertzen badugu, Garapenerako Hezkuntza Bake hezkuntzaren oinarriko ardatzetako bat bezala ulertuko dugu, bake hezkuntza egitura bereizketaren aurkako borroka prozesu moduan ulertuta. Lankidetzaren esparrutik begiratzen badiogu, ordea, Bake hezkuntza Garapenerako Hezkuntzaren edukien atal bat moduan ikusiko dugu, eta gure

begirada batez ere gatazken tratamenduan jarriko dugu, bai makro mailan bai mikro mailan. Jares egilearen iritziz, lokailurik garrantzitsuena beharbada elkartasunean oinarritutako hezkuntza izan daiteke, bai gosetearen geografian eragiten duten interesen gogoe-tari eta azterketari dagokionez bai elkartasun jardueren sustapenari dagokionez.

Tira, abiaburua bata zein bestea izan, artikulua honek aldarrikatzen duena da bake hezkuntzaren edozein tratamenduk mugimendu feministaren ekarpenak hartu behar dituela kontuan, nola Iparraldekoenak hala Hegoaldekoenak. Niretzat, feministatzat aldarrikatzen den Bake hezkuntza baten edukiek zein metodologiek ezin dituzte alde batera utzi emakumeek bultzaturiko eztabaidak eta ekintza bakezaleak. Nire ustez, kontua ez datza hainbeste genero ikuspegia Bake hezkuntzan integratzean, baizik eta argi uztean genero ikuspegiaren teoriak eta praktikak zuzenean zor zaizkiola feminismoari (nahiz eta beti ez den berariaz adierazten), eta horregatik, ezin dugula Bake hezkuntzaz hitz egin kontuan izan gabe bakearen eraikuntzari buruz feministek eginiko oinarritzko gogoetak.

Horrenbestez, hona dakartzadan planteamenduak nire esperientzia profesionaletik eta mugimendu bakezalearen baitan feminismoan (mendebaldekoa) izandako militantziatik atera ditut, horrek dituen abantailekin eta mugekin. Batez ere, garapen lankidetzan lan egiten duen irakurleari zuzentzen natzaiola uste dut, alegia, honezkero genero ikuspegia garapen lankidetzan integratzea zer suposatzen duen jakin dakiten irakurleei. Zentzu horretan, hortxe dago HEGOAK, ACSUR-Las Segovias eta GGKEtako koordinadoretako genero ikuspegiko taldeek Estatu espainiarrean egindako lana. Oinarri horiek abiaburu hartuta, bada, espero dut esperientzia feministaren eta bakezalearen arteko elkartrukeak lan ildo baliagarriak eskainiko dizkizuela heziketa formaleko nahiz heziketa ez formaleko esparruetan bake hezkuntzako eta Garapenerako Hezkuntzako programak gara ditzazuen.

### 1.1. Bake hezkuntzaren aurrekariak eta lege garapena

Bake hezkuntzari buruzko Europako testu nagusietan, bake hezkuntzaren jatorria lau ekarpen hauen inguruan kokatu ohi da: Eskola Berriaren mugimendua, XX. mendearen hasierakoa; nazioarteko erakundeek egindako lana, batik bat UNESCOk egindakoa; bake ikerketaren sorrera; eta, azkenik, indarkeriarik ezaren legatua<sup>1</sup>. Gure ustez, ordea, zerrenda horretan mugimendu feministek emakumeen boto eskubidearen alde eginiko ekarpena falta da, baita Lehen eta Bigarren Mundu Gerraren aurkako protestak ere. Dena dela, horiei buruz hurrengo atalean arituko naiz. Orain, Bake hezkuntzaren lau lerro nagusiak aztertzeari ekingo diot.

Eraberritze pedagogikoaren mugimendu nagusiak I. Mundu Gerraren ostean sortu ziren, eta horien artean bereziki garrantzitsua izan zen Eskola Berriarena. Betiko jardura pedagogiko agintekoien aurkako erantzun legez jaio zen, neska mutilen beharrianak eta gaitasunak aintzat hartuko zituen berrikuspen metodologiko bat proposatzeko. Hezkuntzaren paper eraldatzailean sinesten zuen baikortasun giro batean garatu zen, itxaropenez beterikoa. Ildo horretatik, María Montessoriren *“Paz y Educación”* liburuak,

<sup>1</sup> Bake hezkuntzaren jatorriari buruz ikus Xesus Jares (1996 eta 2004); José Tuvilla Rayo (1990); Bake Hezkuntzarako Mintegia (1990) eta Ian Harris, (2002).

1934an argitaratutakoak, bake hezkuntzaren kontzepzio positiboaren alde egiten du, baina ez gerraren eragindako samina salatzen den kontzepzio positibo huts legez, baizik eta ikasleengan lankidetzeta eta ulermen espiritua sustatzen dituen kontzepzio positibo legez. Nagusiki psikologizista den ikuspegi horrek itsu-itsuan sinesten du gizakiaren eraldatze gaitasunean.

Iradokitako proposamen metodologiko eta jarduera horien artean, askok ez dute egunerokotasunik galdu; hala nola, testuliburu azterketa sakona egitea ikuspegi militaristak salatze-ko, nazioarteko elkartrukeak sustatzea (eskola arteko gutun trukaketa, auzolandegiak eta herrialde ezberdinen arteko eskola trukeak, metodologia trukaketa), zibilizazio ezberdinen arteko ikerketa alderatua, hizkuntza unibertsala asmatzea (esperantoa) hizkuntza hesiak gainditzeko eta beste herriekiko harreman zuzena errazteko (gaur egun, onerako zein txar-erako, ingelese da nazioartean komunikazio tresna nagusi), eta beste asko.

Bake hezkuntzaren bigarren iturria II. Mundu Gerraren ostean sorturiko Nazio Batuen Erakundea izan zen, eta batez ere horren babespean UNESCO erakunde espezializatuak buruturiko lana. Hasiera batean, erakunde horrek proposatzen zuen bake hezkuntzarako ereduak nazioarteko elkar ulertzearen helburu berberak bilatzen zituen, arreta berezia jarritz nazio bakoitzak gizateriaren ondare erkideari egindako ekarpenean. Apurka-apurka, ordea, beste osagai batzuk erantsi zitzaizkion. Alde batetik, Giza Eskubideen irakaskuntza ezarri zen. Nazio Batuen Gutuna argitaratu zen, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, eta ondorengo itun edo protokoloak. Bestetik, 1970eko hamarkadaren amaieran, desarmearen aldeko heziketa, izen bereko Hamarkadan garatutakoa. Lan tresna aipagarrien artean 1974an onetsitako hau dago: *Iradokizuna, Nazioarteko Elkar Ulertze, Lankidetzeta eta Bakeari buruzkoa eta Giza Eskubideen eta Oinarritzko Askatasunei buruzkoa*. Printzipio horiek hainbat programaren bidez jarri ziren praktikan, horien artean UNESCOra atxikitako Eskola Sare Elkartea, 1953az geroztik funtzionatzen duena<sup>2</sup>.

Bake hezkuntza sustatzeko hirugarren iturria, aldiz, diziplina berri batetik jaio zen, alegia, bakerako ikerketatik. Bakerako ikerketa arma nuklearrek nazioarteko politikan izan zezaketen eraginaz kezkatutik jaio zen. Diziplina hori 1950eko eta 1960ko hamarkadetan finkatuz joan zen, garai hartakoak direlarik bakearen, gatazkaren eta indarkeriaren ideiei buruzko kontzeptu berrikuspen nagusiak. Gaur egun ere, ideia horietan oinarritzen dira hezkuntza bakezalearen teoria eta praktika. Gerorako arituko gara horiei buruz. Diziplina hori, bestelako gizarte zientziak ez bezala, ez da tematzen objektibotasunaren, neutraltasunaren eta enpirismoaren ideiekin. Bere asmoa da “kontzientzia zientzian integratzea, gerraren eta indarkeriaren zergatiak zeintzuk diren jakitea lanabes politiko legez zilegitasuna kentzeko, eta, horrela, bake baldintzak bultzatzeko”<sup>3</sup>.

Laugarren erroa indarkeriarik ezarena da. XX. mendean egin du bere ibilbidea, formulazio ezberdinekin, baina ardatz nagusia Gandhiren heziketa printzipioek eratzen dute. Honela laburbiltzen ditu Jaresek<sup>4</sup>:

<sup>2</sup> Xesus Jares (1996), 250. or.

<sup>3</sup> Bake hezkuntzari buruzko Mintegia (1990), 26. or.

<sup>4</sup> Xesus Jares (1996), 250-251. or.

1. Filosofia eta norberaren jokabideak funtsezko bi printzipiok baldintzaten dituzte; *satyagraha* (irrotasuna eta egia) eta *ahimsa* (indarkeriarik gabeko ekintza). Gandhiren esanetan, txanpon beraren bi aurpegiak dira.
2. Autonomia pertsonalaren eta baieztapen gaitasunaren azpimarra, askatasuna lortzeko aurreneko urratsa.
3. Buruaskitasunaren bilaketa, dela materiala dela mentala (lan egiteko heziketaren ideia).
4. Gatazkaren teoriaren garrantzia eta indarkeriarik gabeko estrategien teoriaren garrantzia. Zilegi da agindu bidegabeen edo egoera bidegabeen aurrean oldartzea.
5. Ama hizkuntzarekiko eta kulturarekiko atxikimendua.
6. Helburu eta bitartekoen arteko erabateko bateragarritasuna.
7. Hezkuntza prozesua gizartean integratzea. Gandhirentzat, kontua ez datza hainbeste eskola irekia izatean eta bere inguruan integratua egotean, baizik eta hezkuntza prozesuan gizarte osoak parte hartzean, alegia, erantzukizun hori ezin dela modu eksklusiboan eskolaren gain soilik utzi.

Lau jatorri horiek elkarrekin konbinatzen dira Europako hezkuntza sisteman Bake hezkuntzari leku bat egiteko. Espainiar Estatuari dagokionez, Bake hezkuntzarekiko interesa zertxobait berandu piztu zen, hain zuzen ere, 1970eko hamarkadako amaiera aldera. Indarkeriarik ezaren aldeko taldeek eginiko presioaz gain, badira beste talde batzuk ere beren aletxoak jarri zutenak presio egiteko zeregin horretan, besteak beste, mugimendu bakezaleak eta bake ikerketako taldeak. Aipamen berezia merezi du eraberritze pedagogikoaren aldeko mugimenduen lanak lorturiko oihartzunak. Mugimendu horrek proposatzen duenez, epe luzera lortu behar da hezkuntzaren bidez gizartean eragitea, bai kontzientzia global berri bat lortzeko bai ekintzarako konpromiso berri bat lortzeko<sup>5</sup>. Horrelaxe joan da finkatzen itxurak edukiak bezainbesteko garrantzia dueneko ideia, metodoak edukiak bezain garrantzitsuak direneko ideia. Ideia horrek modu naturalean integratzen ditu indarkeriarik ezaren tradizioa eta 1970. urteaz geroztik Latinamerikan garatzen den hezkuntza herrikoia irakaskuntzak.

1990eko hamarkadan, aipatutako tradizioez gain, bi ñabardura esanguratsu gehitzen zaizkio. Alde batetik, Garapenerako Hezkuntzaren eragin eremua zabaltzen doa GKEen jarduera esparruak handitu ahala, eta horrekin batera, kulturen arteko Hezkuntza bat garatzen hasten da gizarteak etorkinen aurrean adierazitako tentsioei nolabaiteko erantzuna eman nahian.

Bestetik, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak (LOGSE), 1990ean onetsitakoak, hezkuntzaren oinarritzko xede eta printzipioen artean kokatzen du balo-

---

<sup>5</sup> Indarkeriaezako ekintzaren eta eraberritze pedagogikoaren filosofiaren arteko loturaren adibide bat MOC mugimendua-ren hasierako argitalpen honetan ikus daiteke: *Los Objetores: Historia de una Acción*, haurrekin egin ziren Bake hezkuntzako lehenengo egitasmo pedagogikoen nondik norakoak kontatzen dituena.

reetan heztea. Legeak “bake prestakuntza, eta herrien arteko lankidetzeta eta elkartasuna” aldarrikatzen ditu zeharkako gai bezala (1. artikulua). Horiekin batera, beste hauek ere aldarrikatzen ditu: hezkuntza morala eta hiritartasunari buruzko hezkuntza, aukera berdintasuneko hezkuntza, eta sexu heziketa.

1007/1991 Errege Dekretuak, alegia, DBHn ikasi beharreko gutxieneko ikasgaiak ezartzen dituenak, berretsi egiten du baloreetan heztearen printzipioa, eta goraiatu egiten du horren zeharlerroko izaera eta hezkuntza esparru osoan jorratua izatearen garrantzia, ez soilik curriculum ofizialean<sup>6</sup>. Beste dokumentu batzuk geroxeagokoak dira. Hala, 2005ean, *Hezkuntzaren eta Bake Kulturaren Sustapenaren Legea* onetsi zen. Bestalde, Nazio Batuek “*Munduko haurrentzat indarkeriarik gabeko eta bakearen aldeko kultura bat sustatzeko Nazioarteko Hamarkada*” izenez bataiatu dute 2001-2010 hamarkada. Onartu egiten dute “gizarte bat ebaluatzerakoan hezkuntzaren paper erabakigarria” eta, bide batez, bilatzen dute “XX. mendean ezaugarri nagusi izan den indarkeria kultura mende berrian nagusi izan behar duen bake kultura batez ordezkatzeta”. Zioen adierazpenean bake kultura ezartzeko helburu laudagarriarekin jarraitzen dute, hain zuzen ere, “Bake hezkuntza, indarkeria eza eta giza eskubideak bultzatzen bakerako ikerketak sustatuz, tolerantziarik eza ezabatuz, eta elkarrizketaren eta indarkeria ezaren ideia hedatuz gatazkak kudeatzerakoan eta eraldatzerakoan”<sup>7</sup>.

Hiritartasunaren aldeko Hezkuntza bultzatzeko nazioartean adostutako konpromisoerantzunez, Espainiako Gobernuak Hezkuntzaren Lege Organikoa (LOE) onetsi zuen 2006an. Ikasgai horrek sorrarazi duen liskar politikoak ez dizkigu utzi ikusten hiritartasun globala bultzatzeari dagokionez ikasgai horrek izan zitzakeen potentzialitateak. Hiritartasun globalaren ideia zeharlerroko izaera duen Garapenerako Hezkuntzari zor zaio, eta beharbada, modu zeharkakoago batean oraindik, Bake hezkuntzari<sup>8</sup>.

Badira autonomia erkidegoek sustaturiko beste lege edo plan batzuk. Horixe da, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua. Aurreko Gobernuak Bake Hezkuntzarako Lehen Plana (2008-2011) jarri zuen martxan, baina sartu berri den Gobernuak, biktimek Bake hezkuntzako egitasmoetan eta gatazketan aldarrikatzen duten paperaren inguruan sorturiko liskarren gatibu, plan hori bertan behera uztea erabaki du.

## 1.2. Kate maila galdua: Bake hezkuntzaren eta bake-ekintzen erro feministak

Bake hezkuntzaren jatorriei buruzko birpasu hau egin eta gero, bai European bai Espainian, egin dezagun orain geldialdi bat gure ibilbidean bidean norbait utzi ote dugun ikusteko. Maiz gertatu ohi den moduan, berehala konturatuko gara aipatu gabe utzi ditugula emakume aitzindari batzuk. Emakume horien ekarpen militante eta teorikoek ere zer esana izan dute Bake hezkuntzaren hastapenetan, nahiz eta beren izenak ez duten bere

<sup>6</sup> Teresa Domínguez (1996), 10-12. or.

<sup>7</sup> Bide batez, esan dezagun elkarrizketa ez dela gehiegi bultzatzen EAeko gatazkan, izan ere ez zaio ezta “gatazka” politikoaren eta sozialaren izaera ere aintzatesten, ezinbesteko baldintza dena egoera gainditzeko edozein saiakeratarako.

<sup>8</sup> Argibide gehiago nahi izanez gero, ikus HEGOAK berriki argitaratu duen azterlana: Hiritartasunari buruzko Hezkuntza Garapen Hezkuntzaren ikuspegitik (Argibay et al, 2009).

txokoa egin gure memoria historikoan. Hala ere, bakea izan da XX. mendean emakumeak gehien mugiarazi dituen eskurakizunetako bat, eta horregatik ez dira falta emakumezkoek gidaturiko ekimenen adibideak. Komeni da horietako zenbaitzu hona ekartzea, sikiera baten batek horien historiak ezagutzera emateko interesik balu, hala egin dezan.

1980ko hamarkadaren hasieran, Birgit Brock-Utne ikerlari feministak adierazten zuen aukera zuen bakoitzean bere entzuleei galdetzen ziela Bertha von Suttner<sup>9</sup> ezagutzen ote zuten. Entzuleek beti ezetz erantzuten zioten, eta 30 urte geroago galdera bera egiten duenean erantzuna ere bera da: ez dutela ezagutzen. Bada, emakume hori izan zen Alfred Nobel (dinamitaren asmatzailea) konbentzitu zuena bere dirutzaren zati bat nazioarteko bake sari bat eratzeko erabil zezan. 1905ean Berthak berak jaso zuen saria. Garai hobeak ezagututako tradizio militarreko familia aristokrata batean jaioa, Bertha etxe irakasle moduan aritu zen austriar familia aberats batean, eta bertan ezagutu zuen bere bikotekidea izango zena eta aldi berean bakearen aldeko borrokan bakezalekide izango zuena. Bere senarrari jarraiki, gerraren aurka idazteari ekin zion, bai militante bakezale moduan bai gainerakoei emakume batek bere buruari proposatzen zion guztia egin zezakeela erakusteko. Hala ere, gizonezkoen goitzenak erabili behar izan zituen bere lana argitaratua izan zedin. Bere eleberrien artean, arrakasta gehien izan zituztenak *La edad de las máquinas* eta *iAbajo las armas!* izenburukoak izan ziren, 1887an eta 1889an argitaratutakoak. Garaiko literatur kritikoen laudorioak jaso zituzten biek. Gerora Von Suttnerrek bere memorietan gogoraraziko zuenez, orduan esan zen eleberria “gizon bikain batek idatzia behar zuela, ezagupen eta gaitasun handikoa”. Jatetxe batean, gizon batzuk gomendatu zioten ez zezala irakurri eleberri horietako bat, “ez baitzen egokia andereñoentzat<sup>10</sup>”. *iAbajo las armas!* izenburuko liburua, berriz, gerraren eta gerraren zergatien aurkako aldarri ozena izan zen, eta eragin sakona izan zuen, besteak beste, Alfred Nobel eta Leon Tolstoi garaiko pertsonaje ospetsuengan. Tolstoi berak *Osaba Tomen etxola* eleberriaren pare -Amerikako Estatu Batuetan esklabutza deusezteko gorazarrea, beste emakume batek idatzia, Harriet Beecher Storek- jarri zuen eleberriak mugimendu bakezaleari egingdako ekarpena. Von Suttnerrek asko idatzi zuen eta hil arte jarrera militantea izan zuen. I. Mundu Gerra hasi baino aurrerik bat lehenago hil zen.

Beste mugimendu feminista garrantzitsu bat “sufragistena” izan zen, XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera bitartekoa. Garai hartan ohikoa zen pentsatzea, emakumeek, gizonek ez bezala, bakerako doai bereziak zituztela. Eta sufragistek beren kausaren alde baliatu zuten uste hori. Argudiatzen zuten munduko bakea bakarrik lortuko zela emakumeek bozkatzeko eskubidea lortzen zutenean; izan ere, emakumeek ez lukete inoiz gerraren alde bozkatzeko. Jarrera horrek argi eta garbi uzten du mugimendu sufragista gehienaren kezka nagusiak kultura belizista salatzea eta I. Mundu Gerra has zedila ekiditea zirela. Britainia Handian, sufragista moderatuak izan ziren jarrera bakezale koherenteena izan zutenak. Beren ikuspegia ezagutzera emateko, hamaika ekimen eraman zuten aurrera: eskaerak egin zituzten, hitzaldiak eman, manifestazioak antolatu, etab.

<sup>9</sup> Ikus Birgit Brock-Utne, *Educating for peace*, 1985, 37-45. or.; baita Carmen Magallón ere, *Mujeres en pie de paz*, 2006, 178-183. or.

<sup>10</sup> Ursula Jorfald (1962), Bertha von Suttner. Birgit Brock-Utne (1985) aipatutako liburua.

Gerra hasitakoan, ordea, sufragista erradikalenek (“suffragettes” izenez ezagututakoak, Emmeline Pankhurst lider zutela) hasierako jarrera bakezaleak aldatu zituzten beren herrialdea defendatzeko, uste baitzuten gerra ostean emakumeek boto eskubidea lortzeko bide politiko eraginkorrenak abertzaletasunean eta gerran parte hartzea izango zirela. Estrategia politiko horrek indarrean jarraitu zuen ondorengo hamarkadetan beste testuinguru sozio politiko batzuetan, adibidez askapenerako iraultza borroketan Latinamerikan eta beste kontinente batzuetan.

Nolanahi ere, XX. mendearen hasieran antolatutako emakume horietako gehienek bakearen aldeko jarrera izan zuten beti, eta 1915ean, AEBetan, erakunde ezberdinetako 3.000 sufragistek Bakearen aldeko Emakumearen Alderdia sortu zuten. Alderdi horretako buruak, Jane Adamsek, Bakearen Nobel Saria lortu zuen gero. Urte horretan, gainera, Bakearen aldeko Emakumeen Europako I. Biltzarra egin zen Hagan. Ekitaldi sinbolikoa izaki, emakumeek gidaturiko mugimendu bakezale baten oinarriak ezarri zituen. Ekitaldian 150 erakunde ezberdinetako 1.140 ordezkariarik gora hartu zuen parte, 12 herrialdetatik etorriak, horietako batzuk gudan murgildurik; beste batzuk, berriz, neutroak. Oztopo ugari gainditu behar izan zuten bidai baimenak eskuratzeko eta gudan ziren herrialdeak zeharkatzeko. Batzuk ez zuten heltzea lortu. Biltzarra emankorra izan zen, eta 20 ebazpen adostu ziren sei ataletan banaturik. Atal horietako bat “umeen heziketari” buruzkoa zen<sup>11</sup>.

1919an, Nazioarteko II. Biltzarra egin zen Zurichen. Biltzar horretan, sinatu berri zen Versaillesko Bake Ituna salatu zuten. Militante bakezale horien iritziz, sinaturiko ituna laidozgarria zen galtzaileentzat eta horregatik galtzaileei ezarritako blokeoa altxatzea eskatu zuten<sup>12</sup>. Biltzar horretatik sortu zen Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Liga, partehartzaileek estu-estu loturik ikusten zituzten bi mugimendu batu nahi zituen erakundea, mugimendu feminista batetik eta mugimendu bakezalea bestetik. Ligak existitzen jarraitzen du, eta egun sare bakezale zaharrenetakoa da<sup>13</sup>.

Beren proposamenak aztertuta, argi geratzen da “feminismoaz zuten ikuspegiak ez zuela baztertzen emakumeen erabateko partehartzea politikagintzan<sup>14</sup>”. Ez ziren “gizartean integratutako emakumeak manuko atseginak izateko”. Ez zituzten gerraren izugarrikeriak salatzen, gero soldaduen zauriak sendatze hutsarekin konformatzeko. Joe Vellacotek

<sup>11</sup> Ebazpenaren testu osoa Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Ligaren webgunean dago esku-ragarri: [www.wilpf.int.ch/resolutions/1915.html](http://www.wilpf.int.ch/resolutions/1915.html). Irakurtzea gomendatzen dut, aurkeztutako aldarrikapen gehienek indarrean baitiraute. Horietako batzuek Nazioarteko Lobby Feministaren demandak dakarzkigute gogora. Horietako bati esker, 2000. urtean, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 1325 Ebazpena eman zuen, emakumeek bakearen erakuntzan duten paperari buruzkoa. Proposatutako irtenbideek gerraren zergatiak sakonean aztertzeraz garrantzitsuak.

<sup>12</sup> Historiak arrazoia eman zien, Hitlerrek alemaniarren umiliazio sentimendua baliatu baitzuen 1930. hamarkadako hasieran boterera heltzeko. Diktadoreak mendekua hartu nahi zuen, kosta ala kosta, Versaillesko Ituna ezarri zieten herrialdeen gainean, eta horregatik, 1940an, Frantzia inbadituari baldintza gabeko amore ematea sinatuarazi egin zion hogeitahamar urte lehenago Versaillesen erabilitako tren bagoi berean.

<sup>13</sup> Ikus Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Ligaren webgunea: [www.wilpf.int.ch](http://www.wilpf.int.ch); Ehun urtetik gertu dauden beste sare bakezale batzuk honako hauek dira: Bakearen aldeko Nazioarteko Bulegoa [www.ipb.org](http://www.ipb.org); Gerrarekiko Erresistenteen Nazioarteko Erakundea [www.wri-irg.org](http://www.wri-irg.org); eta Berradiskidetzaren aldeko Nazioarteko Mugimendua [www.ifor.org](http://www.ifor.org).

<sup>14</sup> Carmen Magallón (2006), 56. or.

adierazten duenez, “beraientzat gerra eta bakea kezka feministak dira, emakumeen berdintasun rolak, erabatekoak, zer esan nahi duen ulertzearen garapen logikoa<sup>15</sup>”.

Horien atzetik beste emakume batzuk etorri ziren. Horiei jarraitu zieten, eta horietan inspiratu ziren beren azterketak egiteko eta beren ekintzak antolatzeko. Ingalaterran, adibidez, milaka emakume langilek Bakearen aldeko Emakumeen Gurutzada antolatu zuten, gogor lan eginez gudak iraun zuen bitartean. Antolatzaileetako batek, Gwen Colemanek, bere egunerokoan gogoratu zuen “Guda garaian bakearen alde lan egitea ez zela batere erraza izan; boto eskubidearen alde lan egitea baino zailagoa zen, askoz zailagoa... traidoretzat hartzen gintuzten gure herrian...<sup>16</sup>”.

Eta, bestalde, Virginia Woolfen lana dago, atal luze bat mereziko lukeena eta emakumeen eta bakearen arteko harremanari buruzko eztabaida feminista nagusietako batzuk jorrazten dituena. *Tres Guineas* izenburuko bere liburuan, 1938an argitaratutakoan, emakumeek bakea ekiditeko egin zitzaizketen ekarpenei buruz aritzen da. Liburuak gai horretaz idatziz ezan egin zioten eskaera bati erantzuten dio. Hiru ataletan banatzen du bere erantzuna (hortik tres guineas izenburua), eta horietan azterketa feministaren osagai garrantzitsu guztiak biltzen ditu.

Gizonezkotasun hegemonikoaren eta menderatze gogoaren arteko harremana aztertzen du, izan ere, indarkeriaren eta gerren muinean harreman hori ezkuta daiteke; bere iritziz emakume asko gerraren aurka mugiarazten dituzten arrazoi historiko sozialak azaleratzen ditu (batik bat emakumeak botere guneetatik baztertuak izatea); aldarrikatzen du gizonen eta emakumeen arteko rol banaketarekin amaitu dadila; salatu egiten du menderatuak izatea onartzera eramaten dituen sozializazioa; eta, salatu egiten du baita gizonek nola lapurtu dieten emakumeei hezkuntza jasotzeko eskubidea. Hori guztia dela eta, hezkuntza eredu oso bat eskatzen du emakumeentzat, baina gizonezkoentzat inadarrean den hezkuntza eredutik bereizia; izan ere, bere esanetan, gizonezkoen hezkuntza eredu sinboloz, hierarkiaz, eta erritoz beterik dago “elkarlehia, bekaizkeria, nagusitasun nahia, handinahakeria, boterea, besteak gainditzeko sena, oparotasuna... guztiak ere gerrarako joera sustatzen dituzten emozioak”.

Horregatik, berak iradokitzen du beste eskola bat sortzea “non inor ez den beldur izango klarionaz margotutako marra bat zapaltzeaz, non elkarlehia ezerezean geratuko den, bizitza irekia eta erraza izango den, jakintza mota ezberdinak maite dituztenek klasera pozik joango diren eta gizarte maila ezberdinetakoek eroso sentituko diren, non ez den dignatariorik egongo, ez desfilerik ezta sermoirik ere. Giza harremanaren artea erakutsiko duen eskola, eta ez bereizketarena, espezializazioarena, elkarlehiarena, bekaizkeriarena<sup>17</sup>.” Eredu pedagogiko ez agintekoiaren aldeko gorazarre petoa (gogora dezagun María Montessorik “Paz y Educación” idatzi zuela 1934an), benetako Bake hezkuntzaren eta elkar ulermenerako oinarriak finkatzen dituena.

<sup>15</sup> Joe Vellacot (1993), Carmen Magallónen aipatua (2006), 57. or.

<sup>16</sup> Magallónen aipatua (2006), 58-59. or.

<sup>17</sup> Magallón (2006), 214-217. or.; Ximena Bedregal (2006).



Aitzindari horietako ia gehienak, Virginia Woolfen salbuespen esanguratsuekin, ezezagun zaizkio literatura feministan murgildu ez den orori. Horiek ezagutzera ematea, betiko legez, mugimendu feministarekin eta bakezalearekin konprometitutako zenbait ikerlariaren lan eskergari zor diogu.

## 2. Oinarrizko kontzeptuak: Ikerketaren eta Bake hezkuntzaren oinarrizko zenbait kontzepturen berrikusketa feminista

Feminismoak mugimendu bakezalearen teoria eta praktikan duen eraginak ez du etenik XX. mendearen lehen erdian, agi denez. Are gehiago, biderkatu egiten da, edo behintzat, ikusgarriago egiten da geure begietara, feminismoaren bigarren oldea hastearekin batera. 1960ko hamarkadan, Vietnameko gerraren aurkako mobilizazioak hasten dira Amerikako Estatu Batuetan, eta zertxobait geroxeago, European, batez ere 1970. eta 1980ko hamarkadak bitartean, misil nuklearren aurkako protestak hasten dira. Laurogeita hamarreko hamarkada Ruandan burututako genozidioaren lekuko da, baita Afrikako beste gatazka odoltsuen, Balkanetako gerraren, Ertamerikako bake prozesuen eta abarren lekuko ere. Horiek guztiak, emakumeak buru dituzten ekimen bakezaleak antola daitezela ekarri dute, beste emakume askok bakearen aldeko mugimendu mistoan hartzen duten papera ahaztu barik. Ekimen horietako batzuk hartuko ditugu oinarri datozen atletan gure gogoetak egiteko. Horretarako, bake hezkuntzaren oinarrizko zenbait kontzepturen berrikuspenari ekingo diogu feminismoaren ikuspegitik.

### 2.1. Bake negatibotik bake positibora

Has gaitezen, bada, hasieratik: “bakea” hitza. Esanahi ezberdina duen eta izan duen terminoa da, erabilia izan den testuinguru sozialen eta historikoen arabera. Eta baita gaur egun nork erabiltzen duen ere kontuan hartuta.

Ikasleei nahiz pertsona helduei galdetzen zaienean nola definituko luketen “bakea” hitza, erantzunak zentzu negatibokoak izan ohi dira, hau da, gehienbat adierazten dutena da bakea zer EZ den, eta oro har, bakeari gerra kontzeptua kontrajartzen zaio, alegia, gatazka. Laburbilduz, bakearen ohiko kontzeptua edozein motako gatazka armaturik eza bezala aurkezten da. Definizio horri, 1960ko hamarkadan, “bake negatiboa” deitu zion Johan Galtung ikerlariak.

Aldaera hori oso errotuta dago gure kulturari, eta bere jatorriak greziar Eirenean eta Pax Romana delakoan ditu. Kontzeptu horiek lurraldearen defentsan jartzen dute berebiziko arreta, alegia, Estatuaren defentsan, eta hortik dator “vis pacem, para bellum” leloa, alegia, bakea izateko herriak gerrarako gertu egon behar duela. Horixe izan da Gerra Hotzaren doktrina eta armagintza karreraren atzean ezkutatu den logika: disuasioak soilik funtzionatuko du baldin eta “arerioa” konbentzitututa badago berak baino arma gehiago ditudala, berak baino heriotz ahalmen handiagoa dudala. Norbanakoen artean, bake negatiboaren ideia honela defini liteke: pertsonen arteko tentsio edo gatazka eza. Ikuspegi idiliko bezain irreal, bestalde.

Kontzepzio negatibo horri, Galtungek eta beste ikerlari bakezale batzuek “bake positiboren” ideia kontrajarri diote. Horren jatorria zenbait tradizio espiritualetan aurki dezakegu, hala nola Shanti hinduistan, Ahimsa jainistan, bake taoistan, Shalom hebrearrean edo Bake kristauean. Ikuspegi horren arabera, bakearen antitesia ez da gerra, gatazka baizik, bere aldaera guztietan, aurrerago ikusiko dugun bezala. Xesús Jaresek honela definitzen du: “Gatazka baten amaiera puntua baino, bakea gizarte orden berri baten hasiera da, inguru ekologikoki osasuntsu batean justizia soziala, herrien garapen ekitatiboa eta Giza Eskubideen bizipena galdatzen duena, dela Estatu barruan dela Estatuaren artean<sup>18</sup>.” Adam Curle britainiarrek “indarkeria maila urriko eta justizia maila handiko egoeraz<sup>19</sup>” hitz egiten du. John Paul Lederach ikerlari estatu batuar emankorrek, aldiz, iradokitzen du “bakea nahi ez ditugun baldintzak edo inguruabarrak ez ematea (gerrak, bazterkeria, gosea etab.) dela, baina baita nahi ditugun baldintzak eta inguruabarrak ematea. Bake positiboa lankidetzeta da (lankidetzeta, elkarri eskainitako arreta, elkar ulertzea eta konfidantza), asoziazio aktiboa; eta bere ezaugarri nagusia harreman positibo batek elkarri ematen dion onura da<sup>20</sup>.” Hortaz, ikus dezakegunez, kontzeptu hori bake negatiboaren kontzeptua baino askoz konplexuagoa da, eta dimentsio guztiei eragiten die. Bakea ez da egoera ideal bat, prozesu dinamiko bat baizik, gizakia etengabe eraikitzen ari den prozesua, aurrerapausuekin eta atzerapausuekin. Zentzu horretan, batzutan “bake inperfektua<sup>21</sup>” esapidea erabili izan da adierazteko “bakea”, azken batean, amaitu gabeko eginkizun bat dela.

## 2.2. Indarkeriaren triangelua

Galtungek diotenean bakea ez dela soilik gerrarik eza, baizik eta “indarkeriaren” kontzeptu askoz zabalago bati kontrajartzen zaiola, horrez gain hiru indarkeria moten arteko bereizketa ezartzen du.

Antzematen errezena indarkeria zuzena da: indarkeria jasaten duenaren ikuspegitik begiratzen zaio. Igorle bat badago (gizonezkoa zein emakumezkoa) eta nahita burututako ekintza bada, indarkeria zuzenaz hitz egin dezakegu<sup>22</sup>. Indarkeria mota hori fisikoa edo ahozkoa izan daiteke. Makro mailan gatazka armatuak izan ohi dira horren erakusgarri nagusia (indarkeria zuzen antolatua) eta mikro mailan eraso fisikoak, erailketak, irainak, etab. Indarkeria mota horrek bi motatako ondorioak ditu: ikusten direnak eta ikusten ez direnak. Esate baterako, gizakien heriotzen, desplazatuak, nahiz gerra garaian burututako bortxaketen ondorio materialekin eta somatikoekin batera, aldi berean beste ondorio ez material hauek izaten dira: gorrotoa, mendekurako grina, gogogabezia, etab. Bonbardaketa baten ostean gizakiaren ondare kulturalari eragiten zaion min ikusgarri eta

<sup>18</sup> Jares (1996), 13. or., nire itzulpena.

<sup>19</sup> Adam Curle (1973), 42. or., nire itzulpena.

<sup>20</sup> John Paul Lederach (1986), 31. or.

<sup>21</sup> “Bake inperfektuari” buruz, ikus Wolfgang Sutzlen (1999) *Papeles de cuestiones internacionales*, 66. zk., 15-22 orr. Ikus ere *La Paz Imperfecta* liburua, Francisco A. Muñozena (2001). Alde batetik, ohartarazten digu bake egoerek gure bizitzetan duten garrantziaz, horrek gatazka gehienak modu ez bortitzen bidez konpontzea ahalbidetuko baitigu; bestetik, bake egoera berriak sortzen jarraitzeko premiaz ohartarazten digu, nahiz eta bortizkeriak bere horretan jarraitu.

<sup>22</sup> Johan Galtung (2003), 20. or.

konponezinak bere ondorio ikustezina du, alegia, traumaren eta loriaren indarkeria kulturaren sustapena<sup>23</sup>.

Indarkeria egituratua, Galtungek zeharlerroko indarkeria moduan ere definitzen duena, justiziarik ezan eta ezberdintasunean islatzen da, egituraketa sozialaren ondorioz<sup>24</sup>. Hemen pobrezia, bazterkeria, gosea eta baliabide banaketa ezberdinak eragindako edozein gaitz sar genezake.

Eta horretaz guztiaz gain, indarkeria kulturala dago, hau da, erligioaren bidez, ideologia-aren bidez edo hizkuntzaren bidez sortu eta zertutako indarkeria, baliatzen dutenek bidez-kotzat ez ezik, beharrezkotzat ere jotzen dutena. Galtungek zehazten du ezin dela oro har esan kultura bat indarkerian oinarritzen denik, baizik eta kultura horren zenbait alderdik indarkeria egituratua eta indarkeria zuzena legitimatzen lagun dezaketela. Indarkeria mota horren ezaugarrietako bat da erro sakonak dituela eta nekez alda daitekeela<sup>25</sup> (“trazizioen pisu” ospetsua, gustuko ez diren aldaketa sozialen aurka erabili ohi den totem ukiezina).

### 2.3. Gatazka, aukera moduan

Bake hezkuntza lantzeko hirugarren gakoa, jakina, gatazka kontzeptuari buruz dugun ideia da, normalean zentzu negatiboan ulertzen baitugu, indarkeriara zuzentzen gaituen zerbait, alegia. Aitzitik, ideia horri buelta emateko, Lederach-ek defendatzen duen ideiatik abiatu beharko ginatke. Lederach-entzat, gatazka “helburu bateraezinak dituzten pertsonen arteko elkarrekintza” besterik ez da. Gizakien arteko elkarrekintzak berezkoa du gatazka, eta ahalmen sortzaile edo birrintzailea izan dezake, gatazkari heltzeko aukeratutako bideen arabera. Sarri askotan, gatazka eta indarkeria bat egiten ditugu, baina indarkeria gatazkari heltzeko modu bat besterik ez da. Erroka, hortaz, gatazka aldaketarako aukera bilakatzean datza, zerbait positibo eta aberasgarri bilakatzean. Galtung-ek dioskunez, gatazkaren osagaiak aztertzerakoan elkarlehiatik eta zalantzatik erortzen diren oztopoak bereiztea komeni da. Lehenengoan, bi pertsonak edo eragilek urria den helburu bera erdietsi nahi dute. Bigarrenean, berriz, pertsona edo eragile batek elkarren artean bateraezin diren bi helburu erdietsi nahi ditu<sup>26</sup>. Gatazka agerikoa edo ezkutukoa izan daiteke, eta hiru osagaien elkarrekintzatik elikatzen da: pertsonak, prozesua eta oinarritzko arazoa edo ezberdintasunak. Triangelu itxurako egiturak, era berean, hiru erpin ditu, elkar elikatzen direnak: jarrerak, jokabideak eta kontraesanak.

Hortaz, gatazka bati heltzeko, hiru erpin horiei heldu behar zaie. Galtung-ek eginiko kontzeptualizazioaren arabera, gatazka ez dira konpontzen, soilik transformatzen: helmuga ez da konponbide finko bat, alderdi guztientzat onargarria eta jasangarria den prozesu bat baizik. Prozesu horretan, jarrera aldaketak enpatia lantzea galdatzen du, jokabidea indarkeriarik gabeko ekintzara pasa behar da, eta kontraesanei ematen zaien irtenbideak

<sup>23</sup> Johan Galtung (1998), 28. or.

<sup>24</sup> Johan Galtung (2003), 20. or.

<sup>25</sup> ibid, 19-28. or., 261ff.

<sup>26</sup> Galtung (2003), 107. or.

sormen ahalegin bat eskatzen du. Gatazkak eraldatzeari buruzko literatura (planteaturiko ikuspegi arabera konponketa, kudeaketa edota tratamendua ere esaten zaio) oso zabal eta oparoa da. Hemen, aldiz, nahikoa dugu azpimarratzearekin gatazka Bake hezkuntzaren ardatz nagusietako bat dela aukera iturri moduan.

## 2.4. Zedarrri feministak eta teiltatu bakezaleari jaurtitako harri moreak

Zer irakurketa feminista egin dezakegu, ordea, teoria horietatik guztietatik? Edo hobeto esanda, planteamendu horiei buruz hitz egiterik egongo zen mugimendu feministaren ekarpenik gabe? Zaila da ezbaierik gabe baietz esatea, are gutxiago jakin dakigunean pentsamendu lerro bat eratzen duten tradizio guztiek ez dutela merezitako aintzatespena jasotzen. Gainera, beste paradoxa hau ere gertatzen da: tradizio hori feminista denean, hain gogotsu bereganatzen da ezen egileek ez dute orrialdetako bazter oharretan edo bibliografian agertzeko ohorea ere izaten.

### 2.4.1. Indarkeriak ezagutzera eman

Galtung-ek, ordea, oharren bat edo beste egiten digu. 1969an argitaratutako artikulu batean, indarkeria kontzeptu ezberdinak aplikatzen dizkie emakumeek bizi duten egoerari. Ikerlan horretan adierazten duenez, “senar batek bere emazteari tratatu txarra ematen dionean, argi eta garbi indarkeria pertsonaleko kasu baten aurrean gaude, baina milioi bat senarrek milioi bat emazte ezjakintasunean mantentzen dituztenean, indarkeria egituratuko kasu baten aurrean gaude<sup>27</sup>”. Erantsi genezake, milioi bat senarrek milioi bat emazteri tratatu txarra ematen dietenean indarkeria kulturalaren agerpen baten aurrean gaudela, izan ere, jokabide hori ezabatzeke nahitaezkoa da oraindik ere gure gizartean nagusi diren balore matxistak errotik aldatzea. Gerora, Galtung-ek adierazi zuen “gizartean nagusi den patriarkatuaren errealitatea somatzeko ezintasun hori behar bada indarkeria kultural aktibo horren adibiderik onena dela. Errealitate hori salatzean, teoria feministak ekarpen handiak egin dizkio bakearen teoriari<sup>28</sup>”.

Giza eskubideen aldeko ekintzaileen eta mugimendu feministaren ekimenei esker, aski eza-gunak dira gatazketan emakumeen aurka ematen diren indarkeria zuzenak. Ikerlan interesgarriak egin dira gerrako armekin garatutako indarkeria masiboei buruz eta horrekin lortu nahi diren helburuei buruz (ikaratzea, mendekua, arerioa kikiltzea, beste aldeko gizonekoak umiliatzea, ankerkeria horien egileen artean “kidego sena” sendotzea, garbiketa etnikoaren estrategia, etab.). Emakumeen aurkako indarkeriak errefuxiatu zelaietan jarraitzen du, baita gerra ostean ere, kasu horretan senarren edo bikotekideen eskutik.

Emakumeen aurkako indarkeria egituratuaren eraginak ere oso nabariak dira: emakumeek munduko populazioaren erdia osatzen dute, baina jabetzen %1 soilik dago beren esku; elikagaien %50 ekoizten dute, baina ez dute munduko errentaren %10 baino gehiago jasotzen; batez beste, gizonek baino ordu gehiago lan egiten dute egunero, etab. Eta indarkeria kulturalak indarkeria zuzena eta indarkeria egituratua bidezkoitzen laguntzen

<sup>27</sup> Galtung (1969), Brock-Utnen aipatua (1988), 173. or., nire itzulpena.

<sup>28</sup> Galtung (2003), 69. or.

du, noiz eta “milaka urteko tradizioen” izenean edota zenbait manu erlijiosoen izenean ablazio genital ankerrak edo bestelako ebaketak burutzen direnean<sup>29</sup>.

#### 2.4.2. Zer bake mota lortzeko ari gara borrokatzen?

Hirurogeiko hamarkadaz geroztik, mugimendu feministak emakumeen aurkako indarkeria mota guztietara hedatu du bakearen ideia, ez soilik gatazka armatuetan emakumeei eragiten dieten indarkerietara. Hala ere, mugimendu bakezale mistoarekiko elkarrekintza – bestelako gizarte mugimenduek adinako jokabide sexistak izan ditzakeena – nolabaiteko mesfidantzaz planteatu izan da. Ildo horretatik, hirurogeita hamarreko eta laurogeita hamarreko hamarkadetako feminismo erradikalak militantzia bikoitzak beren borroka lausotzeko arriskuaz ohartarazten zuen, eta galdera hau egiten zuen: “zer onura dakarkigu mugimendu bakezalearekin batasun bat eratzeak? Zer bake mota lortzeko ari gara borrokatzen? Ez dagokigu guri beren anabasa konpontzea”. Urte gutxi batzu direla, Amelia Valcarcelek antzeko argudioa erabili zuen. Ekofeminismoari buruzko liburu baten aurkezpenean, hauxe salatu zuen: “ia orain emakumeoi aginduko ote diguten ozono geruzaren zuloa jostea<sup>30</sup>”.

Laburbilduz, feministek defendatu dute gizonek indarkeriaren bidez lortu dutela aginte postuetara heltzea eta hiritartasun eskubide osoak eskuratzea. Bitartean, emakumeei indarkeriaren beharrik ez zuten egitekoak atxiki zitzaizkien, alegia, birsorkuntza eta zaintza egitekoak, eta horrek esparru pribatura mugatu zituen, erabakitze eta aginte ardatz publikoetatik urrun.

Soldaduzka “armak hartu dituen herriaren” adierazgarri moduan eratzean, Estatu indarkeria erabil dadila agintzen ari da, eta, horrenbestez, agindu hori herritarren adierazpen bilakatzen da, ez soilik betebehar bat, eskubide bat baizik. Eta, hain zuzen ere, emakumeek gerra garaian eginiko ekarpenak izan ziren –emakumeak lantegietan lan egiten hastea gerrara bidalitako gizonezko langileen ordez betebehar militarren beste adierazpen bat zen– I. eta II. Mundu Gerraren ostean zenbait herrialdetan (Ingalaterran, Eskandinabian, Italian, Frantzian) emakumeek boto eskubidea eskuratu zezatela ahalbidetu zutenak. Haatik, eskatu zitzaizkion gerratik zetozen soldaduei lantegietan leku egitea eta sukaldara bueltatzea, ez zuten boto eskubidea galdu: soldaduzkak herritarrak definitzeko osagaietako bat izaten jarraitzen du, eta emakumeek eskubide hori dute, nahiz eta ez duten armadan bete behar; izan ere, emakumeek derrigorreko zerbitzu baten antzekoa betetzen dute etxean, etxeoandre moduan, sistema patriarkaletan gizonezkoentzako nahitaezko laguntza suposatzen duena. Hein batean, gudariaren atsedena ziurtatzen dute nolabait. Historikoki, balio handiagoa eman zaio bitzta arriskuan jartzeko gaitasunari edota bizitza kentzeko gaitasunari, bitzta emateari eta bitzta zaintzeari baino. Horrek berarekin ekarri du gizonezkoen eta emakumezkoen arteko baloreen hierarkizazio prozesu bat, non tradizionalki gizonezkoenak izan diren baloreak tradizionalki emakumezkoenak izan diren baloreen gaineratik jarri diren.

<sup>29</sup> Ikus, beste iturri askoren artean: Carmen Magallón (2006), Irantzu Mendia (2009), Jeanne Vickers (1993).

<sup>30</sup> Madrilen 2004an antolatutako mintzaldi batean, Alicia Puleoren liburua aurkezteko. Izenburua: *Mujeres y Ecología*.

Kritika feministak eta bake ikerketarako ekarpenek, ordea, Nazio Batuen Erakundeak bakeari buruz zuen kontzeptua aldatzea lortu zuten. Nazioarteko lobby feministak emaitza esanguratsuak lortzen hasi zen 1995ean Beijing-en egin zen Emakumeen Mundu Biltzarrean, bere Ekintza Plataformak onartu egin baitzuen bakea lortuko bada ezinbestean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortu behar dela. Bost urte geroago, Segurtasun Kontseiluak 1325 Ebazpena eman zuen, emakumeek bakea lortzeko bidean duten paperari nazioarteko aintzatespena ematen diona. Ebazpenak Estatu kideei dei egiten die ekintzak gara ditzaten elkarrekin loturiko lau esparru hauetan: emakumeen parte hartzea areagotzea bake prozesuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan; bakea mantentzeko saiok genero ikuspegi batetik; emakumeen babesa gatazka armatuetan eta gatazka osteko egoeretan; genero ikuspegia zeharka sartzeari Nazio Batuek eginiko datu bilketetan eta informazio sistemetan, baita programak martxan jartzeari ere<sup>31</sup>.

### 2.4.3. Gizakiaren segurtasuna gure segurtasuna da

Horrez gain, bakearen kontzeptuari buruzko eta emakumeek bakea lortzeko eginkizunean duten paperari buruzko berrikuspenean baitan, 80ko hamarkadan feminismoak gogor salatu zuen Nazioarteko Harremanetan eta Segurtasunari buruzko Ikerketetan nagusi zen segurtasun ideia tradizionala<sup>32</sup>. Hein handi batean, egungo giza segurtasunaren kontzeptualizazioaren korrante teoriko bultzatzaileetako bat da, eta orain arte, literaturak eta praktikak ez dute genero ikuspegiaren dimentsioa modu esanguratsuan kontuan hartu (beste behin ere!).

Kontuan izanik Nazioarteko Harremanak ez direla neutroak baizik eta zeharo “generizatuak” daudela<sup>33</sup>, ikerketa feministak batez ere honako osagai hauek hartu ditu kontuan: a) nork definitzen du eta interpretatzen du zer den segurtasuna?; b) nola definitzen da segurtasuna?; c) nola definitzen da bakea?; d) noren segurtasunaz hitz egiten ari gara?; e) nola mantentzen da segurtasuna?; eta azkenik, f) zein da sistemari eusten dion logika?

*Nork definitzen du eta interpretatzen du zer den segurtasuna?* Segurtasunaren ikuspegi tradizionala, korrante intelektual gehienek antzera, gizona bezala nagusitasun egoera batean eratu da. Horrek ekarri du emakumezkoen esperientzia, ezagutza eta ikuspegia sistematikoki alde batera utzi izana edo gutxietsi izana. Horrekin batera, akademiko feministek genero ikuspegiaren teoriari buruz eginiko ekarpenak ere hainbat hamarkadatan baztertuak izan dira nagusi zen literaturan, bai Nazioarteko Harremanen esparruan bai Segurtasun Ikerketen esparruan ere.

<sup>31</sup> United Nations (2005); Carmen Magallón (2006), 157-161. or.

<sup>32</sup> Segurtasun kontzeptuaren berrinterpretazio feministari buruzko atal hau Irantzu Mendiarekin elkarlanean egin zen, 2008an HEGOA Institutuak antolatutako mintegi batean. Gaiari buruzko argitalpen bat prestatzen ari da.

<sup>33</sup> Errealitatea desegin eta emakumeak gizarte eragile bezala kontuan hartuz errealitate hori berregiteko ariketa intelektualari ezagutzaren ekoizpenaren “generizazioa” deritzo (ingelesez, “gendering”), emakumeak “azaleratzeko” ahaleginetik hasi eta generoaren emandako diziplina baten korrante nagusian sartzeraino doana (mainstreaming). Pankhurst-ek eta Pearce-k, adibidez, esaten dute garapen ikasketetako zenbait arlo beren generizazio prozesuan aurrerapen nabarmenak lortu dituzten bitartean, prozesu horiek Nazioarteko Harremanetara eta Gatazkak Konpontzeko saioretara aplikatzerakoan oztopo asko egon dela, eta lortu diren aurrerapenak lehen maila batera mugatzen direla, alegia emakumeak “azaleratzera”. Pankhurst and Pearce (1998), 155-156. or.

*Nola definitzen da segurtasuna?* Aintzineko Pax Romanatik eratorritako ikuspegi tradizio-naletik, segurtasunak batez ere Estatuaren kontrako erasoengandiko babesa esan nahi du, bai kanpoko erasoengandikoa bai barrukoengandikoa. Feminismoak egiten dion kritika nagusia da ez duela kontuan hartzen segurtasunaren mehatxu handiena gizakien oinarriko beharrianak ase barik egotea dela.

*Nola definitzen da bakea?* Ikuspegi horren arabera, ezinbestekoa da egun nagusi den bake ideia gaingintza, alegia, bakea=gerrarik eza (bake negatiboa), hain zuzen ere, ikusten diren indarkeria adierazpenei (gatazkenak) heldu eta beroriek aztertzea mugatzen dena. Zentzu horretan, feminismoak “publikoaren” eta “pribatuaren” arteko bereizketaren aurka egin du, eta horrenbestez, “gerra” eta “bakea” kontzeptuen aurka ere bai. Halaber, feministek emakumeen aurkako indarkeria zuzenaren jarraitasuna eman dute ezagutzera, gerra garaian genero ikuspegian oinarritutakoa eta bai bake garaian ohiko indarkeria matxista. Eta erakutsi egin dute bai indarkeria egituratua bai indarkeria kulturala, biak ala biak beren ongizatearen eta garapen pertsonalaren aurkako mehatxu iraunkorragoa eta oinarrikoagoa direla kanpoko edo barruko ustezko “etsaien” beste edozein eraso baino.

*Noren segurtasuna?* Esan dugu segurtasunaren ikuspegi errealista sendo erroturik dagoela Estatuan, eta, hortaz, berebiziko arreta jartzen dela erakundeak babesteko. Aitzitik, ikuspegi feministak pertsonak jartzen ditu arretaren erdigunean: azken batean, ahulenak babestea da kontua. “Goian-behean” kontzeptualizazioak ez du ahalbidetzen piramidearen oinarriari daudenen beharrianak asetzea, eta kasurik onenean, “talde” ahul eta pasibo moduan hartzen ditu, tokiko eta globalaren arteko elkarrekintzaren dimentsio guztietako subjektu aktibo legez hartu beharrean. Beraz, orain arte nagusi izan diren segurtasun mekanismoek alde batera utzi dute genero indarkeria, baita botere ardatzetatik urrun dauden taldeen nahiz biztanleen aurka egikaritzen den indarkeria, hala nola herri indigenak.

*Nola mantentzen da segurtasuna?* Ikuspegi errealistatik, segurtasuna batez ere logika militarista bati esker mantentzen da, eta hori hainbat estrategiatan islatzen da: “armagintza karrera”, “izuaen aurkako gerra”, “gerra prebentiboa”, eta, orokorrean, “norbere burua defendatzeko” egokitzen jotzen den edozein baliabideren erabilpena (izan ere, logika militarista ere erabiltzen da demostratzeko, edozein motako ebidentzien aurka, norberaren Estatua ez dela inoiz “erasotzaile”, beti “erasotua” dela, eta, beraz, ez duela inoiz ersotzen, soilik defendatzen dela).

Ikuspegi feminista batetik, ordea, militarismoa da, hain zuzen ere, pertsonen segurtasunaren aurkako mehatxurik handiena, eta batez ere emakumeen aurkako mehatxurik handiena, izan ere: a) balore patriarkalen adierazpen nagusia da; b) lotura estua dago militarismoaren eta sexismoaren artean; c) gizarte gastueterako baliabideen desbideraketa dakar; eta d) emakumeen aurkako indarkeriaren logika berretsi egiten du, dela mikro mailan dela makro mailan.

*Zein da sistemari eusten dion logika?* Ikuspegi tradizioaletik begiratuta, sistema hori ekonomia metaketaren logikan oinarritzen da. Nazioarteko harremanetan nagusi den logika horren aurrean, feminismoak bizitzaren jasangarritasunaren logika defendatzen du, guztiaren erdigunean gizakiak jartzen dituen<sup>34</sup>. Tentsio nabarmena dago bi logika

horien helburuen artean, alegia, onura ekonomiko hutsa bilatzearen eta zaintzaren etika-  
ren artean, izan ere, azken hori ez da inoiz nazioarteko harremanen paradigma ekonomi-  
koaren parte izan. Behin eta berriz arituko gara gai horren gainean, feminismoaren Bake  
hezkuntzarako proposamen baten ardatzetako bat osatzen baitu.

#### 2.4.4. Indarkeria ezaren alde positiboa

Egin dezagun aurrera, bada, Bake hezkuntzaren oinarriko kontzeptuen berrikuspen kriti-  
koarekin, oraingoan indarkeria ezaren kontzeptuarekin. “Indarkeriaeza” idazten da, dena  
batera, bi hitzetan banatu gabe edo gidoi batez banatu gabe, ez gaudelako soilik indarke-  
ria eza huts baten aurrean. Indarkeriaeza aldarrikatzen duten pertsonak edo taldeek ez  
dituzte beren ekintzak definitzen beste zerbaiten ezeztapenean oinarrituz, baizik eta guz-  
tiz positiboa den baieztapen proposamen batean oinarrituz. Indarkeriaezan oinarritutako  
ekintza bidegabekeriarekin erlazionatutako indarkeria egoera bati kontrajartzen zaiona  
da, eta justizia lortzeko borroka prozesuan erabiltzen da, alternatiba eraikitzaileak baliatuz.  
Rafael Sainz de Rozasek adierazten duenez, indarkeriaeza hiru ikuspegitik jorratu  
behar da: lehendabizi, diagnostia eta analisia egiteko tresna gisa (hau da, interpretazio  
marko bezala). Bigarrenik, nortasun adierazgarri moduan: indarkeriaezak nortasuna ematen  
dio taldeari, lortu nahi diren helburuen eta horiek lortzeko erabilitako baliabideen  
arteko koherentzia eskatzen baitu. Beraz, antolatzeko modu hauek lehenetsiko ditu: bat-  
zarrak, egitura horizontalak, informazioa eskuratzeko eta konpromisoak hartzeko ardu-  
rakidetzak, etab. Hirugarrenik, boterearen kontra jarduteko bitarteko moduan (desobe-  
dientzia zibilaren eta indarkeriaezan oinarritutako bestelako ekintzen bidez).

Zentzu horretan, komeni da gogoratzea Gandhik berak beti esan zuela indarkeriaezaren  
eta desobedientzia zibilaren teknikak emakumeengandik ikasi zituela, batik bat sufragis-  
ta britainiarrengandik, XX. mendearen hasieran Londresera ikastera joan zenean.  
Gandhiren mobilizazioek hamaika emakume gogotsuren parte hartzea izan zuten.  
Adibide bat jartzearren, 1930eko Gatzaren aldeko Martxan parte hartu zutenetatik, %60  
emakumeak izan ziren.

Horrek ez du esan nahi, ordea, indarkeriaezan oinarritutako mugimenduak merezitako  
kritika feminista batzuk jaso ez zituenik. 1983an, Feminism and Nonviolence Study Group  
taldearen testu batek, mugimendu bakezalearen baitan ematen ziren joera sexistak kriti-  
katzen zituen, izan ere, emakumezko militanteek gehienetan intendentzia egitekoak  
beren gain hartzen zituzten bitartean gizonzko militanteek beraientzat gordetzen zituz-  
ten lidergoa, agerpen publikoak eta eginbehar “glamourosoenak”. Salatzen zuten baita,  
indarkeriaezan mugitzen zen ekintzailearen heroismoarako gehiegizko joera, eta azpima-  
rratzen zuten sakrifizio pertsonalaren erabilpen gandhiarra eragin handikoa izan ziteke-  
ela pribilejio askoz gozatzera ohitutako gizonentzat, horientzat eragin askatzailea izat-  
eraino ere irits zitekeela, baina eragin horiek askoz murriztagoak zirela indarkeriaezan  
mugitzen ziren emakumezko militanteentzat, izan ere, horiei, emakume guztiei bezalaxe,  
txikitatik erakusten zitzairen norbere sakrifizioaren balorea eta betebeharra besteen ongi-  
zatearen mesedetan, batez ere beste gizonzkoen mesedetan<sup>35</sup>.

<sup>34</sup> Anna Bosch, Cristina Carrasco eta Elena Grau (2003).

<sup>35</sup> Feminism and Nonviolence Study Group (2003).



### 2.4.5. Beti oldarkor!

Ez dago Thoreau edo Tolstoy baten oroitzapena gogor ekarri beharrik desobedientziarako baliabideak indarkeriaezaren teorian eta praktikan paper oso garrantzitsua duela baieztatzeko. Hezkuntza arloko aplikazioari dagokionez, azpimarratzekoa da desobedientzia bultzatzeko Lorenzo Milaniren lana<sup>36</sup>. Oinarrizko urratsa da herritarren bertuteen zerrendatik obedientzia ezabatzea, gatazketan eta gatazketarako pentsaturiko Bake hezkuntza bat lortuko bada.

Beste pertsona askok desobedientzian hezitzearen zentzua planteatu dute, edo, Jaresek esaten zuen moduan, “bakean ez egoteko” hezitzea, hau da, hezitzea gogoan izanik gobernatuen isilbidezko konplizitateak gabe eta mendetasun itsurik gabe ez legokeela inolako tiraniarik. Latinamerikako eta beste herrialdeetako Giza Eskubideen aldeko ekintzaileek azken puntuko legeak eta bestelakoak salatu dituzte, izan ere, derrigor bete beharreko obedientziaren aitzakiapean, torturatzailen babes nagusia bilakatu dira. Historian zehar, zenbait egoeratan, leialtasuna, diziplina eta autosakrifizioarako gaitasuna zentzu negatiboan sustatu egin dira, horrek sarraski mekanismoak eta diktadurak ahalbidetu dituelarik.

Horren aurrean, indarkeriaezaren filosofiak eta praktikak oldartzeko gaitasuna bultzatu du, disidentziarako joera eta espiritu kritikoa, eta aldi berean, gatazkak eraldatzeko gaitasuna indarkeria baliatu gabe. Feminismoari buruz esan ohi da azken 200 urteetan gehien eragitea lortu duen gizarte mugimendua dela, eta odol tanta bakar bat ere isuri gabe lortu duela, bakar bakarrik indarkeriaezako metodoak erabilia. Ere bai esan liteke inon mugimendu oldarkorrik bada hori mugimendu feminista dela, izan ere, bere ezaugarri nagusia patriakatuak ezarritako genero rolen aurrean oldartzea da. Euskadiko Asanblada Feministen Koordinakundeak 1993ko martxoaren 3rako hautaturiko leloak argi adierazten zuen: “Intsumisioa Derrigorreko Familia Zerbitzuari”. Beltzez Jantzitako Belgradeko Emakumeen Taldeak ere gauza bera aldarrikatu zuen gerraren aurkako 20 urteko borrokaren memoria argitaratu zutenean: *Beti oldarkor!*

## 3. Jarduera lerro estrategikoak

### 3.1. Bake hezkuntzaren ikuspegiak eta edukiak

Aurreko kontzeptuen berrikuspen kritikotik abiatuta, orain Bake hezkuntzaren egungo ereduaz azal dezakegu, labur bada ere. Eredu hori izan da analisi feministatik onura gehien eskuratu duena, eta eredu hori da, aldi berean, prestatuen dagoena genero ikuspegia “ikusarazteko” eta modu kontziente batean lantzeko, analisi hori diziplinaren “korrante nagusian” ahal den modurik osoenean integratzeko helburuarekin.

<sup>36</sup> Bake hezkuntzarako Mintegiak (1990), 24-25. or. Abade italiar horren ustez, hezkuntza askatzaile eta emantzipatzaile baten etsai nagusia konformismoa zen, alegia pentsamendu akritikoa. Horregatik, erresistentziarako hezkuntza bat garatu zuen, Bake hezkuntzaren kontzeptio intimista hutsetatik zeharo urrunduta, eta arreata berezia jarri zuen bai elkarrekin heziketan, bai autogestioko eskolan eta historiako testuliburuaren berrikuspenean, 1950. hamarkadan bera zuzendari izan zuen Barbianako eskola katolikoaren kontrako disidentzia ere sustatuz, non bere hezkuntza ereduak praktikan jarri zuen.

Definizio bat baino gehiago dago Bake hezkuntzari buruz, baina guk Jaresen planteamenduari helduko diogu: “Bake hezkuntza hezkuntza prozesu bat da, etengabea eta iraunkorra, bake positiboaren eta gatazkaren sormen ikuspegiaren kontzeptuetan oinarritua (...) eta bake kultura bat garatu nahi du, errealitatea azaltzen laguntzen duena, ezberdina eta bortitza, eta errealitate horrekin bat etorritik jarduten laguntzen duena<sup>37</sup>.”

Hezkuntza praktikari gagozkiola, ikerlari batzuek Bakeari *buruzko* Hezkuntza baten eta *Bakerako* hezkuntza baten artean dagoen aldea nabarmentzen dute. Ezberdintasun horiek 1. koadro honetan jasotzen dira.

1. koadroa. Bake hezkuntzaren zalantzak eta eztabaidak <sup>38</sup>	
Bakeari buruzko hezkuntza	Bakerako hezkuntza
Bake hezkuntza jarduera formal gisa (eskoletan, unibertsitateetan).	Bake hezkuntza jarduera informal moduan (ikus entzuleak oro har, kontzientziazioa...).
Bake hezkuntza goitik behera transmititua (gubernuen bidez, programen bidez, toki agintarien bidez...).	Bake hezkuntza behetik transmititua (ekimen herrikoien bidez, taldekako ekimenak, norabanakoak... barne hartzen ditu gurasoak, hezitzaileak, gizarte mugimenduak, talde bakezaleak...).
Bakeari buruzko ikasketak eta bakerako ikasketak arlo zehatz moduan (peace studies) Curriculumaren barruan (espezializazioa).	Bake hezkuntza curriculum zeharkatzen duen zerbaiten moduan, diziplina guztietan eta horietatik kanpo ere dagoena (zeharlerrokotasuna).
“Desarmeari buruzko hezkuntzara nahiz desarmerako hezkuntzara” mugatutako kontzeptua (gerra arriskuari buruzko informazioa, armamentu lasterketa, etab.).	Bakea kontzeptu zabal legez ulertuta (desarmetik haratago), positiboa, norbanakoak eta erkidegoak barne hartzen dituena.
Bake hezkuntza epe laburrerako zerbaiten moduan ulertuta, informazioa transmititzeko ariketa.	Bake hezkuntza baloreak aldatzeko eta kontzientzia kritikoa eskuratzeko (jarrerak) epe luzerako prozesu legez ulertuta.
Bakea programa sustantibo gisa; metodologia pedagogiko zehatzik gabe.	Bake hezkuntza irakaskuntza metodologia bezala ulertuta. Metodologia horrek honako hauek islatzen ditu: gatazkak konpontzeko baloreak, indarkeriaeza, gizateria, tolerantzia, parte hartze kritikoa, etab.

Erronka, noski, beste eredu bat aplikatzea da; hain zuzen ere, bakea ezagutza elementu gisa aztertu ez ezik, beharrezkoak zaizkigun tresna guztiak ahalbidetuko dizkiguna gizartea aldatzeko jarrerak bultzatzeko. Zentzu horretan, Bake hezkuntza, beste ezerren gainetik, ekintzarako heziketa da.

Hortaz, Bake hezkuntzari ikuspegi ezberdinetatik hel dakiok:

<sup>37</sup> Jares (1996), 23. or.

<sup>38</sup> Nigel Young-en lanetik egokitua. *The contemporary Peace Education Movement*, Oslo. PRIO Paper 6/1983. Bake Hezkuntzarako Mintegia aipatua (1990).

- Bake hezkuntzaren kontzeptuaren dimentsio egituraren ikuspegitik: korrante intelektualak, afektiboak eta sozioafektiboak.
- Bakearen definizioaren ikuspegitik: Bake hezkuntza negatiboa (batik bat, bakeari buruzko hezkuntza) edo Bake hezkuntza positiboa.
- Esleitzen dizkiogun helburuen ikuspegitik: Eskolari atxikitakoak edo gizarteari atxikitakoak (beraz, hezkuntza ez formalaren eta informalaren bidez ere garatutakoak).
- Ikuspegi didaktikoaren ikuspegitik: curriculumaren ikuspegia (bereziko arreta edukiei), ikuspegi metodologikoa (arreta berezia jarrerei) edo mistoa (gomendagarria).
- Testuinguru sozio politikoaren ikuspegitik: Gavriel Salomonek testuinguruaren araberaz ezberdintzen ditu jokabideak<sup>39</sup>. “Trataezin” izendatzen dituen zonaldeetan, alegia, etsai amorratuen arteko gatazketan (pertsonei zein erakundeei buruz ari gara), batzuen zein besteen kontakizunak honela laburbiltzen dira: gu gara onak, beraiek dira txarrak. Aspaldiko barrabaskerien oroitzapenak gogora ekartzen diren bitartean, egunez eguneko biktimismoa elikatzen da. Kasu horretan, Bake hezkuntza saiatzeko da gatazkan diren alderdien artean zeharo hedaturik dagoen ideia bat burutik kenarazten, alegia, guztiaren errua “bestearena” dela. Horretarako, “beste aldekoen” kontakizunak ematen ditu aditzera, besteen sufri-menduarekiko atxikimendua bultzatzen du, eta modu kritiko batean aztertzen ditu norberak egindako ekarpenak. Nolabaiteko lasaitasun giroan bizi diren zonaldeetan (bake negatiboa nagusi den aldeetan, esan genezake), ez dago berradiskidetu edo bizikidetzan jarri beharreko etsai zehatzik. Kasu horietan, arreta berezia jartzen da gatazka aldatzeko analisietan, dela makro mailan (gatazka armatuak), dela mikro mailan (gatazka ikasgeletan, pertsonen arteko gatazka).
- Gatazkari heltzerakoan, indarkerian oinarritutako eredu (oraindik ere nagusi dena eta gatazka, halaberrez, zerbait negatibo eta ekidinezin moduan ulertzen duena) nahiz eredu intimista zorrotza (indarkeria zerbait ekidinezin moduan ere planteatzen duena eta arazo guztien konponbidea pertsonen arteko elkar ulertzean bilatzen duena) gainditu eta indarkeriaezan oinarritutako eredu bat proposatzen den, gatazkei ahalmen eraldatzailea aitortzen diena baldin eta indarkeriarik gabeko eredu baten bidez heltzen bazaie. Grasaren iritziz, eredu intimistek proposatutako aldaketa pertsonala nahitaezko baldintza da, baina ez da nahikoa. Era berean, ezagutzaren edukiekiko gehiegizko atxikimendua alboratu behar da prozeduren garrantziaren mesedetan<sup>40</sup>. Berak egituraketa ikuspegi baten aldeko apustua egiten du (analisiaren maila gizartearen egitura dago), teoria psikosozialen ekarpenekin nahastuz (gizakien izaeraren analisia egiteko). Aztergaia egiturak norbanakoen artean eragiten duen elkarrekintza da. 2. koadroak eredu batzuen eta besteen ezaugarriak laburbiltzen ditu. Hor jasotzen denak, ordea, ez du esan nahi sailkapena aldaezina denik eta jarrerak beti guztiz bateraezinak direnik elkarren artean.

<sup>39</sup> Gavriel Salomon (2002).

<sup>40</sup> Rafael Grasa (2009), 56. or.

<b>2. koadroa: gatazkei aurre egiteko ereduak bake hezkuntzaren ikuspegitik<sup>44</sup></b>		
<b>Indarkerian oinarritutako gatazka ereduak</b>	<b>Eredu intimista</b>	<b>Indarkeriarik gabeko gatazka ereduak</b>
Indarkeria pertsonaren baitan dago.	Indarkeria gizonaren baitan dago.	Ezberdintasunak daude oldarkotasunaren eta indarkeriaren artean. Indarkeria oldarkotasunaren gainbehera da. Bestalde, oldarkotasuna, izatearen baieztapenaren bulkada positibo bat da.
Norbanakoaren moralak printzipio sozio kolektiboaren menpe egon behar du.	Balio duena pertsonen moralak da. Ahal izanez gero, esfera etikoa modu abstraktoan eta guztiz pertsonalean jorratu behar da (adibidez, gerra gizakiaren gaitzustearen errua da).	Nahitaezko oinarri etikoak pertsonengan ez ezik, gizartearen, ekonomiaren eta politikaren egituretan egon behar du.
Bakea ekaitzaren osteko barea da; gatazkaren, iraultzaren nahiz gerraren amaieran izaten den egoera.	Bakea gizakiaren espazio denboran isla ezin daitekeen utopia da.	Bakea ez da helmuga, prozesua baizik: konpondutako arazoan emaitza da, burututako egitasmoena, nahiz eta inoiz ez den emaitza osoa.
Gatazka existitzen da eta irtenbide bat bilatu behar zaio, beharrezkoa bada indarkeria erabilita.	Gerra eta gatazkek ekidin behar dira, harmonia bilatu behar da.	Gatazketan sartu eta modu positiboan konpontzen ikasi behar da, indarkeria erabili gabe. Baina, bidegabekeria nagusi den tokian, kasuan kasuan isilarazitako gatazka ernarazi behar da.
Gerrak bidezkoak ala bidegabeak izan daitezke. Bidezkoak zilegiak izan daitezke.	Gerra gertakari naturala da. Noski, irrazionala, baina saihestezina.	Gerra gairiditzeko moduko kari eta egoera indibidual oso zehatzen emaitza da.
Zientzia helburu jakin batzuen zerbitzura dago, eta horiek ez dira hain justu jakintsuek erabakitakoak.	Zientzia neutrala da.	Zientzia bere produktuen erantzule da. Zientziak mugak ditu, ez da posible egiten duen oro.
Norbanakoaren nahiz taldearen segurtasuna erasotzailea kikiltzen duten tresnen bidez lortzen da, armak barne.	Norbanakoaren nahiz taldearen segurtasuna elkarriketataren bidez lortzen da, bestea konbentzitzen, mehatxua suposatzen duten egintzei diplomaziaren bidez aurre eginez.	Norbanakoaren nahiz taldearen segurtasuna norbere burua kikiltzen ez uztean oinarritzen da, baita lankidetzarik ezan oinarritutako indarkeriarik gabeko erresistentzia bat antolatzean.

<sup>44</sup> Iturria: Daniel Novara/Lino Ronda. Scegliere la pace. Non : *Seminario de Educación para la Paz* (1990).

Laburbilduz, Bake hezkuntza bidegurutze hirukoitz baten aurrean dago, Jaresen iritziz. Hiru hauei egin behar die aurre: atxikimenduarekiko hezkuntza (pertsonek arteko harremanak), hezkuntza sozio politikoa (bizikidetzako egituraketa baldintzak) eta ingurumen hezkuntza (gizateriaren eta Naturaren arteko harremanen ikasketa berria).

Baloretan oinarritutako heziketa bat da, abiaburu zein jomuga ekintza duena. Batez ere jarduera politikoa bat da, pedagogikoki eta soziarki bake kultura bat eraikitzearekin konprometituri dauden irakasleak eskatzen dituena. Orientabide sistematiko eta holistikoa izan behar du, ikerketaren, hezkuntzaren eta bakea lortzeko ekintzaren arteko harreman organikoek elikatua.

Etengabeko prozesu iraunkorra ere bada. Curriculumaren zeharlerroko dimentsio den heinean, bere elementu eta hezkuntza aro guztiak ukitzen ditu. Itxura bakearen ideiarekin bateragarria izatea eskatzen du, hau da, helburuak eta bitartekoak elkarren artean koherenteak izan daitezela (metodologia, antolaketa didaktikoa eta pertsonek arteko harremanak). Diziplina arteko ikuspegi batetik, mikro eta makro mailaren arteko harremana ikertzen du. Heziketa sistemak integratzeak etnozentrismoa, androzentrismoa, konformismoa, eta bestelakoak bultzatzen dituzten kontzeptuak, egitateak eta printzipioak berrikustea dakar. Eta eskatzen du baita orain arte murgilduta egon diren edukiak sartzea ere.

Garapenerako Hezkuntzaren oinarritzko printzipioak islatzen dituzten printzipio orokor horiek dira hezitzaile askoren jarduna gidatzen dutenak, arestian aipaturiko irakasle konprometitu horiena hain zuzen. Bake hezkuntzaren jardun praktikoa, ordea, ez da hain pozgarria. Ez dago balore heziketa osatzen duten gainerako osagaien errealitatetik oso urrun. Salbuespenak salbuespen, esan dezakegu eskoletan tankera horretako programak antolatzen badira norbanakoaren ekimenari esker dela, ez ikastetxearen benetako politika bati esker. Gainera, ahalegin guztiak kasuan kasuko jardunetara mugatzen dira batez ere (indarkeriaezaren eguna, Gandhiren heriotzaren urteurrena, etab.), etengabeko programaketa bat eduki beharrean. Ezin ahaz dezakegu, gainera, ikasten diren baloreak bizi direnak direla, ez soilik ikasten direnak, eta gai horren berezko zailtasuna, zeharlerroko beste gai askoren antzera, metodoari edukiei bezain besteko garrantzia ematean datzala. Hori horrela izanik, salatzen modukoa da Internet bidez nahiz mota guztietako ikus entzunezko baliabideen bidez harremanak izatera gero eta ohituagoa dauden neska mutilentzat egokitutako heziketa material ugari ez egotea, eta neska mutil horiei erakargarri izango zaizkien material eguneratuak eskuratzera bideratutako baliabide ekonomikoak hain urriak izatea. Gai hori ikasgeletan sartu ahal izateko oztopoek ekarri dute ahalegin gehienak esparru ez formaletan egin behar izana, batez ere erakunde bakezaleen, feministen, bakerako ikerketa taldeen eta GGKEn parte hartzearekin. Baina, baliabide faltak eta ekintzen jarraitasun ezak ere eragingarritasuna kentzen diete eginiko ahaleginei.

### 3.2. Bake hezkuntza baterako proposamen feministak

Jarraian azalduko ditugun gaiak Bake hezkuntza baterako proposamen feministen bizkarzurra osatzen dutela esan genezake. Gai horiek egokiak izan daitezke arlo ezberdinetako materialak, jarduerak eta programak prestatzeko, dela esparru formaletan, ez formaletan

edo heziketa informaletan. Eta oihartzun handiko gaiak dira lankidetzaren eta Garapenerako Hezkuntzaren esparruan lan egiteko. Gai horiek guztiak sare feministek Hegoaldeko herrialdeetan eginiko ikerketetatik eta esperientziatik edan dute. Gaiok bide-lagun hartuta, ezberdintasunak salatu eta jendaurrean ikusgarri egin ahal izango ditugu, interpretazio markoen berrikuspen kritikoa egin ahal izango dugu, eta genero ikuspegia-ri nahiz boteretzeari buruzko sentsibilizazioa egin ahal izango dugu guztiontzako bake positibo bat lortze aldera.

### 3.2.1. Absentziak eta azaleratzeak: emakumezkoak besteen begietara ikusgarri egitea, emakumezkoak aipatzea

Behar bada proposamenik oinarritzakoa, abiaburua, emakumeak besteen begietara ikusgarri egitea izango litzateke, hau da, emakumeak azaleratzea, emakumezkoen aipamena egitea atxikita dituzten rol guztietan, dela atsegin ditugunetan dela deseroso zaizkigunetan. Arestian aipatu dugun ezagutzaren “generizazio” prozesuan, ezinbestekoa da “esistentzia ezaren” agerpen ezberdinen aurka borrokatzea. Bada, “absentzien eta azaleratzeen soziologia” izeneko liburuan, Sousa Santos idazle portugaldarrak ezjakintasunarekin lotzen ditu agerpen horiek, baztertuekin, beheko mailekin, tokian tokikoarekin, antzuarrekin<sup>42</sup>. Horren aurka borrokatzeko, behar beharrezkoa da bai hizkuntza nahiz irudiak modu sexista batean ez erabiltzea bai emakumezkoen esperientziak eta kontakizunak kontuan hartzea. Esperientzia ez hegemonikoak erreskatatu eta besteen begietara ikusgarri egin behar ditugu. Esan genezake Lisístratari<sup>43</sup> berea dena itzuli behar diogula, eta aldi berean, Bake hezkuntzaren eta Bakerako ekintzen erro feministak berretsi egin behar ditugula.

Aitzitik, absentziak gogora ekarri nahi ditugunean edo azaleratzei buruzko iruzkinak egin nahi ditugunean, garrantzitsua da ere aztertzea nor ari den absentzia horiek gogora ekartzeko edo azaleratzei buruzko iruzkinak egiten, baita nondik ari den horrelakoak planteatzen. Izan ere, gatazka armatuek ez dituzte soilik pertsonak akabatzen. Aniztasuna ere akabatzen dute, ñabardurak, berezitasunak. Gatazka bitartean, ahalguztidunek, botere-tsu izatera iritsi nahi dutenek, eta horien aliatuek, zuri beltzeko errealitate bat aurkeztera jotzen dute, non ez dagoen lekurik inolako “ekidistantziarako”, ez dagoen lekurik grisetarako (“terrorismoaren aurkako gerran”, “nirekin ez bazaude, nire aurka zaude” esaten zien, funtsean, George Bushen gainerako gobernuei).

Zeintzuk dira testuinguru horietan ikusi ohi ditugun emakume irudiak? Gogora ekar ditza-gun azken albistegiak. Alde batetik, aurpegia estalitako emakumeak, korrika egiten, negarrez, hildako haurra eskuetan dutela, etxearen aurriak arakutzen. Emazteak ikusten

<sup>42</sup> Ikus Boaventura de Sousa Santos-en ekarpenen laburpen bat Magallónen (2006). Argibide gehiagorako, ikus ere Juan José Tamayo (2006) eta Sousa Santos (2003).

<sup>43</sup> Lisistrata Grezia klasikoko Aristofanes antzerkigilearen antzerkian ospetsuena da. Lisistrata (bere izenak “armadak disolbatzen dituen” esan nahi du), Atenasko soldadu baten emaztea da. Atenas, Esparta eta Greziako beste herri batzuen arteko etengabeko gerrez nekaturik, bi alderdietako emakumeak batzen ditu eta sexu greba bat egin dezatela proposatzen die, harik eta beren senarrek bakea sinatzea onartzen duten arte. Emakumeek hauxe zin egin zuten: “ez dut inolako harremanik izango nire senararekin edo nire maitalearekin, nahiz eta egoera tamalgarrian etorri nigan. Nire etxean egongo naiz, azafraizko nire zeta Mena jantzita, eta ez diot utziko txintik ere uki nazan. Eta desira nazan xaxatuko dut. Ez dut amore emanen. Eta berak behartzen banau, izotza bezain hotza izango naiz eta ez dut mugituko. Antzerki saioaren amaieran, gizonak, sexu harremanik ez zutenez, borrokatzeari uztea erabakitzen dute, bakea sinatzen dute eta beren emazteen greba bertan behera geratzen da.

ditugu, amak, alabak senitartekoen argazkiak erakusten hileta elizkizunetan edo omenaldi ekitaldietan. Bestetik, “Espainiako Armada Gizakoieko” emakume soldaduak dakuskigu Iraken, Afganistanen edo edonon; emakume gerrillari bat beste gizonezko gerrillarekin mendian; beste emakume batzuk aurpegia estalita beren testamenua ozenki irakurtzen eta bidez grabatzen, beren buruaz beste egingo dutela iragartzeko; edo manifestazioetan armak eskuetan dituztela besoak altxatzen dituzten emakumeak. Betiko irudia –emakume biktimarena– eta kontraturako irudia –emakume borrokalaria-rena– nahastu egiten dira errealitatearen ikuspuntu zeharo partziala emateko.

“Gerrari ez” esateko, ekintzaile bakezaleak sinplifikazioaren aurka borrokatu behar dira. Egia da emakume asko gatazken biktima zuzenak direla, uste direnak baino askoz gehiago oraindik, baina ezin dugu dena mugatu negarraren irudia erakustera. Jakin behar dugu azaltzen zergatik hiltzen dituzten emakume horiek edo zergatik erasotzen dituzten, eta zeintzuk diren emakumeak borrokan diren alderdien eta horien buruzagien jomugan jartzen dituzten estrategia antolatua. Izan ere, emakumeak hainbat arrazoengatik izan daitezke erailak: amak izateagatik; etsaiaren alabak edo arrebak izateagatik; edo isiltasuna, paralisia edo pasibitatea inposatu nahi duen belduraren logikarako bitarteko izateagatik. Emakumeen gorputzek ere pairatzen dituzte gatazkaren ankerkeriak: bortxaketak, prostituzioa, sexu trafikoa, abortoa, behartutako esterilizazioak... Bizirik irautea lortzen dutenean, sarraski edo garbiketa etnikoko politikak emakume asko behartzen dute errefuxiatu zelai xixtrineta babesa hartzera. Urteak eman behar izaten dituzte zelai horietan, gorabeherak izan ohi dituen nazioarteko laguntzaren menpe, eta ez beti gainerakoen erasoetatik salbu.

Bigarren irudia, eskuan fusila duen emakume armatuarena, zabalkunderako irudi bat baino ez da. Dela beren etsaia krudela eta ankerra dela erakutsi nahi dutenen aldetik (“beitu, beren emakumeek ere hotz hotzean erailtzen dute”), dela emakume horiengan beren borroka goraiatzeko modu bat ikusten dutenen aldetik ere (“beitu, gure borroka hain da bidezkoa ezen gure emakumeak ere prest baitaude horren alde bizitza emateko”). Ere bai balio du bere aurpegiak atseginena erakusteko (ikus ezazue gure armada modernoa, gizakoia, eta berdintasunaren bermatzailea”). Bada, zabalkunde hutsetik haratago joateko, geure buruari galdetu behar diogu zerk behartzen ditu emakumeak gerretan parte hartzera, eta horrez gain, eztabaida piztu behar dugu gerretan parte hartzeak suposatzen dien sakrifizioari buruz, dela soldadu legez, gerrillari legez, informatzaile legez, armagintzako industriako langile legez, edo kultura militaristaren transmisore legez. Horixe da, hain zuzen ere, hurrengo idatz zatian egingo duguna.

Hirugarren irudia ez da hain deigarria, askoz gutxiago erabilia da, eta agian horrexegatik, oso gutxi agertzen da hedabideetan. Bakea eraikitzen duten emakumeen irudia da, beraiek bezain anitzak diren egoeretatik, erakundeetatik nahiz ikuspegietatik konpromisoa hartzen duten emakumeak. Negarraren eta fusilaren artean, aukeraz beteriko mundu oso bat dago. Negarrok, beldurak eta amorrak beste zerbaitetan bilakatzeko balio dezakete emakume “arruntak” elkarrekin batzen badira eta bedur eta amorru horiei indarkeria ezan oinarritutako ereduaren bidez heltzen badiete. Eta fusila baino askoz ere eraldatzaileagoa dela esaten dute beraiek, bitartekoek koherentzia gordetzen dutelako erdietsi nahi diren helburuekin.

Zoritzarrez, betiko legez, esperientzia horietako gutxi batzuk soilik heltzen dira herritarrengana. Horregatik dagokigu guri esperientzia horiek gure errealtatera eramatea Bake hezkuntzaren bidez. Izan ere, ez badugu egiten, negarraren eta fusilaren irudiek guztion oroitzapenean egoten jarraituko dute, eta indarkeriak gatazken ondorio saihestezin moduan eta gatazkei heltzeko alternatiba baliagarri moduan agertzen jarraituko du.

Emakumezkoak aipatuz, alegia, besteen begietara ikusgarri eginez, emakumeek munduan bultzaturiko bake ekimenen esperientziak oinarri har ditzakegu horietatik eduki feministak ateratzeko. Eduki horiek, emakumezkoak azaleratzeaz gain, berrikuspen kritikoa, sentsibilizazioa eta eredu propioen formulazioa planteatzen dute.

### 3.2.2. Indarkeria eta indarkeria darabiltenak desnaturalizatzea eta desmitifikatzea

Aurreiritzi belizistak desegiterakoan oztopo sendo bat aurkitzen dugu, aurretiaz ere aipatu duguna: indarkeriaren naturalizazioa. Ideia horrek itxura ezberdinak izan ditzake. Diziplina ezberdinetatik aztertua izan da, bakerako hezkuntzaren ikuspegia barne. Feminismoak ere bere kritika egin dio, naturalizazioari eginiko kritika orokorragoaren baitan. Estatu espainiarrean, Celia Amorós, Amelia Valcárcel, Rosa Cobo, Ana de Miguel eta beste ikerlari feminista batzuek “misoginia erromantikoa” deritzona dokumentatu eta salatu dute. Joera horrek ezarritako orden naturalean emakumeei gizarte maila baxuago bat atxikitzen dien sexu hierarkia bat ezartzen zen, emakumeen rola, funtsean, arlo pribatura mugatzen zen, birsorkuntzara soilik, hain zuzen<sup>44</sup>.

Esparru bakezaletik beti ohartarazi da indarkeria desnaturalizatzeke beharraz sexuak desnaturalizatuko badira. Magallónek berak gogorarazi egiten digu “emakumeen eta bakearen arteko identifikazioa bi ardatz nagusitan oinarritzen dela: bata, historikoki botere aparatuetatik urrunduta egon izana” (batik bat, gerrari, diplomaziari eta nazioarteko gaiei buruzko erabakiak hartu dituzten botere esparruetatik urrun). “Eta bestea, emakume gehienen amatasun esperientzia (hor azpian ageri den ideia da emakumeak, bizitza emale izateagatik, berez, gizonak baino baketsuagoak direla). Baina “emakumeen eta bakearen arteko lotura sinbolikoa egiteaz batera, bai emakumeak bai bakea politikatik baztertuak izan ziren<sup>45</sup>”. Antzeko fenomeno bat salatu dute ekofeministek. Horien iritziz, emakumeak naturarekin lotzean biak mendean hartzeko bidea ireki da<sup>46</sup>. Horregatik, biziki garrantzitsua da emakume baketsu/gizon liskartsu binomioa salatzea, estereotipoak berresteko eta genero bataren zein bestearen eraldatze gaitasuna ezeztatzeke baino ez baitu balio.

Indarkeria desnaturalizatzeke saiakerak ere, nahitaez heroiak desmitifikatzea eskatzen du, heroiak beren idulkietatik jaitziaztea, eta Virginia Woolfek inork baino hobeto azaltzen du *Tres Guineas* liburuan: “mende hauetan guztietan, emakumeak botere magikodun izpilu gozoak izan dira, non gizonen silueta tamaina naturalaren bikoitzean islatu duten. Botere hori barik (...), gure gerretako loriak ezezagunak izango lirateke, izpiluak ezinbes-

<sup>44</sup> Ikus, adibidez, Amelia Valcárcel (2004); Celia Amorós eta Ana de Miguel, *Argitaratzaileak*. (2005).

<sup>45</sup> Carmen Magallón (2006), 208. or.

<sup>46</sup> Ikus, adibidez, *Mujeres y Ecología*, María Luisa Cavanarena eta Alicia Puleorena (2004), edo *Filosofías ecofeministas*, Karen Warrenena (2003).



tekoak baitira indarkeriazko ekintza edo ekintza heroiko ororako<sup>47</sup>”. Emakumeak gerraren eta indarkeria darabiltenen loriaren bozgorailu ez izateko aldarri zuzen hori Beltzez Jantzitako Emakumeek errepikatu zuten modu umoretsu batean, urte gutxi batzuk direla. Emakume horiek monumentu bat egin zieten Balkanetako gerretako iheslariei, kultura belizista salatzeke eta oraindik ere herrialde horietan nagusi den zigorgabetasuna salatzeko; izan ere, gerrako kriminalak heroi militar bilakatzen dira eta baliteke benetako heroiak ez izatea herritarrek heroiizat hartzen dituzten horiek, baizik eta gerrara joateari eta gerrari babes emateari uko egin zieten haiek, alegia, “traidoretzat” hartutako haiek.

### 3.2.3. Nortasuna eta atxikimendua: ez inposaturiko nortasunari

“Emakumeak eta bakearen eraikuntzari<sup>48</sup>” buruz 2000. urtean egin genuen bideo batean, Anna Ricartek, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Bake Kulturaren Eskolako ikasleak, hauxe galdetu zuen: “Zer gertatzen da nortasun bat ezin denean bakarrik dimentsio batekin definitu? Nire kasuan, neure nortasuna definitzeko, lehenik eta behin esan beharko nuke emakume naizela, katalana, zuria, eta mendebaldekoa. Eta dimentsio horien artean kostatzen egiten zait lehentasuna zeini eman erabakitzea. Unearen arabera, bata bestea baino garrantzi handiagoa izango du. Interesatuko litzaidakeena da jakitea zer ezberdintasun dagoen ni indibidualki zer naizen sentitzen dudaren artean eta, talde moduan, talde batek senti dezakeenaren eta besteek nola ikusten dutenaren artean. Nortasuna ez da gauza bakar bat bakarrik. Beste gauza askok osatzen dute. Eta gutako bakoitzak, lehendabizi, entzuten ditugun diskurtsoak desegin beharko litzuzke geure izatearekin eta ikuspegiarekin bat datozen ala ez ikusteko, eta, ondoren, berriro ere geure subjektibotasunetik abiatuta eraiki, beti ere onartuz besteak ezberdinak direla, bai indibidualki bai kolektiboki”.

Inposatutako nortasunei “ez” esatea, nortasun naturalizatuei “ez” esatea, betidanik izan da mugimendu feministaren kezka nagusietako bat. Bestalde, bakerako ikerketak beti ohartarazi du nortasun gatazken berpizteaz, batez ere Berlingo hesia jausi zenetik hona. Chantal Mouffek adierazten duenean ez dagoela nortasun esentzialistarik, eta emakumeoi inguru anitz eta kontraesankorraren ideia aplikatzen digunean (berak “gertakarien menpe dagoen nortasun nomadaz” hitz egiten du<sup>49</sup>) gure nortasunaren eraketa edo gure nortasun anitzen eraketa zeharkatzen duten botere harremani buruz ari da. Beste horrenbeste egiten du Amin Maloufek “nortasun hiltzaileen<sup>50</sup>” arriskuaz ohartarazten digunean. Gai hori Bake hezkuntzako eta Garapeneko programen beste ardatzetako bat da; izan ere, lankidetzat egitasmoak garatzen ari diren lurralde askotan, aldarrikatutako kultur nortasuna kontraesanean sartzen da inposaturiko nortasun hegemonikoekin. Eta konponbidea, nahitaez, norbera bere burua nahi duen bezala definitzea ahalbidetuko duen boteretzea prozesuak indartzetik pasatzen da. “Emakume zein gizonentzat, dio Magallónnek, bakea defendatzea aukera bat da... nortasun gatazkaren ortzean markaturikoa: inposatutako nortasunetik atsegin ez duguna kritikatu behar dugu, eta positiboan jarri garena eta izan nahi duguna<sup>51</sup>”.

<sup>47</sup> Magallónen aipatua (2006), 215. or.

<sup>48</sup> Bideoa UNESCO Etxean prestatu zen, Euskal Herriko UNESCO zentroan, Bilboko egoitzan. [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)

<sup>49</sup> Magallónen aipatua (2006), 220. or.

<sup>50</sup> Amin Malouf (2004), *Identidades Asesinas*.

<sup>51</sup> Magallón (2006), 230. or.

Nortasunarekin oso loturik dagoen kontzeptu bat atxikimenduarena da. Giza Segur-  
tasunaren definizio ezberdinei buruzko eztabaidetan benetako segurtasun bat osatuko  
luketen funtsezko eskubide eta askatasunen hainbat kategoria proposatu dira, ez Es-  
tatuena, baizik eta Estatu horietako herritarrena<sup>52</sup>.

Aitzitik, normalean ez dira berariaz aipatzen zuzenbidea, edo esate baterako, erkidego  
nazional edo etniko batekiko atxikimendu beharrizana (“belonging”). Atxikimendua hiri-  
tartasunetik haratago doa. Ez da soilik “zerbaiten parte” izatea, eskubideak eta erantz-  
kizunak izatea. Zerikusirik du erkidego batekoa izateak eragiten dituen emozioekin ere  
bai. Esan liteke atxikimendua giza beharrizan sakonetakoa dela, haurtzarotik adierazia:  
zerbaiten parte izateko beharra daukagu, lagun baten edo gehiagoren adiskidantza izan,  
nahiz eta bizitzan zehar aldatuz joan daitezkeen, eta baita ere gure jatorrizko erkidegotik  
edo erkidegoetatik banatzeko beldur gara.

Yuval-Davisek adierazten duenez, atxikimenduan emozioen soziologiak eta boterearen  
soziologiak bat egiten dute. Eta, eraikuntza hegemoniko guztiekin gertatu antzera, natu-  
ralizatzeko joera dago, eta horrenbestez, ikustezi bilakatzeko. Normalean, jatorrizko tal-  
dearekiko konexioa mehatxaturik ez dagoen bitartean, atxikimendu sentimendua ez da  
politizatuko, eta ustezko babes hesiak eraiki ahal izango dira “mehatxaturiko” erkidego-  
aren inguruan. Azken batean, ikusten duguna da giza segurtasunaren eta atxikimendua-  
ren arteko harremanak genero kutsu nabariaz blaiturik daudela hainbat ikuspegitatik.

Historian zehar, “erkidegoa” benetako edo asmatutako mehatxuetatik babestea izan da  
gizon gehien (ia beti gizonak) borrokatzera eta heriotzera eraman dituen. Gizon defen-  
datzaileen aurrean, emakumeek bestelako rola hartu dituzte beren gain, jatorrizko erki-  
degoaren arabera. Erkidego horietako kide diren arren, gizonak bezalaxe, normalean ez  
zaizkie aplikatzen gizonen aplikatzen zaizkien araudiak, eta eskatzen zaizkien jarrerak ere  
bestelakoak dira. Horrek zerikusia dauka beren egoera paradoxiakoarekin, aldi berean  
erkidego “barruan” eta erkidegotik “kanpo” baitaude. Esan nahi baita, erkidegoaren  
barruan, emakumeak aldi berean direla atxikimenduaren sinbolo eta “besteak”. Sinbolo  
legez duten egitekoan, emakumeek erkidegoko kideen ohorea islatzen dute (gizonak  
“beren” emakumeen ohorea defendatzera ateratzen dira, benetan edo sinbolikoki meha-  
txatua “etsaiaren” partetik. Gogora dezagun, gatazketan emakumeak bortxatzen direne-  
an emakume horiek “babesten” jakin ez duten gizonen ohorea umiliatzeko egiten dela).  
Era berean, erkidegoak berak kultura eta tradizioa jartzen ditu aitzakia modura “beren”  
emakumeen gainean kontrol forma ezberdinak garatzen jarraitzeko, izan ere –sinbolo  
diren heinean– ez dira taldearen arau hegemonikotik aldendu behar.

Atxikimenduaren izaera generizatuaz ohartarazteaz gain –emakumeak erkidegoaren sin-  
bolo dira eta aldi berean balizko traidore izan daitezke, eta horrek beren izatearen gatibu  
egiten ditu- analisi feministak argi eta garbi utzi du emakumeen segurtasunerako arrisku-  
rik handienetakoa ez datorrela kanpotik, sinestarazi egin nahi zaigun bezala, baizik eta  
barruan dagoela: sarritan, mehatxua atxikimendu loturak dituen taldetik bertatik dator-  
kio, beraingandik gertuen daudenak baitira jarrera bortitzenak agertu ohi dituztenak.

---

<sup>52</sup> Ikus eztabaida horren laburpena Nira Yuval-Davis-en “*Human security*” and the Gendered Politics of Belonging.

Laburbilduz; emakumeentzako arrisku fisikoa, atxikimendu talde nagusiaren barrutik zein kanpotik etorria, ez da gehiegi aipatu izan den gai bat orain gutxi arte, eta aipatu denean segurtasunari eta bakeari buruzko eztabaidetan aipatu izan da. Edonola ere, emakumeen segurtasun pertsonala areagotzeko eskariek arreta gehiago jasotzen dute gizarte harremanak errotik aldatu eta patriarkatua desegiteko feministen eskari globalek baino.

### 3.2.4. Gu, emakumezkoak, besteak: barnean dugun etsaia deuseztea

Unitate didaktikoetako batean, gogora ekartzen digute gerra bat aurrera eramateko ezinbesteko baldintza dela “bestea” aurkari izatetik etsai izatera pasatzea; izan ere, etsairik gabe, gerrak ez luke zentzurik. Aurkari batekin hitz egin daiteke, negoziatu, eztabaidatu, amore eman, akordioetara iritsi, etab. Etsaiarekin, ordea, hitza ahaztu egiten dugu zuzenean armak hartzeko, deabru bilakatutako “beste” horren aurka balio duten bakarrak (izan ere, nork nahiko luke deabruarekin hitz egin?). Etsai bat ez duzu konbentzitzen, garaitu egiten duzu, geure baldintzak inposatzen dizkiogu. Aldiz, sistemak borrokarako pizgarri moduan funtziona dezan, pertsonak hiltzeko eta hilik suertatzeko pizgarri moduan funtziona dezan, etsaiaren irudiak oso sendoa behar du izan, eta ahal denik eta monolitikoena. Horrenbestez, egoera batera heltzen da non “beste edozein” den etsaia, eta “bestea” atsegin ez ditugun ezaugarriak dituen pertsona edo taldea legez definitzen den, gailendu nahi den nortasun nagusiarekin bateragarria ez dena (ez da nire taldekoa, “beste” bat da, hortaz etsaia da). Talde horretan sartzen da baita, nortasun nagusiaren ezaugarriak izanik (adibidez, serbiarra da, ni bezala) etsaiaren eraketan parte hartu nahi ez duena eta taldeak bilatzen dituen helburuak partekatzen ez dituen. Pertsona horiek “beste” taldeko kideak izatera pasatzen dira, etsaiaren taldera, astungarri batekin: traidoretzat hartuak dira (adibidez, arraza).

Eta, hain zuzen ere, traidoretzat hartuak izatea da Beltzez Jantzitako Emakume ekintzaileak gehien harrotzen dituen: Belgraden, adibidez, Stasa Zajovicek eta bere kideek beti izan dute argi besteak kritikatu eta sinesgarri suertatzeko, lehendabizi “beraienak” kritikatzeko ausartu behar zirela, kasu honetan hautesontzietan aukeratutako serbiar erregimena, bere politikak eta helburu belizistak salatuz. Jarrera kritiko horrek mota guztietako arazoak ekarri dizkie: polizia fitxaketak, jazarpena, irainak, etab. Esaten zieten irainen artean, suabeena “traidoreak” zen, gehienetan “urdangak” edo “kosovotarren emagalduek” esaten baitzieten.

Horrek “bestea-etsaia” asoziazioaren beste ezaugarrietako bat ezagutzera garamatza: “bestea” emakumezko egiten da, objektu sexuduna (emakumezkoa) bilakatzen da, alegia, sexu objektu bilakatzen da. Horrela ospe ona kendu nahi zaio, izen ona. Bestea gizona bada, umiliatzea bilatzen da, izan ere, benetako gizona, ez da ez emakume ez “maritxu”. Betiko legeaz, helburua desboteretzea da (sinbolikoki nahiz benetan), hain zuzen ere, “bestearen” botereaz jabetzeko. Denok gogoratzen ditugu oraindik Abu Graibeko espetxeko argazkiak. Argazki haietan Lynn England soldadua ikusten zen preso irakiarrek biluzik paseatzen lokarri batekin helduta, edo irribarre batez agur egiten gizon biluziez pilaturiko meta lizun baten ondoan (animalien pare jarritako gizonak, homosexual promiskuoak, izaki bortxagarriak, alegia, emakumeak). Irudi haiek harritu gintuzten argazkietan ageri zena emakumea zelako (gainerako soldaduek gizonak ziren). Baina irudiok aski adieraz-

garriak dira baita militarismoak sinbologia matxista nola aplikatzen duen ikusteko, eta batez ere, tentsio garaietan nola areagotzen den ikusteko.

Etsai bat sortzeko, ordea, zioak bilatu behar dira. Herrialde batek ere ez du bere burua erasotzailetzat jotzen; herri bat, talde armatu bat, beti ari da “bere burua eta bere erkideak kanpotik datozen erasoetatik defendatzen”, eta orain ez badago horrelako erasorik beti ekarriko ditu gogora aintzinako erasoak, erkidegoan etsai arriskutsu baten irudia sortzeko, etengabeko mehatxuaren ideia zabaltzeko.

### **3.2.5. Bizitzaren jasangarritasunaren logika: zaintzaren etikaren birbalarazio eta unibertsalizazio baterantz**

Feminismoaren kritika nagusietako bat Anna Boschek, Cristina Carrascok eta Elena Grauk “metaketa ekonomikoaren logika” deritzotena da. Logika horrek esfera pribatura eta ezkutuko ekonomiara mugatzen ditu “bizitzaren jasangarritasunerako”<sup>53</sup> eta gizarte sareak eratzeko ezinbestekoak diren jarduera guztiak. Kontuan izanik historikoki zaintzarekin eta bizitzaren jasangarritasunarekin zerikusia duten ardurak –merkatuak askietsi ezin dituen giza beharrianak asetzen dituztenak– gizartetik baztertutako taldeei atxiki izan zaiela, batez ere emakumeei, horrek suposatzen du emakumeak egoera bereziki ahulean daudela eta, hortaz, segurtasunik gabeko egoeran daudela.

Bestalde, seme alabak izaten dituztenean beren gain hartzen dituzten ardurek, kostu handia suposatzen die lan egiteko aukerei dagokienez, bai ordaindutako lanpostu bati uko egin behar diotelako bai askoz oztopo gehiago dituztelako enplegu bat aurkitzeko, enpleguari eusteko edo enpleguan sustatua izateko. Ordaindu beharreko prezioa garestia da: autonomia ekonomiko falta, eta baztertua izateko aukera handiagoak, bai orain bai etorkizunean.

Ezberdintasunak ezberdintasun –afrikar emakume nekazari baten esperientzia ez da europear emakume irakasle baten berdina– eginbeharren eta rolen arteko banaketa ezarri da, gizarte tradizionaletan “biziki bete beharrekoa” eta gizarte liberaletan<sup>54</sup> “ez hain biziki bete beharrekoa”.

Errealitate horren aurrean, feministek hauxe eskatzen dute: a) aintzat hartu dadila emakumeek gizartearen aberastasunari egiten dioten ekarpena ordainsaririk jaso gabe egiten duten lanarengatik; b) zaintza lana aukerako lana izan dadila emakumeentzat, ez derrigorrekoa; eta c) seme alabak zaintzeko, elikatzeko eta hezteko lana unibertsalizatu dadila, hau da, gizonek arlo horretan duten erantzukizuna onar dezatela eta esfera publikotik esfera pribaturako bidaia egin dezatela, munduko hainbat tokitan esparru publikoan nahiz ekoizpen esparruan erantzukizun handiagoak hartu dituzten emakumeek eginiko bidaiaren alderantzizko bidaia eginez.

Gai hori bereziki interesatzen zaigu bi arrazoiengatik. Lehenengoa, “zaintzaren etika” ize-  
nez ezagututakoan emakumeek pilatutako eskarmentu zehatzarengatik, izan ere, horrek

<sup>53</sup> Anna Bosch, Cristina Carrasco eta Elena Grau (2003).

<sup>54</sup> Julia Annas (1996), Magallónen aipatua (2006), 267-68. or.

azalduko luke bakea eraikitzeak eta bakea zaintzeak hainbesteko interesa piztu izana emakume ekintzaile askoren artean. Hala eta guztiz ere, etika hori eztabaidagune ere izan da aldi berean, eta horrek ekintzaile asko mugimendu bakezaletik urruntzea ekarri du. Bigarren arrazoia da Bake hezkuntzarako proposamen feminista nagusiek zaintzaren etika balorean jarri eta hedatzeko beharra azpimarratzen dutela<sup>55</sup>. Azter ditzagun, bada, bi puntu horiek.

Deigarria izaten da zenbat emakume taldek adierazten duen ama izateak bultzatu zituela ekintzara, alegia, talde moduan antolatuzera, bai bakearen esparruan bai ingurumenaren zaintzan edo beste hainbat esparrutan. Batzutan, elkartearen izen berean antzematen da motibazio hori: “Maiatzako Plazako Amak” Argentinan; “San Petersburgeko soldaduen amak” Errusian; El Salvador-eko “COMADREK”<sup>56</sup>; energia nuklearraren aurkako amen taldeak, drogen aurkako amak, etab. Baina, izenburuan zehatz mehatz adierazten ez bada ere, “ama pentsakera” ageri da leloetan: “Ez ditugu erditzen seme alabak gerrarako” oihukatzen zuten Emakumeen Erakunde Herritarreko emakume ekintzaileak Barranca-bermejan (Kolonbia), urte batzuk direla antolatutako nazioarteko martxan eta estrategia ekintzetan: asko erabili da amatasunaren sinbologia etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jartzen direla salatuz; adibidez, protesta jendetsuetan haurren arropak eta pisohialak eskegiz instalazio militar eta nuklearren hesietatik<sup>57</sup>.

Mugimendu feministaren zati bat, ordea, ez dator bat amaren rolag egiten den erabilpenarekin eta aldarrikapenarekin, izan ere, beldur da emakumeen xede biologikoa (ama izatea) sendotzeko besterik ez ote duen balioko gizonen birsorkuntzan beren gain hartu beharko litzuketean erantzukizunen kaltetan. Uste dute emakumeen menpekotasuna areagotzen duela, gizartean duen papera zaintza lanetara murriztuz. Patriarkatuari mesede egiten dion jokabide bat bezala ikusten dute, emakume bakezaleek patriarkatuaren alde txarrenetako bat erosoago eramaten laguntzen baitute (nahi gabe), alegia, militarismoa (ekofeministak sistema ekonomiko kutsatzailearen aurpegia garbitzen leudekeen bezalaxe). Eta, gainera, ez dute aurrerapausorik lortzen jazarpen matxistaren aurkako askapen borrokan. Azkenik, alegatzen dute ikuspegi hori monolitikoa dela: ama izateak ez du bermatzen indarkeriaezarekiko konpromisoa, edo “beste aldeko” amei eskua luzatzea.

Eta, azken puntu horri dagokionez, argi dago ez dutela arrazoirik falta. Baina, lerro bakezaleetatik eman ohi den erantzuna da, gustatu ala ez, ama pentsakera oso motibazio sendoa dela mendebaldean eta, batez ere, Hegoaldeko herrialdeetan, eta, gainera, mobilizatorako ahalmen ikaragarria daukala, horrek emakumeen kausak aurrera egin dezala eragiten duelarik. Emakumeek gerren amaiera eskatzen dute, baina hori eskatzeaz batera militarismoaren zergatiak eta ondorioak ere aztertzen dituzte, eta hori zeharo loturik dago generoarekin.

<sup>55</sup> Gai horri buruz, ikus Irene Cominsek *La ética del cuidado como Educación para la Paz* (2006) izeneko doktorego tesian egindako proposamena. Eskuragarri: [www.tdx.cesca.es/TDX-0223106-115339/](http://www.tdx.cesca.es/TDX-0223106-115339/). Ingeleseaz, ikus Irene Comins (2009).

<sup>56</sup> Argibide gehiagorako ikus COMADRES: [www.comadres.org](http://www.comadres.org)

<sup>57</sup> Greenham Common-eko emakume zelaia antolatu zuten emakume bakezaleek egin zuten hori, adibidez, 1981ean, Ingalaterrako base militar estatubatuar baten inguruetan. Zelaia bertan mantendu zen 15 urte baino gehiago, eta guztion oroitzapenean dago Europako borroka feminista antinuklearraren gertakariarik ezgunenetako bat bezala. Ikus Magallón (2006), 60-66. orr.; Sasha Roseneil (1995) eta Beth Júnior (1995).

Gainera, antolaketa prozesuak berak boteretzearako bidea irekitzen die eta beste motibazio mota batzuetarako atea.

Ama pentsakeraren teoria<sup>58</sup> Sara Ruddicken idatzietatik sortzen da, Sandra Harding-en “ikuspegiaren feminismoan” oinarritzen dena (“standpoint feminism” ingelesez). Ikertzaille horrek adierazten duenez, ezagutza mota oro nonbaiten kokatzen da, eta emakumeen esperientzian kokatzen den erreferentzia sistema pribilegiatua da mundu naturalaren eta mundu sozialaren ezagutza sakonago bat ematen digun ikuspegi bat ahalbidetzen digulako. Marxismoaren pentsakeratik eratorritako teoria bat da, alegia, zapalduak bi ikuspegi garatzen dituztela: zapaltzailearen ikuspegia ezagutzen dute, eta beren ikuspegi propioa garatzen dute. Zapalduetako talde baten ikuspegia ez litzakete hain gaiztoa izango, osoagoa izango litzateke. Sara Ruddick-ek premisa hori erabiltzen du amen “pribilegio epistemologikoaz” hitz egiteko eta planteatzeko “bakea lortzeko bidea (...) amatasun biologikoa baino, “maternaje” dela benetan kontatzen duena<sup>59</sup>”. “Maternaje” hitza emakume latinamerikarregandik hartu du, eta bere esanahia da bizitzaren zaintzari denbora ematea. Bai lehenengoa bai bigarrena aukerakoak dira, eta bigarrena aitek ere goza dezakete, edota seme alabarik ez duten gizonek zein emakumeek, bizitzaren zaintza ez baitatza bakarrik seme alabak zaintzean.

Edozein kasutan, emakumeei derrigorrez zaintza lanak atxikitzea, beren izaeran eragiten du, baita bizitzari aurre egiten dioten moduan ere, eta, besteak beste, bizitzaren ahuldade kontzeptua hobeto ulertzera garamatza. *Público*<sup>60</sup> egunkariaren editorial batean, A Gripearean pandemiak bete betean jotzen zuenean, Carmen Magallónnek erronka moduan planteatzen zigun “ahuldadeaz jabetzea”. Krisi horren ildotik, bide batez, onerako zein txarrerako, estu estu elkarkonektaturiko mundu batean bizi garela gogoratu diguna, Carmenek azpimarratzen du “ahuldadea ez dela unean uneko kontu bat, baizik eta gizakiaren ezaugarri bat dela, zeinetik ondorioak atera ditzakegun bai bizitzarako bai politika publikoetarako, eta batez ere, indarkeriei eta nazioarteko gatazkei aurre egiteko”.

“Pax romana” delakoa defendatzea izan da beti politika hegemonikoaren zeinu nagusia, eta horrekin berarekin eraman du beti garaitezintasunaren aldeko kultura (geure burua defendatzen dakigu, garaitezinak gara). Uste hori, ordea, Dorre Bikien aurka zanpatu zen, eta mundua errealtate latzera itzuli zen: inor ez da garaitezina. AEBek zirenak eta ez zirenak egin zituzten galdutako superpotentziaren irudia berreskuratzeko, giza bizitza ugari galduz eta galduaraziz (estatu batuarrenak eta beste herrialdeetakoena) eta giza eskubide asko urratuz egin bazuen ere, Guantanamoetik hasi eta Abú Graiberaino.

Garaitezin sentitzea eta garaitezintasuna bilatzea gizonezkoen kodea da. Gizon bezala gizarteratzeko prozesuan, mutil gazteak behin eta berriz desafiatuak dira mugak gainditzeko, arrisku jokabideak hartzeko. Jokabide horiek ahuldadearen ezeztapena baino ez dira, argi eta garbi emakumezkoetanekin lotzen dena (“ez hadi kakati zan”).

<sup>58</sup> Azalpen hori Birgit Brock-Utnek (1985) eta Carmen Magallónnek eginiko interpretazioan (2006) oinarritzen dugu. Ikus ere Sara Ruddicken *Maternal thinking: Toward a Politics of Peace* (1989).

<sup>59</sup> Magallón (2006), 231. or.

<sup>60</sup> Magallón, Carmen, 2009: “Asumir la vulnerabilidad”. Non: *Público*, maiatzaren 3koa, 6. or.

Aldiz, Carmen Magallónek gogoratzen digu “ahuldadea ezeztatzen ez duen eta bere egiten duen pentsamoldea haurrak eta gaixoak zaintzeko esperientziatik sortzen dela, historikoki emakumei atxiki zaizkien eginbeharrak”. Eta, emakumezkoen esperientzia historikoak gutxietsirik dauden bitartean, diosku, edozein lider politikori zail egingo zaio ahula dela onartzea gutxietsia izan gabe, “belatzen” ustezko jarrera ausarten aurrean “biguna” eman gabe. Baina, zertan antzematen da ausardia? “Ahuldadea modu koherentean onartzeak indar itzela erakusten du”, ondorioztatzen du Magallónek. Noski, lider gutxi du oraindik koherentzia hori. Eta besteoi kosta egiten zaigu ulertzea ahulezia bilatzeak amildegira eraman bagaitzake gure ahulezia onartzeak “beste mota bateko jarrerak eta politikak bilatzea ahalbidetzen digula, besteak mendean hartzera zuzenduta ez daudenak, baizik eta lankidetzara eta elkarri laguntzera”, Bake hezkuntzaren oinarriko balore bi.

Proposamena, beraz, “maternajearen” baloreak eta praktika unibersalizatzea da, besteak beste, “gizaki batek beste gizaki baten mina ulertzea” ziurtatzen duten enpatiak garatzeko<sup>61</sup>. Gizonak esparru horretan duten erantzukizuna onartzen badute, emakumeek ez diete uko egin beharko printzipio feministei (maitatzea, maitasunez zaintzea, emozioak erakustea, etab.). Eta printzipio feministei diogu, ez emakumezkoen printzipioei. Bake kultura bat eraikitze aldera, printzipio horiek birsorkuntza rolaren alderdi positiboek uko egitea eta berdinatsun eredu zurrunezi bat beste barik onartzea baino emankorragoak dira. Puntu horretan, berriro ere Virginia Woolfekin egiten dugu topo. *Tres Guineas* izeneko liburuan jada, arbuia egiten zuen gizarte aurrerapenak lortzeko estrategian emakumeek gizonen muduarekiko jarrera mimetikoak agertzea, eta iradokitzen zien beren sormena gara zezatela eta praktikan jar zezatela ezberdintasuna: “gerra saihesten laguntzeko modurik onena ez da beren hitzak errepikatzea eta beren metodoak jarraitzea (gizonenak), baizik eta hitz berriak aurkitzea eta eredu berriak sortzea<sup>62</sup>.”

### 3.2.6. Emakume soldaduak, emakume gerrillariak: ¿posible al da sexismoaren aurka borrokatzea militarismotik?

Berdintasunaren feminismoaren eta ezberdintasunaren feminismoaren arteko eztabaida ugarien beste aldaera bat hauxe da: emakumeek parte hartze aktiborik izan behar duten ala ez gerrarako ahaleginean, adibidez indar armatuetan soldadu sartuz edo bestelako talde armatuetan sartuz, gerrillak kasu. Eztabaidak, noski, bere garrantzia du Bake hezkuntzako programak egituratzeko; alde batetik, jarrera zeharo ezberdinen aurrean egon gaitzezkeelako eta horiei aurre egiten jakin beharko dugulako, eta bestetik, arduradun militarrek emakumezko batzuen nahiak baliatzen ari direlako betikoen onurarako.

Emakumeek armak hartzea erabakitzen dutenean, ez dute egiten, ez horixe, premia ekonomikoarengatik, behartuta edo desinformazioak manipulaturik baizik. Har dezagun armadako emakumeen adibidea. Mugimendu feministaren zati batek defendatzen du eskubide osoa dutela armadan sartzeko, baina berdintasun baldintzetan, beste edozein erakundetan bezalaxe. Feminista horien ustez, erakundearen irudia aldatzen lagun dezakete, baita emakumearen subjektu pasiboaren irudia ere, izan ere, erakutsiko dute gai

<sup>61</sup> Ibid, 199. or.

<sup>62</sup> Magallónen aipatua (2006), 216. or.

direla beren burua defendatzeko gizonen menpe erabat egon gabe. Iritzi horren aurka, beste feminista batzuek uste dute emakumeek ez dutela armadan parte hartu behar, erakunde sexista baita, ikuspegi zanpatzaile eta patriarkala defendatzen duena. Armadan emakumeak gizonen laguntzaile soil bilakatzen dira, eta ez dago erakunde sakonean eraberritzaile. Gainera, badago emakumearen irudi biktimista aldatzea balore militaristei men egin gabe.

Borroka armatuari buruzko eztabaida feministak ere oso garrantzitsuak dira, eta oraindik ere askoren ahotan daude munduko toki ezberdinetan. Emakume gerrillariak –eta horien borrokekin identifikatzen diren emakumeak– argudiatzen dute beren ereduak eragin emantzipatzailea duela eta kantinera edo erizain moduan aritzen direnean ere, eraikitzen ari diren egitasmo kolektiboa etxe giroko eginbehar horiek gainditu eta haratago doala. Erabateko emantzipazioa iraultzaren bidez etorriko da –edo nazio askapenarekin– eta, gerra ostean, emakumeek erantzukizuneko postuak lortuko dituzte eta nahi dituzten aurrerapen politikoak eta sozialak eskuratuko dituzte. “Amets hutsa!” erantzuten diete beste feminista batzuek: askapen ejerzitoetan emakumeak ez daude baztertuak izateko aukeraz salbuetsita, eta ejerzito horietan sexu dinamika oso tradizionalak dira indarrean. Emakume gerrillarien irudiak kalashnikova aldean eta umea besoetan duela, ideal patriarkala eta militaristak zabaltzeko besterik ez du balio. Emakumeak aginte postuetara heltzen badira berehalako premia militar batengatik da, ez ideal emantzipatzaileengatik, izan ere, horiek, beti bezala, “azken garaipenaren” menpe geratzen dira. Gatazkaren ondorioz rol berriak onartu badira ere, eta rol horiek gerra ostean aurrerapenak ekarri badituzte ere, egia da baita feministen lehenetsunak eraikuntza nazionalaren bigarren plano batera pasa direla beti. Latinamerikako zenbait herrialderen esperientziak erakusten du azkenean emakume askok “sukaldera bueltatu behar duela” beren enplegua eta erantzukizun publikoak desmobilizatutako gizonen izateko. Bake akordioak sinatzeko negoziatutako baldintzetan ez dira kontuan hartzen gatazkan borrokatu diren emakumeen beharrik eta horien seme alabenak. El Salvadorren, adibidez, han bizitako prozesuarekin atsekabetutako emakumezko gerrillari ohiek *Las Dignas* elkarte feminista eratu zuten beren esperientzia biltzeko eta beren aldarrikapenetan aurrera egiteko.

Bien bitartean, badirudi armada profesionaletako agintari politikoak eta buruzagi militarrek berdintasunaren aitzindari bihurtu direla, errekruta faltaz kezkatuta emakume soldaduak errekrutatzen iragarkiak botatzen baitituzte telebistaz: “Militar izateak ez dizu emakume izatea galarazten. Indar Armatuetan berdintasuna errealitate bat da zu bezalako 15.000 emakumerentzat. Soldata eta aukera berdintasuna, ama izatea... eta militar izatea galarazten ez dizun berdintasuna. Indar Armatuak: zuk nahi duzun aldaketa<sup>63</sup>.” Hori da mezua. Sexu jazarpena jasan duten edo bortxatuak izan diren emakume militarrek kontakturiko errealitatea, ordea, oso bestelakoa da<sup>64</sup>.

<sup>63</sup> Espainiako Indar Armaturen telebista iragarkia. Youtuben eskuragarri: [www.youtube.com/watch?v=URB9Anoael8](http://www.youtube.com/watch?v=URB9Anoael8). Espainiako Armadaren aukera berdintasunari buruzko beste iragarki eredu garri bat hemen dago eskuragarri: [www.youtube.com/watch?v=gusUob9y07A](http://www.youtube.com/watch?v=gusUob9y07A)

<sup>64</sup> Gasteizko kolektibo antimilitaristak “Armada gizakoiak” eta indarkeria sexista militarren buruzko azterketa sakon bat argitaratu du 2008an. Kasko urdinen burututako gehiegikeriak eta sexu abusuek salatzen ditu eta buruzagi militarrek emandako erantzun urria. Aurkezten du baita matxismoaren errealitate latza kultura militarrean.



## Bake hezkuntza femoinista baterako sareak eta batasunak

Testuinguru ezberdinetara egoki daitezkeen zenbait eduki planteatu ondoren, agerikoa dena azpimarratzea besterik ez zaigu geratzen: Garapenerako Hezkuntza proposamen feminista eta bakezale bat Iparraldeko eta Hegoaldeko erakunde feministetan oinarritu behar da, baita GGKEtan ere.

Dagoeneko bide luzea egin da. Iparraldean zein Hegoaldean, ikerketa feministek hainbat ekarpen egin dute ekintzaile bakezaleek gatazkatik, militarismotik eta indarkeriaren kuturatik eratorritako esperientziak garatzeko eta bultzatzeko. Adibide moduan emakume bakezaleek sorturiko Iparralde Hegoalde batasunak aipa daitezke, nazioarteko sareen itzalpean sortutakoak (Bakerako Emakumeen Nazioarteko Liga, Beltzez Jantzitako Emakumeen Sarea, Gerrarekiko Erresistenteen Nazioarteko Erakundea, edo Bakearen eta Berradiskidetzaren Aldeko Nazioarteko Mugimendua. Esparru metodologikoan, berriz, Hezkuntza herritarren eta Hezkuntzaketaren<sup>65</sup> ekarpen gurutzatuek lan tresna onak eskaintzen dituzte aurreiritzi sexistak azaleratzeko, ezkutuko curriculumari heltzeko eta baloreen aldaketan lan egiteko.

## 4. Baliabide gida

Ez da erraza Interneten generoaren eta Bake hezkuntzaren gaiari buruzko materiala aurkitzea. Eta aurkitzen dena ingelesez dago, gehienbat bakeari eta gatazkei buruz eginitako ikerketa feministekin lotua. Bestalde, badira Bake hezkuntzari buruzko baliabide baliagarriak eskaintzen dituzten beste esparru batzuk, baina esparru horietan genero ikuspegia ez da berariaz edo modu sistematikoan integratzen. Aldiz, geure ikuspegitik begiratura, atal honetan jorratu ditugun alderdi asko mundu osoko militantzia feministaren eta antimilitaristaren material eta dokumentazioarekin landu daiteke. Gida labur honetan, erreferentzia batzuk bakarrik azpimarratu nahi ditugu, bibliografia nagusian jaso diren zenbait liburu edo dokumentuetatik hasita. Baina, erreferentziok, bereziki baliagarriak iruditzen zaizkigu sexismoak militarismoan duen papera aztertzeke eta emakumeek gatazketan duten papera aztertzeke, dela biktima gisa, indarkeria eragile gisa edota bake eraikitzaile gisa. Erreferentzia horiez gain, beste erreferentzia batzuk ere jaso ditugu: literatur arlokoak, ikus entzunezkoak eta Interneteko hainbat webgune, besteak beste, genero ikuspegia bake hezkuntzan integra lezakeen –integratu beharko lukeen- curriculumaren hainbat alderdi jasotzen dituztenak.

<sup>65</sup> Indarrean dugun eskola ereduak estereotipo sexistak birsortzen eta transmititzen ditu. Hori horrela izanik, hezikidetzako esperientziak beren bidea egin dute azken urteotan, heziketa jasotzeko aukera berdintasuna aukera berdintasunerako heziketarekin nahasten zuen heziketa ereduaren planteamendu tradizionalak zalantzan jartzen. M<sup>a</sup> Elena Simón Rodríguezek (2006) adierazten duenez, kasu gehienetan “berdintasunaren ideia uniformizatzailea gogoan izanik hezten da, baina ez berdintasunean ezta berdintasunerako ere.” Hala, kasurik onenean, kontraesan handiak izaten dira curriculum formalaren eta ezkutuko curriculumaren artean, zeinean nagusi den gizonezkoen ereduari atxikitako baloreak gailentzen diren, adibidez lehiakortasuna, anbizioa, leialtasun itunak, arriskuaren cultura, etab. “Mendean arlo *privatua* (gaizki deitua) emakumezkoen balore, jarrera eta ezagutza moduan kontzeptualizatutakoa eta barnertutakoa ez da eskolan irakasten ez ikasten”, kanpoan geratzen da “atxikimenduen, emozioen eta sentimenduen” munda (98-99. or.).

## Saiakera

- *Mujeres en pie de paz*, Carmen Magallón Portolésena. Ediciones Siglo XXI, 2006.

Liburu horretan adierazten denez, emakumeak ez dira gizonak baino hobeak ezta gizonak baino baketsuagoak, baina, hala ere, beti izan dute zer esan handia, eta dute, bakearen eraikuntzan. Virginia Woolfek aipaturiko harriduraren lekutik, kasu honetan arrazionaltasun belikoarengandik urrun, emakume pentsalariak eta ekin-tzaileak beti saiatu ziren munduari gerraren erokeriaz ohartarazten. Emakume horiek darabiltzaten baliabideak ez dira soilik talde antolatuetara mugatzen. Emakume askoren eguneroko lana ere hartzen dute, bizitzari eusteko ezinbestekoa dena. Egungo mundu globalizatuan indarrean den metaketa ekonomikoaren logikaren aurrean, beren lanaren eta munduko beste giza taldeen lanaren muinean dagoen bizitzaren jasangarritasunaren logika gizateriaren biziraupenerako beharrezko alternatiba moduan altxatzen da. Liburuan, egileak feminismo bakezalearen zenbait praktika eta proposamen jasotzen du, I. Mundu Gerran emakumeek gatazkari irtenbide negoziatu bat emateko eginiko mobilizazioetatik hasita, gaur egungo ekimenak arte, gatazka armatuko zonaldeetan nahiz zonalde horietatik kanpo. Borroka horietako asko patriarkatu belikoak eta gizartearen komunikazio dinami- kak kondentatzen dituen ikusezintasunetik erreskatzeaz gain, Carmen Magallónek meritu handia du, izan ere, aukera bakezaleak mugimendu feminista globalaren baitan eragin dituen eta eragiten dituen printzipioen eta eztabaiden azterketa sakona egitea planteatu du.

- *Las mujeres y las guerras*, Mary Nashena eta Susana Taverarena. Ediciones Icaria, 2003.

Gerrak betidanik kezkatu ditu emakumeak, eta emakumeek beti aldarrikatu dute ozenki gerraren aurkako beren jarrera, nahiz eta gehienetan beren protestek oihartzun han- dirik ez duten izan erabaki publikoak hartzen diren esparruetan. Hori horrela izan den arren, historiak ez die arreta berezirik jarri gatazka armatuko une ezberdinei. Liburu horrek gerrek ekarritako dinamika publiko eta sozialak hobeto ezagutzeko aukera ematen digu, bai emakumeen ikuspegitik bai genero harremanen ikuspegitik. Liburuak hainbat ekarpen egiten du, Erdi Arotik hasita Aro Garaikideraino, eta gerra garaietan emakumeek eskuratutako protagonismo soziala azpimarratzen du. Begirada historio- grafiko anitzen lekukotzak jasotzen ditu, guztiak ere emakumeen borroka gaitasun berriak eta erresistentzia belikorako gaitasunak eragindakoak.

- *Los ejércitos humanitarios y la violencia sexista militar* Gasteizkoak kolektiboarena.

Argialetxea: Zapateneo, Paperezko ZAPladak Bilduma, 2008. Gasteizkoak kolekti- boak urteak daramatza antimilitarismoari buruzko gaiak jorratzen, hain zuzen ere, gastu militarrek jorratzen. Txosten ugari argitaratu dute Euskal Autonomia Erkidegoko eta espainiar estatuko armagintza industriari buruz. 2003an argitaratu- tako *La abominable cara oculta de los ejércitos humanitarios* izenburuko txostena- rekin, lanerako tresna bat eman nahi izan zioten mugimendu antimilitaristari –egi- tate zehatzak salatuz- militarismo ustez gizakoiaren aurka egiteko. Lan hori egin zutenean, konturatu ziren giza laguntzarako soldadu horiek eginiko delitu eta

barrabaskeria ugarien artean bazela bat besteak baino gehiago errepikatzen zena: sexu indarkeria. Kasko urdinek eginiko delituen aurrean agintarien politika “zero tolerantziakoa” izan bada ere, kontua da kasu berriak agertzen jarraitzen dutela etengabe, eta horrek argi eta garbi agerian uzten du balore militaristetan oinarritutako gizonzokotasunak emakumeen giza eskubideengan duen eragina, armaden barruan zein kanpoan.

## Literatura

- *Nosotras que perdimos la paz* (liburua+DVD) Llum Quiñonerorena.

Argitaletxea: Foca, 2005. *Nosotras que perdimos la paz* izenburuko liburuak gerra zibilaren eta gerra osteko unerik latzenak galtzaileen aldean eman zituzten lau emakumeren historia kontatzen du, bere ahotsetan. Espetxeko eta erbesteko historiak, gatazkarenak, ausardiazkoak, galdutako eta aurkitutako amodioenak, saminarenak eta borrokarenak, gerra pairatu zuten amen zorigaitzarena, frankismoak eta barne erbesteak urteetan isilarazitako zorigaitzarena. Lana egileak berak Laz telebista katearen La Noche Temática saiorako egin zuen *Mujeres del 36* izenburuko errepor-tajearekin osatzen da.

- *La casa de las alondras*, Antonia Arslanena. Ediciones Lumen, 2006.

Eleberrri hau 1915ean hasten da, eta jorratzen duen gai nagusia armeniarren genozidioa eta ihesaldia dira, goseak, egarriak eta heriotzetik nahiz duintasun ezatik salbatzeko familia bateko emakumeen gogo etsiak markatua. Hiru neskek eta mutiko batek soilik lortuko dute Italiara heltzea. Bertan, nesketako bat, Yerwant, besteen etorkizuna bermatzeaz eta familiaren memoria zaintzeaz arduratuko da. Oroitzapen horiekin, bere biloba Antoniak *La casa de las alondras* liburuak idatzi du, biktimen oinazeaz hitz egiten duena, baina baita historiako gertakari lazgarrietako bat saihesteko aukera izan eta ezer egin nahi izan ez zuenaren lotsaz ere.

- *En el tiempo de las mariposas*, Julia Álvarezena.

Argitaletxea: Alfaguara-Grupo Santillana, 2000. 1960ko azaroaren 25ean hiru neskatxaren gorpuak aurkitu zituzten dominikar kostaldeko harkaitzetan. Bertsio ofizialaren arabera, istripu bat izan zen, eta egunkari batek ere ez zuen gertatukoaren egia argitaratu: Mirabal ahizpak, Trujillo generalaren indarkeriazko erregimen diktatorialaren aurka borrokatzen ziren. Laugarren ahizpak, Dedé-k, beren borrokaren historia miresgarria kontatzen du magiaz eta imajinazioz beteriko eleberrian.

- *Persépolis*. Satrapi, Marjane. Argitaletxea: Norma, 2007ko apirila.

Marjane Satrapi iraniarrak bere autobiografia idazten du eleberrri grafiko honetan. Kontakizuna neskatxa zela hasten da, harik eta emakume egiten den arte Iranen eta Iraken arteko gatazkaren erdigunean. Gerora, komiki hori oinarri moduan hartu zen marrazki bizidunetako film bat egiteko. Filmak emakumeek hainbat egoeratan pairatzen dituzten egoerak salatzen ditu, batez ere giza eskubideen errepresio egoeretan eta emakumeen eskubideen errepresio egoeretan.

## Filmak

- *Grbavica: el secreto de Esmá*. Zuzendaria eta gidoilaria: Jasmila Ćbanić.

Herrialdeak: Austria, Bosnia-Herzegovina, Alemania eta Kroazia. Urtea: 2006. Historia hau Sarajevon gertatutakoa da, Grbavica auzoan. Esmá-k (Mirjana Karanović) hamabi urteko bere alaba Sarak (Luna Mijović) ikastetxeak antolatutako bidaia batean parte hartzeko aukera izan dezala nahi du. Nahikoa litzateke bere aita gerran martiri hil zela baieztatzen duen egiaztagiria bidaia prezio erdian egiteko, baina Sarak egiaztagiriarengatik galdetzen dionean Esmá-k ez entzunarena egiten du. Dirudienez, nahiago du edozein gauza egitea dirua batzeko eta bidaiaren prezioa ordaintzeko. Sinestuta dago alabari egia esaten ez badio bere burua eta alabarena babestuko dituela. Film honetan Balkanetako gerran bortxatuak eta torturatuak izan ziren emakumeen bizipen latzak kontatzen dira. Urteak geroago, gertakari horiek beraiei eta beren familiei eragin dizkieten zauri psikologikoei eta estigma sozialari aurre egiten jarraitzen dute, bortxaketetatik jaiotako seme alabak barne.

- *Buda explotó por vergüenza*. Zuzendaria: Hana Makhmalbaf. Herrialdea: Iran. Urtea: 2007.

Talinbandarrek birrindu zuten Budaren estatuaren azpian, oraindik milaka familia bizi da. Baktay-ri, sei urteko neska afgandarrari, auzokoen semeak eskolara joan behar duela esaten dio. Auzokoen semeak alfabetoak irakurtzen ditu bere haitzuloaren aurrean. Eskolara bidean, mutiko batzuek jazarri egiten dute modu krudelean, jolasean, inguraten dituen indarkeriazko gizartearen isla. Mutikoen harriak jaurti nahi dizkiote Baktay-ri edo birrindu Budarekin egin antzera. Filmak kontatzen du nola bilatzen duen oztopo horiek gainditzea alfabetoak bere ama hizkuntzan ikasi ahal izateko.

- *Lemon tree (Los limoneros)*. Zuzendaria: Eran Riklis. Herrialdeak: Israel, Alemania eta Frantzia. Urtea: 2008.

Salmak (Hiam Abbass), alargun palestinar batek, Israelgo Defentsa Ministroaren aurkako borroka bat hasia erabakitzen du ministroaren etxea bere limoiondoen mugakide delako, Israelen eta Okupatutako Lurraldeen arteko mugan. Poliziak berehala erabakitzen du Salmaren zuhaitzak benetako mehatxua direla Defentsa Ministroarentzat eta bere familiarentzat, eta horrenbestez, zuhaitzok inautzea agintzen du. Baina, Salmak, bere zuhaitzak eta bizitza salbatzeko borrokatzea erabakitzen du.

## Dokumentalak

- *Madres*. Zuzendaria: Eduardo Félix Walger. Herrialdea: Argentina. Urtea: 2007.

“Madres de Plaza de Mayo Línea Fundadora”ko hamazazpi amaren kontakizunak diskurtso kolektibo bat eratzen du, hain zuzen ere, mundu hobe bat lortu nahian Estatuko terrorismoak bortizki zanpatutako belaunaldi baten diskurtsoa. Elkarrizketatutako artean 1977an diktaduraren aurka altxatu zen jatorrizko talde-tik bizirik geratzen diren lau kideak daude. Dokumentalean Maiatzaren Plazako ema-

kume guzti horien borroka azaltzen da beren seme alaben oroitzapena ez galtzeko eta zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko. Egungo eta 70eko hamarkadako leku-kotzetatik eta filmaketetatik abiatuta, ikus daiteke nola emakume talde hura borrokatzen jarraitzen duen giza eskubideen alde, justiziaren alde, berdintasunaren alde zein gizarte integrazioaren alde.

- *Mujeres en pie de guerra*. Zuzendaria eta gidoilaria: Susana Koska. Herrialdea: Espainia. Urtea: 2004.

Espainiako gerra zibila hasi eta Francoren heriotzera arte faxismoaren aurka borrokatu ziren zazpi emakumeren ahotsak dira: Sara Berenguer, María Salvo, Rosa Laviña, Rosa Díaz, Neus Catalá, Teresa Buígues, Carme eta Merçona Puig Antich. Beren esperientziek historia ez ofiziala osatzen dute, historia liburuetan ageri ez dena.

- *Activistas. Feminismo activo más allá del género*. Zuzendaria eta gidoilaria: Carmen F. Sigler. Grabazio herrialdeak: Espainia, Kenia, Pakistan, Afganistan, Israel/Palestina, India, Serbia.

Bost emakumeren kontakizunak. Modu ia ezezagunean eta munduko hainbat txoko ezberdinetatik, feminismoa eta mugimendu bakezalea ulertzeko modu berriak eta iraultzaileak ematen dizkigute. Anitzak diren arren, guztiek bideratzen dituzte euren ekintzak helburu unibertsal berberetara, maila pertsonalean eta tokiko keinu politiko txikietan oinarrituta. Ekintzaileak: Marian Rawi (Afganistan, Revolutionary Association of the Women of Afghanistan elkartekoa, RAWA); Corinne Kumar (India, Emakumeen Auzitegiei buruzko egitasmo bat); Stasa Zajovic (Belgradeko Beltzez Jantzitako Emakumeak); Gila Svirsky (Tel Aviv-eko Beltzez Jantzitako Emakumeak); eta Wangari Maathai (Gerriko Berdearen mugimendua Kenian, Bakearen Nobel Saria).

## Bake hezkuntzarako eta baloreetan hezteko webguneak

- EDUALTER. Bake hezkuntzarako, garapenerako eta kultur aniztasunerako baliabide sarea: [www.edualter.org/index.htm](http://www.edualter.org/index.htm)

Bake hezkuntzarako, garapenerako eta kultur aniztasunerako baliabideak biltzen dituen webgunea. Materialetarako, zinerako, eta bibliografiarako atal bereziak ditu, baita gai horiekin loturiko pertsonen helbidetegi bat ere. Material didaktikoetan atal berezi bat gorde diote genero ikuspegiari, eta zine atalean, bakeari buruzko ikus entzunezko bloke batez gain, beste atal bat sartu dute sexu eta birsorkuntza eskubideei buruz.

- EDUCARUECA: [www.educarueca.org](http://www.educarueca.org)

Militarizazio sozialaren eta armatuaren eraginez kezkaturik dauden hezitzaileak dira. Horregatik, eragin horiek gure gizartetik ezabatzeko eta alternatiba berriak asmatzeko tresnak bilatzen dabilta, tresna horiek aztertzen, sortzen eta zabaltzen. Generoari eta militarizazioari buruzko atal bereziak dituzte.

- Educación en valores, Educación para el Desarrollo.

Elkartasunaren eta hiritartasunaren aldeko heziketa mundu global batean: [www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org) Baloreetan hezten duten eta Garapenerako Hezkuntza diharduten irakasleentzako lanabesak, informazioa eta orientazioa biltzen dituen webgunea. Bake hezkuntzari buruzko atal berezi bat dute, ekimenekin, material didaktikoekin eta gogoetarako testuekin. Eta webgune beretik [www.educandoenigualdad.com](http://www.educandoenigualdad.com)-era sar daiteke, hezikidetzan aritzen diren irakasleentzako material zehatzekin.

- Escola de Cultura de Pau: [escolapau.uab.cat](http://escolapau.uab.cat) 1999an sortu zen.

Bere helburuen artean honako hauek daude: bake kulturaren alde egitea, giza esku-bideen alde egitea, gatazken eta bake prozesuen azterketa egitea, bake hezkuntza eta desarma bultzatzea, eta gatazka armatuak prebenitzea. Webguneak informazio anitza du gatazkei eta bakeari buruz. Azpimarratzekoa da gatazkei eta bake erai-kuntzari buruzko datu basea eta bere on line liburuak, emakumeen egoera zehatzari buruzko zenbait dokumenturekin.

- Bake hezkuntzarako Paula ataria: [www.observatori.org/paula/castellano](http://www.observatori.org/paula/castellano)

Bake kulturaren begiradatik irakasleen heziketa lanari babesa emateko sorturiko webgunea. Generoari buruzko atal berezi bat du, kopuruak, mapak eta baliabide didaktikoak biltzen dituena. Eskuragarri dauden dokumentuen artean, batzuk gatazka egoeretan bizi diren emakumei eta bakearen erai-kuntzari buruzkoak dira.

- CEIPAZ. Centro de educación e investigación para la paz: [www.ceipaz.org](http://www.ceipaz.org)

CEIPAZek, Bakerako hezkuntza eta lkerketa Zentroak, gatazken, garapenaren eta hezikuntzaren arteko harremanari buruzko azterketa eta zabalkundea egiten du diziplina aniztun ikuspegi batetik. Nazioarteko sisteman dauden joera nagusiak aztertzen ditu eta Bake hezkuntza eta Garapenerako Hezkuntza bultzatzen ditu. Webgunean baliabide eta ekimen ugari aurki dezakegu. Ekimenei dagokienez, azpimarratzekoa da “1325 mujeres tejiendo la paz” izeneko egitasmoa ([www.1325mujerestejiendolapaz.org](http://www.1325mujerestejiendolapaz.org)).

- Seminario Gallego de Educación para la paz: [www.sgep.org](http://www.sgep.org)

Bake hezkuntzari buruzko Mintegi Galiziarra 1985ean jaio zen mintegi iraunkor moduan, irakaskuntza maila ezberdinetako profesionalek bultzaturik (eskolaurretik hasita unibertsitateraino), hain zuzen ere, bake hezkuntzaren gaineko gogoeta teorikoak egiteko eta arlo horretan falta ziren materialak prestatzeko, batik bat giza eskubideei buruzkoak, tolerantziari buruzkoak, elkartasunari buruzkoak, ekobakezaletasunari buruzkoak gatazkek eraldatzeari buruzkoak edota bake kulturari buruzkoak. Webgunean argitalpen ugari aurki daiteke, eta interesgarri suerta daitezkeen gida didaktikoen zerrenda bat.

## Erakundeak

Jarraian, gida labor honekin amaitzeko, egunez eguneko filosofiarekin eta lanarekin atal honetan jasotako gogoeta gehienak egin dituzten erakunde feminista eta bakezale ba-

tzuk aipatuko ditugu. Batzuk jaso ditugu, baina beste horrenbeste utzi ditugu aipatu gabe. Bihoa horientzat ere gure miresmena. Bakarrik esan espero dudala aipamen labur hauek feminismoaren eta mugimendu bakezalearen artean batasunak eratzea helburu duten beste erakunde eta egitasmo asko bilatzera animatuko zaituztela.

- Beltzez jantzitako emakumeen nazioarteko sarea.

Beltzez Jantzitako Emakumeak 1988an jaio ziren Israelen, emakume judutar batzuk Jerusalemgo kaleetara atera zirenean palestinarren lurraldeen okupazioari “ez” esateko. Ondoren, 1991n, ekintzaile italiar emakumezkoak judutarren eredu jarraitu eta Italiak Golkoko I. gerran parte hartzearen kontra protestatu zuten. Handik, mobilizazioa Jugoslavia ohia osatzen zuten herrialdeetara pasa zen, non Belgraden, Beltzez Jantzitako Emakumeak talde moduan antolatzen hasi ziren Balkanetako gerran aurka protestatzeko, “Ez gure izenean” aldarrikatuz. Beltzez Jantzitako Emakumeen Nazioarteko Sarea beste herrialde eta kontinenteetara hedatu zen. Filosofia feminista, bakezale, antimilitarista eta antinazionalista batekin, taldeko kideak inguratzen gaituen eta bereziki emakumeoi eragiten gaituen kultura belizista desmitifikatzeko eta desegiteko borrokatzen dira. Beltzez Jantzitako Emakumeen webguneak:

- Nazioartekoa: [wib.matriz.net/](http://wib.matriz.net/)
- Madrilen: [www.mujerpalabra.net/activismo/mdnmadrid/](http://www.mujerpalabra.net/activismo/mdnmadrid/)
- Belgraden: [www.zeneucrnom.org](http://www.zeneucrnom.org)
- Ingalaterran: [www.womeninblack.org/en/about](http://www.womeninblack.org/en/about)
- Coalition of Women for Peace: [coalitionofwomen.org](http://coalitionofwomen.org)

Bakearen aldeko Emakumeen Batasunak bigarren intifadaz geroztik (2000. urtean) elkarrekin lan egiten duten emakume erakundeak eta erakunde bakezale feministak batzen israeldarrek palestinar lurraldeetan burutako okupazioaren aurka egiteko. Bakearen aldeko mugimenduaren ahots nagusietakoa bilakatu da lurraldean. Batasuna erakunde hauek osatzen dute: Beltzez Jantzitako Emakumeak, Bat Shalom, The Fifth Mother, eta New Profile.

- Gerrarekiko erresistenteen nazioarteko erakundea: [www.wri-irg.org](http://www.wri-irg.org)

1921ean sortua, Gerrarekiko Erresistenteen Nazioarteko Erakundea (gaztelaniazko laburduran IRG) jarraian datorren adierazpena sinatu zuten erakunde, talde eta norbanakoen sarea da: *Gerra gizateriaren aurkako krimena da. Horregatik, hitz ematen dut ez dudala inolako gerrarik babestuko, eta gerra eragiten duten kari guztien aurka borrokatuko naizela*. IRGren xedea gerraren aurkako ekintza bultzatzea da, bai eta mundu osoan gerran parte hartzeari uko egiten dion pertsona oro elkarrekin harremanetan jartzea. Gaur egun 40 herrialdeetako 70 taldetik gora osatzen dute erakundea. Azken hamabost urteetan, generoaren gaia oso gai eztabaidatua izan da egi dituzten nazioarteko zenbait ekitalditan.

- Bake emakumeak. Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Liga: [www.peacewomen.org](http://www.peacewomen.org)

*PeaceWomen.org* Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Liga da, eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 ebazpenaren aplikazio osoa eta berehalakoa eskatzen du.

- Berradiskidetzearen aldeko Nazioarteko Mugimendua: [www.ifor.org](http://www.ifor.org)

BNM (gaztelaniazko laburduran MIR), nazioarteko beste sare bakezale nagusietako bat da, 1919an sortua I. Munduko Gerrak eragindako saminari aurre egiteko. IRGren antzera, kontinente ezberdinetako 48 herrialdetan ditu elkarte kideak. MIR mugimenduaren aburuz, emakumeen parte hartzerik gabe ez dago garapenik, eta emakumeak kontuan hartu gabe ez dago bakea lortzerik. Horregatik, 1997an Bakea Eraikitzearen aldeko Emakumeak izeneko programa abiatu zuen (Women Peacemakers Program, [www.ifor.org/wpp](http://www.ifor.org/wpp)) bakearen alde lan egiten diharduten emakumeen ekimenak babestu eta sendotu asmoz.

- Emakumezkoen Erakunde Herritarra, Kolonbia: [www.ofp.org.co](http://www.ofp.org.co)

Erakundearen lan esparruetako bat gerraren aurkako eta bakearen aldeko Emakumezkoen Mugimendu Herritarra antolatzea da. Mugimenduak gerraren aurka eta bakearen alde politikoki identifikaturik lan egiten duten emakumeen oinarrizko prozesuen apustu politikoak egituratzen ditu toki mailan, lurralde mailan nahiz nazio mailan. Emakumezkoen Erakunde Herritarra (gaztelaniazko laburduran OPF) 50 erakunde baino gehiagoz osaturik dago, eta jatorri ezberdinetako emakumeen adierazpenak jasotzen ditu erakundea dinamizatzeko, mobilizazioa bultzatzeko, salaketak egiteko, exigentziak plazaratzeko eta kolektiboki eragiteko Kolonbiako gatazka egoera zailean bizi diren emakumeengan sozialki eta politikoki eragitea lortuz.

- Emakumeen Ibilbide Baketsua, Kolonbia: [www.rutapacifica.org.co](http://www.rutapacifica.org.co)

Kolonbian lan egiten duen mugimendu feminista bat da eta bere helburuen artean honako hauek daude: gatazka armatuari irtenbide negoziatua ematea, gerrak emakumeen bizitzan eragiten dituen ondorioak ezagutzera ematea, Egia ezagutzeko eskubidea izatea, Justizia egitea, kalteen ordaina jasotzeko eskubidea izatea, eta memoria historikoa berridaztea bai indibidualki bai kolektiboki. Ibilbide Baketsua 300 erakundek baino gehiagok osatzen dute, bederatzi lurralde ezberdinetakoak.

- RAWA, Afganistango Emakumeen Elkarte Iraultzailea: [www.rawa.org](http://www.rawa.org)

Kabulen sortu zen, Afganistanen, 1977an, Afganistanen giza eskubideen eta justizia sozialaren alde borrokatzen zen emakumezkoen erakunde politiko independente bezala.

## 5. Bibliografia

Amorós, Celia (2005). *La gran diferencia y sus pequeñas consecuencias... para las luchas de las mujeres*. Colección Feminismos, Ediciones Cátedra, Madril.



- Amorós, Celia eta Ana de Miguel, Argitaratzaileak. (2005). *Teoría feminista: de la ilustración a la globalización, 1. alea: de la Ilustración al segundo sexo*. Minerva Ediciones, Madril.
- Argibay, Miguel, Gema Celorio eta Juanjo Celorio (2009). *Educación para la Ciudadanía Global. Debates y desafíos*. HEGOA, UPV/EHU, Bilbao.
- Bedregal, Ximena (2006). “Virginia Woolf y su vigente análisis sobre la guerra”. *Insurgente* aldizkarian argitaratua, eskuragarri Tortuga, Grupo Antimilitarista Elx-Alacant webgunean: [www.nodo50.org/ortuga/virginia-woolf-tres-guineas](http://www.nodo50.org/ortuga/virginia-woolf-tres-guineas)
- Bosch, Anna, Cristina Carrasco eta Elena Grau (2003). “Verde que te quiero violeta. Encuentros y desencuentros entre feminismo y ecología”. Non: *La historia cuenta. Del crecimiento económico al desarrollo humano sostenible*, Enric Telló-rena, El Viejo Topo, Madril, 329-346. orr.
- Blanchard, E. (2003), “Gender, International Relations and the Development of Feminist Security Theory”. Non: *Journal of Women in Culture and Society*, 28. alea (4), University of Chicago.
- Brock-Utne, Birgit (1985). *Educating for Peace, a Feminist Perspective*. The Athene Series, Pergamon Press, New York.
- Brock.Utne, Birgit (1988). “The Development Of Peace And Peace Education Concepts Through Three UN Women Decade Conferences”. Non: Alger Chadwick and Michael Stohl, argitaratzaileak: *A Just Peace Through Transformation*, Westview Press, Boulder, 170-189. orr.
- Cavana María Luisa, Alicia H. Puleo eta Cristina Segura, koordinatzaileak. (2004). *Mujeres y Ecología: Historia, Pensamiento, Sociedad*. Asociación Cultural Al-Mudayna, Madril.
- Cockburn, Cynthia (1998). *The Space Between Us. Negotiating Gender and Nacional Identities in Conflict*. Zed Books, London.
- Cockburn, Cynthia (2007). *From Where We Stand. War, Women’s activism and Feminist Analysis*. Zed Books, London.
- Gasteizkoak Kolektiboa (2008). *Los “ejércitos humanitarios” y la violencia sexista militar*. Zapateneo, Vitoria-Gasteiz.
- Comins, Irene (2004). “Ética del cuidado”, Non: López Martínez, Mario: *Enciclopedia de Paz y Conflictos*, Granada, Eirene.
- Comins, Irene (2006). *La Ética del Cuidado como Educación para la Paz*, Jaume I Unibertsitatean (Castelló) aurkeztutako doktorego tesia. Eskuragarri: [www.tdx.cesca.es/TDX-0223106-115339/](http://www.tdx.cesca.es/TDX-0223106-115339/)
- Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua (2000). 1325 Ebazpena, urriaren 31koa.
- Curle, Adam (1973). *Education for Liberation*, J.Wiley, New York.

- Diez , Elena eta M<sup>a</sup> Dolores Mirón (2004). “Una paz femenina”, Non: Molina Rueda, Beatriz eta Muñoz, Francisco A: *Manual de Paz y Conflictos*, Granada, Eirene.
- Dios Diz, Manuel (2009). “La educación y la cultura de la paz: el currículum de la noviolencia”. Non: *Tiempo de Paz*, 92. zk. , 21-31. orr.
- Domínguez Domínguez, Teresa et al. (1996). *Comportamientos no-violentos: propuestas interdisciplinarias para construir la paz*. (3 volúmenes). Narcea S.A. de Ediciones, Madril.
- Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer (2008). *Los Hombres, la igualdad y las nuevas masculinidades*. Emakunde, Vitoria-Gasteiz.
- Enloe, Cynthia. (1988), *Does Khaki Become You? The Militarization of Women’s Lives*, Pandora Press, London.
- Enloe, Cynthia (1989). *Bananas, Beaches and Bases. Making Feminist Sense of International Politics*. Pandora, London.
- Enloe, Cynthia. (1993), *The Morning After. Sexual Politics at the end of the Cold War*, University of California Press.
- Feminism and Nonviolence Study Group (1983). *Piecing it Together: Feminism and Nonviolence*. London.
- Fisas, Vicenç (1998). *Cultura de paz y gestión de conflictos*. Antrazyt-UNESCO, 117. zk., Icaria, Bartzelona.
- Galtung, Johan (1969). “Violence, Peace and Peace Research”. Non: *Journal of Peace Research*, 6. alea, 3. zk., 167-191. orr.
- Galtung, Johan (2003). *Paz por medios pacíficos. Paz y conflicto, desarrollo y civilización*. Bakeaz – Gernika Gogoratuz, Bilbao, Gernika-Lumo.
- Grasa, Rafael (2000). Evolución de la Educación para la paz, la centralidad del conflicto para la agenda del siglo XXI. Non: *Cuadernos de Pedagogía*, 287. zk., 52 56. orr.
- Harris, Ian (2002). Conceptual Underpinnings of Peace Education. Non: *Peace Education. The Concept, Principles, and Practices around the World*. Edited by Gavriel Salomon eta Baruch Nevo, Lawrence Erlbaum Associates, New Jersey, 15 25. orr.
- Hicks, David, koord. (1993). *Educación para la paz. Cuestiones, principios y práctica en el aula*. Ediciones Morata, Madril.
- Jares, Xesús R. (1988). *Educar para la paz*. Concello de Santiago, Papeis de educación, 9. zk, Santiago de Compostela.
- Jares, Xesús R. (1996). “O nacemento e significado da educación para a paz”. Non: Xesús R. Jares (Coord), *Construír a paz, cultura para a paz*, edicións Xerais, 1996, Vigo, 249-255. orr.
- Jares, Xesús R. (2004). *Educar para la paz en tiempos difíciles*, Bakeaz, Bilbao.

- Jones, Lynne, Ed. (1983). *Keeping the Peace. Women's Peace Handbook*, The Women's Press, London.
- Junor, Beth (1995). *Greenham Common Women's Peace Camp: A History of Non-Violent Resistance 1984-1995*. Working Press, London.
- Lederach, John Paul (1983). *Educar Para La Paz*. Editorial Fontamara, Bartzelona.
- Lederach, John Paul (1998). *Construyendo la paz: Reconciliación sostenible en sociedades divididas*. Gernika Gogoratuz/Centro de Investigación por la Paz. Gernika.
- Maalouf, Amin (2004). *Identidades asesinas*. Alianza Editorial, Madril.
- Mendia Azkue, Irantzu (2009). "Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz". Non: *Cuadernos de Trabajo de Hegoa*, 48. zk. UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Mesa Peinado, Manuela (2000). "La educación para la paz en el nuevo milenio". Non: *Papeles de Relaciones Internacionales*, 72. zk., 107-122. orr.
- Muñoz, Francisco A. (2001). *La paz imperfecta*. Eirene Bilduma, Argitaletxea: Granadako Unibertsitatea.
- Muñoz, Jairo eta Fabio Alonso Meza (2004). "Educación popular y educación para la paz en Colombia: herramientas para transformar el conflicto". Non: *Papeles de Relaciones Internacionales*, 88. zk., 75-83. orr.
- Nash, Mary eta Susanna Tavera, argitaratzaileak. (2003). *Las mujeres y las guerras. El papel de las mujeres en las guerras de la Edad Antigua a la Contemporánea*. Antrazyt 189, Icaria, Bartzelona.
- Panhurst, Diana eta Jenny Pearce (1998). "Engendering the Analysis of Conflict: A Southern Perspective". Non: AFSHAR, H. (ed.), *Women and Empowerment. Illustrations from the Third World*, Routledge, 155-163. orr.
- Reardon, Betty (1993). *Women and Peace*. State University of New York Press, Albany.
- Roseneil, Sasha (1995). *Disarming Patriarchy. Feminism and Political Action at Greenham*. Open University Press, Buckingham.
- Ruddick, Sara (1989). *Maternal Thinking: Toward a Politics of Peace*, The Women Press, London.
- Salomón, Gavriel (2002). "The Nature of Peace Education: Not All Programs are Created Equal". En: *Peace Education. The Concept, Principles, and Practices around the World*. Edited by Gavriel Salomon eta Baruch Nevo, Lawrence Erlbaum Associates, New Jersey, 3-13. orr.
- Seminario de Educación para la Paz (1990). *Educar para la paz, una propuesta posible*, Madril.
- Simón Rodríguez, M.<sup>a</sup> Elena (2003). "Sabía usted que la mitad de alumnos son ciudadanas?". Non: *Ciudadanía, poder y educación*, Jaume Martínez Bonaferena (koordinatzailea), Biblioteca de aula 188, Graó Argitaletxea, Bartzelona, 89-112. orr.

- de Sousa Santos, Boaventura (2002). "Para uma sociologia das ausências e uma sociologia das emergências". Non: *Revista Crítica de Ciências Sociais* 63. 2002ko urria- 237-280. orr. Zati baten gaztelaniazko itzulpena: Las feministas y el sociólogo, Cotidiano Mujer Aldizkaria, 39. zk., 2003. Eskuragarri: [www.cotidianomujer.org.uy/](http://www.cotidianomujer.org.uy/)
- Tamayo, Juan José. (2006). "Reseña del libro de Boaventura de Sousa Santos. El milenio Huérfano. Ensayos para una nueva cultura política". Madril, Trotta, 2005. Non: *Revista Crítica de Ciencias Sociales*, 74. zk., 145/150. orr. Eskuragarri: [www.ces.uc.pt/publicacoes/rccs/Recensoes\\_revcriticas/recensoesrccs74](http://www.ces.uc.pt/publicacoes/rccs/Recensoes_revcriticas/recensoesrccs74)
- Tuvilla Rayo, José (1990). *Derechos humanos. Propuesta de educación para la paz basada en los derechos humanos y del niño*. Andaluziako Junta, Hezkuntza eta Zientzia Sailburutza, Sevilla.
- Valcárcel, Amelia (2004). *La política de las mujeres*. 3. argitalpena. Feminismos Bilduma, Ediciones Cátedra, Madril.
- UNITED NATIONS (2005). *Fact and Figures on Women, Peace and Security*.
- Vázquez, Norma; Cristina Ibáñez eta Clara Murguialday (1996). *Mujeres-Montaña. Vivencias de guerrilleras y colaboradoras del FMLN*. Madril: Horas y Horas.
- Vázquez, Norma, (2000). *Las Mujeres Refugiadas y Retornadas*, Publicidad Ramos.
- Vickers, Jeanne (1993). *Women and War*. Zed Books, London.
- Warren, Karen, argitaratzailea. (2003). *Filosofías ecofeministas*. Ecología Humana Bilduma, Icaria, Bartzelona.



